

**JUSTIZIA,
EGIA,
ERREPARAZIOA**

biktimen eskubideetatik
gizartearen zereginetara

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

LEHENDAKARITZA

PRESIDENCIA

JUSTIZIA, EGIA, ERREPARAZIOA

biktimen eskubideetatik
gizartearen zereginetara

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

LEHENDAKARITZA
Bakegintza eta Bizikidetzarako
Idazkaritza Nagusia
Biktimen eta Giza Eskubideen Zuzendaritza

PRESIDENCIA
Secretaría General
para la Paz y la Convivencia
Dirección de Víctimas y Derechos Humanos

Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia

Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco

VITORIA-GASTEIZ, 2014

Lan honen bibliografia-erregistroa Eusko Jaurlaritzaren *Bibliotekak* sarearen katalogoan
aurki daiteke: <http://bibliotekak.euskadi.net/WebOpac>

Argitaraldia: 1.a, 2014ko azaroa
Ale-kopurua: 250 ale
© Euskal Autonomía Erkidegoko Administrazioa
Lehendakaritza. Bakegintza eta Bizikidetzarako
Idazkaritza Nagusia. Biktimen eta Giza Eskubideen
Zuzendaritza
Internet: www.euskadi.net
Argitaratzailea: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia
Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco
Donostia-San Sebastián, 1 - 01010 Vitoria- Gasteiz
Egileak: Monika Hernando, Galo Bilbao Alberdi, Felipe Gómez Isa,
Xabier Etxebarria Mauleon, Xabier Etxebarria Zarrabeitia,
Ignacio Pérez Macías y Enrique Echeburúa
Traducción: IZO (Itzultzaile Zerbitzu Ofiziala)
Diseinua: Quod Sail
Inprimatzea: RGM inprimategia
Lege-gordailua: BI 1511-2014.

AURKIBIDEA

Aurkezpena, Monika Hernando	6
Sarrera, Galo Bilbao Alberdi	8
Egia, justizia eta erreparazioa giza eskubideen urraketa larri eta sistematikoak jasan dituzten biktimentzat, Felipe Gomez Isa	10
Ezagutzatik oroimenera, aitorpenetik igarota, Xabier Etxebarria Mauleon	30
Biktimagileen gizarteratzea, biktimen ikuspegitik, Xabier Etxebarria Zarrabeitia	40
Kalte-ordainetik gogobetetzera bide luzea, Ignacio Pérez Macías	56
Terrorismoaren biktimen jardunbide psikologikoa: traumatik trauma gainditzera, Enrique Echeburúa	92

AURKEZPENA

Monika Hernando

Etorkizunerantz begiratzea du bizi-lege eta bizirik irauteko lege giza izaerak. Hartara, gertaera traumatiko bakoitzaren ondotik —pertsona-, familia-, gizarte- zein politika-mailako—, komunitateek aurrerantz begiratzeko joera dute, jasandako trauma gainditu, kideen arteko bakeak egin, eta beharrezko direnak jartzeko gertatu denetik ezer berriro gerta ez dadin.

Berrogeita hamar urte baino gehiagoan terrorismoa, indarkeria eta giza eskubideen urraketa jasan eta gero, testuinguru berri batean gaude, zeinean euskal gizarteak aurrera egiten baitu bere bizikidetzaren normalizaziorantz. Aldaketa hori ikusita, egoki da hausnarketa egitea, aldaketak zer eragin izango duen biktimei aintzatespena eta erreparazioa emateko politika publikoetan.

Egoera horretan eta ikuspegi horretatik, *biktima eta gizartea ezari-ezarian elkarrengandik urruntzeko arriskua* ageri zaigu halako prozesuetan. Arrisku hori gutxitzeko, ezinbestekoa iruditzen zaigu denbora, ahalegina eta konpromisoa jartzea urruntze hori ekiditen saiatzeko, biktimek ikus dezaten gizarte-zentralitatearen parte direla.

Asmo horrekin, biktimek errealitate berri horren aurrean duten ustea edo iritzia gertuagotik ezagutu ahal izateko, Eusko Jaurlaritzaren Biktimen eta Giza Eskubideen Zuzendaritzatik ikerlan bat agindu genion Kriminologiaren Euskal Institutuari, hau hartuta helburu nagusitzat: terrorismoaren biktimen talde esanguratsu baten barruan, banan-banan aztertzea bakoitzak zer pertzepzio zuen bere egoera pertsonalari eta gizarte-egoerari buruz 2013. urtean.

Ikerketa hori egiteko, metodologia mistoa baliatu zuen IVAC-KREIk, datuak eskuratu eta aztertzeko teknika kuantitatibo zein kualitatiboekin. Hartara, bigarren mailako hainbat iturri arakatu zituzten (datu-baseak, arau-baseak, bibliografia, hemeroteca,...). Bigarrenik, galdera-sorta bat prestatu zuten, biktimei zuzendua, ikergaitzat hartuta biktimek gizarte-eragileengandik jasotako tratua bilakaera, eta, bereziki, biktimen jarrerak, biktimen inguruko eztabaida publikoa eta biktimen euren gizarte-kontribuzioa zirela eta. Azkenik, eztabaida-talde batzuk antolatu zituzten, eta lanean jardun zuten *Verdad, Justicia y Reparación: De los derechos de las Víctimas a las tareas de la Sociedad* (Egia, Justizia eta Erreparazioa: biktimen eskubideetatik gizartearen zereginetara) mintegiaren barruan, Donostian egin baitzuten 2013ko azaroaren 19an eta 20an.

Argitalpen honetan, beraz, aipatu mintegian parte hartzeko gonbita jaso zuten adituen hitzaldiak edo ponentziak biltzen dira. Goian adierazitako ikerketa-lanaren emaitzak, bere aldetik, argitalpen honetan daude jasota: ***Víctimas del terrorismo en la CAPV: Desazón y esperanza en víctimas indirectas de asesinatos. Año 2013*** (Terrorismoaren biktimak EAEn. Eraiketen zeharkako biktimen nahigabea eta esperantza. 2013. urtea).

Aurkezten ari naizen argitalpen honen helburua, hortaz, ez da azterlan horren ondorioak jasotzea (azterlana irakurtzea gomendatzen dut horretarako). Hala ere, gustatuko litzaidake aipatzea prozesu horretan parte hartu zuten biktimen hiru eskari funtsezko, zuzeneko zerikusia baitute liburu honi titulua ematen dioten hiru eskubideekin.

- *Egiarako eskubideari* dagokionez, protagonismo handiagoa eskatzen dute biktimek, eta balio berezia ematen diete euren lekukotasunei, memoria eraikitzeko ekarpen gisa.

- *Justiziarako eskubideari* dagokionez, inpunitatearen aurka borrokatzea eskatzen dute gehien-gehienek, baita eragin zaien kaltearen bidegabekeria aitortzea ere.

- *Ordainerako edo Erreparaziorako eskubideari* dagokionez, banan-banako tratu pertsonala eskatzen dute biktimek. Hau ere eskatzen dute: biktimei eta memoriari buruzko politika publikoetan parte hartzea.

Eusko Jaurlaritzaren Biktimen eta Giza Eskubideen Zuzendaritzatik gogoan hartu ditugu eskakizun horiek, bai eta beste batzuk ere, gure politika publikoak bideratzeko, eta lanean jarraituko dugu bermeak ematen, biktimen eskubideak errespetatu eta gauza daitezten: egiarako, justiziarako eta erreparaziorako eskubideak. Era berean, lanean jarraituko dugu, biktimekin, elkarteekin, erakundeekin eta gizartearekin batera, beharrezko diren bermeak jartzen, gertaturikoa berriz ere gerta ez dadin, gure seme-alabak giza duintasunaren errespetuan haz daitezten, pertsona guztien giza eskubideen errespetuan.

SARRERA

Galo Bilbao Alberdi

EAEEn bizi diren terrorismoaren biktimei zuzendutako mintegiaren lehenengo egunean aurkeztutako hitzaldiak jaso dira liburuki honetan. Mintegia 2013ko azaroaren 19an eta 20an egin zen Donostian, Eusko Jaurlaritzaren Biktimen eta Giza Eskubideen Zuzendaritzaren babesean “Egia, justizia eta erreparazioa: biktimen eskubideetatik gizartearen zereginetara” izenburupean.

Sarrera honetan, labor bada ere, txosten hauek egiteko zer barne-logika erabili den azaltzea egokitzen da, eta, bide batez, eduki nagusiak eta egileak aurkeztuko ditugu.

Biktimak agerian jarri behar direla gure errealitateko gertaera ukaezin bat da; errealitate horrek hamaika egoera eta ondorio zehatz ditu, gehienak positiboak, baina ez guztiak. Azken horietan, negatiboetan edo nabarmen hobetu daitezkeenetan gelditu nahi dut, labor bada ere; horietako pare batean, alegia; elkarrekin erlazonaturik daude, gainera.

Alde batetik, geroz eta kezkarriagoa da, bai niretzat behintzat, egiaztatzea biktimen eta gizartearen arteko erlazioa, oraindik orain, bi solaskide oso zehatzen bidez izaten dela; biak baliozkoak eta beharrezkoak, baina, era berean, partzialak eta mugatuak: batetik, biktimen elkarteak eta, bestetik, erakunde publikoak, Administrazioa –bere maila guztietan: udalak, aldundiak, autonomia erkidegoetako gobernuak eta estatuko gobernuak– eta hura zuzentzen duten alderdi politikoak. Arretaz ohartzeko bagara, apenas egon den elkarriketa normalizatu, egonkor, eta emankorrik biktimen eta gizarte zibilaren sarearen artean, hau da, gizarte osatzen duten norbanakoen eta era eta mota guztietako elkarte eta erakundearen artean (erlijioso, kultural, sozial eta abar).

Horrenbestez, gertaera horrek, negatiboa denez, berekin dakartza beste gertaera kezkarri gehiago: izan ere, biktimak beraiek etengabe aldarrikatu behar dituzte beren bete gabeko eskubideak; gizarte zibilak ez du haien kausa bere egiten; herritarrek ez dira indarkeriaren kaltetuen erantzule sentitzen, eta uste dute horretarako daudela erakunde publikoak, haiek baitira herritarren ordezkari. Azken finean, ulertezina bada ere, gizarte aspertu egiten da bidegabekeriak jasan dituztelako kalte-ordaina jaso behar duten biktimen legezko eskariekin. Horren guztiaren ondorio gaiztoak ez dira berandutu, eta gure artean ditugu dagoeneko.

Egiaztapen kezkarri horiek abiaburu hartuta bideratu da hemen transkribatutako txostenen edukia. Abiapuntua gizarteak biktimen errealitatearen gaineko erantzukizuna hartzea izan beharko litzateke. Galdera ez da: Zer eskubide erreklamatzeko dituzte biktimek? Zer eskatzen dute? Gogobeteta al daude? Zenbateraino? Baizik eta galdera nagusia, galdera egokia, hau da: Zer egin behar du gizarteak biktimek dituzten eskubideak bete daitezen?

Horrenbestez, diskurtsoen azpian dagoen logika argia eta bistakoa da: abiaburu hartuta giza eskubideen doktrina, eta giza eskubideak biktimetan nola gauzatzen diren, oinarritzko hiru erreferentziaren (egia, justizia eta erreparazioa) alderdiren bat sakonduko dugu, eskubide horiek behar bezala betetzeko gaur egun gizarte osoak dituen (alderdi politikoek, gizarte-erakundeek, gobernuak, sistema judizialak, herritarrek...) zereginetara iristen saiatzeko.

Aztertu beharreko lehenengo gaia da oinarritzko erreferentziako esparrua ezartzea –Felipe Gómez Isaren¹ “Egia, justizia eta erreparazioa giza eskubideen urraketa larri eta sistematikoak

¹ Deustuko Unibertsitateko Nazioarteko Zuzenbide Publikoko irakasle titularra da, eta Pedro Arrupe Giza Eskubideen Institutuko ikertzailea; hor *European Master in Human Rights and Democratisation* programako zuzendaria da. Irakasle bisitaria izan da Europa eta Latinoamerikako hainbat unibertsitatetan. Liburuaren artean nabarmentzekoak: *La Declaración Universal de los Derechos Humanos* (1998), *El derecho a la memoria*

jasan dituzten biktimentzat” izeneko txostenean jaso da– ; hau da, gaia zer eremutan kokatu behar den finkatzea. Eremu hori, jakina, giza eskubideen eremua da, zeinak, era berean, biktimen eskubideen lehenengo oinarri eta azken aukera gisa ulertu behar diren.

Jarraian, hiru eskubide horietako bakoitza garatzea tokatzen da, partzialki bada ere:

- *Egia* jakiteko eskubidea –Xabier Etxeberria Mauleonen² “Ezagutzatik oroimenera, aitorpenetik igarota” txostenean garatu da–; egileak ohi duen bezala, era guztietako alderdiz betea dator, ñabardura eta ikuspuntu iradokitzaileak behar dituzten alderdiz betea.
- *Justizia*-eskubidea, biktimen eta biktimagileen eskubideen harmonizazioan gauzatua; Xabier Etxebarria Zarrabeitiak³ aurkeztutako “Biktimagileen gizarteratzea, biktimen ikuspegitik” txostenean azaldu da, zeinak ez duen saihestu hain labainkorra den gai honetako alderdirik polemikoenei era konstruktiboan erantzutea.
- *Erreparazio*-eskubidea; zabal eta sakon aztertu da Ignacio Pérez Maciasen⁴ “Kalte-ordainetik gogobetetzera bide luzea” izeneko kolaborazioan. Erreparazioak hartzen dituen alderdiak aztertu dira lan horretan (lehengoratzea, kalte-ordainak ematea, errehabilitatzea, gogobetetzea, eta berriz ez dela gertatuko bermatzea), Espainiako legerian nola zehaztu den kontuan hartuta.

Azkenik, eta arreta biktimarengan beragan jarrita, banakotasun zehatz horretan, garrantzitsua da biktimek izan duten bilakaera psikologikoa nabarmentzea, dolua arindu edo larritu dezaketen hamaika egoera kontuan hartuta, eta eguneroko bizitzara itzultzea. Horixe egin du Enrique Echeburúa⁵ “Terrorismoaren biktimen jardunbide psikologikoa: traumatik trauma gainditzera” izeneko txostenean.

Nire aldetik, amaitu aurretik, gonbit egiten dizuet ekarpen horiek guztiak irakurtzera; ziur nago zuen interesekoak izango direla eta baliozkoak gertatuko zaizkizuela. Zorionekoa sentitzen naiz txosten hauek azaldu ziren mintegia eta horren antzeko beste zenbait ekitaldi gurean egin direlako, eta hemendik aurrera ere egiten jarraitzea gustatuko litzaidake; maizago egitea, gainera, gure gizartearen onerako, bakean eta bizikidetzan eraikitako etorkizuna izan dezan.

(zuzendaria, 2006), *International Human Rights Law in a Global Context* (2009, Koen de Feyterekin batera), *Rethinking Transitions. Equality and Social Justice in Societies Emerging From Conflict* (2011, Gaby Orékin batera), eta *Los derechos indígenas tras la Declaración. El desafío de la implementación* (2013, Mikel Berraondorekin batera).

- 2 Deustuko Unibertsitateko etikako katedradun emeritua, eta Etika Aplikatuko Zentroko kide. Egiten duen ikerketalana bere konpromisoekin lotzen saiatzen da, eta etika sozial eta politikoan zentratzen du; nabarmentzekoa da zer-nolako arreta jartzen dien herri indigenei, adimen-desgaitasuna dutenei eta indarkeriaren biktimei, bereziki, intenzionalitate politikoko indarkeriaren biktimei.
- 3 Madrilgo Abokatuen Elkargoko abokatua, eta Deustuko Unibertsitateko Zuzenbide Penaleko irakaslea. Eusko Jaurlaritzaren Giza Eskubideen Zuzendaritzako aholkulari izan da (2001-2005), eta Zigor Betearazpenaren zuzendaria ere bai (2005-2009). Salhaketa, Euskal Herriko Bakearen Aldeko Koordinakundea, Amnistia Internacional eta Otro derecho penal es posible plataformako kide. Langraizeko espetxeko elkarbizitza lantegiko koordinatzaile izan zen 2011n, eta egindako kaltea konpontzeko biktimen eta ETAKo kide ohien arteko konponketarako elkarretaratzeen kolaboratzaile. Liburu hauek egiten hartu du parte: *Manual de Ejecución Penitenciaria, Defenderse de la cárcel, Los ojos del otro* eta *Justicia restaurativa y mediación penal: un renovado impulso*.
- 4 Habanako Unibertsitateko Zuzenbide-lizentziaduna; irakasle, abokatu eta parlamentuko aholkulari izan da han. Madrilgo Carlos III.a Unibertsitateko Zuzenbideko doktore. Terrorismo Biktimei laguntzeko Goi Komisarioaren aholkulari izan zen (2004-2006), eta Barne Ministerioaren Terrorismoaren Biktimei Laguntzeko Zuzendaritza Nagusiko aholkulari ere bai (2006-2011). Gaur egun, Carlos III.a Unibertsitatearen Bartolomé de las Casas Giza Eskubideen Institutuko Antonio Beristáin katedraren koordinatzailea da.
- 5 Euskal Herriko Unibertsitateko Psikologia Klinikoko katedraduna. Kriminologiaren Euskal Institutuko sortzailea; Indarkeria Aztertzekeo Reina Sofia Zentroko Aholku Batzordeko kide izan da sortu zenetik. Irakasle gonbidatu izan da Calgary eta Quebeceko unibertsitateetan (Kanada). 32 liburu idatzi ditu (besteak beste: *Personalidades violentas*, 1994; *Manual de violencia familiar*, 1998; *Vivir sin violencia*, 2002; *Superar un trauma*, 2004; *Manual de victimología*, 2006; *¿Por qué víctima es femenino y agresor masculino?*, 2010) eta 390 lan baino gehiago argitaratu ditu liburu eta aldizkari zientifikotan; gaur egun ikerketa-ildo hauek ari da jorratzen: trauma osteko estresaren asaldurak, familia-indarkeria, joko-patologikoa, nortasun-asaldurak eta auzitegiko klinikako psikologia.

EGIA, JUSTIZIA ETA ERREPARAZIOA GIZA ESKUBIDEEN URRAKETA LARRI ETA SISTEMATIKOAK JASAN DITUZTEN BIKTIMENTZAT¹

Felipe Gómez Isa

Nire artikulua oinarritzko helburua da, lehenik eta behin, erakustea nola biktimen begirada eta ikuspegia funtsezko osagai bihurtu diren, giza eskubideen urraketa larri eta sistematikoei heltzeko orduan². Orain artean, Estatua eta biktimagilea izan dira protagonistak, normalean Estatuko funtzionario edo eragile bat; orain, ordea, gero eta arreta handiagoa jartzen da biktimengan, eta, hori dela-eta, hasiak dira uzten “agenda politikoaren periferia, bai barneko mailan bai nazioarte mailan”³. Prozesu berri horren ondorioz, hain zuzen, gero eta indar handiagoz, sortze bidean da benetako *biktimen kultura*⁴, eta, hainbat adituren iritziz,

1 Artikulu hau jarraian aipatzen den liburuko sarreraren bertsio eguneratua eta laburtua da. GOMEZ ISA, FELIPE (zuzendaria): *El derecho a la memoria*, Pedro Arrupe Giza Eskubideen Institutua-Gipuzkoako Foru Aldundia, Alberdania, Zarautz, 2006, 623 orri.

2 Horretaz, ikus lan honetako ikuspegi iradokitzailea. MARTINEZ DE BRINGAS, A.: *Exclusión y Victimación. Los gritos de los derechos humanos en la globalización*, Pedro Arrupe Giza Eskubideen Institutua eta Gipuzkoako Foru Aldundia-Alberdania, Zarautz, 2004.

3 BOTTIGLIERO, I.: *Redress for Victims of Crimes Under International Law*, Martinus Nijhoff Publishers, Dordrecht, 2004, 2. or.

4 BARKAN, E.: “Legal Settlements as a Form of Cultural Politics: A Moral and Historical Framework for the Right to Reparations”, in ULRICH, G. and BOSERUP, L.K. (Arg.): *Reparations: Redressing Past Wrongs*, Kluwer Law International, The Hague-London-New York, 2003, 409. or.

“oroimenaren kultura eraiki beharra dakar horrek, oraingo belaunaldiek aukera izan dezaten iragana errepikatuko ez den etorkizuna eraikitzeko”⁵. Halaber, eta neurri batean ikuspegi hermeneutiko berri horren ondorio gisa, Giza Eskubideen Nazioarteko Zuzenbidean eta giza eskubideen nazioarteko auzitegi-tako jurisprudentzian, pixkanaka baieztatuz joan da *giza eskubideen* urraketen biktimek *erreparazio-eskubidea* dutela. Erreparazio hori zentzu zabalean hartzen da: ohiko ordain ekonomikoaz gain, bere baitan biltzen ditu, batetik, alderdi sinbolikoak, gogobetetze oso eta ekitatiboa lortzeko, eta, bestetik, alderdi mediko eta psiko-sozialak, giza eskubideen urraketen ondorioak jasan dituztenak errehabilitatzeko. Eta hortxe hartzen dute zentzua *oroimenaren politikek*, erreparazioaren ikuspegi integral horren barruan⁶; izan ere, biktimei zor zaien erreparazioaren funtsezko osagai bihurtzen dira oroimena eta oroitzapena.

Orain arte, ez Zigor Zuzenbideak ez Giza Eskubideen Nazioarteko Zuzenbideak ez diete toki nabarmenik eman abusuen biktimei, Estatuan eta delitugilearengan jarri baitute arreta⁷. Egoera hori aldatzen hasi da, eta 1985ean, Nazio Batuek, Krimenaren Prebentzioari buruz egindako zazpigarren Kongresuan, *Delituen eta Botere Abusuaren Biktimek Justiziaren Oinarrizko Printzipioei buruzko Deklarazioa*⁸ onartu zuten; biktimeen egoerara eta eskubideetara hurbiltzeko lehen saio globala izan zen. “Biktima”-tzat zer har daitekeen nahiko zabal definitu ondoren⁹, biktima horiek justiziara iristeko dituzten bideak eta jaso behar duten tratu justua, kalte-ordaina eta laguntza biltzen ditu Deklarazioak, besteak beste. Ekimen horrek, nazioarteko beste erakunde batzuek gauzatutako antzeko beste batzuekin batera (esaterako, Europako Kontseilua¹⁰ edo Europar Batasuna¹¹), justiziaren ikuspegi berri bat sortzen lagundu du, justizia ordainarazlearen ikuspegitik *justizia konponarazleria* igaroz¹². Hurbilketa berri horrek, arreta errudunaren zigorrean jarri beharrean —nahiz eta, bistan denez, hori ez den alde batera uzten—, nolabaiteko simetria-egoeran jarri nahi ditu ofentsatzailea, biktima eta komunitatea, eta, horrela, justizia, erreparazioa, eta, azken batean, adiskidetzera lortu, ahal bada¹³. Ikuspegi berri horretatik, erdigunean jartzen dira biktimaren eskubideak eta biktimizazio-egoerari eta horren ondorioei aurre egitea.

Biktimei begirako ikuspegiak berebiziko garrantzia hartu du nazioarteko esparru juridikoan, eta horren erakusgarri da Nazioarteko Zigor Auzitegia sortzeko Erromako Estaturuan (1998ko uztailaren 17an onartu zen, eta 2002ko uztailaren sartu zen indarrean) biktimek duten rol garrantzitsua. Auzitegiaren Idazkaritzan Biktimeen eta Lekuko Bulegoa sortzeaz gain (43.6

5 MATE, R.: *Memoria de Auschwitz. Actualidad moral y política*, Trotta, Madrid, 2003, 10 or.

6 Erreparazio-politikei buruz asko eztabaidatzen ari da “injustizia historikoak” esaten zaien esparruan. Batez ere, kolonialismoaren, esklabutzaren edo herri indigenen diskriminazio sekularrekin lotuta daude. Ikus BARKAN, E.: *The Guilt of Nations: Restitution and Negotiating Historical Injustices*, Norton, New York, 2000.

7 NOWAK, M.: “The Right to Reparation of Victims of Gross Human Rights Violations”, in ULRICH, G. and BOSERUP, L.K. (Arg.): *Reparations: op. cit.*, 277 or. eta hk.

8 Nazio Batuen Batzar Orokorak 40/34 Ebazpenean onartua, 1985eko azaroaren 29an.

9 Deklarazioaren argitara, biktimatza hartuko dira “estatu kideetan indarrean dagoen zigor-legeria —botere-abusua galarazten duena barne— urratzen duten egite edo ez-egiteen ondorioz, banaka edo taldeka, kalteak (lesio fisiko edo mentalak barne), sufrimendu emozionala, galera finantzarioa edo oinarrizko eskubideen galera nabarmena jasan dituztenak... Biktima terminoaren barruan, gainera, zuzeneko biktimarekin harreman zuzena duten familiartekoak edo haren kargura daudenak sartuko dira, baita arriskuan zegoen biktimari laguntzeko edo biktimizazioa prebenitzeko esku hartzean kalteak izan dituztenak ere.” (A. 1 eta 2).

10 Horretaz, ikus *Krimen biolentoen biktimei konpentsazioa emateko Europako Konbentzioa*. 1983ko azaroaren 24an ireki zen sinatzeko eta berresteko, eta 1988ko otsailaren 1ean sartu zen indarrean.

11 *Biktimek zigor-prozesuetan duten egoerari buruzko Esparru-erabakia*. Europar Batasuneko Kontseilua 2001eko martxoaren 15ean hartutako erabakia da.

12 STRANG, H.: *Repair or Revenge. Victims and Restorative Justice*, Clarendon Press, Oxford, 2002. Azkenaldian, oso eztabaida interesgarria pizten ari da justizia-eredu desberdinei buruz, eta erreparazioak, berreraikuntza sozialak eta adiskidetzak duten egitekoari buruz. Hortik sortu dira *justizia konponarazle* (termino klasikoak), *erreparaziozko justizia* edo *justizia transformatzailearen* inguruko erreferentziak, eta ñabardurak erreparazioen gaiari heltzean aztertuko ditugu. Ikus horretaz MANI, R.: *Beyond Retribution, Seeking Justice in the Shadows of War*, Polity Press, Cambridge, 2002.

13 RIGBY, A.: *Justice and Reconciliation after the Violence*, Lynne Rienner Publishers, London, 2001.

artikulu-zatia), eta biktimen segurtasuna, ongizate fisiko eta psikologikoa, duintasuna eta bizitza pribatua babesteko neurriak hartzeaz gain (57.3.c letra eta 68. artikulua), Erromako Estatutuak biktimen erreparazioa jasotzen du, leheneratzea, kalte-ordaina eta errehabilitazioa biltzen dituela¹⁴. Horretarako, Estatutuaren 79. artikuluari jarraituz, “Auzitegiaren eskumeneko krimenen biktimetzat eta haien familientzat Funtz Fiduziariora” sortuko dela ezartzen da¹⁵.

Bilakaera horretan guztian, biktimei eta erreparazioei arreta handiagoa jartze horretan, azken gertaera garrantzitsua hau izan da: Nazio Batuetako Batzar Orokorrak *Giza eskubideei buruzko nazioarteko arauen urraketa nabarien eta nazioarteko zuzenbide humanitarioaren urraketa larrien biktimek errekurtsoak jarri eta erreparazioak lortzeko duten eskubideari buruzko Oinarrizko Printzipio eta Jarraibideak*¹⁶ onartzea, 2005eko abenduan. Egia esan, 90eko hamarkada hasieratik, Nazio Batuak gidari izan dira erreparazio-eskubidearen zehaztapan juridiko zein kontzeptuala egiteko prozesuan, eta zehaztapan hori lagungarri da Estatuak erreparazio-politikak egiteko orduan bide-erakusle izango duen esparru orokorra eskaintzeko. 1989an, Bereizkeriak Prebenitzeko eta Gutxiengoak Babesteko Azpibatzerdeak¹⁷ Theo Van Boven jurista holandarrari agindu zion giza eskubideen urraketa larrien biktimek duten erreparazio-eskubideari buruzko ikerketa egiteko. Azken txostena 1993an aurkeztu zen¹⁸, eta hainbat gobernuk, nazioarteko erakundek eta GKEk aztertu zuten orduan. 1998an, Giza Eskubideen Batzordeak¹⁹ Cherif Bassiouni adituaren esku utzi zuen Van Bovenek egindako Oinarrizko Printzipio eta Jarraibide nagusiak berrikusteko ardura, eta hark 2000. urteko urtarrilean aurkeztu zuen behin betiko txostena²⁰. Behin txosten hori amaituta, eta Erreparazio Eskubideari buruzko Printzipioak egiteko izendatutako eragile nagusiekin kontsultarako hainbat bilera egin ondoren, azkenean, Giza Eskubideen Batzordeak 2005eko apirilean onartu zuen, 15 urtean lanean eta eztabaidan aritu eta gero²¹; Ekonomia eta Gizarte Kontseiluak (EGK) onartu zuen ondoren, eta Nazio Batuetako Batzar Orokorrak azkenik. Printzipio horiek biktima jartzen dute erreparazio-eskubidearen erdigunean, eta ezin zitekeen bestela izan. Hitzaurrean bertan, testuak adierazten du nazioarteko komunitateak, Printzipio horiek onartuta, “eutsi egiten diola bere hitzari biktimen sufrimenduari dagokionez”, “biktimei begirako ikuspegia” ardatz nagusitzat hartuta. Ikuspegi horrekin bat etorritik, Printzipioetan biktimaren nozio zabala hautatu da; izan ere, 8. printzipioaren arabera, “biktimatzat hartuko dira banaka edo taldeka kalteak jasan dituzten pertsonak, kalte horien barruan sartuta lesio fisiko edo mentalak, oinaze emozionala, galera ekonomikoak edo oinarrizko eskubideen funtsezko murrizketa, baldin eta kalte horien sorburu badira giza eskubideei buruzko nazioarteko arauen ageriko urraketa edo nazioarteko zuzenbide humanitarioaren urraketa larriak eragin dituzten ekintzak edo ez egiteak. Hala dagokionean, eta barne-zuzenbidearekin bat etorritik, “biktima” terminoak barne hartuko ditu, halaber, zuzeneko biktimaren hurbileko senideak edo haren ardurapekoak; orobat, arriskuan zeuden biktimei laguntzen edo biktimizazioa ekiditen

14 JORDA, C. and DE HEMPTINNE, J.: “The Status and Role of the Victim”, in CASSESE, A.; GAETA, P. and JONES, J.R.W.D. (Arg.): *The Rome Statute of the ICC: A Commentary*, Oxford University Press, Oxford, 2002, 1.387-1.419 or.

15 Funtz Fiduziariora horren aukerak eta mugak zehatz aztertzen dira honako lan honetan. DE GREIFF, P. and WIERDA, M.: “The Trust Fund for Victims of the International Criminal Court: Between Possibilities and Constraints”, in DE FEYTER, K.; PARMENTIER, S.; BOSSUYT, M. and LEMMENS, P. (Arg.): *Out of the Ashes. Reparation for Victims of Gross and Systematic Human Rights Violations*, Intersentia, Antwerpen-Oxford, 2005, 225-243 or.

16 60/147 Ebazpena, 2005eko abenduaren 16koa.

17 1989/13 Ebazpena.

18 *Giza eskubideen eta oinarrizko askatasunen urraketa gori-goriak jasan dituzten biktimek leheneratzeko, kalte-ordainak jasotzeko eta errehabilitatzeko duten eskubideari buruzko ikerketa. Theo Van Boven errelatore bereziak aurkeztutako behin betiko txostena*, E/CN.4/Sub.2/1993/8, 1993ko uztailak 2.

19 1998/43 Ebazpena.

20 *Giza eskubideen eta oinarrizko askatasunen urraketa larriak jasan dituzten biktimek leheneratzeko, kalte-ordainak jasotzeko eta errehabilitatzeko duten eskubidea. M. Cherif Bassiouni errelatore bereziaren azken txostena, Batzordearen 1999/33 ebazpenari jarraituz aurkeztua*, E/CN.4/2000/62, 2000. urteko urtarrilak 18.

21 Tamalez, Printzipioei buruzko kontsentsua lortzeko egindako ahalegin guztiak eginda ere, ebazpena aldeko 40 botorekin eta kontrako botorik gabe onartu zen, baina 13 herrialderen abstentzioarekin; azken horien artean daude Giza Eskubideen Batzordeko hainbat kide aipagarri: Alemania, India edo Ameriketako Estatu Batuak.

ahalegindu, eta kalteak jasan dituzten pertsonak”. Bestalde, Printzipioek ezartzen dutenez, “gizatasunez tratatu behar dira biktimak, haien duintasuna eta giza eskubideak errespetatuta, eta beharrezko neurri egokiak hartu beharko dira biktimon eta senitartekoen segurtasuna, ongizate fisiko eta psikologikoa eta intimitatea bermatzeko”, eta Estatuak arduratu egin behar du “bere barne-zuzenbideak, ahal den neurrian, begirune eta arreta berezia eskaintzeaz indarkeriaren edo traumen biktimei, justizia egin eta erreparazioa emateko prozedura juridiko eta administratiboek areagoko traumarik eragin ez dezaten”²².

Egia, justizia eta erreparazioa: hiruko banaezina

Erreparazio-eskubidea formulatzeko eta aitortzeko egin diren ahaleginetan (azaldu berri ditugunhorietan) eta Nazio Batuek giza eskubideen urraketa larrien kasuen zigorgabetasunarekin amaitzeko egindako ahaleginetan, bietan agerian geratu da elkarren mendeko eta elkarren osagarri direla egia jakiteko eskubidea, justizia-eskubidea eta erreparazio-eskubidea²³. Nahiz eta, ikusiko dugun bezala, hiru eskubide horiek independenteak diren eta zein bere aldetik bete daitekeen, egia esan, gero eta gehiago, elkarri lotutako elementutzat hartzen dira²⁴, eta ezinbestekotzat jotzen dira giza eskubideen urraketaz beterik egon den iragana gainditzeko prozesuetan²⁵. Baliteke hiru eskubide horien konbinazioa izatea egokiena, urteetan gatazkan eta giza eskubideak errespetatu gabe ibili ondoren, adiskidetzeko nazionalaren bide latz eta zaila egiteko²⁶.

Egia jakiteko eskubidea

Biktimek eta gizarteak jazotako gertakarietara buruz egia osoa jakiteko duten eskubidea oinarritzeko elementua da justizia trantsizionalaren eta adiskidetzearen prozesuan²⁷. Biktimek egia osoa jakiten dutenean, eta justizia egin eta eragindako kalteak ahal den neurrian erreparatu direnean, soilik orduan hasi ahal izango da benetako barkatze-prozesua (ez dauka zertan beti gertatu²⁸) eta adiskidetzeko nazionalerako prozesua. Nolanahi ere, egia

22 10. printzipioa

23 Horretaz, ikus Louis Joinet adituak zigorgabetasunari buruz egindako ikerketak, 1997an “Zigorgabetasunaren aurka borrokatzeko Printzipio Multzoa” lanean burutuak. *Giza eskubide zibil eta politikoak urratu dituzten zigorgabetasunaren auzia. M. Joinetek egindako txostena, Azpibatzaordearen 1996/119 erabakia aplikatuz, E/CN.4/Sub.2/1997/20/Rev.1, 1997ko urriak 2. Diane Orentlicher adituari egokitu zaio Joinetek egindako printzipio multzoa eguneratzea. Ikus Diane Orentlicherren txostena, Zigorgabetasunaren aurka borrokatzeko printzipio multzoa eguneratzeko ardura duen aditu independentearena, E/CN.4/2005/102/Add.1, 2005eko otsailak 8. Bi txostenetan hauxe da garrantzitsua: egia jakiteko eskubidea, justizia-eskubidea eta erreparazio-eskubidea oinarri hartuta egituratzen dute printzipio multzoa.*

24 BOTTIGLIERO, I.: *Redress for Victims of Crimes...*, op. cit., 109. or.

25 Hiru eskubide horiek justizia trantsizionalaren prozesu batean lotzen saiatzeko ahalegina dugu Sierra Leonan jarraitutako prozesua: Egiaren eta Adiskidetzearen Batzordea eratu da, Sierra Leonarako Auzitegi Berezia sortu da, eta erreparazioen programa egin da, Egiaren eta Adiskidetzearen Batzordearen eskutik. Ikus KELSALL, T.: “Truth, Lies, Ritual: Preliminary Reflections on the Truth and Reconciliation Commission in Sierra Leone”, *Human Rights Quarterly*, 27. libk., 2. zk., 361-391 or. Auzitegi Bereziari buruz, ikus BLANC ALTEMIR, A.: “El Tribunal Especial para Sierra Leona: un instrumento contra la impunidad por violaciones graves del Derecho Internacional Humanitario”, *Anuario de Derecho Internacional*, XIX. libk., 2003, 101-137 or.

26 Hori da *International Center for Transitional Justice*-n iritzia. Elkarte horrek New Yorken du egoitza, eta aholkua eta laguntza ematen du justizia trantsizionalerako prozesuei ekiteko orduan. Ikus *Parámetros para el Diseño de un Programa de Reparaciones en el Perú. Informe conjunto del Centro Internacional para la Justicia Transicional (ICTJ) y la Asociación Pro Derechos Humanos (APRODEH)*, 2002ko iraila, www.ictj.org.

27 ZALAQUETT, J.: “Confronting Human Rights Violations Committed by Former Governments: Principles Applicable and Political Constraints”, in KRITZ, N.J. (Ed.): *Transitional Justice. How Emerging Democracies Reckon with Former Regimes*, United States Institute of Peace Press, Washington, D.C., 1995, 6. or. eta hk.

28 Hamber eta Wilsonen giza duintasun oinarritzeko eraso larriak egin ondoren etorri beharreko barkamenari eta adiskidetzeari buruzko hainbat diskurtsoz ohartarazten gaituzte, asmo onekoak izanagatik ere, funtsean, sinplistikak direlako. Sufrimenduaren aurrean hamaika erantzun egon litezke, eta denek barkatu egingo dutelakoan bagaude, baliteke hori ez gertatzea; zenbaitetan, mendeku-goseak ere izango dira erroturik gizartean, eta horrela oso zaila da adiskidetzeko-prozesua gauzatzea. Ikus HAMBER, B. and WILSON, R.: “Symbolic Closure through

ematen duen *jakintzak* eta biktimen *aitortzak* eskutik joan behar dute. Egiak ez du geratu behar biktimen zirkulurik estuenean; aitzitik, ofizialki eta publikoki aitortua izan behar du, eta, hala, baliozkoa izango da publikoaren eta gizartearen aurrean, oro har²⁹. Barahona de Britoren iritziz, aitortenak “gizartera itzultzen ditu biktimak, gizarteak aitortu egiten baitu sufrimendua, justizia banatzailea edo soziala emanez, eta baliabide ez-konbentzionalak emanez, hala nola, kontzientzia soziala hartzea, oroimen kolektiboa, elkartasuna eta autoestima baxua gainditzeko bidea”³⁰. Ikusten dugun bezala, egiak rol terapeutiko moduko bat betetezen du, eta erreparazio-eskubidearen oinarritzko osagai bihurtzen da³¹. Egiaren eta erreparazioaren arteko erlazio estu hori jasota geratu da ikerketa honetan aztergai dugun Errekurtsuak jarri eta erreparazioak lortzeko eskubideari buruzko Oinarritzko Printzipio eta Jarraibideetan. Printzipio horietan, *gogobetetzea* jasotzen da erreparatzeko moduen artean. Gogobetetzea lortzeko neurrien artean, bai jakiteko dimentsioan bai aitortenaren dimentsioan, egia jakiteko eskubideari estu-estu lotuta dauden hainbat aipatzen dituzte Printzipioek. Hala, 22. printzipioak, beste neurri batzuen artean, honako hauek jasotzen ditu: “gertaerak egiaztatzea eta egia publikoki eta osorik ezagutaraztea; (...) adierazpen ofizial edo epai-erabaki bat, biktimaren eta haren hurkoenen duintasuna, izen ona eta eskubideak leheneratzeko; publikoki barkamena eskatzea, egintzak aitortuta eta erantzukizunak onartuta; (...) ospakizunak biktimen oroitzapen eta gorazarreetan; gertatutako urraketek buruzko azalpen egokia ematea giza eskubideei buruzko nazioarteko arauen eta nazioarteko zuzenbide humanitarioaren irakaskuntzan, eta maila guztietako irakaskuntza-materialetan”.

Ikusten denez, egia jakiteko eskubideak *oroimen-eginbehar* bat dakar Estatuaren aldetik; izan ere, “herri batentzat, bere zapalkuntzaren historia bere ondarearen zati da, eta hala gorde behar da”³². Oroimen-eginbehar hori aldarrikatzeak galdera hau egitera garamatza: ez ote da ari sortzen, agian, horren guztiaren ezinbesteko ondorio gisa, biktimek, gizarteak eta, zenbait kasutan, gizateria osoak³³ duten oroimen-eskubidea ere³⁴? Eskubide indibidual eta kolektibo baten aurrean gaude³⁵; izan ere, egia jakiteko, oroitzeko eta oroimenerako eskubidea ez da biktimena bakarrik: gizarte osoak du eskubide hori baliatzeko interesa eta

Memory, Reparation and Revenge in Post-Conflict Societies”, *Journal of Human Rights*, 1. libk, 1. zk., 2002, 53. or. (<http://www.du.edu/humanrights/workingpapers/papers/05-hamber-04-00.pdf>).

29 “The Right to Reparation for Victims of gross and systematic violations of human rights”, *The Right to Reparation...* hitzaldian aurkeztutako ondorioen agiria, *op. cit.*, 28. or.

30 BARAHONA DE BRITO, A.: “Introduction”, in BARAHONA DE BRITO, A.; GONZALEZ-ENRIQUEZ, C. and AGUILAR, P. (Arg.): *The Politics of Memory. Transitional Justice in Democratizing Societies*, Oxford University Press, Oxford, 2001, 25. or.

31 Aitorpenak eta oroitzapen-ekitaldiek, giza eskubideen urraketa larriak gertatu ondoren, gizarte-sarea erreparatzeko, oroimen historikoa berreskuratzeko eta pertsonen eta komunitateen osatze sozio-afektiboa lortzeko duten garrantziaz, ikus Mauricio Gaboriten ekarpena liburu honetan. Ildo beretik kontsulta liteke MARTÍN BERISTAIN, C.: *Reconstruir el tejido social*, Icaria, Bartzelona, 1999.

32 Giza eskubide zibil eta politikoak urratu dituztenen zigorgabetasunaren auzia. M. Joinetek egindako txostena..., *op. cit.*, 4. or.

33 Benetako *gizateriaren aurkako krimenen* aurrean gaudenean, gizateriak berak du egia jakiteko eskubidea eta oroimen-eskubidea. Bada gizateriaren aurkako krimenen zerrenda bat, Nazioarteko Zigor Auzitegia sortzeko Erromako Estaturuan (1998). 2002an indarrean sartu den itun horren 7. artikulua dioen bezala, “Estatutu honen ondorioetarako, “gizateriaren aurkako krimenez hartuko da” ondorengo ekintza hauetako edozein, baldin eta biztanleria zibilaren aurkako eraso orokor eta sistematiko baten parte gisa eta eraso horren jakitun egiten badira: a) Erailketa; b) Sarraskia; c) Esklabutza; d) Biztanleak deportatzea edo nahitaez lekualdatzea; e) Espetxeratzea edo askatasun fisikoaren bestelako urratze larri bat, nazioarteko zuzenbidearen oinarritzko arauak urratuta; f) Tortura; g) Bortxaketa, esklabutza sexuala, bortxazko prostituzioa, bortxazko esterilizazioa edo pareko larritasuna duten beste sexu-abusu batzuk; h) Arrazoi politiko, arrazazko, nazional, etniko eta bestelakoetan oinarritutako berezko identitatea duen talde edo kolektibo baten jazarpena; i) Pertsonen bortxazko desagertzea; j) *Apartheid* krimena (...)”. Gizateriaren aurkako krimenen kasuan oroimenak duen egitekoari buruz, ikus *La memoria frente a los crímenes de lesa humanidad*, Fundación Manuel Cepeda Vargas, Bogotá, 1996.

34 CEPEDA CASTRO, I. y GIRON ORTIZ, C.: “El derecho a la memoria”, in <http://www.desaparecidos.org/colombia/galeria/derechos.html>.

35 Giza eskubide zibil eta politikoak urratu dituztenen zigorgabetasunaren auzia. M. Joinetek egindako txostena..., *op. cit.*, 4. or.

beharra³⁶. Nolanahi ere, Estatuak oroimen-eginbehar hori duen arren, horrek ez du esan nahi Estatuak bakarrik denik oroimen historiko hori mantendu edo, hala badagokio, berreskuratu edo berreraikitzeke prozesuan parte hartzeko legitimazioa duen bakarra. Izan ere, oroimena deserosoa da, politikoki desegokia, eta arriskutsutzat ere har liteke, iraganeko deabru eta lotsak aurrez aurre jartzen baitzizkigu, eta maiz iragan horri interpretazio eztegiak eta leunegiak eman baitzaizkio³⁷. Horregatik, hain zuzen, zenbaitek ohartarazten digu, arrazoiz ohartarazi ere, agintean daudenek zer-nolako “obsesioa” duten “oroimenaren politikak” definitzeko³⁸, prozesu horren emaitzak nolabait kontrolatzeko, badaezpada ere, aurkitzen dugunak ez dezan desegonkortu oraina, ahazten edo desitxuratzen ahalegindu diren iraganik gabe uler ezin daitekeen oraina. Oroimena eraikitze kolektiboko prozesua da, eta politikagintzako eta gizarteko eragileek hartu behar dute parte³⁹. Kontua da iragana aitortzea “historia kolektiboaren esparru publikoan egindako lanketa sozialaren emaitza gisa, eta ez botereak, historia *ofizialtzeko Egiaren Ministerio* moduko baten bidez, iraganaz bere neurri eta nahieran egindako *eraikuntza* gisa”⁴⁰. Ildo horretatik, biktimizatuak izan direnen oroimena elementu garrantzitsu bihurtzen da politikaren eremuan, “iraganeko *errepresio*arekiko erresistentzia-gune bihurtzen baita (zentzu politikoan eta psikikoan)”⁴¹.

Estatuak gogoratzeko duen eginbehar horren alderdi garrantzitsu bat da giza eskubideen urraketei buruzko informazioa jasotzen duten artxiiboak babestea⁴², eta neurri egokiak hartzea artxiibo horiek kontsultatzea errazago izan dadin biktimentzat eta senitartekoentzat, bai beraien eskubideak balia ditzaten, baita ikerketa historikoa bultzatzeko ere. Diane Orentlicher aditu independenteak 2005ean egindako *Giza eskubideak zigorgabetasunaren aurkako borrokaren bidez babestu eta sustatzeko printzipio multzo eguneratua* lanean gai horretaz jasotzen den bezala, “jakiteko eskubideak artxiiboak gorde beharra dakar”⁴³.

Egia jakiteko eskubidea Nazioarteko Zuzenbidean garatze bidean dagoen printzipio bihurtu

36 OLIVEIRA, A. eta GUEMBE, J.: “La verdad, derecho de la sociedad”, in ABREGU, M. eta COURTIS, C. (Biltz.): *La aplicación de los tratados sobre derechos humanos por los Tribunales locales*, Editores del Puerto-CELS, Buenos Aires, 2004, 541-558 or.

37 Halaxe dirudi, hain zuzen, frankismotik demokraziarako trantsizio espainiarraren gaur egungo berrinterpretazioak; trantsizioa eredugarri zelakoan geunden guztiok, baina gaur egun hainbat zalantza eta eztabaida sortu dira ordaindu behar izan ziren “prezioen” inguruan. Gizarte zibila izan da, nagusiki, gure historia hurbila berraztertzeko prozesua gidatu duena, Gerra Zibileko biktimen oroimena berreskuratzetik abiatuta. Gai horri buruz, NAVARRO, V.: “La transición y los desaparecidos republicanos” eta MONEDERO, J.C.: “Nocturno de la transición”, biak lan honetan: *La memoria de los olvidados. Un debate sobre el silencio de la represión franquista*, Ambito Ediciones, Valladolid, 2004, 115-131 or. eta 133-152 or., hurrenez hurren.

38 MATE, R.: *Memoria de Auschwitz...*, *op. cit.*, 257. or.

39 Horregatik da, hain zuzen, proiektu hau diziplina artekoa, oroimen kolektiboa zinearen, literaturaren, jarduera akademiko hutsaren eta abarren eskutik eraikitzen baita. Hegoafrikako esperientzian oinarrituta, Hamber eta Wilsonen oso ekarpen interesgarriak egin dituzte oroimena eraikitzeke prozesu desberdinen inguruan, autore horien iritziz “oroimena” ez baita argi eta garbi ezarritako objektu bat, baizik eta iraganari buruz narratibak eraikitzen dituen praktika soziala”, in HAMBER, B. and WILSON, R.: “Symbolic Closure through Memory...”, *op. cit.*, 2 or. eta hk. Ikus, halaber, VAZQUEZ SIXTO, F.: “Construyendo el pasado: la memoria como práctica social”, in PORTILLO, N.; GABORIT, M. eta CRUZ, J.M. (Biltz.): *Psicología social en la posguerra: teoría y aplicaciones desde El Salvador*, UCA Editores, San Salvador, 2005, 109-143 or.

40 CEPEDA CASTRO, I. eta GIRON ORTIZ, C.: “Justicia y Crímenes contra la Humanidad”, in SOROETA, J. (Ed.): *Giza Eskubideei buruzko Donostiako Jardunaldiak*, V. libk., EHUko Argitalpen Zerbitzua, Bilbo, 2004, 85. or. Autore horiek *iraganaren substantzialitatea* printzipioa baliatzen dute, “boterea legitimoa edo ilegítimoa den erabakitzeke erreferentzia eta irizpidetzat”. Iragana existitu ahal izatea da kontua, eta botereak iragana onartzea, orainaren zati ere izatea iragana.

41 CEPEDA CASTRO, I. eta GIRON ORTIZ, C.: “Justicia y Crímenes...”, *op. cit.*, 91. or.

42 CANAVAGGIO, P. eta JOINET, L.: “Archivos contra el olvido”, *EL PAIS*, 2004ko azaroak 7, 17. or. Artxiboetan beharrezko agiriak gordetzea eta biktimek agiri horietarako irispidea izatea funtsezkoa dela frogatu da errepresio naziak Austriar utzitako biktimen erreparazioaren kasuan. Ikus KRIEBAUM, U.: “Restitution Claims for Massive Violations of Human Rights During the Nazi Regime. The Austrian Case”, in ULRICH, G. and BOSERUP, L.K. (Arg.): *Reparations: op. cit.*, 210. or.

43 Diane Orentlicherren txostena, ... *printzipio multzoa eguneratzeko ardura duen aditu independentearena. Op. cit.*, 14. *printzipioa*. Ikus, halaber, 15., 16., 17. eta 18. *printzipioak*, denak ere artxiboen kontu garrantzitsu horrekin lotutakoak.

da⁴⁴; oraindik ez dago printzipiotzat berariaz onartuta ezein nazioarteko itunetan, baina argi eta garbi ondorioztatu daiteke horietatik, eta, gainera, ikusiko dugun bezala, nazioartean giza eskubideez arduratzen diren organo nagusiek babestu egin dute. Nolanahi ere, duela gutxi, Nazio Batuetako Giza Eskubideen Batzordeak, bere 61. bilera-aldian, *egia jakiteko eskubideari* buruzko ebazpena onartu du lehenengoz⁴⁵, eta horrek agerian jartzen du eskubide hori izaten ari den bilakaera. Ebazpen berri horretan, Batzordeak, “egia jakiteko eskubidearen, justizia eskueran izateko eskubidearen eta errekurso eta erreparazio eraginkorrak lortzeko eskubidearen artean dauden elkarrekiko harremanez” jakitun dela adierazi ondoren, aitortzen du “egia jakiteko eskubidea errespetatzea eta bermatzea zein garrantzitsua den, zigorgabetasunarekin amaitzeko eta giza eskubideak sustatu eta babesteko”. Ildo berekoa da oraintxe aipatu dugun Zigorgabetasunaren aurka borrokatzeko Printzipio Multzo eguneratua ere. 4. printzipioan ezartzen duenez, argi eta garbi ezarri ere, “Justiziaren aurrean has daitezkeen akzioak alde batera utzita, biktimen eta horien familien *eskubide preskribaezina* da urraketak gertatu ziren inguruabarrei buruzko *egia jakitea* eta, heriotza edo desagertzea gertatuz gero, biktimaren egoerari buruzkoa” (letra etzana guk jarri dugu)⁴⁶.

Azken urteotan egia jakiteko eskubideak izandako bilakaera horretaz guztiaz ohartuta, giza eskubideak babesteko organoek agerian utzi dute, gero eta indar handiagoz, eskubide hori aitortzeko eta bermatzeko beharra. Nazio Batuetako Giza Eskubideen Batzordeak hainbat aldiz aitortu du eskubide horren garrantzia. Adibidez, *Almeida de Quinteros vs. Uruguai* kasuan, Almeida de Quinteros andreak bere alabaren atxiloketaren eta ondorengo desagerketaren inguruan jarritako alegazioen inguruko erabakia hartu behar izan zuen Batzordeak. Gertakariak zehatz aztertu ondoren, Batzordeak aitortu zuen “amari larritasuna eta estresa eragin ziola alaba desagertuta egoteak eta etengabe zer gertatu zaion eta non den ez jakiteak”⁴⁷. Larritasun eta estres horrek, Batzordearen iritziz, alabak jasandako eskubideen urraketaren “biktima” bihurtu dute ama ere, eta, hortaz, Eskubide Zibil eta Politiko Nazioarteko Itunaren 7. artikulua urratzen duen “tratu gizagabea” eragin dute. Arrazoiak horren guztiaren ondorio gisa, Batzordeak adierazi zuen amak eskubidea zuela “bere alabari zer gertatu zitzaion jakiteko”⁴⁸.

Giza Eskubideen Europako Auzitegiak ere hainbat aldiz aitortu du tortura-kasuetan biktimek ikerketarekin lotutako datu guztiak eskura izateko eskubidea dutela. Dagoeneko aipatu dugun *Aksoy vs. Turkey* kasuan, Auzitegiak aitortu zuen Europako Hitzarmenaren 13. artikuluan ageri den konponbide eraginkorraren kontzeptuak, ordain ekonomiko egokia emateaz eta tortura-ekintzen arduradunak identifikatzeaz gain, “auzi-jartzaileak ikerketarako irispidea izatea” ere badakarrela⁴⁹.

Baina, inolako zalantzarik gabe, egia jakiteko eskubideari buruzko guztiak gehien landu eta garatu dituen Giza Eskubideen Gorte Interamerikarra da. Izan ere, kasu batzuetan, aurre egin behar izan die zigorgabetasunari eta giza eskubideen urraketa larri-larrien ikerketei jarritako era guztietako oztopoei, oztopo horiek arrisku bizi jartzen baitzuten biktimek egia jakiteko, justizia egiteko eta, azken batean, erreparazioa jasotzeko duten eskubidea⁵⁰. Gorteak behin baino gehiagotan adierazi du biktimek eta senitartekoei eskubidea dutela

44 MENDEZ, J.: “Derecho a la verdad frente a las graves violaciones de los derechos humanos”, in ABREGU, M. y COURTIS, C. (Biltz.): *La aplicación de los tratados...*, op. cit., 517. eta 518. or.

45 *Egia jakiteko eskubidea*, Giza Eskubideen Batzordearen 2005/66 Ebazpena, bozketa egin beharrik gabe onartua 2005eko apirilaren 20an.

46 *Diane Orentlicher aditu independentearen txostena*, op. cit.

47 CCPR/C/OP/2, 1990, 14. par.

48 *Ibidem*, 14. par.

49 *Aksoy vs. Turkey*, op. cit., 98. par. Ikus ildo beretik *Çakici vs. Turkey*, 1999ko uztailaren 8ko Epaia; *Yasa vs. Turkey*, 1998ko irailaren 2ko Epaia, edo *Tanrikulu vs. Turkey*, 1999ko uztailaren 8ko Epaia.

50 Bosnia-Hertzeogovinako Giza Eskubideen Ganberak mintzagai dugun jurisprudentzia-ildo horri jarraitzen dio bere epaietan, batez ere Srpska Errepublikaren aurkako epaian, Srebrenicako sarraskian ikerketa zehatzik ez egiteagatik eta desagertuen senitartekoei informaziorik ez emateagatik. Kasu horretan, bere esku duen informazio guztia hedatzeko, gertatutakoa ikertzeko eta ikerketa horren emaitzak ahal bezain oihartzun handiz zabaltzeko agindu dio Ganberak Srpska Errepublikari. CH/01/8365, 7 March 2003.

zer gertatu zen eta ekintzen erantzuleak zein diren jakiteko⁵¹. *Myrna Mack vs. Guatemala kasu* ezagunean –Gorteak Mack andrearen epaiz kanpoko exekuzioa aztertu behar zuen–, sistema interamerikarreko auzitegi gorenak beste behin ere adierazi du “pertsona orok, giza eskubideen urraketa larrien biktimeen senitartekoek barne, *egia jakiteko eskubidea duela*”⁵² (letra etzana guk jarri dugu). Egia jakiteko eskubide horren aldarrikapenaren ondorio gisa, Gorteak honako hau ezarri du:

*“biktimeen senitartekoei eta gizarteari, osotasun gisa hartuta, informazioa eman behar zaie urraketa horien inguruan gertatutako guztiaz. Egia jakiteko eskubide hori garatuz joan da Giza Eskubideen Nazioarteko Zuzenbidean; egoera jakin batean aitortzen eta baliatzen denean, urrats garrantzitsua egiten da erreparaziorako”*⁵³.

Ikusten dugunez, alde batetik, egia jakiteko eskubidea bikoitza da, indibiduala eta kolektiboa, biktimek ez ezik, Guatemalako gizarte osoak baitu gertatutakoaren xehetasun guztiak jakiteko eskubidea. Bestetik, argi eta garbi lotzen dira, lehen adierazi dugun bezala, egia, justizia eta erreparazioa, eta, gainera, egia jakiteko eskubidea “erreparaziorako urrats garrantzitsutzat” definitzen da. Azkenik, Gorteak izugarritzko garrantzia ematen dio egia publikoki zabaltzeari, erreparatzeko modu bat den aldetik. Ildo horretatik, Gorteak adierazten duen bezala, “(...) egindako urraketen alderdi hori erabat erreparatzeko, prozesuaren emaitza publikoki zabaldu beharko da, Guatemalako gizarteak egia jakin dezan”⁵⁴.

Bada beste garapen garrantzitsu bat, giza eskubideen eta Nazioarteko Zuzenbide Humanitarioaren urraketa larrien ondorengo trantsizio-prozesuetan egia hartzen ari den garrantzi izugarriaren erakusle: azken urteotan eratu diren Egiaren Batzordeak. Batzorde horiek, Egiaren Batzorde deitzen bazaie ere, gero eta eginkizun gehiago betetzen dituzte erreparazioari eta adiskidetzeari lotuta.

Justizia-eskubidea

Justizia-eskubidea aitorten handiko eskubidea da nazioarteko esparru juridikoan⁵⁵, eta aitorten eta garapen horretan funtsezkoa izan da Nazio Batuek egindako lana⁵⁶. Eskubide horrek, lehenik eta behin, giza eskubideen urraketen balizko kasuak salatzeko, ikertzeko eta epaitzeko beharrezko den egitura judiziala sortzeko eginbeharra ezartzen dio estatuari; bigarrenik, justizia-eskubideak giza eskubideen bortxaketa larri eta sistematikoen aurrean zigorgabetasuna saihesteko neurriak exijitzen dizkie estatuei. Izan ere, zigorgabetasunak ondorio suntsitzaileak ditu urraketen biktimeentzat. Zigorgabetasunak izugarritzko frustrazioa eta desengainua eragiten die biktimei eta hurbilekoei, eta, gainera, erreparaziorako oztopo ere bada, erreparazioa, neurri batean, erantzuleak epaitu eta zigortzearekin ere lotuta baitago. Theo Van Bovenen gogoetek oso argi erakusten dute justiziaren eta erreparazioaren

51 Ikus horretaz, besteak beste, *Trujillo Oroza vs. Bolivia kasua*, *Reparaciones*, 2002ko otsailaren 27ko epaia, C Seriea, 92. zk., 100. par.; *Cantoral Benavides vs. Peru kasua*, *Reparaciones*, 2001eko abenduaren 3ko Epaia, C Seriea, 88. zk., 69. par.; *Kaleko umeak (Villagrán Morales eta beste batzuk) vs. Guatemala kasua*, *Reparaciones*, 2001eko maiatzaren 26ko Epaia, C Seriea, 77. zk., 100. par.; *Bámaca Velásquez vs. Guatemala kasua*, *Reparaciones*, 2002ko otsailaren 27ko Epaia, C Seriea, 92. zk., 76. par.

52 *Myrna Mack Chang vs. Guatemala kasua*, 2003ko azaroaren 25eko Epaia, C seriea, 101. zk., 274. par.

53 *Ibidem*, 274. par.

54 *Ibidem*, 275. par.

55 Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsalak (1948), 8. artikulutik 11.era, aitortzen du pertsona orok duela norbere herrialdeko auzitegi aginpidedunetan errekurtsio eraginkorra jartzeko eskubidea; inor ezin dela arrazoirik gabe atxilotu, preso hartu edo erbesteratu; pertsona orok eskubidea duela auzitegi burujabe eta alderdikeriarik gabean entzun diezaioten, eta errugabetzat jo dezaten, aurkakorik frogatzen ez den bitartean. Eskubide horiek guztiak zabal garatu dira Eskubide Zibil eta Politikoen Nazioarteko Itunean eta nazioarteko beste bitarteko batzuetan, eta zuzenbide-estatuaren oinarritzko bermeak dira.

56 ABELLAN HONRUBIA, V.: “La aportación de las Naciones Unidas a la internacionalización del derecho a la justicia”, in *Los Derechos Humanos en un mundo dividido*, Giza Eskubideen Institutua-Deustuko Unibertsitatea, Bilbo, 1999, 211-226 or.

arteko harreman estu-estu hori, honako hau dioenean: “zenbait herrialdetan ez ikertzea eta ez zigortzea eskutik doa biktimei erreparaziorik ez egitearekin. Biktimak erreparazio-eskakizunak oinarritzeko beharrezko dituzten ebidentzia garrantzitsurik gabe gera daitezke⁵⁷.”

Horrek guztiak eztabaida piztu du, ea estatuak behartuta dauden kasu guztietan giza eskubideekin eta Nazioarteko Zuzenbide Humanitarioarekin lotutako krimen larrien errudunak bide penaletik auzipetzera, edo, aitzitik, baduten nolabaiteko balorazio-tarte bat, gizartearen interes orokorrekin eta adiskidetze nazionalarekin erlacionatutako irizpideetan oinarrituta, batik bat giza eskubideen urraketa larriek markatutako garaien ondorengo trantsizio politikoko prozesuetan. Ez naiz sakon sartuko eztabaida horretan, urrunegi eramango baikintuzke artikulu honen helburuak zein diren kontuan hartuta, baina argi utzi nahi nuke printzipio bat sortzen ari dela: giza eskubideen urraketa larriek (genozidioa, epaiz kanpoko exekuzioak, tortura, desagerketak...) errudunak epaitu eta zigortzeko obligazio orokor bat ezartzen dute⁵⁸, nahiz eta, benetan salbuespenezkoak diren kasuetan, trantsizio-garaietan, estatuak lehen aipatutako irizpideak aintzat hartzeko aukera izango lukeen, obligazio hori neurri batean mugatzeko. Muga horiek noraino irits daitezkeen, horixe da, hain zuzen, desadostasun nagusia. Diane Orentlicher-en iritziz, zigor-auzipetzeek nazioaren bizitza arrisku bizian jartzen badute (adibidez, militarrek auzipetzeekin jarraituz gero estatu-kolpea emango dutela mehatxu egiten badute, sinesteko moduan), orduan soilik onartu ahal izango litzateke zigor-auzipetzeei nolabaiteko mugak jartzea, premia-egoeraren printzipioak bultzatuta⁵⁹; beste autore batzuentzat, berriz, José Zalaquett kasurako, estatuen balorazio-tartea hori baino dezente zabalagoa da, hain zuzen, estatuak beraiek orekatu behar baitituzte justizia indibidualaren beharrak eta gizartearen bakea lortzeko eta adiskidetzeari lotutako exijentzia kolektiboak. Jurista horrek Txileko Egiaren eta Adiskidetzeari Batzorde Nazionalan hartu zuen parte Pinocheten diktaduraren ondoren, eta, haren iritziz, muga horiek jartzeko, bermatu egin behar dira egia jakiteko eskubide osoa eta biktimen erreparazioa; eta, azken batean, biktimagileen erantzukizuna mugatzen duen neurri multzo horrek guztiak herriaren berrespena izan behar du, alegia, herritarrek onartu egin behar dute kontsulta bidez edo demokratikoki hautatutako ordezkarien bidez⁶⁰. Nolanahi ere, onartu behar dugu trantsizio politikoen garaian zenbait estatuk irizpide horiek aplikatzeko aukera edukitzeak, normalean, ate arriskutsu bat zabaltzen diola zigorgabetasunari, ahanzturari eta erreparazio-programa integral eta eraginkorrik ez izateari⁶¹, eta, zoritxarrez, badira baieztapen hori

57 “Seminar on the Right to Restitution, Compensation and Rehabilitation for Victims of Gross Violations of Human Rights and Fundamental Freedoms”, Maastricht, 11-15 March 1992, in *Netherlands Quarterly of Human Rights (SIM Special 12. zk.)*, 1992, 6. or.

58 Bai Genozidio Delitua Prebenitu eta Zehatzeko Konbentzioak (1948) bai Torturaren eta Bestelako Tratu Krudel, Anker edo Apalesgarrien aurkako Konbentzioak (1984) eskatzen dute edo zigor-auzipetzea, edo, bestela, torturaren kasuan, eskumena duen beste herrialde batean epaitzeko estraditatzeko (4. eta 7. artikulua). Genozidioari buruzko Konbentzioaren 6. artikulua adierazten duen bezala, “genozidioa leporatzen zaiei pertsonak (...), zein lurraldetan egin duten egintza, hango auzitegi eskudunak epaituko ditu, edo Nazioarteko Zigor Gorteak, horretarako eskumena badu (...)”. Giza eskubideen urraketa larriak erantzuleak ikertu, epaitu eta zigortzeko betebeharrak jasota dago berriki onartu den Erreparazio Eskubideari buruzko Printzipio eta Jarraibideetan. Hala ezartzen du 4. printzipioak: “giza eskubideen ageriko urraketen eta nazioarteko zuzenbide humanitarioaren urraketa larriak kasuan, nazioarteko zuzenbidearen arabera krimen badira, estatuak *ikertzeko betebeharrak* dute, eta, nahikoa frogak edukiz gero, ustez urraketen erantzule direnak *epaitzeko betebeharrak* eta, erruduntzat jotzeko gero, berriz, *zigortzeko betebeharrak*. Gainera, kasu horietan, nazioarteko zuzenbidea betetz, estatuak elkarlanean jardun beharko dute, eta eskumena duten nazioarteko organo judizialei urraketa horiek ikertzen eta zigor-bidetik pertsegitzen lagundu” (letra etzana guk jarri diogu).

59 ORENTLICHER, D.F.: “Settling Accounts: the Duty to Prosecute Human Rights Violations of a Prior Regime”, in KRITZ, N.J. (Ed.): *Transitional Justice...*, *op. cit.*, 414. or. eta hk. Oso interesgarria da Carlos Ninok aipatutako autorearekin izandako eztabaida, trantsizio politikokoetako garaietan ezartzeko muga horien norainokoaz, Argentinako kasuari aplikatuta. Ikus NINO, C.: “Response: The Duty to Punish Past Abuses of Human Rights Put Into Context: the Case of Argentina”, in KRITZ, N.J. (Ed.): *Transitional Justice...*, *op. cit.*, 417-436 or. Azkenik, Orentlicher irakasleak berak Carlos Ninori erantzun zion, hainbat alderdi ilun argitzeko. Ikus ORENTLICHER, D.F.: “A Reply to Profesor Nino”, in KRITZ, N.J. (Ed.): *Transitional Justice...*, *op. cit.*, 437-438 or.

60 ROHT-ARRIAZA, N.: *Impunity and Human Rights in International Law and Practice*, Oxford University Press, Oxford, 1995.

61 ROHT-ARRIAZA, N.: *Impunity and Human Rights in International Law and Practice*, Oxford University Press,

berresten duten adibideak. Estatuak aplika ditzaketen neurrien artean daude preskripzioak ezartzea⁶², urraketen erantzuleei asiloa ematea, estradizioa ukatzea, zor den obedientzia, arduradun politikoak dituzten immunitateak, “damutuei” buruzko legeak, auzitegi militarren eskumena..., eta, nola aplikatzen eta interpretatzen diren kontuan hartuta, zigorgabetasun maila handiagoa ala txikiagoa eragin dezakete. Kasu horietan guztietan, Zigorgabetasunaren aurka borrokatzeko Printzipio Multzo Eguneratuak ezartzen du, neurri horiek aplikatuta “sor litezkeen desbideratzeak saihesteko bermeak jarriko dituztela” estatuak⁶³. Hau da, mugatu egin behar da, ahal den neurrian, erakunde horiek giza eskubideen urraketa jakin batzuen erantzuleei justiziaren aurrean kontu eman behar izateaz salbuesteko erabiltzea.

Arrisku horiek direla-eta, hain zuzen, Nazio Batuetako giza eskubideen organoa eta nazioarteko jurisprudentzia oso kontuz ibiltzen dira, trantsizio-prozesu baten ondoren sortutako gobernu berriek iraganeko kontuak amnistia-legeak onartuta “konpondu” nahi dituztenean; adiskidetze nazionalaren mesedetan, mugatu egiten baitute giza eskubideen urraketa larrien zenbait arduradunen zigor-erantzukizuna. 1985ean, Latinoamerikako Hego Konoko hainbat herrialdetan demokrazia berreskuratzeko prozesu bete-betean amnistia-legeen gaia proposatzekotan zela, Giza Eskubideen Batzordeko errelatore bereziak honako hau baieztatu zuen: “torturen, nahi gabeko edo bortxazko desagertzeen, edo epaiz kanpoko exekuzioen kasuan, giza izatearen aurkako eraso hain da larria, ezen ahazteko eskubideak zigorgabetasun-eskubide bihurtzeko mehatxu egiten du”⁶⁴. Iritzi horixe bera agertu du Nazio Batuetako Giza Eskubideen Batzordeak hainbat jakinarazpen indibidualetan eta hainbat iruzkin orokorretan. Hala, *Hugo Rodríguez vs. Uruguai* kasuan, Batzordeak honako hau nabarmendu du:

“Giza eskubideen urraketa larrien egileei amnistiak ematea eta Estatuaren zigorasmoa iraungitzeari buruzko 15.848 Legea eta gisakoak bateraezinak dira estatu kide orok Eskubide Zibil eta Politikoen Itunari jarraiki dituen betebeharrekin (...). Batzordea kezkatuta dago, halaber, lege hori onartuta, estatu kideak zigorgabetasun-giroa sortzen lagun dezakeelako, eta, ondorioz, giza eskubideen beste urraketa larri batzuk gertatzeko bide eman dezakeelako”⁶⁵.

Bestalde, Batzordeak, bere 20. Iruzkin Orokorrean, Eskubide Zibil eta Politikoen Nazioarteko Itunak torturaren debekuz jasotakoari buruzkoan, honako hau adierazi du: “tortura-kasuetan amnistiak bateraezinak dira Estatuak gertaera horiek ikertzeko, bere jurisdikzio barruan horrelakorik gertatzen ez dela bermatzeko, eta etorkizunean berriz ere horrelakorik ez dela gertatuko ziurtatzeko duen eginbeharrarekin. Estatuak ezin dituzte herritarrak konponbide eraginkorra lortzeko eskubiderik gabe utzi, eta hor sartzen da ahalik eta konpentsazio eta errehabilitazio osoena ere”⁶⁶.

Aministia-legeen eta zigor-pertsekuzioa eragozteko bestelako neurrien aurkako jarrera

Oxford, 1995.

62 Preskripzioari dagokionez, Gerrako krimenen eta gizateriaren aurkako krimenen preskribaezintasunari buruzko Konbentzioan ezarritakoa sakonduz (1968an onartu zen, eta 1970ean sartu zen indarrean), Erreparazio Eskubideari buruzko Printzipio eta Jarraibideek 6. printzipioan honako hau ezartzen dute: “aplikatzeko den itun batean hala xedatzen denean edo nazioarteko obligazio juridikoen parte denean, ez dira preskribatuko giza eskubideen nazioarteko arauen ageriko urraketak eta nazioarteko zuzenbide humanitarioaren urraketa larriak, nazioarteko zuzenbidearen arabera krimen badira”.

63 *Diane Orentlicher aditu independentearen txostena, op. cit.*, 22. printzipioa.

64 *Amnistia-legeei eta lege horiek giza eskubideak babesteko eta sustatzeko betetzen duten egitekoari buruzko ikerketa. Louis Joinet errelatore bereziaren txostena, E/CN.4/Sub.2/1985/16, 1985eko ekainak 21, 72. par. Nazio Batuetako Giza Eskubideen Batzordeko beste errelatore batzuek, torturaren aurkako errelatoreak kasurako, baieztapen horiek berresten dituzten iritziak azaldu dituzte.*

65 CCPR/C/51/D/322/1988, 1994ko abuztuak 9, 12.4. par. Ikus, bide beretik, *Basilio Laureano Atachagua vs. Peru kasua*, CCPR/C/56/D/540/1993, 1996ko apirilak 16, 10. par., beste askoren artean.

66 *20. Iruzkin Orokorra*, 1992ko martxoak 10, 15. par. Iritzi hori berretsi egin du Batzordeak bere 31. Iruzkin Orokorrean, Eskubide Zibil eta Politikoen Nazioarteko Itunak dakartzan betebeharreari buruzkoan, 2004ko maiatzak 26, *op. cit.*, 18. par.

are irmoagoa etorri da Giza Eskubideen Gorte Interamerikarraren eskutik. *Masacre Plan de Sánchez vs. Guatemala kasua*, Gorteak honako hau ezarri du: “Estatuak bermatu behar du ekintzen erantzuleak ikertu, epaitu eta zigortzeko prozesuak dagozkion ondorioak izango dituela. Gainera, ez du amnistiarik, preskripziorik eta erantzukizuna baztertzen duen neurririk baliatuko, ez eta zigor-pertsekuzioa eragozteko edo kondena-epaiaren ondorioak bertan behera uzteko neurririk hartuko ere”⁶⁷. Amnistiaren gaian kasurik ezagunenetakoa *Barrios Altos vs. Peru kasua* da, zeinetan auzi-jartzaileek Gorteari eskatu zioten, besteak beste, epaia eman zezala, argitzeko Peruk ateratako 26.479 zk.-ko eta 26.492 zk.-ko amnistia-legeak eta Giza Eskubideen Ameriketako Konbentzioa bateragarriak diren ala ez. Gorteak, zalantzarako inolako zirrikiturik uzten ez duen erabaki batean, hauxe adierazi zuen:

“onartezinak dira amnistia-xedapenak, preskripzio-xedapenak eta erantzukizun-salbuespenak, baldin eta giza eskubideen urraketa larrien erantzuleak ikertu eta zigortzea eragozten badute; urraketa larritzat hartzen dira tortura, legez kanpoko exekuzioa, exekuzio arbitrarioa zein sumarioa eta bortxazko desagertzea, denak ere debekatuak Giza Eskubideen Nazioarteko Zuzenbideak aitortutako eskubide ezin indargabetuak hausteagatik. Autoamnistia-legeek biktimen babesgabetasuna dakarte, eta zigorgabetasuna betikotzea, eta, hortaz, argi eta garbi, bateraezinak dira Ameriketako Konbentzioaren edukiarekin eta muinarekin. Horrelako legeek giza eskubideen urraketan erantzuleak identifikatzea eragozten dute, zaildu egiten baitituzte ikerketa eta justiziara iristeko bideak, eta biktimei eta senitartekoei egia jakitea eta dagokien erreparazioa jasotzea eragozten diete”⁶⁸.

Beste behin ere, argi geratzen da banaezinak direla egia, justizia eta erreparazioa. Horietakoren bat mugatzen saiatu orduko, besteak ere mugatu egiten dira, ezinbestean. Hori dela-eta, hurrengo kapituluan ikusiko dugun bezala, ezin zaio erreparazioen programa integral bati ekin, egia jakiteko eskubidearen eta justizia-eskubidearen aldeko apustu sendoa egin gabe⁶⁹. Ildo horretatik, Gorte Interamerikarraren jurisprudentziak egiari, justiziari eta erreparazioari dagokionez behin eta berriz adierazi duenez, ez dago inolako zirrikiturik hiru horietako bakar bat ere mugatzeko, giza eskubideen urraketa larrien kasuan.

Jurisprudentziaren bilakaera aberats eta progresibo horrek gaurkotasuna eman die Victoria Abellánen hitzei, Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsalaren 50. urteurrena zela-eta adierazi baitzuen “giza eskubideen urraketa masibo eta sistematikoen kasuan, amnistia-legeak nazioarteko zuzenbidearen aurkakoak direla, eta, bere horretan, nazioartean giza eskubidetzat aitortutako justizia-eskubidea urratzen dutela”, eta erabat iritzi berekoa naiz ni ere⁷⁰. Bestalde, erantzuleek goian deskribatutako giza eskubideen urraketa larririk eta

67 *Masacre Plan de Sánchez vs. Guatemala kasua*, 2004ko azaroaren 19 Epaia, C seriea, 116. zk., 99. par. Ikus ildo beretik *Gómez Paquiyauri anaiak vs. Peru kasua*, 2004ko uztailaren 8ko epaia, C Seriea, 110. zk., 232. par., *19 merkatari vs. Kolonbia kasua*, 2004ko uztailaren 5eko epaia, C Seriea, 109. zk., 263. par.

68 *Barrios Altos kasua (Chumbipuma Aguirre eta beste batzuk vs. Peru)*, 2001eko martxoaren 14ko epaia, C Seriea, 75. zk., 41. eta 43. par. Barne-eremuan, berriki, 2005eko ekainaren 14an, Argentinako Gorte Gorenak baliogabetzat jo ditu 23.492 eta 23.521 legeak, Raúl Alfonsín-en gobernupean onartuak eta *Amaiera Puntuko Legea* eta *Zor den obediencia Legea* izenez ezagunak, hurrenez hurren, eta, hala, are tarte txikiagoa utzi dio zigorgabetasunari.

69 Hori da, hain justu, International Center on Transitional Justice eta APRODEHEk *kanpoko integralitatea* deitzen dutena, *Parámetros para el Diseño de un Programa de Reparaciones en el Perú...* lanean, *op. cit.*, 7. or.

70 AZAPO erakundeak (*Azania Peoples Organisation*) eta *apartheid*-aren biktima oso garrantzitsuen zenbait sendek errekurtsioa jarri zuten 1996an, Batasun Nazionala eta Adiskidetzeari Sustatzeko Legearen aurka, biktimei justizia egiteko helburuari uko egitea zekarrelako. Hego Afrikako Auzitegi Konstituzionalak berak konstituzionaltzat jo zuen Batasun Nazionala eta Adiskidetzeari Sustatzeko Legea, zeinak, Egiaren eta Adiskidetzeari Batzordea ezartzeaz gain, zenbait amnistia ezartzen zituen egia argitzen Batzordearekin kolaboratzen zutenentzat. Hego Afrikako trantsizio-prozesuaz eta egia, justizia eta erreparazioak izandako egitekoaz aldeko ikuspegia ematen da lan honetan: BORAINÉ, A.; LEVY, J. and SCHEFFER, R. (Arg.): *Dealing with the Past: Truth and Reconciliation in South Africa*, Institute for Democracy in South Africa, Cape Town, 1997. Aldiz, ondorengo lan honetan, Hego Afrikako prozesuaz egindako analisisia ez da hain positiboa, justizia bigarren mailan geratu dela iritzita. MAMDANI, M.: “Reconciliation without Justice”, *African Review of Books*, libk. 46, November-December 1996, 3. or. eta hk; WILSON, R.A.: *The Politics of Truth and Reconciliation in*

sistematikorik egin ez badute, zenbait erakunderen iritziz, amnistia mugatuek lagun dezakete berradiskidetze nazionalaren prozesuan, betiere egia jakiteko eskubidea eta erreparazio-eskubidea bermatzen badira, Hego Afrikan egin den bezala, non erantzule batzuei amnistia emateko baldintza zen *apartheid* garaian egindako urraketei buruz egia osoa argitzen laguntzea⁷¹. Ikuspegi hori jaso da Zigorgabetasunaren aurka borrokatzeko Printzipio Multzo eguneratuan; bertan ezartzen denez, “nahiz eta helburua bake-akordioa lortzeko edo adiskidetze nazionala laguntzeko baldintza egokiak sortzea izan, (...) amnistia eta gainerako erruki-neurriak” ez zaizkie aplikatuko “nazioarteko zuzenbidearen arabera delitu larriak egin dituztenei”, eta inolaz ere ez diete eragingo “biktimen erreparazio-eskubideari (...) eta jakiteko eskubideari”⁷². Ildo horretatik, “amnistia batek betetzen badu Estatuak giza eskubideak sustatzeko duen betebeharra, bere helburuaren, norainokoaren eta inplementazio-moduen argitara epaitu behar da”, nahiz eta A. O’Shea berak aitortzen duen moduan, “aurrekari arriskutsua ezartzen duen”⁷³.

Bada azken hamarkadan aldatzen ari den azken alderdi bat ere, nahiz eta zailtasunak izan aurrera egiteko: *jurisdikzio unibertsalaren* printzipioa orokortzen ari da pixkanaka, eta garrantzitsua izan daiteke justizia-eskubidea aplikatzeko bide zail eta makurrean zigorgabetasuna geldiarazteko. Printzipio horren arabera, giza eskubideen urraketa jakin batzuk hain dira larriak, higuigarriak baitira gizateriaren kontzientziarentzat, eta, ondorioz, gertatu ziren mugetatik kanpo ere pertsegitu daitezke. Erreparazio Eskubideari buruzko Printzipio eta Jarraibide Multzoak defendatzen du printzipio hori hedatu egin behar dela, eta estatuak konpromiso sendoak hartu behar dituztela, bai arlo horretan, bai beste estatu batzuekin eta justizia aplikatzeko nazioarteko organoekin eduki beharreko lankidetzaren arloan⁷⁴. 5. printzipioak xedatzen duen bezala, “aplikatzeko moduko itun batek hala xedatzen duenean, edota nazioarteko betebeharrak juridikoren batek hala ezartzen, estatuak euren barne-zuzenbidean txertatuko dituzte, edo bestela aplikatuko, jurisdikzio unibertsalari buruzko xedapen egokiak. Gainera, aplikatzeko moduko itun batek hala xedatzen duenean, edota nazioarteko betebeharrak juridikoren batek hala ezartzen, estatuak ahalbidetu egin beharko dute errudunak beste estatu batzuetara eta nazioarteko organo judizialera estraditatzeko edo entregatzeko (...)”.

Hortaz, ikusten dugu justizia-eskubidea giltzarri dela trantsizio-prozesuetan, eta ezinbestean erreparazio-prozesu integralaren parte behar duela izan. Hala, justizia eskueran izateak oso toki garrantzitsua du Erreparazio Eskubideari buruzko Printzipio eta Jarraibide Multzoan, lehen ikusi dugun bezala⁷⁵. Nolanahi ere, esperientziak erakusten digu justizia dela prozesu

South Africa: Legitimizing the Post-Apartheid Regime, Cambridge University Press, Cambridge, 2001.

71 AZAPO erakundeak (*Azanian Peoples Organisation*) eta *apartheid*-aren biktime oso garrantzitsuen zenbait senidek errekurtsioa jarri zuten 1996an, Batasun Nazionala eta Adiskidetzea Sustatzeko Legearen aurka, biktimei justizia egiteko helburuari uko egitea zekarrelako. Hego Afrikako Auzitegi Konstituzionalak berak konstituzionalizat jo zuen Batasun Nazionala eta Adiskidetzea Sustatzeko Legea, zeinak, Egiaren eta Adiskidetzearen Batzordea ezartzeaz gain, zenbait amnistia ezartzen zituen egia argitzen Batzordearekin kolaboratzen zutenentzat. Hego Afrikako trantsizio-prozesuaz eta egia, justizia eta erreparazioak izandako egitekoaz aldeko ikuspegia ematen da lan honetan: BORAINÉ, A.; LEVY, J. and SCHEFFER, R. (Arg.): *Dealing with the Past: Truth and Reconciliation in South Africa*, Institute for Democracy in South Africa, Cape Town, 1997. Aldiz, ondorengo lan honetan, Hego Afrikako prozesuaz egindako analisia ez da hain positiboa, justizia bigarren mailan geratu dela iritzita. MAMDANI, M.: “Reconciliation without Justice”, *African Review of Books*, libk. 46, November-December 1996, 3. or. eta hk; WILSON, R.A.: *The Politics of Truth and Reconciliation in South Africa: Legitimizing the Post-Apartheid Regime*, Cambridge University Press, Cambridge, 2001.

72 Diane Orentlicherren txostena, ... printzipio multzoa eguneratzeko ardura duen aditu independentearena. *Op. cit.*, 24. printzipioa.

73 O’SHEA, A.: *Amnesty for Crime in International Law and Practice...*, *op. cit.*, 165. or.

74 Nazioarteko justizian egin diren aurrerapenei buruz, Nuremberg-eko eta Tokioko epaiketetatik hasi eta Nazioarteko Zigor Auzitegia sortzeraino, tartean Ruandarako edo Jugoslavia ohirako *Ad Hoc* Auzitegiak ere aztertuta, ikus BEIGBEDER, Y.: *International Justice Against Impunity. Progress and New Challenges*, Martinus Nijhoff Publishers, Dordrecht, 2005.

75 Ikus 4. printzipioari buruzko erreferentzia 111. oharrean. Bestalde, 12. eta 13. printzipioak 4. printzipioaren osagarri garrantzitsu dira. 12. printzipioak ezartzen duenez, “Giza eskubideei buruzko nazioarteko arauen ageriko urraketen edo nazioarteko zuzenbide humanitarioaren urraketa larrien biktimek berdintasunez baliatu ahal izango

horietan kate-mailarik ahulena, mota guztietako zailtasunak izaten baititu eta, sarritan, gairatzen zailak baitira⁷⁶. Zailtasun politikoak direla, herrialde bateko botere judizialak prozesu judizial andanari aurre egiteko dituen baliabide materialekin lotutako oztopoak direla, edo botere judizialaren barruan “enklabe autoritario” zenbaitek oraindik ere hortxe irautea, horrek guztiak apur bat eszeptiko izatera garamatza, giza eskubideen urraketa larrien eta masiboen kasuetan justiziak benetan izaten duen egitekoaren inguruan⁷⁷. Egiatzapen triste horrek akuilu behar luke beste behin ere justiziaren zentralitatea azpimarratzeko, indarkeriaz eta giza eskubideen urraketa larritz betetako iraganaren ondareak gairatzen prozesu orotan⁷⁸. Juan Méndezek oso modu grafikoan adierazi duen bezala, justizia-eskubidea ezin daiteke Egiaren Batzordearen txosten baten eta erreparazioen programa mugatu baten truke aldatu; eskubide hori “zigorgabetasuna gairatzen politikaren elementutzat” hartu behar da⁷⁹.

Erreparazioen prozesu integral baterantz

Behin aztertuta zer-nolako garrantzia duten egiak eta justiziak iragan gatazkatsua gairatzen prozesuan, jarraian, hirugarren funtsezko elementuaz jardungo dugu: giza eskubideen urraketan biktimei erreparazioa egiteaz. Gaur egun, bizi-bizirik dago erreparazioak duen egitekoari buruzko eztabaida⁸⁰, eta, horren ondorioz, Erreparazio Eskubideari buruzko Printzipio eta Jarraibideak onartu dira, zeinetan erreparazio-programa egokia garatzeko esparrua ezartzen den.

Lehenik eta behin, azpimarratu behar dugu erreparazioa “ez dela panazea”⁸¹, Fierabrásen baltsamoa legez, trantsizio-gizarteetan iraganarekin lotuta dauden arazo guztiak konponduko dituen. Giza eskubideen urraketa larrien zenbait ondorio “erreparaezinak” dira⁸², bai maila indibidualean zein kolektiboan; batzuetan, zauriak halakoak dira, ezen biktimek min horrekin bizitzen ikas dezaten baino ezin da itxaron, osorik sendatzea ez da-eta itxaropen errealista⁸³. Giza Eskubideen Gorte Interamerikarreko lehengo presidenteak, Antonio A. Cançado Trindade internazionalista brasildarrak, adierazi duenez, Guatemalako kaleko zenbait umeren bahiketa, tortura eta ondorengo erailketaren kasu tragikoan,

dute errekurso judizial eraginkorra, nazioarteko zuzenbideak ezarritakoaren arabera. Biktimek euren esku izango dute, halaber, organo administratibo eta bestelakoetara jotzeko aukera, edota beste mekanismo, modalitate edo prozedura batzuk baliatuzkoa, barne-zuzenbidearen arabera. Nazioarteko zuzenbideak betebeharrak batzuk ezarri ditu behar bezala ziurtatzeko justizia eskueran izateko eskubidea eta bidezko prozedura inpartziala izateko eskubidea. Bada, barne-zuzenbidean islatu beharko dira betebeharrak horiek.”, eta 13. printzipioak, berriz, zenbait biktime-taldeek demanda kolektiboak jartzea onartzen du. 13. printzipio horren arabera, “Biktimei justiziara banan-banan jotzeko aukera emateaz gain, estatuak ahaleginak egin behar dituzte biktime-taldek ere izan dezaten erreparazioa eskatu eta eskuratzeko aukera, zer egokitzen den”.

76 MINOW, M.: *Between Vengeance and Forgiveness. Facing History after Genocide and Mass Violence*, Beacon Press, Boston, 25. or. eta hk.

77 BARAHONA DE BRITO, A.: “Introduction”, in BARAHONA DE BRITO, A.; GONZALEZ-ENRIQUEZ, C. and AGUILAR, P. (Arg.): *The Politics of Memory...*, op. cit., 10. or. eta hk.

78 MANI, R.: “Reparation as a Component of Transitional Justice Pursuing *Reparative Justice* in the Aftermath of Violent Conflict”, in *The Right to Reparation for Victims of serious human rights violations*, International Conference, University of Leuven-University of Antwerp, Brussels, 25 February 2005 (artikulu hori ekarpen hau egin duen egilearen eskuetan dago), 4. or. eta hk.

79 MENDEZ, J.: “Derecho a la verdad frente a las graves violaciones de los derechos humanos”, in ABREGU, M. eta COURTIS, C. (Biltz.): *La aplicación de los tratados...*, op. cit., 537. or.

80 Horretaz, ikus ikerketa bikain hau. DE GREIFF, P. (Arg.): *The Handbook of Reparations*, Oxford University Press, Oxford, 2006.

81 BARKAN, E.: “Legal Settlements as a Form of Cultural Politics: A Moral and Historical Framework for the Right to Reparations”, in ULRICH, G. and BOSERUP, L.K. (Arg.): *Reparations: op. cit.*, 407. or.

82 HAMBER, B.: “Repairing the Irreparable: Dealing with double-binds of making reparations for crimes of the past”, Paper presented to the African Studies Association of the UK, London, 14-16 September 1998, in <http://www.incore.ulst.ac.uk/publications/conference/thepast/repair.html>.

83 ANTZE, P. and LAMBEK, M. (Arg.): *Tense Past: Cultural Essays in Trauma and Memory*, Routledge, London, 1996.

“erreparazioek, benetan erreparatu beharrean, arindu egiten dute giza sufrimendua (...). Egindako gaitza (...) ez da desagertzen: aurre egin, eta arindu baino ez da egiten. Emandako erreparazioek agian jasangarri bihurtzen dute biziraun duten senitartekoen bizitza; izan ere, kasu zehatz honetan, isiltasunak, axolagabekeriak eta ahanzturak ez dute lortu ankerkerien gainetik jartzetik, eta egindako gaitza ez da nagusitu justiziaren bilaketa etengabearen gainean”⁸⁴.

Horrek gai korapilatsu bihurtzen du erreparazioekin lotutako guztia, erreparazio-prozesu orok “biziraun dutenen asebate gabeko eskakizunekin” batera bizi beharko baitu denbora luzez⁸⁵; hala erakusten dute, esaterako, Argentinako Maiatzeko Plazako ama-amonek, edo Espainiako Gerra Zibilaren eta Frankismoaren biktimek, beste kasu askoren artean. Gainera, Gobernuak, alde batetik, eta biktimek, bestetik, *tempus* desberdina dute erreparazio-prozesu bati aurre egiteko orduan. Gobernuek, normalean, biktimen erreparazio-kontua amaitutzat emateko, denbora-tarte labur eta mugatuaren aldeko apustua egiten dute; biktimek, berriz, lehentasun desberdinak izan ditzakete, eta, hasieran, erreparazioak ez dira lehentasunen artean egoten normalean. Biktimentzat, hasiera batean, egia osoa jakitea eta justizia egitea da garrantzitsuena, iruditzen baitzaie arreta erreparazioetan jartzea irtenbide individuala dela, eta, neurri batean, norbere sufrimenduarekiko eta gainerako biktimen sufrimenduarekiko egoista dela⁸⁶. Biktimek denbora behar dute beraien biktimatze-errealitatea onartzeko. Ildo horretatik, dolu-prozesu orok normalean lau fase izaten dituela esan ohi da: ukazioa, amorrua, mina eta onarpena. Fase horiek amaitzean, orduan daude biktimak erreparazio-programa bati buruz halako lasaitasun eta perspektiba batekin hausnartzen eta eztabaidatzen hasteko moduan⁸⁷. Argi dago, beraz, “biktimen ikuspegitik, beraien aldarrikapenak egiteko denbora-tarte irekia edo oso luzea dela hobereana”⁸⁸, nahiz eta horrek Gobernu askoren nahiekin talka egiten duen ezinbestean. Horrek guztiak iragartzen du erreparazio-prozesuak “prozesu jarraitzat (eta ziur aski amaigabetzat)” ulertu beharko direla nahitaez, non biktimekin etengabe izango diren tentsioak eta desadostasunak⁸⁹, eta, ondorioz, biktimak deseroso bihur daitezke boterearentzat⁹⁰.

Gogoeta horrek erakusten digu erreparazioak *prozesutzat* hartu behar direla, eta ez ekintza sinboliko batzuk egin eta biktimei hainbat onura ekonomiko eta bestelako laguntzak emateko une jakintzat. Garrantzitsuenak ez dira biktimen erreparazioa xede duten objektuak, baizik eta “objektu horien inguruan gauzatzen diren prozesuak”⁹¹. Horregatik dira bai biktima indibidualentzat bai gizarte osoarentzat hain garrantzitsuak erreparaziorako neurri sinbolikoak, asko eta asko oroimen-politikekin lotutakoak; erreparazioa ez da fenomeno ekonomiko edo material hutsa, biktimak txertatu beharreko iruditeria politiko eta soziala aldatzeko neurri multzo bat behar du. Funtsean, komunitate politikoa berriz eratzea helburu duen prozesu politiko baten aurrean gaude⁹²; gizartean oreka berri bat ezarri nahi du, non biktimak biktimatzat

84 “Voto razonado del Juez A. Cançado Trindade”, in *Caso de los “Niños de la Calle” (Villagrán Morales y otros) vs. Guatemala*, 2001eko maiatzaren 26ko Epaia, Reparaciones, C Seriea, 77. zk., 42. eta 43. par.

85 HAMBER, B. and WILSON, R.: “Symbolic Closure through Memory...”, *op. cit.*, 5. or.

86 LUTZ, E.L.: “After the elections: Compensating Victims of Human Rights Abuses”, in KRITZ, N.J. (Ed.): *Transitional Justice...*, *op. cit.*, 562. or.

87 SCHOTMANS, M.: “Victim’s expectations, needs and perspectives after gross and systematic human rights violations”, in *The Right to Reparation for Victims of serious human rights violations*, International Conference, University of Leuven-University of Antwerp, Brussels, 25 February 2005 (artikulu hori ekarpen hau egin duen egilearen eskuetan dago), 1. or.

88 LUTZ, E.L.: “After the elections...”, *op. cit.*, 562 or.

89 HAMBER, B. and WILSON, R.: “Symbolic Closure through Memory...”, *op. cit.*, 16. or.

90 Biktimek eragindako *deserosotasun* horren adierazgarri dira Maite Pagazaurtundua Terrorismoaren Biktimen Fundazioko presidentearen hitzak, baieztatzen baitu “beldur garela ez ote gaituzten trabatatzat hartuko eta isilarazi nahiko, minduta gaudenez hitz egiteko legitimaziorik ez dugula esanez” (*EL PAIS*, 2005eko irailak 18, 22. or.).

91 HAMBER, B.: “The Dilemmas of Reparations: In Search of a Process Driven Approach”, in *The Right to Reparation for Victims of serious human rights violations*, International Conference, University of Leuven-University of Antwerp, Brussels, 25 February 2005 (artikulu hori ekarpen hau egin duen egilearen eskuetan dago), 9. or.

92 MARTIN BERISTAIN, C. eta PAEZ ROVIRA, D.: *Violencia, apoyo a las víctimas y reconstrucción social*, Editorial Fundamentos, Madril, 2000. Liburu horretan hainbat trantsizio-prozesuren analisi konparatibo interesgarria

aitortuko diren eta eremu politiko eta sozialean beste eginkizun bat beteko duten⁹³. Ildo horretatik, erreparazioa *justizia erreparaziozko eta transformatzailearen* prozesuaren parte bihurtzen da; justizia horren helburua, azken batean, biktimen erreparazio osoa lortzea da, eta gizartea aldatzea, gizarte justuagoa eginez, non iraganeko urraketen biktimek dagokien lekua izango duten⁹⁴. Izan ere, giza eskubideen urraketa larrien eta muturreko indarkeriaren kasuetan ez dira biktimak indibidualak bakarrik kaltetzen; aitzitik, gizarte osoak bukatzen du traumatizatuta⁹⁵. Horregatik, erreparazio-prozesuak ez du biktimak indibiduali begirakoa bakarrik izan behar, gizarte osoari begirakoa ere bai, erreparazio sozialaren prozesu baten premia baitu⁹⁶. Gorte Interamerikarraren jurisprudentziak erreparazio kolektiboak erreparazio indibidualen ezinbesteko osagarri direla onartu du hainbat kasutan, batez ere giza eskubideen urraketek komunitate indigenak kaltetu dituztenean. *Masacre Plan de Sánchez vs. Guatemala kasuan*, Gorteak hala adierazi du: “biktimak (...) maien herriko parte direnez, Auzitegi honen iritziz, erreparazio indibidualaren osagai garrantzitsu dira Gorteak aurrerago komunitateetako kideei oro har ematen dizkien erreparazioak”⁹⁷.

Erreparazio-prozesu bat ondo amai dadin kontuan hartu beharreko beste funtsezko alderdietako bat da urraketen biktimak eta erreparazio horien onuradunak behar bezala *identifikatzea*⁹⁸, eta hori estu-estu lotuta dago egia jakiteari buruzko eskubideari buruz gogoeta egin dugunean aipatutako *aitorpenarekin*. Biktimak identifikatzeko orduan, bereizi egin behar dira biktimak *zuzenak eta zeharkakoak* (urraketak zuzenean sufritu ez, baina biktimak zuzenei lotuta daudenak), eta biktimak *indibidualak eta kolektiboak*. Azken horiek sortzen dira hizkuntzaren, arrazaren, erlijioaren edo horrelako arrazoi jakinen bidez lotutako talde jakin batek urraketa nozitzen duenean. Egia esan, biktimak-kategoria horiek guztiak aitortuta daude Erreparazio Eskubideari buruzko Printzipio eta Jarraibideetan, ikusi dugun bezala, nahikoa definizio zabalak ematen baitute biktimatzat hartu behar denaz⁹⁹. Baina, biktimatzat zein hartu behar den jakiteko definizioa hor egonik ere, aitortu behar dugu biktimak horiek erreparazio-prozesuan parte har dezaketela pertsona edo taldeetaz aitortzea, azken batean, “erabaki politikoa” dela¹⁰⁰, eta, hala denez, ezinbestean, aukerakoa dela neurri batean¹⁰¹. Biktimak identifikatzeko orduan alderdirik garrantzitsuena da identifikatze hori

egiten da, eta aztertzen da erreparazio-prozesuak nola landu diren Txilen, Argentinan, Guatemalan, Hego Afrikan edo Ipar Irlandan.

93 BROOKS, R.L.: “African American Redress Movement: the Quest for Atonement”, in ULRICH, G. and BOSERUP, L.K. (Arg.): *Reparations: op. cit.*, 17. or.

94 MANI, R.: “Reparation as a Component of Transitional Justice Pursuing *Reparative Justice...*”, *op. cit.*, 25. or.

95 BECKER, D.; LIRA, E. *et al.*: “Therapy with Victims of political repression in Chile : the Challenge of Social Reparation”, in KRITZ, N.J. (Ed.): *Transitional Justice...*, *op. cit.*, 584. or.

96 MARTIN-BARO, I.: “Reparations: Attention Must Be Paid”, in KRITZ, N.J. (Ed.): *Transitional Justice...*, *op. cit.*, 571. or.; DAVID, R. and YUK-PING, CH.: “Victims of Transitional Justice: Lessons from the Reparation of Human Rights Abuses in the Czech Republic”, *Human Rights Quarterly*, 27. libk., 2. zk., 392-435 or.

97 *Masacre Plan de Sánchez vs. Guatemala kasua*, 2004ko azaroaren 19ko Epaia, C seriea, 116. zk., 86. par.

98 “The Right to Reparation for Victims of gross and systematic violations of human rights”, *The Right to Reparation...* hitzaldian aurkeztutako ondorioen agiria, *op. cit.*, 29. or.

99 Ikus horretaz Printzipioen eta Jarraibiden 8. printzipioan agertzen den biktimaren definizioa.

100 *Parámetros para el Diseño de un Programa de Reparaciones en el Perú...*, *op. cit.*, 24. or.

101 Hemen interesgarria da aipatzea Alemanian izandako eztabaida, nork duen II. Mundu Gerrako biktimak papera hartzeko eskubidea; izan ere, duela ondo gutxira arte alemaniarrek ez dira gai izan aliatuen bombardaketek utzitako biktimak alemaniarrek eta Alemaniako hirien suntsiketa sistematikoa oroimen kulturean kontuan hartzeko, judutarrei egindako genozidioa dela-eta errudun-kontzientzia dutelako. Ikus SEBALD, W.G.: *Sobre la historia natural de la destrucción*, Anagrama, Barcelona, 2003. Judutarrak *biktima pribilegiatuztat* hartzeko orduan politikak izandako eragina, eta Israelgo Estatuak nola baliatu duen pribilegio hori nazioarteko politikaren esparruan; horri buruzko azterketa polemikoa aurki daiteke ondorengo lan honetan. FINKELSTEIN, N.G.: *La Industria del Holocausto. Reflexiones sobre la explotación del sufrimiento judío*, Siglo XXI de España Editores, Madrid, 2002. Ikus horretaz ondorengo gogoeta hau. TRAVERSO, E.: “La singularidad de Auschwitz. Un debate sobre el uso público de la historia”, *Pasajes de Pensamiento Contemporáneo*, 2005eko udaberria, 111-118 or. Judutarrak *biktima pribilegiatuztat* hartu izan badira ere, oso bestela jokatu da, denbora luzeegian ahaztuta egon baitira, Hiroshima eta Nagasakin bomba atomikoek eragindako biktimekin (berriki izan da 60. urteurrena). Ikus SUBIRATS, E.: “Réquiem por Hiroshima y Nagasaki”, *EL PAIS*, 2005eko abuztuak 6, 11. or. 2005ean, bonbak lehortu ondoren izandako bizipenak kontatzen dituen mediku japoniar baten egunerokoa berrargitaratu zen. Ikus HACHIYA, M.: *Diario de Hiroshima*, Turner, Madrid, 2005.

inolako diskriminaziorik gabe egitea, funtsean pertsonen sufrimenduari begiratuz, eta ez kolore politikoari, kredo erlijiosoari, jatorri etnikoari edo generoari begiratuz¹⁰². Aitortu behar dugu Erreparazio Eskubideari buruzko Printzipio eta Jarraibideak egiteko prozesuan hasiera-hasieratik egon dela ez diskriminatzeke kezka, eta kezka hori 25. printzipioan gauzatu da, hala xedatzen baitu: “Oinarrizko printzipio eta jarraibideon aplikazioak eta interpretazioak bat etorri beharko du giza eskubideei buruzko nazioarteko arauekin eta nazioarteko zuzenbide humanitarioarekin, inolako eta ezelako diskriminaziorik gabe, inongo salbuespenik ez dela”. Printzipio horrek ez diskriminatzeari buruz halako irmo diharduenez, erreparazio-programek osoak izan behar dutela ondorioztatu behar da; alegia, prozesu inklusiboa izan behar dute, eta ez baztertzaila. Alegia, programa horiek biktime guztien beharrei erantzuten saiatu behar dute, eta ez une horretan politikoki zuzentzat hartzen diren biktime bakarrik¹⁰³, horrela gorrotoa eta erresumina piztu baitaitezke, eta are zailago egin adiskidetze-prozesua¹⁰⁴.

Baina, diskriminaziorik eza oinarrizko erreferentetzat hartzeak ez du esan nahi biktime guztiak egoera berean daudenik eta denei erreparazioak guztiei berdin dagozkienik. Ildo horretatik, *biktime ikuspegi horizontalaren* alde egin da, eta, horrela, batetik, biktime-talde bakoitzaren berariazotasuna aitortzen da, eta, bestetik, ez da haien arteko hierarkiarik ezartzen, ez dago horretarako beharrik-eta¹⁰⁵. Kezka horri erantzuteko xedez, Erreparazio Eskubidearen Printzipio eta Jarraibideek *proporzionaltasuna* sartzen dute, egoki sartu ere, erreparazioen zenbaterainokoa erabakitzeke irizpidetzat. 18. printzipioak ezartzen duenez, “kasu bakoitzaren inguruabarrak aintzat hartuta, giza eskubideei buruzko nazioarteko arauen urraketa nabarien eta nazioarteko zuzenbide humanitarioaren urraketa larrien biktimek erreparazio osoa eta eraginkorra jaso beharko lukete; jaso ere, urraketa larritasunari dagokion eran eta proporzioan, eta kasu bakoitzaren inguruabarrei begiratuta (...)”.

Erreparazio-prozesu egokia apailatzeko orduan, bada ezinbestekoa den beste osagai bat: osotasuna. Erreparazio-prozesuak osoa izan behar du, bai kanpotik bai barrutik¹⁰⁶. *Kanpoko osotasunaz* jardun dugu egia, justizia eta erreparazioaren arteko loturak aztertu ditugunean. Erreparazio-programa ezin da ulertu, aldi berean, egia jakiteko eskubidean eta justizia-eskubidean aurrera egin gabe. Erreparazioa ezin da egiaren eta justiziaren ordezkotza huts bihurtu, batzuetan nahi den bezala, isiltasuna eta injustizia erostearen pareko baillizateke hori¹⁰⁷. Bestalde, biktimei eta gizarteari erreparazioa egiteko neurriek koherenteak izan behar dute, eta bata bestearen lagungarri. Horixe da, hain zuzen, *barneko osotasuna*. *Erreparazioak* ez dauka dimentsio ekonomikoa bakarrik; biktimei eragindako kaltea erreparatzeko eta oreka politiko eta sozial berri bat aurkitzeko alderdi guztiak bildu behar ditu ahalegin horrek; prozesu horretan erreparazio-neurri bakoitzak egiteko desberdina eduki dezake, baina osagarria. Erreparazio-prozesuaren osotasun hori behin eta berriz aipatu du Giza Eskubideen Gorte Interamerikarrak. Horrela, *Loayza Tamayo vs. Peru kasuan*, Gorteak honako hau adierazi zuen:

“homo oeconomicus-en ikuspegi ekonomikoak lortu nahi duenaz bestera, eta

102 Genero-diskriminazioa da erreparazio-politikak baldintzatzen dituen beste alderdi bat. Horregatik, erreparazio-programa integral orok kontuan izan behar du genero-ikuspegia.

103 Hori da Ruandan 1994ko genozidioaren ondoren gauzatzen ari den justizia trantsizionalaren prozesuari egindako kritika nagusietako bat. Bai egia jakiteko neurriak, bai justizia egiteko neurriak eta biktimek erreparatzekoak arrazagatiko diskriminazioak baldintzatzen ditu. Ikus ROMBOUTS, H.: *Victim Organisations and the Politics of Reparation...*, 486. or. eta hk.

104 Behin Gerra Zibila amaitzean erregimen frankistak biktime errepublikarrak nahita ahaztu izanak azaltzen du (benetako *oroimenzidua*, Javier Rodrigoren hitzetan), zenbaiten iritziz, Gerra Zibilaren eta Frankismoaren zauriak oraindik osatu gabe egotea 50 urte geroago, eta horrek oroimen historikoaren inguruko eztabaida piztu du gure herrian. Ikus horretaz RIPOLL CARULLA, S. eta VILLÁN DURÁN, C. (Zuz.): *Justicia de transición: el caso de España*, Institut Català per la Pau, Barcelona, 2012.

105 “The Right to Reparation for Victims of gross and systematic violations of human rights”, *The Right to Reparation...* hitzaldian aurkeztutako ondorioen agiria, *op. cit.*, 30. or. eta hk.

106 *Parámetros para el Diseño de un Programa de Reparaciones en el Perú...*, *op. cit.*, 7. or.

107 Ellen Lutz-ek *blood money* deitu dio biktime isiltasuna erosteko ahalegin horri, biktimei iruditzen baitzaie erreparaziotzat jasotako dirua zikina eta lohia dela, baldin eta helburua soilik bada egia jakiteko eta justizia egiteko bidean aurrera egin dadin eragozte. Ikus LUTZ, E.L.: “After the elections: Compensating Victims of Human Rights Abuses”, in KRITZ, N.J. (Ed.): *Transitional Justice...*, *op. cit.*, 553. or.

*zoritzarrez hori da nagusi gure garaian, (...) gizakiak neurketa edo proiektzio ekonomiko hutsaz haratagoko behar eta itxaropenak ditu (...). Hori guztia horrela izanik, argi ikusten da diruz bestelako erreparazioak prima facie pentsa litekeena baino askozaz garrantzitsuago direla (...). Erreparazioen kapitulu osoa (...) berriz pentsatu behar da biktimaren nortasunaren osotasunaren ikuspegitik, eta kontuan izanik bai gizaki egiten duen hori, bai bere duintasuna leheneratu beharra (...)*¹⁰⁸.

Aitortu behar dugu berriki onartutako Erreparazio Eskubidearen Printzipio eta Jarraibideetan jasota daudela arestian aipatu ditugun bi dimentsio horiek. Ikusi dugun bezala, Printzipioek ez dute bereiz hartzen erreparazioa, egia- eta justizia-politiketan kokatutako prozesutzat baizik. Bestalde, Printzipioetan hainbat erreparazio-neurri aipatzen dira, Estatuak beraien erreparazio-programak diseinatzeko orduan eskura izan ditzaten. Ildo horretatik, Estatuak, kasu bakoitzaren eta herrialde bakoitzaren gorabehera zehatzen arabera, honako erreparazio moduetara jo ahal izango dute: *leheneratzea, kalte-ordaina, errehabilitazioa, gogobetetzea eta ez errepikatzeak bermeak*. Baina ez gaude *numerus clausus* zerrenda baten aurrean; aitzitik, estatuak erabaki dezakete, egoerak hala eskatzen badu, erreparazio indibiduala eta soziala egiteko beste moduren bat aplikatzea¹⁰⁹. *Malgutasuna* eta *moldagarritasuna* irizpide garrantzitsuak dira, eta estatuak baliatu egin behar dituzte erreparazio-programa bat diseinatzen ari direnean, egoera bakoitzak berariazko erreparazio-programa bat eskatuko baitu, gizarte bakoitzaren ezaugarri etniko, kultural, linguistiko eta abarretara egokitua¹¹⁰. Hala azpimarratu du behin baino gehiagotan Giza Eskubideen Gorte Interamerikarrak. Lehen aipatu dugun kasuan, *Plan de Sánchez vs. Guatemala kasuan*, Gorteak oso kontuan izan zuen dimentsio kulturala, eragindako pertsona indibidualentzako zein komunitate indigenentzako erreparazioak agintzeko orduan. Epailleek aitortu zuten bezala, “hil egin dituztenek emakumeak eta adinekoak, maya achí kultura ahoz aho transmititzen zutenak, ez da belaunaldi berriei ezagutzak transmititzerik izan, eta horrek hutsune kulturala sortu du gaur egun (...). Maia herriaren bereizgarri diren elementu soziokulturalak (mundu-ikuskerak, espiritualtasuna eta gizarte-egitura komunitarioak) ulertu eta horretan oinarritutako ikuspegi kolektibotik abiatuta, eta haren kontra egindako ekintza genoziden neurria aitortuta; horrela eta ez bestela erabaki behar dira erreparazio-neurriak (...)¹¹¹. Hortaz, maia herriaren aurkako genozidio-saioaren dimentsio kulturalak kontuan hartuta, erreparazioen ardatz nagusietako bat izango da geldiaraztea “belaunaldi zaharren eta berrien arteko lotura historikoa suntsitzeko ahalegin hori, lotura horretatik igarotzen baita tradizio kulturala, eta tradizio hori baita herritarren identitatearen izaera eta adierazpidea, bai maila indibiduallean bai kolektiboan”¹¹².

Ondoren, Printzipio eta Jarraibideek aipatzen dituzten erreparazio modu desberdinak errepasatuko ditugu, estatuak baliatu ditzaketen erreparazio-neurrien zerrenda nahikoa

108 *Loayza Tamayo vs. Peru kasua*, 1998ko azaroaren 27ko Epaia, Reparaciones, C Seriea, 42. zk., “Voto Razonado Conjunto de los Jueces A. A. Cançado Trindade y A. Abreu Burelli”, 9-11 eta 17. par.

109 *Giza eskubideen urraketen eta nazioarteko zuzenbide humanitarioaren urraketen biktimek errekurtsioak aurkezteko eta erreparazioa eskuratzeko duten eskubideari buruzko oinarritzko printzipio eta jarraibideen gainean aholku emateko 2. bileraren txostena (Geneva, 2003ko urriak 20, 21 eta 23)*, E/CN.4/2004/57, 2003ko azaroak 10, 12. or.

110 TOMUSCHAT, C.: “Individual reparation Claims in Instances of Grave Human Rights Violations: the Position under General International Law”..., *op. cit.*, 25. or.

111 Ikus Sergio García Ramírez epailearen boto arrazoitua oraintxe aipatutako epaian: erreparazio-prozesuetan dimentsio kulturalak duen garrantzia azpimarratzen du. Hauxe da alderdi kulturek funtsezko eginkizuna izan zuten kasuetako bat: *Mayagna (Sumo) Awas Tingni Komunitatea vs. Nicaragua kasua*, 2001eko abuztuaren 31ko Epaia, C Seriea, 79. zk. Ikus benetan aitzindari den epai horri buruzko azterketa monografikoa hemen: GOMEZ ISA, F. (Arg.): *El Caso Awas Tingni. Derechos Humanos entre lo local y lo global*, Deustuko Unibertsitatea, Bilbo, 2013.

112 Ikus Sergio García Ramírez epailearen boto arrazoitua oraintxe aipatutako epaian: erreparazio-prozesuetan dimentsio kulturalak duen garrantzia azpimarratzen du. Hauxe da alderdi kulturek funtsezko eginkizuna izan zuten kasuetako bat: *Mayagna (Sumo) Awas Tingni Komunitatea vs. Nicaragua kasua*, 2001eko abuztuaren 31ko Epaia, C Seriea, 79. zk. Ikus benetan aitzindari den epai horri buruzko azterketa monografikoa hemen: GOMEZ ISA, F. (Arg.): *El Caso Awas Tingni. Derechos Humanos entre lo local y lo global*, Deustuko Unibertsitatea, Bilbo, 2013.

oso baita. Lehenik eta behin, 19. printzipioa *leheneratzeaz* ari da, “ahal den neurrian”; izan ere, leheneratzeak “urraketaren aurreko egoerara itzularazi behar du biktima”, eta hori, zenbaitetan, ezin da, ezinezkoa da. Leheneratzeko neurrien artean, honako hauek aipatzen dira Printzipioetan: “askatasuna berreskuratzea, giza eskubideez, nortasunaz, familia-bizitzaz eta herritartasunaz gozatzea, bizilekura itzultzea, enplegura bueltatzea eta ondasunak itzultzea”. Adierazi dugun bezala, leheneratzearen helburua da, ahal dela, biktima urraketaren aurreko egoerara itzularaztea, eta itzultze hori kasu bakoitzaren inguruabar jakinen arabera egingo da.

Bigarrenik, *kalte-ordaina*¹¹³ aipatzen dute Printzipioek; erreparatzeko modu klasikoetako eta ohikoenetako bat da. “Kalte-ordain egokia, urraketaren larritasunaren arabera, zor zaio (...), bakoitzaren inguruabarrak aintzat hartuta, urraketen ondoriozko kalte orori (...), baldin eta ekonomikoki ebaluagarria bada”. Kalte-ordaina jasotzeko moduko kaltetzat jotzen dira ondorengo hauek: “kalte fisikoa edo mentala; aukerak galtzea, bereziki enpleguari, hezkuntzari eta gizarte-prestazioei dagozkienak; kalte materialak eta diru-sarrerak galtzea, eskuratu gabeko irabazia barne; kalte moralak; laguntza juridikoarekin edo adituen laguntzarekin, sendagaiekin eta zerbitzu mediko, psikologiko eta sozialekin zerikusia duten gastuak”. Ikus dezakegun bezala, mota askotako kalte ekonomikoak jo daitezke kalte-ordaina jasotzeko modukotzat erreparazio-programa batean.

Errehabilitazioa da Printzipioetan agertzen den hirugarren erreparazio modua¹¹⁴, eta hor sartzen dira “arreta medikoa eta psikologikoa eta zerbitzu juridikoak eta sozialak”. Errehabilitazioa bereziki egokia da giza eskubideen urraketek ondorio fisiko zein psikologiko nabarmenak utzi dituzten kasuetan (pentsa dezagun tortura kasuetan edo maite dituztenak denbora luzez desagertuta eduki dituztenen kasuetan).

*Gogobetetzea*¹¹⁵ da laugarren erreparazio modua, eta jardun dugu horretaz, biktimen aitortzen aritu garenean, egia jakiteko eskubidearen testuinguruan. Horixe dugu elementurik garrantzitsuenetakoa erreparazio-prozesu orotan, iruditeria kolektiboarekin eta oroimenarekin lotutako kontu sinbolikoei heltzen baitie. Bere garaian aipatu dugun bezala, gogobetetzea lortzeko ekintzen artean daude “egia publikoki eta osorik ezagutaraztea (...); desagertutakoak aurkitzea (...); adierazpen ofizial edo epai-erabaki bat, biktimaren (...) duintasuna, izen ona eta eskubideak berrezartzeko; publikoki barkamena eskatzea (...); ospakizunak biktimen oroitzapen eta gorazarretan (...)”. Azken batean, neurrien katalogo zabal bat, erreparazio-programaren zati den oroimen-politika egokia egiteko erabilgarri.

Printzipioetan aipatzen den azken erreparazio modua *ez errepikatzeko bermeak* dira¹¹⁶: gertatutako giza eskubideen urraketa guztiak etorkizunean berriz ez gertatzea helburu duten neurri multzo guztiak. Estatuak prebentzio gisa martxan jar ditzaketen neurrien artean daude honako hauek: “agintari zibilek benetako kontrola izatea indar armatuen eta segurtasun-indarren gainean (...); botere judizialaren independentzia indartzea (...); giza eskubideei eta nazioarteko zuzenbide humanitarioari buruzko hezkuntza ematea¹¹⁷, lehentasunez eta etengabe eman ere, gizarteko sektore guztiei; orobat, gai horri buruzko prestakuntza ematea legea betearazteko ardura duten funtzionarioei, eta indar armatuetako eta segurtasun-

113 20. printzipioa.

114 21. printzipioa.

115 22. printzipioa. Printzipio horren a) idatzi-zatian, aipatzen dira “neurri egokiak, urraketek bere horretan jarrai ez dezaten lortzeko”. Egia esan, hori ez litzateke gogobetetzeko neurria izango, Estatuak, bere garaian adierazi dugun bezala, beraien konpromiso juridiko nazional zein internazionalak betetzeko *lehen mailako* betebeharra baitute. Jakina, oinarrizko konpromiso horietako bat giza eskubiderik ez urratzea da. Lehen mailako betebeharrak hori urratzean bakarrik sortzen da *bigarren mailako* betebeharra: egindako kaltea erreparatzea.

116 23. printzipioa.

117 Oraingo eta etorkizuneko belaunaldiak iraganeko gertakari batzuen gainean hezteko funtsezkoa da, oroimena osatzen laguntzen baitu. Horren adibide da *Task Force for International Cooperation on Holocaust Education, Remembrance and Research*, gobernu-ordezkariek eta gizarte zibilak osatutako taldea, zeinaren helburua baita Holokaustoa –halako gertakari larria– hezkuntzan lantzeko, oroitzeko eta ikertzeko bidean aurrera egitea. Ikus <http://taskforce.ushmm.org> helbidea.

indarretakoei (...); legeak berriro aztertu eta eraberritzea, giza eskubideei buruzko nazioarteko arauen ageriko urraketak eta nazioarteko zuzenbide humanitarioaren urraketa larriak faboratu edo zilegitzen dituzten neurrian”.

Ikusi dugun bezala, oso katalogo zabala eta irekia da, eta estatuak eskura dute erreparazio-prozesu integral bati ekin behar diotenerako. Ildo horretatik, Printzipioek koherentzia eman diote eta sistematizatu egin dute erreparazio moduen multzo hori guztia.

Azkenik, bada erreparazio-prozesu orotan beharrezkoa den beste elementu bat: *biktimen beraien parte-hartzea*. Biktimak dira sufrikarioa pairatu dutenak¹¹⁸, eta beste inork baino hobeto dakite erreparazio-kontuetan zer premia eta zer lehentasun duten¹¹⁹. Erreparazio-programaren diseinuan parte hartuta, aitorpena jasotzen dutela iruditzen zaie biktimei, kontuan hartzen direla, eta horrek prozesuaz jabetu izanaren sentipena (*ownership*) sortzen laguntzen du¹²⁰. Hori oinarrizkoa da, jokoan dagoena biktimen autoestimua bada; izan ere, biktimek asko sufritu dute, eta suspertze psikologikoa, neurri handi batean, aitorpen publikoaren eta parte-hartzearen sentimendu horrek bermatzen du¹²¹. Baina erreparazio-programa baten inguruko negoziazioa ezin da egin biktima guztiekin, materialki ezinezkoa da biktimazioa oso zabala denean. Biktimen parte-hartzeak nolabaiteko antolaketa eta egituraketa maila bat behar du, eta gehienetan biktimen elkarteak eskutik etorriko da antolaketa hori, biktimen interesak defendatzeko sortuko dira-eta, edo, bestela, dagoeneko lanean diharduten gizarte zibileko erakundeak erabiliko dira horretarako¹²². Elkarte horiek dira solaskide legitimoak –nahiz eta ez bakarrak– erantzule politikoen aurrean, erreparazio-programa zehatz bat diseinatzen¹²³ eta abian jartzen parte hartzeko orduan. Giza Eskubideen Gorte Interamerikarrak berak aitortu du oso positiboa izan daitekeela gizarte zibilak erreparazio-programak diseinatzen eta gauzatzen parte hartzea. Hala, *Tibi vs. Ekuador kasuan*, Gorteak Estatuari agindu zion, erreparazio-neurri gisa, jar zezala “prestakuntza- eta trebakuntza-programa bat epaitegietako, ministerio publikoko, polizia-etxeetako eta espetxeetako langileentzat, presoekiko tratuan bete beharreko giza eskubideen printzipioei eta babes-arauei buruz. Programa diseinatzen eta ezartzen (...) *parte hartuko du gizarte zibilak*”¹²⁴ (letra etzana guk jarri dugu).

Onartu beharra dago azkenaldian biktimek eta biktimen ordezkariak aurrera egin dutela

118 Ildo horretatik Reyes Matek dioen bezala, “biktimaren hitza giltzarri da bai egiaren teoria bai justiziaren teoria eraikitzeko orduan”, in MATE, R.: *Memoria de Auschwitz...*, *op. cit.*, 25. or.

119 “The Right to Reparation for Victims of gross and systematic violations of human rights”, *The Right to Reparation...* hitzaldian aurkeztutako ondorioen agiria, *op. cit.*, 40. or.

120 VANDEGINSTE, S.: “Reparation for gross and systematic human rights violations: the interaction between the national and international level, against the background of the Rwandan and South African experience”, in *Expert Seminar on Reparation for Victims of Gross and Systematic Human Rights Violations in the Context of Political Transitions*, Universiteit Antwerpen-Katholieke Universiteit Leuven, Leuven, 2002, 33. or.

121 MINOW, M.: *Between Vengeance and Forgiveness...*, *op. cit.*, 91. or. eta hk.

122 ROMBOUITS, H.: *Victim Organisations and the Politics of Reparation...*, *op. cit.*, 59. or. eta hk.

123 José Zalaquetek adierazi duenez, biktimen elkartei eta biktimen senitartekoei entzun egin behar bazaie ere, azken batean, erreparazio-programa bat onartzearen erantzukizuna gizarte osoari dagokio, demokratikoki hautatutako ordezkarien bidez. Ikus ZALAQUETT, J.: “Confronting Human Rights Violations Committed by Former Governments”, *op. cit.*, 9. or. Biktimen kultura gehiegi laudotzearen aurrean adi egon beharraz ohartarazi du Javier Mariasek, gain behera etorri, eta *biktimismo* bihur daitekeelako: “biktima izateagatik, ez dute beti eta gauza guztietan arrazoi; are gehiago, biktima izateak ez ditu pertsona on egiten”. Ikus MARIAS, J.: “Sufrir no da razón”, *EL PAIS SEMANAL*, 2005. Nolanahi ere, gure artean bada joera bat, zeinaren arabera “biktimen eskaerak zalantzan jartzea askoren iritziz onartezina den, edo, behintzat, politikoki desegokia”, eta joera hori kontuan izan behar da erreparazio-prozesu bati ekiteko orduan. Ikus FERUDI, F.: “New Britain-a nation of victims”, *Social Science and Modern Society*, 35. libk., 1988, 84. or.

124 *Tibi vs. Ekuador kasua*, 2005eko irailaren 7ko Epaia, C seriea, 114. zk., 280.13. par. Ildo beretik, *Masacre Plan de Sánchez kasua*, Gorteak agindu zion Guatemalari diseina zitzala “laguntza-planak, komunitateko emakume liderekin eta osasun mentaleko profesionalekin elkarlanean, sexu-indarkeriaren biktima diren emakumeak osatzeko, errehabilitatzeko eta komunitatean erabat birgizarteratzeko”. Bestalde, biktimen egoera fisiko eta psikikoa ebaluatzeko batzordea sortzeko orduan, Gorteak iritzi zion “parte-hartze aktiboa izan behar zuela Equipo de Estudios Comunitarios de Acción Social gobernuz kanpoko erakundeak”, *Masacre Plan de Sánchez vs. Guatemala kasua*, *op. cit.*, 90. i) eta 108. par., hurrenez hurren. Ikus, halaber, *Serrano Cruz ahizpak vs. El Salvador kasua*, 2005eko martxoak 1eko Epaia, C Seriea, 120. zk., 198. par.

eremu politikoan eta sozialean, eta erreparazio-programa egokiak onartzeko behar diren presio eta bultzada arrakasta handiz gauzatu dutela zenbaitetan¹²⁵. Baina egoera ez da, inondik ere, apartekoa biktimeentzat, politikoki eta sozialki azpigaratuta dauden lekuetan, batik bat¹²⁶. Biktimek eta biktimen elkarteek erreparazio-prozesuetan eragiteko duten gaitasuna benetan mugatzen dieten bi errealtateri egin behar diete aurre, funtsean: biktimen arteko lehiari eta biktimen politizazioari. Lehenik eta behin, erreparazio-prozesu gehienetan ikusi den bezala, une jakin batetik aurrera, biktimen elkarteen artean norgehiagoka eta lehia sortzen da, eta, horren ondorioz, asko mugatzen da elkarrizketarako eta proposamen bateratuak aurkezteko duten gaitasuna¹²⁷. Erreparazio-programa batek ezarritako onura ekonomikoen inguruko bada eztabaida, kontuan izanik horrelako prozesu askok baliabide gutxi izaten dituztela, gerta daiteke biktima-taldeek borrokan bukatzea, “sufirimenduaren pastela”-ren zati bat lortzearen¹²⁸, J-M. Chaumont-en esamolde gogor baina grafikoa erabiliz. Bigarrenik, politikak baliatu egiten du lehia hori, eta, azkenean, politikarien hitz ezteik limurtu egiten dituzte biktimak eta biktimen elkarteak; politikariek, lehia politikoan, armatzat erabiltzen dituzte biktimak eta haien eskakizunak¹²⁹, biktimen kausari eta sufrimenduari sekulako traizioa eginez.

Ondorio gisa

XX. mendearen bigarren erdian zehar egin dugun bidaiari horretan, giza eskubideen urraketa larrien biktimak sortu eta pixkanaka ikusgarri bihurtzeko prozesu horretan, ondorioren bat ateratzekotan, esango genuke, prozesu horri esker, erreparazioen gaia gai nagusietako bat bihurtu dela hala agenda politikoetan nola juridikoetan, bai estatu mailan bai nazioartean. Bai Nazioarteko Zigor Zuzenbideak eta bai, batik bat, Giza Eskubideen Nazioarteko Zuzenbideak gero eta arreta handiagoa jarri dute biktimgan eta eskubiderik oinarrituenak ere urratzen dituzten indarkeria-prozesu larrien ondorioz biktimek dituzten beharretan, eta, hala, gero eta indar handiagoa hartu du biktima horiei zor zaien erreparazioak. Erreparazioek duten gero eta garrantzi handiago horren lekuko indartsu eta erabateko dira berriki onartutako Errekurtsoak jarri eta erreparazioak lortzeko eskubideari buruzko Oinarritako Printzipio eta Jarraibideak, biktimek duten erreparazio-eskubidea aitortzeko bide bihurri eta zenbaitetan neketsuan azken mugarrietako bat dira eta. Printzipio horietan, erreparazioak ohiko dimentsio ekonomikoaz haragoko fisionomia hartzen du, bere baitan biltzen baititu egia, justizia, eta, azken batean, oroimenarekin lotutako alderdiak, erreparazio-prozesu integral ororen oinarritako osagaitzat hartuta. Baina, nire ustez, Todorov-en esamoldea erabiliz, oroimen *eredugarriaren* aldeko apustua egin behar da¹³⁰: oroimen hori ez da iraganeko sufrimenduan ainguratuta geratzen; aitzitik, proiektatu, eta oraindirako baliagarriak diren irakaspenak atera nahi ditu, eta etorkizunari begira jarri ere bai, iraganeko hutsegiterik berriz gerta ez dadin. Horrela, eta soilik horrela, oroimena iraganeko izugarrikerien biktimei justizia egiteko erreminta bihurtuko da, eta berriz halakorik gerta dadin eragozteko antidoto.

125 Genozidio naziaren biktima judutarrak; segurtasun nazionala arriskuan jartzen zutela-eta, Bigarren Mundu Gerran Estatu Batuetan atxikita edukitako *Japanese-Americans* delakoak; edo Kanadako herri indigena batzuk. Horiek guztiak giza eskubideen urraketa larrien biktimek erreparazio-kontuetan lortutako “arrakasta” batzuen adibide nahiko adierazgarriak dira.

126 Ruandaren kasuak, berriz, beste askoren artean, ondo erakusten du biktimek zer-nolako zailtasunak dituzten beraien tokia egiteko eta erreparazio-kontuetan emaitza nabarmenak lortzeko, in ROMBOUITS, H.: *Victim Organisations and the Politics of Reparation...*, *op. cit.*, 485. or.

127 SCHOTMANS, M.: “Victim’s expectations, needs and perspectives after gross and systematic human rights violations”..., *op. cit.*, 19. or.

128 CHAUMONT, J-M.: *La concurrence des victimes. Génocide, identité, reconnaissance*, La Découverte, Paris, 1997, 172. or

129 TEITEL, R.: *Transitional Justice*, Oxford University Press, Oxford, 2000, 135. or. Reyes Matek, Madrilen 2004ko martxoan gertatutako atentatu terroristaren lehen urteurrenean, adierazi du biktimak izan badirela ikusarazteko prozesuak “material politiko eta informatibo” bihurtzen dituela biktimak, eta horrek hainbat arrisku dakartzala, ezinbestean. “Zer duten esateko”, horixe da garrantzitsua, baina, horretarako, esateko, “beraien espazio propioa konkistatu behar dute”. Ikus MATE, R.: “El lugar de las víctimas”, *EL PAIS*, 2005eko martxoak 11.

130 TODOROV, T.: *Los abusos de la memoria*, Paidós, Bartzelona, 2000, 31 or..

EZAGUTZATIK OROIMENERA, AITORPENETIK IGAROTA

Xabier Etxeberria Mauleon

Egiari, aitortenari eta oroimenari dagokionez, zer zor diegu biktimei herritarrok, gizabanako garen aldetik eta sozialki antolaturik gauden aldetik, eta zer erakunde publikoek? Galdera horrexeri erantzutea egokitu zait hitzaldi honetan. Eta, horretarako, ezinbestean, hiru kategoria horiek nola ulertu behar diren azaltzen hasi behar dut, labur bada ere; izan ere, kategoria horiek eskatzen digutena zuzen-zuzenean lotuta dago horiek ulertzeko moduarekin. Baliteke, beraz, hainbat iritzi eztabaidagarri ematea. Baina, nire aldetik, elkarrizketarako proposamenak dira.

Hiru ataletan egituratu dut nire gogoeta, proposatu didaten izenburuari lotuta: oinarrian, indarkeria terroristaren egintzen berri izatea dago, alegia, egia; horrek biktimen berariazko aitortpena dakar halabeharrez; eta, era berean, oroimenaren lanketa morala ekarri behar du.

Gertaeren berri izatea

Tamalez, tragikoa da, bidegabea da, baina indarkeriazko ekintzarekin hasten da dena biktimarentzat, horrek bihurtzen baitu biktima. Oinarrizko eskakizuna, gainerako guztia modu erabakigarrian baldintzatzen duena, ekintza horren gaineko egia argitzea da; gertatutakoarekiko iluntasunak dena blokeatzen baitu, eta faltsukeriak dena desitxuratzen, eta biek ere mina areagotu eta larritu baino ez baitute egiten. Gertatutakoari buruzko egia osoa jakiteko, komeni da argi izatea egia enpirikoaren eta egia moralaren arteko bereizketa kontzeptuala (nahiz eta benetan ez dagoen bien arteko alderik denboran):

1. Lehenik eta behin, indarkeria-egintza gordinari, bere inguruabarrei eta ondorioei buruzko *egia enpirikoa* argitu behar da.

Egia behagarriaz ari garenez, bi modu daude egia hori osatzeko. Batetik, indarkeriak utzitako arrastoak daude: gorputzarenak –dramatikoena: eraildakoaren gorpua– eta bestelakoak; arrastoak begirune osoz hartzeaz gain, aztertu, eta behar denean interpretatu egin behar dira ezinbestean, arrasto horietan gordeta baitago zer gertatu zen. Bestalde, lekukoak daude, bizirik atera diren etatik hasita, eta ikusi eta bizitakoa egiaz kontatzeko dei egin behar zaie.

Hementxe dugu, hain zuzen, biktimekiko lehen eginbehar soziala. Egia hori eraginkortasunez argitzea: erakunde publikoen maila guztietan horretarako borondate politikoa izan behar da, eta, ondorioz, behar diren bitarteko polizial, judizial eta bestelakoak martxan jarri behar dira; eta herritarren laguntza izan behar da, ez ahal denean datuak emateko bakarrik, baita lekuko-biktimei babesa eta laguntza emateko ere. Biktima horiek dira, hain justu, senti dezaketen babesgabetasuna dela-eta, herritarren eta erakundeen borondate hori badagoen hobekien jakin dezaketenak, eta, hortaz, haiei entzutea da gure lehen betebeharra.

Egia enpirikoan, inpartzialtasunaren objektibitatea gailentzen da. Eta horrek aztertu beharreko indarkeriaren subjektu eta adierazpen guztiak aurreiritzirik gabe barne hartzeko asmo bete eskatzen du. Gure kasuan, indarkeriazko ekintzen eragileak aipatzen ditugunean, ETaren indarkeriaz, ETaren aurka egin duten talde terroristenaz, eta ETaren aurkako borrokan segurtasun-indarrek giza eskubideak urratuz baliatutako indarkeriaz ari gara. Eta, ikertu beharreko indarkeria-adierazpenei dagokienez, lehenik eta behin eta paradigmatikoki, erailketak daude, baina horiez gain: heriotzarik eragin ez duten indarkeria-egintzak, bai eta jazarpenak edo pertsekuzioak eta estortsioak ere, ETak erabilitako indarkerian oso garrantzitsuak, eta oso adierazgarriak gizartearen sektore baten aldetik egon den kolaborazionismo aktiboa ulertzeko. Horren guztiaren gainean egia argi dadin exijitu behar dugu herritarrok, eta laguntza emateko prest agertu (adibidez, unibertsitateek iker dezakete egia enpiriko hori –gertatzen ari zenarekiko axolagabekeria barne–, batez ere ikerketa soziologikoen bidez argitzen baita, ikerketa polizial-judizialaz haratago doa-eta).

Aztergai dugun indarkeriaren gainean, dagoeneko argitu da egia alderdi garrantzitsu batzuetan, baina badira bete beharreko hutsune nabarmenak ere. Horri dagokionez, kontuan izan behar da iraganeko indarkeriari buruzko egia exijitzea ez dela iraungitzen indarkeria-eragileek hiltzeari eta estorsio egiteari utzi diotelako, bere horretan baitirau biktimek egia jakiteko duten eskubideak; eskubide hori erabakigarria da, gainera, beraien eskubide guztien sostengu da-eta. Batzuetan, gertatutakoa neurri batean argitu da, eta azalpen partzialak eman dira; adibidez, jakina da norbait erakunde terrorista jakin batek erail duela, baina ez nork, zehazki. Azalpen horiek garrantzitsuak dira, biktima biktimatzat hartzeko oinarri direlako, eta, zeharka, erakunde jakin horren erantzukizun kolektiboa aldarrikatzen dutelako, eta hori garrantzitsua da, benetan, egia morala lortzeko. Baina azalpen partzialak ez dira nahikoa; izan ere, kasu horietan, egia osoak biltzen ditu erakundearen dimentsioa eta dimentsio pertsonala erabilitako indarkeriaren egiletzan, eta biktimak oso ongi jabetzen dira horretaz.

Egia enpirikoaren emaitzak zenbakitan kuantifikatzen eta adierazten ditugu. Horrek badu bere alde positiboa, zenbaki horiek hasierako panoramika bat erakusten baitigute kolektibo biktimagile bakoitzak egindakoaz, eta haien indarkeriaz jabetzen laguntzen baitigute, sozialki behar den bezala aurre egiteko, beren berezitasunak kontuan hartuta. Baina egiaren ariketa aritmetiko horrekin bi tranpatan tronpa gaitzke herritarrok, eta horiekin kontuz ibili behar dugu. Lehendabizikoa dakartzan ahanzturakin lotuta dago. Nahikoa erraza da, eta bereziki dramatikoak, hildakoak kontatzea, eta zifra erabakigarriak horien inguruan biltzen dira. Baina nola “egin kontuak” eraildakoen inguruko saminaz, bahituen eta torturatuen ondorioez, esetsien indarkeriaz mehatxatutako bizitez, isilpean edukitzera behartutako eta errunduntasunez bizitako estorsioez? Nola egin kontuak, sistema demokratikoaren funtzionamenduan izandako kalteez ari bagara? Hildako-kopuruak ate pribilegiatua izan behar du indarkeria horietara guztietara iristeko.

Bigarren tentazioa, berriz, zifrek bultzatzen duten konparazioarekin lotuta dago. Datu esanguratsua ematen digu, talde terrorista bakoitzaren indarkeria-intentsitatea zer-nolakoa izan den jakiteko lehen hurbilketa ematen baitu. Baina, ondoren, deskuidatu orduko, dauden enpatia sozialetatik abiatuta, kontatzeko aritmetikari kenketa eginez jarraituko zaiot! (gertuago sentitzen ditugunen biktimak kendu egiten dizkiegu haiek eragin dituzten biktimei, eta desbiktimizatu egiten ditugu horrela); denak zoritxarreko biktimen izate komun horretan batzea da kontua, ordea. Nahiz eta gero garrantzitsua izan biktimazio bakoitzean dauden berezitasunak kontuan hartzea, biktimazio bakoitzari hobeto aurre egiteko eta horietatik gizartearentzat sortzen diren interpelazioei heltzeko. Bere mugez ohartzen den eta egia moralean irmo oinarritzen den aritmetikak bakarrik ekiditen du tentazio horiek izatea (jarraian jardungo dut horretaz).

Egia enpirikoak, objektiboki “gertatutakoari” buruz ari garela, aldaezina den horretara garamatza. Seriotasunez, aldatu ezin denarekiko aurrez aurre jartzen gaitu. Erailketaren kasuan, aldaezintasun hori ez da erradikala soilik, baita konponezina ere, erreparaezina baita –ezin da bizia berreskuratu–. Herritarrok oso kontuan izan behar dugu hori. Eta begietan eduki alda daitekeena abiarazten denean, ona baita aldaketa abiaraztea (jarraian jardungo dut horretaz).

2. Oso garrantzitsua da, beraz, indarkeria-egintzen egia enpirikoa ezartzea, baina ez da nahikoa, inondik inora ere; egia hori, egia den aldetik, ez baita moralki neutroa. Datu horietan oinarrituta, baina ez begirada enpirikoarekin, egia morala azaleratu behar da.

Hemen aztergai duguna bezalako egia enpiriko baten gainean, balorazioak eta justifikazioak proiektatzen ditugu beti. Eta, hortxe, proiektzio horretan, hortxe dago jokoan egia morala. Biktimagileak, ekin aurretik, prestatua du egin behar duenaren proiektzio justifikatzailea (Euskal Herriaren subiranotasuna lortzen lagundu, Estatu demokratikoari eraso egiten diotenak garaitu); eta prestatu, legitimazioa ematen dion moduan prestatzen du, gizakien manipulaziorik gordinena egiteko, besterenezina duen duintasuna urratzeko. Horrek galbideratzen du gertatzen denarekiko egia morala. Herritarrok gizarte zibilean antolaturik eta erakundeetan txertaturik gaudenez (hala nola hezkuntzan, komunikabideetan, eta abar), gure betebeharrak garrantzitsuenetakoa da indarkeria deslegitimatze lanean etsi gabe jardutea; baita indarkeriaren kutsu heroikoa deslegitimatze lanean ere, kutsu horri eutsi egiten baitio eragindako kaltea aitortzen denean ere –beharbada, ez hain nabarmen–, baldin eta indarkeria ez bada funts-funtsean kalte bidegabetzat, duintasunari egindako kaltetzat, aitortzen.

Dinamika horren kontrako aldean, baldin eta indarkeria-egintza baloratzeko gakoa duintasunaren irizpide unibertuala bada, orduan eraikitzen da egia morala. Duintasunaren proiektzio hori da, egintza horretan kokatuta, gaiztakeria azaleratzen duena, eta, azaleratuta dagoela, gertatutakoaren erantzukizun moralak esleitzen ditu, eta ondo bereizita agertzen dira erruduntasuna eta errugabetasuna. Proiektzio hori erabakigarria da, bi arrazoi hauek direla-eta: proiektzio horrek bakarrik eratzen ditu biktima eta biktimagilea; errugabea lehena, kalte bidegabea pairatu duena, eta erruduna bigarrena, kalte hori eragin diona; eta proiektzio hori da bien arteko asimetria moral hain bereizgarri hori ezartzen duena, zeina mantendu egin behar den biktima eta biktimagilea elkarrengana gerturatzeko edozein ekimenetan (justizia konponarazlea, adiskidetzea eta abar), bere ikur izateko moduan. Hona hemen beste eginkizun batzuk herritarrentzat, nahasmendu sozialaren aurka egiteko: batetik, biktimak sufrimendu hutsarekin identifikatzen direlako, eta, bestetik, biktimen eta delitugileen arteko hurbilketa-dinamikak berdintzeko joera dagoelako, asimetrikoak izan behar badute ere.

Argi geratzen da, horrela, biktimak behar duena zera dela: egia enpirikoa bere baitan biltzen duen egia morala. Epai judiziala, eta berarekin dakarren guztia, egia judiziala

ezartzen duenez, egia morala definitzeko eremu bereziki garrantzitsua da. Gogorazten digu egia moralak nahitaezkoa duela errudunak erantzukizun penalak bere gain hartzea, zigorgabetasuna lotsagarrikeria morala dela; eta horren aurkako lehen hesia eraikitzen du. Horregatik, politikoki antolatutako gizarteak justizia-irizpen hori zor die biktimei. Nolanahi ere, egia morala zabalagoa da, lehenengoa iristen ez den esparru eta adierazpenei eragiten baitie (adibidez, sentimenduei), eta, egia hori sortu ahal izateko, hezkuntza-guneak behar ditu –zentzurik zabalenean–. Horrela adierazitako egia morala gizartean hedatzen denean, indartsu azaltzen da biktimekiko elkartasunezko enpatia morala; herritarrok “behar den bezala eta behar den horregatik” mintzen ikasten dugu, eta printzipio etikoak eta sentimenduak sintetizatzen dira horrela.

Ez da harrizkoa historialariak eratzten saiatzen diren egia, non, eta egia enpirikoaren barruan sartzea, diziplinak berezko duen kritikaren gainean oinarritzen baita, zorrotasunez. Horrek hala behar du, egiazki. Baina bat nator historialaria gertatutakoaren egia osoari zabaldu behar zaiola eta horrek egia morala ere barne hartzen duela pentsatzen dutenekin, gaizakeria ere gertatu baitzen. Balorazio inpartziala eginez, baina ez neutrala. Bete behar ditugun eginbeharren artean, horko hori, gure historia hurbila idatzi behar duten historialariek egin beharko dutena, ez da bigarren mailakoa. Izan ere, egia historikoa oso iturri garrantzitsua da, aurrerago azpimarratuko dudan bezala, oroimena identitate-esparrutan elikatzeko, belaunaldiz belaunaldi.

Aitorpena

Biktima definitzen duen egia moraletik berez sortzen da aitorpena, eskakizun morala ere badelako, eduki moral eta guzti. Berehalakoan, jokoan dauden jokabideen aitorpena da, eta indarkeriazko jokabidearen gaitzespena. Sakonean, berriz, tartean diren subjektuen aitorpena da: delitugilearena eta biktimarena, bakoitza berean. Herritarrok lehen bereizketa hori doi-doi egin beharra daukagu ezinbestean, baina urrunago joan behar dugu: aitorpenean inplikatu behar dugu, ekintza biktimagilean gure parte-hartzerik baden aztertzeko (indarkeria “ulertzea”, axolagabekeria...). Biktima aitortzeak zer eskatzen duen bakarrik garatuko dut.

1. Aitortu behar horrek eskatzen digu, lehenik eta behin, biktimek biktimagileengandik eta haien ingurunetik pairatzen dituzten aitorpen gaiztoei aurre egitea, abiapuntutzat hartuz delitugileak biktimaren duintasunaz egiten duen aitorpen gaizto erradikala izan daitekeela biktimizioa, gordinkeriaz justifikatua, biktimaz egiten duen instrumentalizazio zitalaren bidez. Adibide gisa, bi aitorpen gaizto azalduko ditut, eztabaida sozialean agerian utz ditzagun, oso kontuan izan behar baitugu berbiktimizioa eragiten dutela:

Lehenik eta behin, elkarren aurkako bandoen teoriak eragiten duen aitorpen gaiztoa, biktima bakoitza bando batean kokatzen duena. Izan ere, ikuspegi horrek neutralizatu egiten ditu biktimak elkarren artean, eta, era berean, baztertu egiten du biktimen izate zentral, alderdiez gaindikoa eta komuna, biktimen lehentasunezko identifikazioa “gurea” ala “besteena” bihurtzen baita.

Bigarrenik, “sufrimenduaren mapa orokorra” egiteko ekimenetako aitorpen gaiztoa dugu; mapa hori ustez inpartziala da, eta guztiak hartzen ditu barnean, baina, funtsezkoa izanagatik ere, biktima moralen eta soilik pairatzaileen arteko bereizketarik egiten ez duenez, lehendabizikoei biktima izaera kentzen die, eta, gainera, kontaketa ondukoetarako, modu ez bidegabean sufritzen duten biktimagileekin berdintzen ditu.

2. Aitorpenaren gai honetan, bada kontuz ibili beharreko kontu bat: ea herritarrok eta erakundeek aitorpen desberdina eman behar diegun aztertzen ari garen indarkeria-

esparruko biktimei, jakinda horrek zer ekar dezakeen, eta, hala bada, zeren arabera. Kontu horri heltzean, aurretiazko aitorten orokor batetik abiatu beharra daukagu, halaberharrez: indarkeria horretan inplikaturako biktima guztiak, biktima moral direnez, berdina dira. Glencree-ko esperientzian parte hartu duten biktimek halaxe adierazi dute: biktima guztiak berdina dira, konparaziorik egin gabe; horixe erakutsi die pairatu duten sufrikario bidegabeak, bakoitzak bere bizi- eta politika-planteamendu desberdina edukita ere, eta horiei bizkarra eman gabe. Jarrera horrek hierarkia bidegabeak eragozten ditu, eta jarrera hori herritarren artean finkatuta soilik hartzen du zentzu moralak biktimen artean bereizketak egiteak. Zehazki, honako bi hauek:

Lehenik eta behin, pentsa liteke badirela gehiago sufritu duten biktimak eta gutxiago sufritu duten biktimak, eragin dien indarkeriaren indar suntsitzailea kontuan hartuta. Baina baieztapen horretatik abiatuta –nahiz eta kontuan hartuko den dagokion erreparazioa zehazteko orduan–, hierarkia ezartzeko eta lehiatzeko konparazio bat egiteak ez du zentzu moralik. Datuak eskatzen diguna da, batez ere, biktima moralak izate horren berdintasunean oinarrituta, elkartasuna sustatzea: bakoitzaren sufrimenduen (egiazta daitezkeen eta ezin daitezkeen) errealitate zehatz desberdinetan den-denak bilduko dituen elkartasuna.

Aitortenak izan dezakeen bigarren unearan, alegia, une desberdinaren bigarren aldagaia biktimgileekin lotuta dago (ETAren terrorismoa, ETAren aurkako terrorismoa, segurtasun-indarretako agenteen indarkeria). Hiru eragileetan helburu politikoa duten indarkeriei buruz ari gara jotzen badugu, orduan horien biktimek garrantzi publikoa dute (biktima bihurtzean, pairatu duten min pertsonal eta besterenezin horretan, elkarbizitzako printzipio eta erakundeak kaltetu dira), eta horrek esanahi politikoa ematen die (biktima diren aldetik, justifikatu behar ez zen, gertatu behar ez zuen eta errepikatu beharko ez litzatekeen elkarbizitza publikoaren aurkako indarkeriaren hezur-haragizko salaketa dira). Garrantzi publikoa eta esanahi politikoa edukitzeak berdindu egiten ditu, berriz ere. Baina aitorten desberdina eman behar al diegu, esanahi horretan legokeen desberdintasunaren berri emanez? Hauxe esango nuke nik: garrantzitsua eta aipagarria da herritarrok esanahian dauden desberdintasunaz jabetzea, haiengandik jasotzen ditugun eskaerak ulertzeko, baina horrek ez du ekarri behar biktimen aitortenean hierarkiazko baloraziorik egiterik. Argiago azalduko dut.

Pentsa dezagun, hasteko, ETAren biktimgengan eta bikaritasuna deitu dugun horretan. Terroristak, norbait biktima bihurtzen duenean, ez dio biktimgari kalte egin nahi; erabakiak hartzeko dauden pluralismoaren eta prozedimentalismo demokratikoaren balioak –Zuzenbide Estatuan funtsezkoak– kaltetu nahi ditu harengana. Eta, hortaz, min pertsonal erabat bidegabeak (erabakigarria da hori; ez da inoiz erlatibizatu behar, ezta bikaritasunagatik ere) eta min publikoak biltzen dira harengana: gizarteari eraso egin zaio biktimgari eraso eginda, eta, horregatik, komunitate politikoak jasandako erasoaren sinbolo eta toki bihurtzen da. Beste biktimei dagokienez, baliteke beraien indarkeriaren helburu publikoa ez izatea hain argia, baina biktimgazio horretan bada beti ezaugarri bat: Estatuaren koakzioak giza eskubideen arabera izan behar du, baina baldintza saihestezin hori bitarteko huts gisa interpretatzen du indarkeria-egileak, eta errespetatu edo urratu egiten du, ordena publikoaren helburuetarako baliagarria den ala ez kontuan hartuta. Indarkeria hori pairatzen duen biktimgak botere publikoen aldetik duintasunaren zuzeneko ala zeharkako errespetu faltaren –talde terroristei babesa emanda– sinbolo hezur-haragizkoa irudikatzen du; demokrazia, nola, eta demokraziaren aurkako indarkeriazko bideak erabilia bermatu nahi dutenen kontraesanaren sinbolo da.

Behin esanahien desberdintasuna ezarrita, herritarroi eta erakundeoi esanahi horietatik datozen eskakizunak kontuan hartzea dagokigu. Ildo horretatik, bistakoa iruditzen zait euskal gizarteari oro har modu berezian dei egiten diotela ETAren biktimek eta biktimgazioak horiengan duen zentzuak: gogorarazten digute, ez ahazteko moduan gogorarazi ere, identitatearen fanatismoak indarkeriaren zentzugabekeria ekarri duela; indarkeria horrekiko konplizitateak –indarkeria hori “ulertuz” edo axolagabekeriaz jokatuz hedatu da gure

gizartean– biktimei kalte egin diela; premia daukagula gure identitate-gatazkei pluralismoa eta prozedimentalismo demokratikoa errespetatuz helduko dion gizartea eraikitzeke, betiere biktimen oroimena kontuan hartuz. Hiru biktimagileen biktimak batze oro, baldin eta ETaren biktimen esanahi espezifiko hori –euskal gizartearen interpelatzaile– lausotzeko erabiltzen bada, agerian utzi behar da gizartean. Beste indarkerien biktimen esanahiari dagokionez, bereziki interpelatzen ditu, ETaren terrorismoa jazartzerakoan (jazarpen legitimoa berez, eta, gainera, ezinbestekoa) pertsonen duintasuna errespetatu ez denean, errespetu falta hori ulertuz edo axolagabekeriaz jokatu duten erakunde publikoetako agintariak, alderdi politikoak eta herritarrak. Beste behin ere, interpelazio horiek ez dira hartu behar erantzukizun “banaketa” gisa, “eta zu ere bai” esanez erantzukizunak ahulduko balira bezala; aitzitik, denok horietaz arduratuko bagina bezala hartu behar ditugu, alderdiez gairako mailan batuta dagoen gizarte gisa, biktimengandik datozen eskaera moralak entzuteko prest.

Herritarrok uler dezakegu, gogoeta horiek kontuan hartuta, esanahi sozialean eta sinbolismoan dauden aldeek biktimen aitorpenean eragiten dituzten modulazio horiek ez dutela hierarkiarik ezartzen biktimen artean, zeren, pairatu duten biktimazioan presente egonik, ez dira ez pertsonalak ez beraien merezimendu baten ondorio. Noski, esan gabe doa biktimak, bere egoera pertsonala eta bere sinesmen eta aukerak kontuan hartuta, libreki erabaki dezakeela bere biktimazioak hartu duen esanahi publikoan oinarritutako berariazko jarduera politikoari ekin ala ez. Baina herritar guztiok esanahi horrekin benetan eta eraginkortasunez hunkitzeko betebeharra dugu.

3. Honako hau da aitorpenaren gaian azpimarratu beharreko beste kontu bat: kontua ez da soilik herritarrok biktimen aitorpen aktiboa egitea, eta biktimak funtsean pasibo egotea, nahiz eta pasibitate horretan interpelatzen aritu. Biktimak aitortzea entzuten ditugula aitortzea da, baina, horrez gain, ahaztu gabe, “aitorpena lortzeko borrokan” eta gizartearen eraldaketan agente aktibotzat hartzea ere bai, biktimak diren heinean, antolatuta egon ala ez eta nahi duten neurrian. Autoritate berezia darie alderdiez gairako kokatzen direnean, baina erabat zilegi dute alderdi politikoetan parte hartzea ere, nahiz eta orduan alderdiek berezko dituzten eztabaida publikoei loturik geratu. Aitorpena lortzeko borroka, bistan da, gertatutakoaren egian, ekarri zituen erantzukizunetan, gorde beharreko oroimenean eta egin beharreko justizian sakontzeko borroka da.

4. Biktimen aitorpen ona erabat lortzen da beraien biktimagileek ere aitorpen hori egiten dietenean. Biktimagileek harreman behartua ezarri dutenez biktimekin, haien duintasunaren aitorpen erabat gaiztoa eginez, eragindako kalte bidegabe larri-larriaren aurrean zinez damututa eta biktimari berariaz adierazita baino ezin da lortu aitorpen ona, egindakoagatik min morala sentituz eta erreparaziorako prest agertuz. Bide zaila da, indarkeria baliatu zuenari identitate-krisi sakona eta bere iraganarekin apurtzea baitakarzikio, baina, horrekin batera, bere biktimarekin duen oinarritzko betebeharrak horretaz jabetzen da, eta moralki eraiki egiten da.

Biktimari dagokio erabakitzea, betebeharraren zama bere bizkar hartu gabe, nola hartzen duen aitorpena, nola erantzuten duen horren aurrean. Baina herritarroi eta erakunde publikoei dagokigu biktimek biktimagileen aitorpena jasotzeko prozesu horiek ahal beste bultzatzea, baldintzak sortzen ere lagunduz, eta baita gero biktimek biktimagileen aldetik eduki nahi dituzten harrera posibleak babestea ere. ETaren biktimen eta “Langraiz bidea” osatzen duten ETako presoek arteko “konponketarako elkarretaratzeak” horren adibide egoki dira.

Oroimena

Bistakoa baldin bada nozitutako indarkeriei buruzko egia jakiteko eskubidea egon

badagoela, eta argi baldin badago, indarkeria horietatik abiatuta, justizia egin behar dela, horretarako eskubidea ere badagoelako (orain ez dagokit horretaz jardutea); orduan, esan al daiteke gertatutakoa “oroimenean gordetzea” herritarren betebeharra dela, ez justizia gauzatu bitartean bakarrik baizik eta geroago ere?

1. Adierarik berezkoenean, iraganeko gertakariak bizi izan zituztenek gertakari haiez duten oroitzapen subjektiboa da oroimena. Horregatik, oroitutako horretan, bereizi egin behar dira:

Gertaera objektiboa, oroimenaren eragilea: egintza terrorista. Gertaera horretan tartean zeudenek oroitzen dutenak ez du faltsutu behar egia enpirikoa.

Oroitzeak dakarren bizipen psikikoa. Bizipen subjektiboa denez, interpretazio konplexua dakar, bai egintzen hautaketan eta egituran, bai gertatutakoaz egindako proiektzioan: bete zen lekua, esperientzia emozionala, ikuspegi etikoa eta zentzuzkoa, gogoratzen dugun orainaldiko unean ditugun helburuak eta abar. Horregatik, oroimena bizitzeko moduan, aniztasun handia dago gertaera berbera bizi izan zutenen artean, eta, zehazki, guztiz desberdin oroitzen dute biktimek eta biktimagileek. Hemen, moralak egin behar du bereizketa erabakigarria, eta exijitu behar du oroitzea ez dadila egia enpirikora mugatu, eta egia morala ere har dezala, horrexek ezartzen baitu erruduntasunaren eta errugabetasunaren arteko erroko asimetria eta oroitzeko moduan txertatzen baitu.

2. Aurreko bereizketa horretatik ondorioztatzen da ezen oroitzen den gertaera objektiboa alda ezin badaiteke ere, gertaera horren oroimena bizitzeko modua alda daitekeela, bai biktimgangan bai biktimagileengan, eta aukera horren inguruan azaltzen dira hemen azpimarratzen ari garen lehen konpromiso gizalegekoak.

Helburu politikoa duten biktimagileek, gertaerak lotzeko eta gertaera horiei beraien ikuspegi politiko eta moralak proiektatzeko duten moduagatik, heroikotasunez betetako oroimena dute, eta horrek egindakoaren justifikazioa dakar, biktimen instrumentalizazio gordina. Dinamika perbertso horren aurrean, herritarroi, gizarte-erakundeei eta erakunde publikoei dagokigu, egia buruz adierazi dudanarekin bat etorritz, haien oroimenaren kontakizuna deslegitimatuzko gizarte-lanari ekitea, etsi gabe. Horrez gain, guri dagokigu, ahal dugun neurrian, indarkeria erabili duenarengan kataklismo morala gerta dadin sustatzea, alegia, eragin zuen gertaera oroitaraztea, eta biktima bihurtu zuenaren duintasun bortxaezinaz jabetzea zintzoki, eta hori gertatzen denean laguntzea, koherentziaz espresa dadin saiatuz. Gutxi egingo dute bide hori, baina beraien ekintza oso garrantzitsua izango da.

Biktimak, berriz, indarkeriak beregan izan duen inpaktu traumatikoa hain gogorra denez, “behin eta berriz bizitzen” du iragana (egunero bizi ere, gaur gertatu izan balitz bezala), “gogoratu” baino gehiago. Hortaz, bere baitan dirau delitugilearen indarkeriak: ezkutuan, baina benetan, hortxe. Dolu-prozesu egokiak oroitzapen bihurtzen du berriz bizitze hori, iraganaren oroimen, eta, horrela, psikikoki eta afektiboki (adibidez, gorroto-sentimenduei dagokienez) birkokatu egiten du mina, eta berriz eratzen du bere horretan dirauen senitarteko biktimatuarekiko fideltasuna. Biktima bakoitzak dolu-prozesu berezia izango du, aldagai askoren arabera. Baina gizarteari dagokio behar duen arreta psikikoa eta gizarte-babes egokia ematea. Zoritxarrez, azken hori nabarmen falta izan da urte askoan (gogoratu lehen hamarkada luzeetako ETaren biktimak), ez soilik biktimatzat aitortu ez direlako, biktimizazio bikoitza jasan dutelako baizik, bai “merezia zuten” tesia bultzatu delako, bai “zerbait egingo zuten” pentsatuz susmopean jarri izan direlako (berariazko estigmatizaziorako dinamikak), bai axolagabekeriak jokatuta izan delako.

Dolu-prozesu horri esker, biktimek, oroimena “pairatu” beharrean “integratu” egiten dutenez, indartu egiten dute ekimenerako gaitasuna, oroimenetik abiatuta. Hala, hainbat modutara proiektu dezakete beren biktimagileekiko oroimena. Biktimen sektore batek oroimenean errotu dezake, legitimitate osoz, delituaren neurriko zigorra ezarriko duen justizia penala

bakar-bakarrik eskatzeko bultzada, bere esperientziaren pisutik abiatuta, baina betiere giza eskubideek ezartzen duten proportzionaltasunaren mugen barruan eta errehabilitaziorako eskatzen duten irekitasuna bazter utzi gabe. Beste sektore bat, bere oroitzea landuz eta berriz eratuz, biktimagilearen eraldaketa morala onartzeko prest ager liteke, halakorik gertatuz gero, eta, horrekin batera, sentitu hori sendagarri dela berarentzat ere; orduan, oroitzea ez da bereizketa erabatekoa, baldintzatua baizik. Horrela, beraz, biktimen artean oroimena bizitzeko modu asko daude, eta horrek eragina du orainaldiko portaeretan. Nire ustez, sozialki onartu beharra dago biktima, ez pertsonak askatasunez eta arduraz egin dituen aukera legitimoen arabera epaituz, baizik eta, soil-soilik, aukera horien edukiei buruz eztabaidatuz, beharrezkotzat jotzen denean.

3. Orain arteko gogoetak oroimenaren jatorrizko dimentsio subjektiboarekin lotuta daude. Baina hitz egin daiteke oroimen sozialaz ere, biktimentzat erabakigarria baita, gainera. Nola sortzen da?

Biktimen oroitze subjektiboa narrazioen bidez adierazten da, eta narrazio horiek indarkeriak nozitu dituztenen artean kontatzen dira, gizartean hedatzen dira, onartu egiten dira –esperientziak bizi izan zituztenekin enpatizatzen dutenen oroimenean txertatuz–, eta belaunaldiz belaunaldi transmititzen dira. Oroimenaren komunitate sozialak eraten dira horrela, non oroitze partekatuak haien identitatea eraten duen. Herritarrei eta gizarterakundeei dagokigu hemen, hasteko, biktimen oroimenaren testigantza-oinarria sustatzea eta zaintzea, gal ez dadin.

Kolektiboranzko bide horretan, arazoa da norgehiagoka polemiko bat sor daitekeela biktimen oroimenaren eta biktimagileen eta haien jarraitzaileen oroimenaren artean, gertatutakoa oso bestela kontatzen baitu bigarren oroimen horrek (“justifikatuta zegoen”, “ekidinezina zen”, “denok sufritzen dugu”, eta abar), eta, horrela, gizarte-identitate desberdinen lehian sartzen dira. Oroimen-gatazka sortzen da, hortaz. Herritar zintzoak eta haien erakundeak, bai eta erakunde publikoak ere, zer gertatu zen zehatz adieraziko duen oroimen soziala eraikitzearen alde lerratu behar dira, argi eta garbi (egia enpirikoa eta moralaz ari gara), eta, dakartzan justizia-eginbeharrez jabeturik, herritartasun zibikoaren eta identitate kolektiboaren eraikuntzan txertatuko da oroimen hori. Oinarrizko irizpide horiek oroimenen pluralismo sozialaren mugak jarri behar dituzte, ekidinezina baita, eta, hortaz, ez negatiboa. Hori guztia zeregin zibikoetan gauzatu behar da, honako esparru hauetan: familiako sozializazioa, hezkuntza, komunikabideetan egindako eztabaida publikoa, legeak, Oroimenaren Zentroak eta antzeko ekimenak, oroipenak eta omenaldiak, historialarien lanketa historikoa eta abar.

4. Nolanahi ere, hasierako galderari helduz, egia argitzeko eta dagokion justizia egiteko betebeharrak gain, ba ote daukagu oroimen soziala eraikitze berariazko betebeharra ere?

Arrazoi hauek ematen dira baiezkorearen alde: oroimen hori da eraildakoei eskain dakiekeen aitorpen-erreparazio bakarra; gainera, ezinbesteko baldintza da etikaren arabera identitate kolektiboak eraikitze (gure artean izan dugun indarkeriaren ondoren euskal herritarrok nola ikusiko dugun geure burua); azkenik, ezinbesteko erreferentzia da helburu politikoa duen indarkeriak larri zauritu duen demokrazia sendotzeko.

Argi geratu behar du oroimenaren eginbehar zibikoa, bere horretan eta adierarik berezkoenean, gizarteak duela (herritarrek eta erakunde publikoek). Bat datorrela, zibikoki, halaber, biktimek duten eskubidearekin. Biktimen dinamika pertsonaletan, berriz, biktimei dagokie bereiztea zein neurritan sentitzen duten oroimen sozial hori eraikitzen laguntzeko betebeharra –betebehar zibikorik exijitu gabe–.

Ez da ahaztu behar oroimen soziala eraikitzeo herritarrengandik abiatu behar dela,

biktimen oroimenaren lorratzak eta ahotsak onartuz, eta biktimei aurreiritzirik eta defentsarik gabe entzunez.

Azkenik, honako dinamika hauekin apurtzen da oroimen sozialaren betebeharra, batik bat: gertatutakoa ahaztea; egia enpirikoa eta morala partzializatzea edo, tranpa eginez, talde jakin baten interes partikularrei komeni zaiena azpimarratzea; eta gertaerak desitxuratzea eta faltsutzea, horretan oinarrituta eraikitzen den guztia galbideratzen baita horrela. Euskal gizarteak adi egon behar du horrelakorik gerta ez dadin gure artean izan dugun indarkeria terroristari dagokionez.

5. Oroimen soziala hedatu, eman eta jaso eta heredatzeko, erabakigarriak dira oroimenaren objektibazioak, non oroitutakoa subjektuen bizipenetik bereizi, eta “material” autonomo bihurtzen den haren aurrean.

Esperientzia subjektibotik hurbil ditugu modu dokumentala, judiziala... Urrunagokoak dira oroitzapenezkoa (monumentala eta errituala), historikoa... Eta guztiak biltzen dituzten ekimenak ere bai, Oroimenaren Zentroak, kasurako.

Oroimenaren objektibazioak komunikagarritasuna eta eztabaida sustatzen ditu, interpretazioak eta gogoeta kritikoa egiteko aukera gehiago zabaltzen ditu, eta, halaber, iraunkortasunaren bermea da. Baina aurrez aurrekoaren aberastasuna galtzen du, eta, hortaz, zer gertatu zitzaizen kontatzen duten biktimen presentzia zuzena, fisikoa, sustatu egin behar da, ahal den neurrian eta bereziki egokia den lekuetan (hezkuntzan, komunikabideetan, eta abar).

Kontuz ibili behar da oroimen objektibatua errutinazko oroimen bihur ez dadin –sentitzen ez dena–, ez eta oroimen ideologiko ere –ez kritikoa–, horretarako arriskua dago eta.

Erakunde publikoen azken eginkizuna, bai eta herritarren eta haien elkarreana ere, oroimenaren objektibazio egokiak sustatzea da, oroimen soziala irekia eta plurala izan dadin, eta etengabe sortzen diren aldaketei zabalik egon dadin, aldaketa horiei esker iraungo baitu bizirik belaunaldiz belaunaldi. Baina inolaz ere ahaztu gabe oroimenak biktimen ikuspegitik abiatu behar duela, eta zor zaien egian eta justizian oinarritu behar duela.

BIKTIMAGILEEN BIRGIZARATERATZEA, BIKTIMEN IKUSPEGITIK

Xabier Etxebarria Zarrabeitia

Etika, Politika eta Zuzenbidea terrorismoagatik kondenatutakoen birgizarteratzean: desadostasunak eta adostasunak

Zalantzarik gabe, garaiotan laztasunez agerian geratzen ari den bezala, Etikaren, Politikaren eta Zuzenbidearen arteko harremanak ez dira beti sintonian ulertzen.

Nolanahi ere, ikuspegi hori arlo bakoitzak dituen eginkizunen eta aukeren mugak non dauden ulertzeko zailtasunen ondorio da batzuetan. Ez naiz nire aukerez haratago doanaz arduratuko, eta, hortaz, Zuzenbidean jarriko dut arreta (saiatuko naiz inor ez aspertzen kontu tekniko eta iruzkin legal zehatzekin, espezialistentzat bakarrik diren horiekin, nahiz eta onartzen dudan zehaztasuna, doitasuna, ñabardura edo sakontasuna gal litekeela horrela).

Gogoratu behar da Zuzenbidea, beste arlo batzuk ez bezala, estatuak indarkeriaren eta indarraren monopolioa baliatzeko duen modu baten adierazpen adostasunezkoa/gatazkatsua dela. Zuzenbidearen atzean, estatuaren indar koaktiboa dago, norbaiti bere giza eskubideak edo oinarrizko eskubideak edo bestelakoak indarrez kentzeko aukera. Horregatik, garrantzitsua da ez nahastea maila juridikoa, etikoa eta politikoa, juridikoki exijitzen dena estatuaren indar koaktiboari esker exijitu baitaiteke, eta horrek pertsonen oinarrizko eskubideei eragiten die. Aparteko ahalmen hori botere bat da, alegia, estatuaren eskubide-zeregin bat. Zilegi izango bada estatuaren indar hori, estatuaren indarkeria hori, botere legitimo batek baliatu behar du, modu legitimoan baliatu behar du –hau da, estatua (botere legegilea, betearazlea eta judiziala) muga batzuen mende jarrita, printzipio batzuen mende; horien artean dago, lehenik eta behin,

XVIII. eta XIX. mendeetako iraultza liberalen lorpenetatik aurrera, botereak legearen mende jartzea eta, horren bidez, herriaren borondatearen mende (demokrazia bada ezagutzen diren sistemetan “txarren artean hoberena”, legea da herritarren borondatea ordezkatzeko ezagutzen den sistemetan “txarren artean hoberena”)–, eta helburu legitimoak lortzeko baliatu behar du (oinarrizko ondasun juridikoen babes arrazionala, balio konstituzionalen araberako elkarbizitza eraikitzeke).

Giza eskubideak, oinarrizko eskubideak, guztioi dagozkigu, botere-egariari aurre egiteko lortutako eremuak dira, eta lorpen horiei eutsi egin behar zaie, eremu horiek ez galtzeko. Eskubide horiek ez ditugu merezi, ez ditugu irabazi; denok ditugu berez modu banaezinean, ezaugarri pertsonalak edo merezimenduak kontuan hartu gabe, pertsona batzuen eta besteen artean bereizketarik egin gabe; izan ere, botereak norbaiten eskubideak errespetatzen ez baditu, denok galtzen ditugu lorpen historiko horiek.

Horregatik, okerra iruditzen zait gatazkaren dinamika –ikuspegi, eredu, eskema– honi eustea: nik galtzen badut, zuk irabazi; zuk irabazten baduzu, nik galdu.

Kondenatutakoaren eskubideak ez dira biktimen eskubideen aurkakoak (besterik dira interesak edo itxaropenak). Eskubideak itxaropen eta behar juridifikatutzat ulertzen ditugun heinean, hau da, legeak –kontsentsu eta gatazka sozialaren adierazpen gisa– aitortzen dituenek, biak ordenamendu juridikoaren ondorio dira. Esaterako, preso dagoenak eskubidea du adierazpen-askatasuna izateko, baimenak izateko edo zigorra betetzean espetxetik ateratzeko, baina horrek ez ditu murrizten edo zalantzan jartzen preso horien biktimen eskubideak.

Egia, justizia eta erreparazioa justizia-administrazioan –mugak– eta biktimagileen birgizarteratzean

Zenbateraino da egokia zigor-sistema, zigor-arloko justizia-administrazioa, egia, justizia eta erreparazioa lortzeko itxaropenak asetzeko¹?

Egia²

Justizia formalak, hau da, justizia-administrazioak, legearen mende dagoen sistema prozesalaren bidez, gertaerei buruzko egia, erantzuleak, merezi duten zigorra eta kaltedunentzako erreparazioaren alderdi batzuk ezartzen ditu.

Nire ustez, justizia formalak edo egia ezartzen duen epaiak duen eginkizun komunikatibo horrek egundoko garrantzia du zuzenbide-estatu batean –egia hori zenbateraino den formala eta zenbateraino datorren errealitatearekin bat prozesuan izandako hutsegiteek eta justizia-administrazioak berak dituen mugek baldintzatzen dute–. Epaiak gertaera batzuk eta erantzule batzuk ezartzen ditu, eta, zigorraren bidez gaitzespen penala ezarrita, biktimizazioaren injustizia kalifikatzen du eta biktimak biktimatutzat aitortzen ditu; biktimen erreparazioari ekiten zaio horrela. Hortaz, zigor-legeen eta zigorrak betearaztearen eginkizuna da bizikidetzarako oinarrizko ondasun juridikoak arrazionalki babestea, delituen prebentzio orokorraren bidez: prebentzio orokor positiboa –araua eta arauak oinarritzat hartzen dituen balio eta ondasun juridikoak indarrean daudela berrestea– eta prebentzio orokor negatiboa –arau-hausle izan daitezkeenak beldurtzea–.

¹ Zaila da kontzeptu horiek elkarren artean bereiztea, bata bestearen eremuan sartzen baita nabarmen.

² Galo Bilbao (*Bake Hitzak* 77. zk.): “Egia jakiteko eskubideak, batetik, **benetan gertatutakoa** egoki eta zehatz **jakitera** garamatza (gertatu diren giza eskubideen urraketak, urraketen eragile aktiboak eta pasiboak, erantzuleak, inguruabarrak eta abar) eta, bestetik, **biktimei** biktima diren neurrian **dagokien aitorten publiko eta ofiziala** ematera. Horrela, egia jakiteko eskubidea Estatuak eta gizarteak duten oroimen-eginbeharrarekin eta biktimek oroimenerako duten eskubide korrelatiboarekin lotzen da. Oraindik garatze bidean den kontzeptua den arren, NBEko Giza Eskubideen Batzordeak egia jakiteari buruzko ebazpena onartu zuen duela urte gutxi”.

Baina biktimek egia ezartzeko eska dezakete, eta justizia-administrazioak muga nabarmenak ditu horretarako, bere eginkizun eta metodoengatik. Izan ere, prozesu errituala da, formala, batzuetan bitartekoak falta ditu, akusatuarentzat garantista da –jakina, bera baita zigorraren indarkeria legitimoa nozitu dezakeena–, eta gertaera batzuk argitzera bideratuta dago, errudun jotzen dena zigortzeko –hortaz, kontu asko geratzen dira prozesuaren esparrutik kanpo; batik bat, alderdi pertsonal eta emozionalak, arrazoiak eta abar ditut gogoan–. Nahiz eta horretarako gertaeren parte bati buruzko egia bat jakin eta egia bat deklaratu behar duen, prozesua ez dago horretara bideratua, erruduna zigortzera baizik.

Adibidez, prozesuak ez du balio egia sortzeko bitarteko gisa, gertaerak preskribatuta baldin badaude (gehenez ere 20 urteko epea eten eta berriz ere epea hasieratik hastea dakarren jardun judizialik gabe³) edo gertaeren egilea edo egileak hilik baldin badaude edo egileak non dauden ez badakigu. Kasu horietan, beste bide batzuk erabili beharko dira egia bilatzeko. Biktimazioaren alderik pertsonalenean ere ez dute lekurik prozesuan. Hor esparru egokiagoa eskain dezake justizia konponarazleak.

Badira biktimak aitortzeko (beraz, egia, justizia eta erreparazioa egiteko) instantzia instituzionalizatuak –esaterako, kalte-ordainen dekretuak–, inor errudun jotzearen mende ez daudenak, esparru judizialean ez baizik administratiboan gertatzen direnak; eta, nire iritziz, prozesu judizialek kanpoko bitarteko egoki horietako bat dira (prozesu hori gauzatu ezin denerako, ez aukera gisa) biktimazio bati dagokionez nolabait egia ezartzeko, nolabait justizia egiteko aitorten publiko eta formalaren bidez, eta neurri batean erreparatzeko, bai behintzat giza eskubide baten urraketa larri eta noski bidegabe baten biktimatzat aitor daitezen, bai ikusaraz dadin gizarte osoaren kontura “ordain” ekonomikoa dagokiela jasandako kaltearen zati bategatik.

Egoki al litzateke egia jakiteko beste foro edo mekanismo batzuk sortzea, justizia-administrazioak, bere mugak direla-eta, iritsi ezin duen lekura iristeko? Nire iritziz, zuhurtzia osoz, komeni litzateke bide ofizialak sortzea, terrorismoaren eta giza eskubideen urraketa larrien biktimek egia jakiteko eta erreparazioa jasotzeko duten eskubideak bete daitezen.

Justizia ⁴

Terrorismoaren biktimei aitortpena eta babes osoa emateko irailaren 22ko 29/2011 Legeak “oroimenaren, duintasunaren, justiziaren eta egiaren balioak ditu oinarri. Oroimena, biktimei egin zaien aitorten soziala eta politikoa babesteko eta bizirik eutsarazteko. Duintasuna, biktimengan Zuzenbide Estatu demokratikoaren defentsa sinbolizatuz mehatxu terroristari aurre egiteko. Justizia, *biktimei kalte-ordaina emateko, babesgabetasun-egoerak ekiditeko eta terroristak kondenatzeko*. Egia, ekintza-terroristek eragiten duten giza eskubideen urraketa agerian jartzeko.”

*Documento de bases Principios rectores para un modelo de fin de ETA sin impunidad. Reunión de asociaciones y fundaciones de víctimas del terrorismo. Madrid: 23 de noviembre de 2010*⁵ agirian adierazten denez (aurrerantzean, Oinarrien Agiria), “ETAREN

3 Heriotzaren bat eragin duten terrorismo-delituak preskribaezinak direla 5/2010 Legearen bidez ezarri zen Zigor Kodearen 131.4 artikuluan, eta, hortaz, Konstituzioaren 25. artikulua araberak, ezin zaie aplikatu 2011 baino lehen egindako delituei.

4 Galo Bilbao (*Bake Hitzak* 77. zk.): “Justizia-eskubideak ere, zeinak nazioarteko eremu juridikoan onarpen zabaldu duen, ikuspegi bikoitza du. Batetik, esan nahi du estatuek betebeharra dutela giza eskubideak urratzen dituzten egintzak salatu, ikertu, epaitu eta zigortzeko bide ematen duen egitura judiziala edukitzeko, eta, bestetik, ahal den neurrian, eragotzi egin behar dela urraketa larri horiek zigorrak gabe geratzea”.

5 Ikusita sinatzaileen zerrenda (Fernando Buesa Fundazioa, Miguel Ángel Blanco Fundazioa, Gregorio Ordoñez Fundazioa, Alberto Jiménez Becerril Fundazioa, Tomás Caballero Fundazioa, Terrorismoaren Biktimen Fundazioa, Biktimologia Fundazioa, Terrorismoaren Biktimen Espainiako Elkartearen Federazioa, Covite, Terrorismoaren Biktimen Elkarte, Terrorismoaren Biktimen Andaluziako Elkarte, Terrorismoaren Biktimen Murtziako Elkarte, Terrorismoaren Biktimen Valentiako Elkarte, Terrorismoaren Biktimen Galiziako Elkarte, Terrorismoaren Biktimen Kanarietako Elkarte, Terrorismoaren Biktimen Extremadurako Elkarte, Erakunde Terroristen Biktimen Kataluniako Elkarte, Estatuko Segurtasun Indar eta Kidegoen Elkarte, Terrorismoaren

biktimok ez daukagu eskumenik gobernuen politikak diseinatzeko, ez eta gauzatzeko ere, baina prestakuntza berezi bat daukagu gure *justizia-eskubide espezifikoa* eta dagokigun duintasuna baliatzeko, bai eta horri guztiari dagokionez hitza izateko ere. Hortaz, nolabaiteko *zigorgabetasuna* onartzen bada, biktima askok ezingo dute *dolua* burutu. Beharrezkoa da *terrorismoaren amaiera legez eta justiziaz egitea*”.

Zorionez, esan dezakegu Espainian gaur egun hiru oinarrizko baldintza betetzen direla ETAREN amaiera-prozesua justiziaz egiteko: lehenik eta behin, Espainia munduko beste edozeinekin homologatzeko moduko zuzenbide-estatu da, terrorismoaren aurkako borrokan eta beste zenbait eremutan egindako errore, abusu eta gehiegikeriak gorabehera; bigarrenik, gaur egun, ETAREN biktimen indarrak, duten aitortenak eta arlo horretako iritzi sozial eta politikoek ez lukete onartuko zigorgabetasunez, injustiziaz, egindako prozesu sozial eta juridikorik, 70eko eta 80ko hamarkadetan diktaduratik demokraziarako trantsizioan, ETA politiko-militarraren amaieran edo GALen itxieran egin zen bezala; eta, hirugarrenik, porrot egin du ETAREN proiektu politikoak, estrategia politiko-militarrak kutsu terroristadun borroka armatua erabilita: ETA desagertzen ari da, estrategia armatuaren bidez bere helburu politikoetatik bakar bat ere lortu gabe (beste kontu bat da proiektu independentisten, nazionalisten, ingurumenekoen, sozialen eta abarren oraingo eta etorkizuneko arrakasta).

Galo Bilbaoren arabera (*Bake Hitzak 77*), gure testuinguruan, “justizia-eskaera aldarri da biktimen artean. Behin eta berriz eskatzeagatik, eta, batzuetan, eskatzeko moduagatik, kritikatu ere egiten dira (ez beti zuzen), ez dutelako eskatzen justizia zehazki, mendekua baino⁶. Egia esan, aldarri horrek bi dimentsio ditu, gutxienez: batetik, prozesu judizial osoak eta egokiak egitea (salatu, ikertu, biktimgileak atxilotu, epaitu eta zigortu); bestetik, biktimak erreparatzeko prozesuak daude, era askotara gauzaturata, biktima direla aitortu, haien beharrei erantzuteko laguntzak eman (osasun arlokoak, sozialak, psikologikoak etab.), eta jasandako kalteengatik dagozkien kalte-ordain ekonomikoak emateko⁷. Gure testuinguruan aurrerapauso garrantzitsua egiten ari gara justiziari dagokionez: polizia-eraginkortasunari eta lan judizialari esker, biktimgile asko epaitzen eta zigortzen dira; biktimiek erreparazioa, aitortpena eta beraien beharrei erantzuteko laguntza jasotzen dute... Nolanahi ere, oraindik bide luzea dago egiteke, batez ere kontuan hartuz biktimiekiko justizia dela gizarte baten osasun demokratikoaren kalitatea neurtzeko frogaharria”.

Hemen, berriz ere, legearen balioa azpimarratu behar da, kontsentsu eta gatazka sozialaren adierazpen gisa, botere betearazlea eta judiziala mendean hartzen dituen herritarren borondatearen ordezkari gisa (ez du mendean hartzen, ordea, botere legegilea, hark legea alda baitezake, betiere Konstituzioa eta Espainia partaide duten nazioarteko hitzarmenak errespetatuz). “Biktimgileak epaitzea eta zigorrak betetzea”, ezinbestean, legearen arabera egin behar da; hortaz, lege-esparruaz haratagoko zigor-eskakizunak⁸ ezin dira aintzat hartu,

Biktimak, Terrorismoaren Biktimei Laguntzeko eta Giza Eskubideen Aldeko Elkarte, Dignidad y Justicia Elkarte, 11Mko Biktimak Laguntzeko Elkarte, 11Mko Biktimen Elkarte), azkenaldiko zenbait adierazpen baino agiri pluralagoa eta ordezkari zabalagoa da.

6 Hori oso argi ikusi da biktimen munduan oso garrantzitsuak diren pertsonen zenbait kasu ezagunetan, egin dituzten eskakizunek alde handiz gairatzen baitute zuzenbide-estatu batean onargarria dena, legez posible dena.

7 Alderdi hori erreparazioaren ideian hobeto sartzen dela iruditzen zait, justizia egiteko modu bat baita azkenean.

8 Javier Urquiza (*Bake Hitzak*, 77. zk): “Justizia eta gizarte zibilizatu baten biziraupena nahi baditugu, ezinbestekoa da terrorismoaren porrota. Ez da “aldarrikapena” edo “mendekuzko jarrera” gure aldetik. Ez, ez da hori. Kontua da, gertaerak nolakoak diren ikusita (nahi izan ala ez), ezinezkoa dela berdinketa (eta, hortaz, distantziakidetasuna) bizitzeko eskubidea bezalako oinarrizko eskubideak errespetatzen ditugunon eta errespetatzen ez dituztenon eta horretaz damu ez direnen artean; “nahi duguna inposatuko dugu, gustatu ala ez, edonola ere, ez gaitu ezerk geldiaraziko” leloarekin eta egitura mentalarekin funtzionatzen dute azken horiek”. Hortaz, damurik agertu ez duten terroristak gizarteratzea ez da “eskuzabaltasunez” jokatzeko, gizartearen suizidio kolektiboa baizik, baldin eta gizarteak benetan zibilizatu, solidarioa, errespetuan oinarritua, eta, azken batean, humanoa izan nahi badu.” Ez da erraza hain modu ulergaitzean adierazitako ideia horien atzean zer dagoen jakitea, baina argi dago zigorra bete dutenak espetxetik atera daitezen ukatzeak ez duela lekurik gure Konstituzioan.

Biktimen elkarte eta fundazioen Oinarrien Agiriak ukoenez, ostera, “1978ko Konstituzioa, Espetxeen Lege Orokorra, Zigor Kodea eta Espetxe Erregelamendua dira gure erreferentziak gai honetan. Argi geratu behar du birgizarteratzeak, hain zuzen, **zigorrak legearen arabera osorik betetzea** esan nahi duela”, bazterrean utzi

ez bada legegile eskudunaren aldetik eta oinarrizko eskubideak errespetatuz.

Besterik da justizia formalaz kanpoko justiziaren ideia; Biktimen Agirian injustizia historikotzat jotzen denari buruz ari naiz: ETaren historiaren deslegitimazio politiko eta sozialari buruz ari dela dirudi (gauza bera esan liteke giza eskubideen beste urraketa larriei buruz ere, dokumentuak ezer esaten ez duen arren). Esparru horretan ere zigorgabetasunerako lekurik ez dagoela uste dut. Ez zait arrazoizkoa iruditzen gizarte osoa giza eskubideen urraketa oren deslegitimazioa dakarren gutxieneko oinarri etikoaren inguruan iritzi berekoa izango dela espero izatea, beti egongo baita indarkeria batzuk ala besteak justifikatu edo errugabetuko dituen norbait, baina ez zaio muzin egin behar gaur egun horretaz dagoen gehiengo zabala sendotzeko ahaleginari.

Erreparazioa ⁹

Ikusi dugun bezala, egia jakitea, epaiaren eraginkortasun komunikatiboa eta erruduntzat jotzea, justizia egitea, denak ere biktima erreparatzeko elementuak dira.

Gehienetan, kalte erreparaezinak eragin dituzten delituez ari gara; ez erailketak bakarrik, baita lesioak, mehatxuak, pertsekuzioak... Juridiko-penalki, kalte-ordainak bakarrik ezagutzen ditugu. Bistan denez, delitugileak ez dira gai izango kalte-ordainak ordaintzeko; zorionez, ordea, estatuak bere gain hartu du, betebeharrak publiko gisa, biktimei kalte-ordainak ematea, ebazpen judizial batean biktimatzen aitortu ala ez.

Bada beste elementu bat ere erreparazio sinboliko edo morala lortzeko, nire ustez, oso garrantzitsua dena alderdi pertsonal eta intimoan, eta bidea aurki dezakeena lege-sistemaren bidez, ikuspegi konponarazle batetik, nahiz eta arlo juridikotik kanpo dagoen, hertsia-hertsian hartuta. Gero arituko naiz horretaz.

Parot doktrina: proportzionaltasuna eta legezkotasuna

Gai hau, berez, ez da hitzaldi honen xede, baina gaurkotasun handikoa denez, ez nuke informaziorik eman gabe eta gogoetarik egin gabe utzi nahi.

Gure ordenamendu juridikoan, beti interpretatu izan zen ezen, denbora-tarte jakin batean egindako delitu bakoitzaren zigorrak batuta, gaudituz egiten baziren juridikoki ezarritako mugak (alegia, zigorrik larrienaren hirukoitza edo 30 urte –orain 40–), orduan kondena erreala izango zela muga, eta, horrela, beste zigor bat eratzen zen (zigorrik handienaren hirukoitza edo 30 urte). Zigorren pilatze juridiko hori, batuketa aritmetiko hutsaren aurrean, humanitate- eta birgizarteratze-printzipioetan oinarritzen da; batuketa aritmetikoa betetzea, batzuetan, ezinezkoa da, eta, beste zenbaitetan, aipatutako printzipioekin bateraezina, eta horrek ematen dio zentzua pilatze juridiko horri. Egia esan, muturreko eta ezohiko kasuetan (nahiz eta zoritxarrez ez izan hain ezohikoak gure kasuan), ondorioak bidegabeak izan litezke. Ez naiz ari bakoitzaren parametro etikoei buruz, proportzionaltasun-printzipioari eta zigorren

gabe behar bezala erabakitako birgizarteratzerako legezko aukerak.

9 Galo Bilbao (*Bake Hitzak*, 77. zk.): "Erreparazio-eskubidea, batik bat, jasandako eskubideen urraketak eragindako kalteak direla-eta, ahal den neurrian biktimei laguntza eta kalte-ordaina emateko jarduketan prozesu integral oso bat da. Nolabait, erreparazio-eskubide hori ez litzateke justizia konponarazlearen gauzapena baino, biktimak berriz ere gizartearen txertatzeko, egintza biktimagile bidegabeak gizartetik bereizi baitzituen, sekula horrelakorik gertatu behar ez zuen arren. Erreparazio hori egiteko hainbat modu daude –NBEko Giza Eskubideen Batzordearen 2005/35 Ebazpenean agertzen direnak jaso ditut–: ahal denean, urraketa aurreko egoera leheneratzea (ondasunak itzultzea, ohiko bizilekura itzultzea, berriz aske geratzea...); jasandako kalteen neurriko kalte-ordain ekonomikoa –diruz ebaluatzeko modukoena–; errehabilitazioa (laguntza mediko, psikologiko, juridiko eta sozialen bidez), ondorioak utzi dituzten kasuetan; gogobetetzea, alegia, biktimekiko aitorten publikoa eta oroimena adierazten duten neurri sinboliko guztiak, eta, azkenik, ez erreparatzeko bermeak, jasandako urraketak etorkizunean berriz ez gertatzeko neurriak". Badirudi, ordea, ez duela aipatzen biktimagileen konturako erreparazioa.

disuasio-eraginari buruz baizik, kondena berbera bete beharko baitute 34 urteko kondena duen pertsona batek eta 3.400 urtekoa duen beste batek (noski, ez zait zentzuzkoa iruditzen zatiketa demagogikoak egiten hastea, erailketa bakoitzeko espetxean zenbat urte eman behar diren jakiteko; kasu ezagun batzuetan, 90 urteko espetxe-zigorra jarrita ere, emaitza berdin izango litzateke zentzugabea). Zaindu behar dena da zigorren baturak eta zigorra betetzeko moduak ez dezala ekarri kondena inhumanoa, biziarteko kartzela-zigorra, bizirik ateratzeko itxaropenik uzten ez duen espetxe zigorra edo birgizarteratzerara bideratzeko aukerarik ematen ez duen kondena; izan ere, birgizarteratzea ezinbesteko helburua da Konstituzioaren arabera.

Hori, neurri batean, 1995eko Zigor Kodearen 78. artikulua bidez “konpondu” zen, auzitegiari eskumena emanez baimenetarako epeak (kondenaren 1/4), hirugarren gradua (1/2) eta baldintzapeko askatasuna (3/4) batura osoa kontuan hartuta kontatzeko, eta ez pilatze juridikoak mugatutako kondena kontuan hartuta.

Bestalde, 1944tik, 1973ko Kodea tartean dela, zigorrak lan eginez ordaintzea aplikatzen da. Ohikoa da bi lan-eguneko zigor-egun bat; ezohikoa, berriz, lan-egun bakoitzeko zigor-egun bat, merezimenduen arabera. Horrela, esaterako, 30 urteko gehienezko kondena, praktikan, zigor nominalaren 2/3 zen (20 urte, gehienezko kondenaren kasuan), eta horrela bazirudien kondenak ez zirela osorik betetzen, nahiz eta eragingarritasunez bete legearen arabera. 1995eko Zigor Kodeak “konpondu” zuen arazo hori (zigor nominalak heren batean murriztu gabe, “oharkabea” benetako zigorrak % 50 igo ziren, eta horixe izan zen hurrengo hamarkadan izan zen eta oraindik ere badugun espetxe-populazio izugarriaren lehen jatorria): zigorrak lan eginez ordaintzeko aukera ezabatu zuen (eta, horrekin, presoek era askotako jardueretan parte hartzeko pizgarri garrantzitsu bat).

Hortaz, 1996tik aurrera egindako delituetan, kondenak benetan eta osorik betetzen dira (baina ez nahitaez espetxean erregimen itxian beti, badirelako baimenak, erdiaskatasunaren erregimena eta baldintzapeko askatasuna).

2003ko zigor-erreformak sakondu egin zuen ildo hori: baimenen, erdiaskatasunaren erregimenaren eta baldintzapeko askatasunaren denborak guztizko zigorraren gainean kontatzen ziren oro har, gehienezko muga 40 urtera igo zen, eta gogortu egin zen birgizarteratzeko lege-bitartekoetarako irispidea; azken batean, Europan ohi ez bezalako zigor-erantzun gogorra sortu zuen, noiz, eta ETA azken hatsa ematen ari zenean, inoiz baino arrisku txikiagoa zuenean.

Baina, noski, ETAREN adar desberdinen erailketa gehienak 1996. urtea baino lehen gertatu ziren; denborak aurrera egin zuen, oharkabea ziurrenik, eta hainbat erailketa-delitugatik kondenatutako pertsonak bete zuten edo betetzear zeuden benetako gehienezko zigorra, 20 urte. 1995eko Zigor Kodeak eta 2003ko Lege Organikoak konpondu zituzten etorkizunera begirako arazoak (ezin daiteke bestela izan, eskubideak mugatzen dituen lege-xedapenak atzeraeraginik ez edukitzeko oinarritzko eskubidea dela eta). Auzitegi Gorenak erabaki zuen konponbide bat bilatzea –bakarrik edo besterekin elkarlanean–, interpretazio harrigarri bat eginez –hain berria, ezen inori ez zitzaion bururatu mende osoan; gainera, non, eta aldeetako inork gai hori planteatzen ez zuen errekurso batean–, eta, zeinaren arabera, atzeraeraginik ezak jurisprudentziari eragiten ez dionez (nahiz eta Auzitegi Gorenaren jurisprudentzia, legeak ez bezala, ez den atzeraeraginez aplikatzen, ezta errudunaren aldekoa denean ere), aurretik gertatutako egintzei aplika zekiekeen. Azken batean, emaitza materiala agian “bidezkoa” izango zen funtsean (hemen aztertuko ez ditugun arrazoi politiko-kriminalak tarteko), baina “bidegabeki” lortu zen, urratu egin baitzen zigor-legezketasunerako dugun oinarritzko eskubidea –1978ko Konstituzioan eta 1950eko Giza Eskubideen Europako Itunean jasoa–.

Zoriturrez, ikuspegi horretatik, Auzitegi Konstituzionalak ez zuen zuzendu oinarritzko eskubideen haustura hori, baina, zuzenbide-estatuaren onerako, Espainia partaide duten giza eskubideak babesteko sistemak funtzionatu zuten.

Estrasburgoko Auzitegiaren erabakiarekin ez du ETAK irabazi. Bai, hamarnaka lagun

espetxetik atera dira (legez behar luketena baino urte batzuk geroago, Auzitegi Gorenak nahi lukeena baino urte batzuk lehenago), baina epaiak ez die zigorra arintzen, ez dago zigorgabetasunik, ez dago ez beraien krimenen ez ezker abertzale biolentoak emandako babesaren legitimaziorik. Soil-soilik Espainiako zigor-legedia aplikatuko da, modu legal eta legitimoan, giza eskubideak errespetatuz, eta boterea legearen mende jarritz. Zuzenbide-estatuak irabazi du, zigor-legezketasunerako eskubidearen titularrok irabazi dugu, gure babesak irabazi du boterearen botore-egarriaren aurrean. Terrorismoaren erantzun penalak legitimitatea irabazi du, zuzendu egin baita gainez egin duenean. Ezker *abertzale* biolentoak, berriz, biktimismorako aukerak galdu ditu.

Biktimek ez dute galdu ez egiarik, ez justiziarik, ez erreparaziorik. Ez dago delituaren biktimak¹⁰ laidotzerik, legea betetzen bada eta boterea zuzenbidearen mende jartzen bada, horrela legitimatu egiten baita bestela indar basatia, indarkeria hutsa litzatekeena.

Soilik galdu dute doktrina sortu, bultzatu eta orduan zein orain ere justifikatu dutenak, legez kanpokoa baita, hainbestearino, gure Konstituzioaren eta Giza Eskubideen Europako Hitzarmenaren aurkakoa baita.

Zoritxarrez, ez da horrela azaldu nahi izan; aitzitik, “doktrina bai, doktrina ez” eztabaida “biktimentzako justizia bai, biktimentzako justizia ez” eremuan kokatu da, eta, horrek frustrazioaren kale itsura eraman ditu biktimak, neurri handi batean zenbait elkarte eta fundaziotako buruek bultzatuta. Izan ere, penalista guztiek jakin bazekiten ezin zela besterik gertatu eta ez zuela besterik gertatu behar.

Frustrazioa min eta amorru bihurtu da zenbaitengan; komunikabide jakin batzuk, jakizu zein interesek bultzatuta, histeria piztu dute; gaian hasiberria den edonor ere harritzeko moduko hamaika gezur entzun dira –adibidez, ezkutuko amnistia dela–; auzo-lotsa ematen duten eskakizun erradikal onartezinak ere entzun dira; paranoia konspiratiboaren berriritzeak ere bai; Estatuko instituzio guztien aurkako erasoak; “tesi ortodoxotik” aldentzen diren biktimen aurkako erasoak... Norbaitek gainerako guztiak traidore direla irizten dionean...

Beharrezkoa da lasaitasun eta arrazionaltasun apur bat, pedagogia esaten dute, baina egiazko informazioa besterik gabe esango nuke nik, gertatutakoa dagokion lekuan jartzeko eta biktimek irainik ez dela egon uler dezaten; ulertzeko, 4 urte gehiago edo 3 urte gutxiago, hori ez dela eztabaidaren gakoa¹¹. Nire iritziz, eztabaida ez da ea garai batean bidegabeki eta alferrik, sarritan ankerkeriaz, behin eta berriz, mugarik gabe, irrazionalki eta sentsibilitaterik gabe erail zuten horiek espetxetik atera behar duten 20 urte, edo 26, edo 30 urte igarotzean (huts hori, nolana ere, 1944tik 1995era bitarteko legegileei leporatu beharko zaie), baizik eta nola ateratzen diren, zer pentsatzen duten, zer egiten, zer sentitzen duten, nork eta nola babesten dituen. Hori da, nire ustez, kontu etiko eta politikoaren benetako gunea, eta Zuzenbidez haratago doa.

Bidezidor txarrek inoiz ezin dituzte eraiki egia, justizia eta erreparazioa, ez legezketasuna eta legitimitatea ertzetik hartuta (gehiegizko zigorrak jartzea, salbuespen penala, atxilotzeko eta espetxeratzeko erregimen bereziak, Auzitegi Nazionalaren zalantzako jardunak, delitu motak zehaztu gabe hedatzea, “ingeniaritza juridikoak”...), ez zuzenean zanpatuta (heriotza-zigorra bere garaian, terrorismo paraestatala, GAL, abusu polizialak, torturak...); horrez gain, bidezidor txarrek inoiz ez dute laguntzen legitimitatea lortzeko borrokan, eta ez dira eraginkorrak fenomeno terroristekin amaitzeko. Oinarri horien gainean ezin dugu eraiki gizarte liberrik.

10 Zuzen-zuzenean eragindako pertsonengan zenbait erreakzio emozional ulertzekoak badira ere, ez dira ez justifikagarriak ez goresgarriak, are gutxiago pertsona horiek erantzukizun publikoak baldin badituzte.

11 Irene Villak, *ABCn*, 2013ko azaroaren 15ean: G- Parot doktrina amaituta, aspaldiko zauriak berriz zabaldu al dira? E–“Min apur bat sentitu dut, espainiar guztiek bezala. Baina, **nik barkatu egin dudanez, berdin zait** espetxean ala espetxetik kanpo dauden, hilketa horiek haien kontzientzian geratuko baitira bizirik dirauten artean”. Adibide zoragarria dugu: gorrotoaren fase ekidinezin eta logikoa gainditzen jakin du, gainditu ahal eta nahi izan du, eta, bizitzaren amarru horretatik aterata, barne-bakea lortu du; zenbat ahalegin eta balore dagoen esaldi labur horren atzean.

Espetxe-arloko legediari buruzko ohar laburrak

Zigorra betetzeko erregimenak

Delitua egiten den unea da denborazko erreferentzia ekidinezina kontu penaletarako (ez prozesaletarako, ez eta espetxe-kontu guztietarako ere¹²).

Aurreko puntu zehatzean zeharka aipatu da, eta horrekin nahikoa da esparru honetan, baina egokia eta beharrezkoa iruditzen zait alderdi bat azpimarratzea: zigorra betetzeko eta birgizarteratzeko prozesuei begira, terrorismoagatik preso dauden guztiak ez daude baldintza berberetan, ez atxilotzeko eta lehen kondena betetzeko lekua zein den kontuan hartuta (oraingoz Frantzian dauden presoek kasua; “beraien onagatik” kondenak Espainian betetzeko eskatzen hasi beharko lukete), ez delitua noiz egin zen kontuan hartuta (1996ra arte, 1996tik 2003ra, 2003tik 2010era, eta hortik gaur egunera). Zigor-alderdietan eta zigorra betetzeari dagokionez, hainbat erregimen izango dituzte; delitua zenbat eta geroago egin, orduan eta gogorragoak, nabarmen. Izan ere, legegileak mugarri horietan apurka-apurka areagotu egin zuen legezko armamentuaren disuasio-neurria.

Espetxe-zaintza, berrerortzeko arriskua eta errehabilitazioa. Zer da errehabilitatuta egotea, birgizarteratuta egotea?

Birgizarteratze-kontzeptua –Konstituzioak hitzez hitz berreztea eta gizartean birsartzea dio– zaintzaren kontzeptuan gauzatzen da espetxe arloan: preso askatasunezko bizitzan (pixkanaka) berriro ere deliturik ez egiteko moduan txerta dadin lortzeko jarduera multzoa (borondatezkoa) da. Zaintza borondatez onartu behar da –egiaz horrela gertatzen den ala ez, sakonago azter genezake apur bat, baina hau ez da horretarako lekua–, eta ezin du urratu ez pertsonaren duintasuna ez bere kontzientzia-askatasuna.

Gauden esparru honetan, honako galdera hauek egin ditzakegu: Zer egin da horri dagokionez? Zerbait egin zitekeen? Zer?¹³ Nahikoa dugu kontzeptu horrekin terrorismoaren esparruan?

Bistakoa dirudi espetxe-zigor luzeetara kondenatu dituztenetatik ia inor ez dela berriz ETAn sartu; gaur egun, jarduera armatua behin betiko utzita, esan daiteke pertsona horiek berriz ere delitu egiteko arriskua oso txikia dela¹⁴. Behin desegiten denean, espresuki edo ezkutuan, edo armak entregatzean, edo gaur egungo egoera luzatzean, zorionez, esan ahal izango dugu arriskua hutsaren hurrengo dela.

Nolanahi ere, prebentzio indibiduala, alegia, berriz ere delitu egiteko arriskua txikitzea bai inokuzazioaren bidez bai birgizarteratze, berrezte edo errehabilitazioaren bidez, ez da zigorra ezartzea eta betearaztea justifikatzen duen helburu bakarra. Ordainketa-premiekin – premia horiek dituenarentzat– edo premia prebentibo orokorrek exijitu dezakete gutxienez zigorraren zati garrantzitsu bat betetzea, pixkanaka birgizarteratzeko bitartekoetara irispidea izan aurretik, nahiz eta berrerortzeko arriskurik ez egon. *Bestalde, gehiago eska liteke? Juridikoki, damua eska liteke? Zer da damua? Kontzientzia-aldaketa eska liteke?*

Biktimen elkarte eta fundazioen Oinarrien Agiriak honela dio: “ETAko presoek kolektiboari buruzko espetxe-politika ez da hartu behar etorkizunean barkamen-politiken baliokide gisa

12 7/2003 Lege Organikoaren xedapen iragankorra: “Lege honen arabera, Zigor Kodearen 90 eta 93.2 artikuluetan baldintzapeko askatasuna lortzeko inguruabarrei buruz ezarritakoa eta Espetxeen Lege Organikoaren 72.5 eta 6 artikuluetan espetxe-zaintzaren hirugarren graduan sailkatzeari edo horra iristeari buruz ezarritakoa aplikatuko zaie, indarrean sartzen direnetik, gai horiei buruz hartzen diren erabakiei, kontuan hartu gabe delitu-egintzak noiz egin ziren edo zigorra betetzeko ebazpena noiz eman zen.”

13 Esparru horretan koka litekeen esperientzia benetan positiboa eta interesgarria da, “La recuperación del victimario” artikuluan kontatzen dudana, honako lan honetan: *Los ojos del otro. Encuentros restaurativos entre víctimas y ex miembros de ETA*, Sal Terrae argitaletxea, 2013.

14 Barne Ministroak berak, Fernández Díazek, adierazi du ETA ez dagoela operatibo, eta inoiz ez dela itzuliko ezagutu dugun moduan.

erabiltzeko tresnatzat, legeek ez dute-eta hala ezartzen. Epaitutako eta zigortutako presoak garaia baino lehen espetxetik ateratzea oinarritzat hartuko lukeen espetxe-politika, graduen progresioaren aplikazio bigunez mozorrotuta, zigorgabetasuna litzateke nolabait. Espainiako iritzi publikoan bada terrorismoaren biktimei “eskuzabaltasuna” eskatzeko tentaldia, beraien eskakizun legitimoak alde batera uzteko eta bidezko justizia-aldarrikapenari uko egiteko eskatzen zaie eta. Eskakizun hori xantaia morala da, bereziki bidegabea kontuan hartzen badugu delituak nolakoak diren, eta dolua nolakoa den: dolua, oraindik, neurri batean, indarkeriaren amaiera zigorgabetasunik gabe gauzatuko ote den zain dago, eta horren menpe.”

Audientzia Nazionaleko Zigor Arloko Salaren Lehen Sekzioaren 2013ko maiatzaren 7ko Autoak, “Langraiz bidea” osatzen duten presoetako bati baimen arrunta eman zionean adierazi zuenez, “Biktimen lekuan jartzea, erreparatzen saiatzea, beraien minaz arduratzea, modu bikaina da gaizkilea berrezteko, zuzenbidea eta urratutako araua onartzeko (prebentzio orokorreko helburuak), erreparatzeko”, eta honako hau ere adierazi zuen: “Espetxe-sistemak adibidetzat eman behar du ordena juridikoan birsartzen, arauak errespetatzen eta beraien biktimak aitortzen saiatzen diren zigortuen jokaera eta portaera, are gehiago delituak oso larriak badira, eta aitortu egin behar du errehabilitatzeko ahalegina, zintzoa bada eta eraldaketa baten adierazgarri bada. Aztergai duguna bezalako kasuak, salbuespen direnez –kontraste gisa, ikus delitu terroristengatik preso dauden gehienen jarrera, biktimei eragindako mina aitortzen ez dutela eta biktimez arduratzen ez direla–, eredu bihur daitezke, beste zenbait helbururen artean kondenatuen errehabilitazioa lortu nahi duen sistema batean”.

Bada, ondorio horietarako, etsigarria da, Giza Eskubideen Europako Auzitegiaren 2013ko urriaren 14ko epaia aplikatuz zigorrak osorik bete dituztela-eta, egunotan hamarka preso espetxetik ateratzea, indarkeria gaitzesten dutela publikoki aitortu gabe – eta hori da, ziurrenik, biktima gehienei minik handiena ematen diena–, eta, aldiz, “Langraiz bidea” osatzen duten presoek, humanitate handiko ibilbide pertsonal, intimo eta publikoa eginda ere, terrorismoaren biktima guztientzat indar konpontzaile handia eta euskal gizarte osoarentzat mezu eredugarria edukita ere, erdiaskatasunaren erregimena eskuratzerik ez izatea, nahiz eta horretarako baldintza guztiak bete.

Pentsatzen dut organo judizialak ohartzen direla zein den mezua, kanpora begira behintzat kolektiboaren diziplinaren mende jarraitzen duten gainerako presoentzat: alferrekoa da, zentzugabea da eragindako kaltearen injustizia aitortzeko ahalegina egitea, indarkeria gaitzestea eta biktimak erreparatu nahi izatea. Eta pentsatzen dut ohartzen direla, halaber, euskal gizarte osoarentzat mezua etsigarria dela: ezkutatu egiten ditu eragindako kalteaz damutu diren terrorista ohiak¹⁵, eta zigor-zuzenbide mendekatzailea eta zigortuen bilakaera pertsonalaren aurrean ezikusiarrena egiten duen ideia zabaltzen du. Nire iritziz, hanka-sartzea da autokritika pertsonal eta politiko sakona egiteko gai izan direnen ekarpenak lapurtzea eztabaida publikoari; bai eta biktimei ere, egindako erailketez damutzen direnen diskurtsoak bakegintzako ahalmen handia baitu haientzat.

Atzerriko kondenak, betetzeko lekuak, betetzeko gehienezko mugak, espetxetik ateratzeko baimen arruntak, erdiaskatasunaren erregimena, baldintzapeko askatasuna

Puntu honetan, gai horiei buruzko ohar batzuk baino ez nituzke egin nahi, labor-labor, espezialistak ez direnentzat informazio erraza eta baliagarri izan dakiekeena emateko.

15 Irene Villaren adierazpenak (ABC, 2013ko azaroak 15) gogoeta egitea merezi duela iruditzen zait: G- Hitz egingo zenuke haiekin [presoekin]? E- Zergatik ez, bada; hanka-sartzea izan da, eta kitto. Iruditzen zait, damutzen badira, bigarren aukera bat merezi dutela. ETAre biktimaren titulua ken diezadaten nahi dut, urteak baitira, zorionez, terrorismoaren aurkako eztabaidan jarduteari utzi niola. Ez zidan batere onik egin, nik ez daukat-eta politikarekin zerikusirik. Nirea psikologia da, kirola, gainditzea, *coaching-a*.”

Preso dezente ari dira kondena Frantzian betetzen. Pentsatzen dut horietako gehienak Espainian epaitzeko erreklamatuta daudela. Estraditatzean eta, hala badagokie, zigortzean, zigorrak Espainian betetzen hasiko dira, Frantzian espetxean emandako denbora kontatu gabe, nahiz eta, Zigor Kodearen 76. artikulua arautzen duen bezala, denbora-tarte berean gertatu diren elkarri lotutako delituak izan.

Zigorra betetzeko lekua, hain zuzen, eztabaidagai nagusi bihurtu zen, kontzentrazio-politikaren orde sakabanaketa- eta urruntze-politika ezarri zenean. Ez nuke gaia sakon aztertu nahi. Aski bekigu esatea, ordenamendu juridikoaren printzipio orokorraren arabera, zigorra preso birgizarteratuko den eta laguntza familiar eta sozialak dituen lekuan bete behar dela oro har; kontrakoa arauaren salbuespena litzateke; salbuespen horrek, gainera, argi eta garbi justifikatuta egon behar du, urruntzeak kalte handia egiten baitie presoei eta senitartekoei.

Aplikazio orokorraren salbuespen hori birgizarteratze indibidualak sustatzeko eta presoen kontrol-ahalmena ahultzeko dela esanez justifikatu da. Bada, ez dirudi arrakasta handirik izan duenik; are gutxiago gaur egun justifikazio beraren babesean jarrai daitekeenik; aitzitik, esan liteke gaur egungo baldintzetan helburu horietarako kaltegarri dela ere.

Argi gera dadila, uste okerrak geldiarazteko, zigorra senitartekoengandik gertu betetzea ez dela espetxe-onura, ez dela terrorismoa gaitzestearen mendekoa, eta ez dela zigorgabetasuna.

Oraingoan, biziarteko espetxe-zigorra berriz jartzen ez den bitartean, hainbat delitugatik jarritako zigorren baturak muga batzuk ditu: handienaren hirukoitza, 20, 25, 30 edo 40 urte. Terrorismoan 40 urte dira ia beti. 2003. urtetik aurrera da horrela; lehen, berriz, 30 urte zen gehienezko muga.

Bestalde, zigorrak betetzerakoan, baimenak, erdiaskatasunaren erregimena eta baldintzapeko askatasunak lortzeko epeak kontatzeko orduan, baturaren guztizkoa hartzen da kontuan, ez zigorraren muga (1995etik, aukerakoa epailearentzat; 2003. urtetik, nahitaezkoa terrorismo-kasuetan).

Zigortuak pixkanaka birgizarteratzeko dauden legeko bitartekoei dagokienez, baimenak, erdiaskatasunaren erregimenak eta baldintzapeko askatasuna aipatu behar dira.

Baimen arruntak lor daitezke, sei hilabetean 18 egunetik 24 egunera bitartean, presoak kondena (edo zigorren baturaren) laurdena beteta duenean, lehen graduan sailkatuta ez dagoenean, portaera ona duenean, eta berrerortzeko edo baimena gaizki baliatzeko arriskurik ez dagoenean; helburua da askatasunez bizitzeko prestatzea, birgizarteratze-ibilbidean lehen urrats gisa, eta espetxearen ondorio desozializatzaileak leuntzea.

Erdiaskatasunaren modu asko daude (117 eta 100.2 art. edo hirugarren gradua/erregimen irekiak). Oro har, gaia gaineratik aztertuta, esan daiteke kondena erdia beteta edukitzea (legeko eskakizun gisa kasu batzuetan, praktikan ia kasu guztietan), espetxean jokabide ona izatea, erantzukizun zibila –biktimaren kalte-ordaina– ordaintzen aritzea edo ordainduta edukitzea, eta birgizarteratzeko aldeko pronostikoa edukitzea eskatzen dela (oro har, lan-eskaintza, familia eta bizitzeko toki bat izatea, adikzio “arriskutsurik” ez edukitzea...). Terrorismoaren kasuan, exigentzia are handiagoa da nolabait.

Baldintzapeko askatasunean, zigorraren azken zatia (laurdena edo, kasu berezietan, herena) askatasunean betetzen da, deliturik ez egiteko eta aurkitzeko moduan egoteko baldintzapean, eta Zaintzako Epaitegiak jar ditzakeen beste zenbait baldintza betez. Horretarako, hirugarren graduan sailkatuta egon behar da, eta birgizarteratzeko aldeko pronostikoa eduki; hortaz, hirugarren gradua lortzeko behar diren eskakizunen antzekoak biltzen ditu.

Baldintza bereziak terrorismoaren gain

Bereziki gogorra eta murriztailea da terrorismoagatik kondenatzen dituztenen zigorra

betetzeko erregimen posiblea.

Esaterako, gehienek lehen graduan ematen dute kondena osoa, espetxea espetxearen barruan esan ohi da: izan ere, oso mugatuta dituzte komunikazioak, mugimenduak, jarduerak, beste presoekin batera egoteko orduak; aparteko segurtasun-neurriak dituzte, eta abar.

Gainera, senitartekoengandik eta lagunengandik urrun dauden espetxeetan egoten dira, eta intuizioz antzeman liteke zer-nolako kalteak dakartzan horrek.

Gainetik azaldu dudan bezala, nahitaez, modalitaterik gogorrean ezartzen dira zigorra betetzeko gehieneko mugak, hirugarren graduan sailkatzeko epea eta espetxe-onurak kontatzeko epeak. Agian ez zen beharrezkoa auzitegientzat derrigorrezkoa izatea; pentsatzekoa da, oro har, modalitate mugatzaileenak ezarriko zirela kasu hauetan, baina hala nahi izan du legegileak.

Baldintzapeko askatasuna lortzeko erregimena ere murriztaileagoa da. Terrorismo-delitueterako, ez dago aukerarik baldintzapeko askatasunerako epeak aurreratzeko (2/3era edo erdira arte). Harrigarria eta okerra da, nire iritziz, oro har dagoen aurrerapen hori ukatzea biktimak erreparatzeko programetan parte hartzen duten presoek. Delitu horietan biktimaren osagaia hain garrantzitsua izanik, agian ez litzateke programa horietan parte hartzeko pizgarririk kendu behar.

Birgizarteratzeko aldeko pronostikoaren berariazko eskakizunak terrorismo-delitueteran: argi eta garbi erakustea helburu eta bitarteko terroristak alde batera utzi direla eta agintariekin modu aktiboan kolaboratu izana. Egiatzapena: uko egiten diotela berariaz adierazteko aitortpena; barkamena espresuki eskatzea bere delituak eragindako biktimei; txosten teknikoak

Birgizarteratzeko aldeko pronostikoaren elementu horiek¹⁶ berariaz sartu dira terrorismo-delitueterako¹⁷, eta zehatzago azaltzeko modukoak dira.

Hirugarren gradua¹⁸ eta baldintzapeko askatasuna lortzeko eskakizunak dira horiek (ez baimenak lortzekoak, nahiz eta Auzitegi Nazionaleko fiskalak kontrakoa defendatzen duen). Hori bai, paragrafoa ez da eredu, teknika legegileari dagokionez.

Lehendabiziko ohar garrantzitsua da, 2003an sartutakoak izanik, “atzeraeraginez aplikatzekoak” direla, eta, hala, betearazten ari diren zigorrei aplikatzen zaizkie, delitua 2003a baino lehenagokoa izan arren. Hala ezartzen da berariaz 7/2003 Lege Organikoaren xedapen iragankorrean. Zalantzazkoa da, nahiz eta oraindik ez dudan ikusi praktikan zalantzan jarri denik (ETAkoak izan ziren eta birgizarteratzeko prozesu indibidual baten alde egin duten

16 Espetxeen Lege Organiko Orokorren 72.6 artikulua ezartzen duenez, “Zigor Kodeko II. liburuko XXII. tituluaren V. kapituluaren **bigarren atalean** jasotzen diren terrorismo-delituengatik edo erakunde kriminalen babesean egindako delituengatik zigortutako pertsonak espetxe-zaintzaren hirugarren graduan **sailkatzeko edo gradu horretara iristeko, beharrezkoa izango da**, Zigor Kodeak ezarritako baldintzak betetzeaz gain eta aurreko paragrafoan ezarritakoari jarraituz erantzukizun zibila ordainduta izateaz gain –horretarako haien errentak eta oraingo eta etorkizuneko ondareak erabilia–, **argi eta garbi erakustea helburu eta bitarteko terroristak alde batera utzi direla** eta, gainera, agintariekin modu aktiboan kolaboratu izana, bai banda armatuak, erakunde edo talde terroristak **beste delitu batzuk** egin ditzan **eragozteko**, bai **delituaren ondorioak leuntzeko**, bai delitu terroristen **erantzuleak identifikatu, harrapatu eta zigortzeko, frogak lortzeko**, edo kide edo kolaboratzaile aritu zen **erakundeen edo elkarten jarduna edo garapena eragozteko**. Hori frogatu ahal izango da berariaz adieraziz delitu-egintzei ukoa egin diela eta alde batera utzi duela indarkeria, eta **bere delituaren biktimei barkamena espresuki eskatuz**, bai eta presoak erakunde terroristarekin eta legez kanpoko elkarte eta kolektiboekin eta jarduerekin benetan apurtu duela eta agintariekin kolaboratu duela frogatzen duten txosten teknikoekin bidez ere”.

17 Biktimen elkarte eta fundazioen Oinarrien Agiriak honela dio: “Birgizarteratzeak, batetik, eragindako kaltearekiko erantzukizuna subjektiboki onartzea behar du berekin, eta, bestetik, alderdi publikoa. Noski, kasu indibidualizatuak dira, soluzio kolektiboak ez lirateke-eta onargarriak izango”.

18 Ez berariaz Zigor Erreformaren 100.2. artikuluan jasotako erdiaskatasunaren erregimenerako, baina hala exijitzen ari da praktikan.

presoak gutxi direlako ere bai; noizbait ETAk edo ezker abertzaleak “baimena ematen badiete” presoei prozesu horiei ekiteko, baldintzatzaile horiek oso garrantzitsuak izango dira). Ez al ditu aldatzen zigorra betetzeko baldintzak, delitua egin eta zigorra ezarri ondoren, eta ez al du, hala, zigorraren edukia bera aldatzen? Erantzuna ez da argia; birgizarteratzeko aldeko pronostikoaren kontzeptuan baldintza berriak egiaz zenbateraino sartzen diren da kontua. Ulertuko bagenu aipatutako pronostikoari gehitutako beste baldintza batzuk direla, erdiaskatasuna eta askatasuna lortzeko mugak izango lirarteke, eta ez zegoen muga horiek aurreikusterik delitua egin zen unean.

Bestetik, beharrezkoa al zen? Ba al zegoen birgizarteratzeko aldeko pronostikoaren txostena egiterik, bitarteko eta helburu terroristak alde batera utzi gabe? Zaila dirudi. Behin erakunde terrorista desagite-prozesuan dela, eskakizun horrek zentzu berbera al du? Kondenatuta dagoen norbaitek bere iraganeko egintza terroristak justifikatzen jarraitzeak oraindik arriskutsutzat hartu behar dela esan nahi du? Jarrera horretaz egin dezakegun juizio morala eskakizun juridikoaren esparrura eraman daiteke?

Bestalde, pentsatu behar da 7/2003 Lege Organikoan burutu zen prozesua abian jarri zenean, hamarkada hasieran, su-etena apurtu ondoren zitalkeria terrorista bereziko garaian, ETAk ekinean jarraitzen zuela; agian orain ikus dezakegu azken hatsa ematekotan zela, piztia zauritu lez ziharduela, baina orduan ezin zitekeen sumatu. Testuinguru horretan ulertu behar da bitartekoak eta helburuak alde batera uzteko eskakizuna (lehen esan bezala, hor ezin da sartu sakoneko ideologia, indarkeriazko estrategia baizik), ez dela berriz ere ETAn sartuko eta ez duela berriz ere atentaturik egingo bermatzeari lotuta; hau da, arriskugarritasun kriminalaren kontzeptuaren parte da elementu hori. Orain beste testuinguru batean gaude; salbuespenen bat salbu, kasurik gehienetan arriskugarritasun falta hori ez da kontzientzia-, planteamendu- edo iritzi-aldaketaren ondorio, ETAn jarduera terrorista amaitzearen ondorio baizik. Beraz, alde batera uzteko eskatzen jarraitu behar al da? Dagoeneko ez bada lotzen arriskugarritasunaren irizpidearekin, berrortzeko arriskuarekin, orduan zerekin lotzen dugu orain? Dagoeneko etorkizunari begira ez badago, iraganera begirako iritzi- eta kontzientzia-aldaketa eskatzea da orduan? Hori bateragarria al da kontzientzia-askatasunaren eskubide konstituzionalarekin? Noski, esparru juridiko hertsia barruan planteatzen dut; ikuspegi etiko edo politiko batetik, jakina, exijitu daiteke terrorismoaren deslegitimazioa, bai eta argi edukitzea ere indarkeria ezin dela izan helburu politikoak lortzeko estrategia¹⁹.

Bigarrenik, birgizarteratzeko aldeko pronostikoa egin ahal izateko, honako hau ere eskatzen da: *“agintariekin aktiboki kolaboratu izana, bai banda armatuak, erakunde edo talde terroristak beste delitu batzuk egin ditzan eragozteko, bai delituaren ondorioak leuntzeko, bai delitu terroristen erantzuleak identifikatu, harrapatu eta zigortzeko, frogak lortzeko, edo kide edo kolaboratzaile aritu zen erakundeen edo elkarten jarduna edo garapena eragozteko”*; alegia, agintariekin –polizial zein judizialekin– aktiboki kolaboratu izana modu hautakarian adierazitako hainbat helburu lortzeko; interpreta daiteke denak ere kide izan zen erakunde terroristaren arriskugarritasuna murrizteko asmoari lotuta daudela. Bidezkoa al da elementu

19 Oinarrien Agiria: “ETA erakunde terroristarekin amaitzeko prest dauden terroristei exijentzia esparru pribatuko egintza garrantzitsuetara mugatzea (barkamen-eskea idaztea, eragindako kalte pertsonalaren aitortpena idaztea edo ordaintzeke dauden kalte-ordainak ordaintzea) ez da aski, ETAk bere proiektu politikoa lortzeko egindako erailketek dimentsio publiko ukazina ere badute eta. Birgizarteratzeak delituak apurtu duen horretan berriz ere txertatzea esan nahi du. ETAn kideen delitu terroristak, familia osoen bizitzaz gain, zuzenbidearen arabera onartutako oinarriko bizikidetzara arauak apurtu ditu, Zuzenbide Estatuaren eta pluralismoan oinarritutako Demokraziaren aurka eraso eginez. Terrorismo-delituek dimentsio publikoa dute, politikoa, eta, hortaz, beharrezkoa da eragindako kalteen ordain publikoa, politikoa. Eta ordain hori eman daiteke, baldin eta: a) Damutuak urrats sendoa ematen badu birgizarteratzearen alde; ez da aski kide zen bandatik ateratze hutsa, egindako ezer zalantzan jarri gabe eta benetan pentsatu gabe bere bizitzak zer ekarri duen beretzat eta batez ere bere biktimentzat. b) Terroristak publikoki salatzen baditu indarkeria eta erakunde terrorista ororen egintzen muinean dauden helburu totalitarioak, eta, ahal bada, agintariekin kolaboratzen badu, ebazteke dauden ehunka krimen argitzeko. c) Hori guztiaren ondorioz, Zuzenbide Estatuaren onarpena adierazi behar dute. Birgizarteratze publikoa terrorismoa deslegitimatzeko bitarteko bat gehiago bihurtzen da, batik bat, oraindik ere horrelako erailketak justifikatzen dituzten umeak bizi diren tokietan”.

kolektibo horrek birgizarteratze indibidualaren prozesua baldintzatzea? Bigarren eskakizun horretan, testuinguruak aldatu egin du ulertu, eta, beraz, interpretatu eta aplikatuko beharreko modua ere (gogoratu Kode Zibilaren 3. artikulua, zeinak ezartzen baitu aplikatuko diren testuinguruaren arabera interpretatu behar direla arauak). Zer motatako kolaborazioaz ari da? Preso batek publikoki adierazi baditu erakundearekin dituen desadostasunak, estrategia politiko-militarra kritikatu badu, “borroka armatuaren” amaiera eskatu badu, orduan agintariekin kolaboratu du beste deliturik gerta ez dadin? Erakundea ahuldu du?

Orain, beste testuinguru batean, badirudi legezko exijentzia hori salatzeke exijentziatzat interpretatzen ari dela, ebatzi gabeko kasuak argitzeko, delitu terroristen erantzuleak identifikatu, harrapatu, auzipetu edo kondenatzeko xedez.

Lehendabiziko oharra. Oro har, erakunde kriminalen delituetan kolaborazioak zigorra arintzen du. Akuilua eskaini nahi da, saria, erakundea ahultzearen truke; mafiako edo antzeko erakundeetako damutuaren irudia litzateke. Baina kasu honetan zigorra ez da aldatzen; hemen exijentziak alderantzizko ondorioa du: betetzen ez bada, birgizarteratze-prozesua ukatuz zigortzen da. Ez da gauza bera.

Bestalde, Italiako esperientziak erakusten du salatzeke exijentziak geldiarazi egiten dituela birgizarteratze-prozesuak, porrotera daramatzala birgizarteratzea sustatzeko ahaleginak²⁰. Estrategia egokia al da? Delituak argitu eta zigortu nahi izatea legitimoa da, baina horregatik juridikoki, politikoki eta etikoki hutsaren hurrengotzat jo behar al da salaketarik gabeko damua?

Bada preso-kopuru bat (gaur egun Langraizko Bideko 27 presoek hitz egiten dugu, baina 1978tik askoz gehiago dira), zeinak, maila batean eta ñabardura ugarirekin, autokritika egin duen, hil izanaz damutu egin den, hiltzea bidegabea eta alferrekoa izan zela ondorioztatu duen, gertatutakoaren kontakizun eta oroimen bidezkoan oinarritutako bizikidetzara erakitzeke ekarpena egin nahi duen, biktimei erreparazio morala eman nahi dien, ETaren eta indarkeria politikoaren deslegitimazioan lagundu nahi duen, ezker *abertzalea* egiaren, justiziaren eta erreparazioaren parametroetara gidatu nahi duen; eta horietako batzuk azkenaldian aurrez aurre eseri dira ETaren biktimekin, hori guztia adierazteko eta biktimek esateko zutena entzun eta haiei erantzuteko. Salaketarik ez badago, horrek guztiak ez du ezertarako balio? Ez dago “benetako damurik”? Berdin dira orduan bide zail eta neketsu hori egin duten presoak eta, zigorra beteta, “ukabila goian” espetxetik ateratzen direnak? Nire iritziz, okerra da berdinketa hori egitea, maila etikoan, politikoan edo juridikoan.

Azkenik, praktikan nola gauzatzen dira exijentzia horiek? Nola baloratzen dituzte kontu horiek horretarako eskumena dutenek: espetxeetako zaintza-batzek, espetxeetako idazkaritza nagusiak, fiskaltzak, espetxe-zaintzako epaitegiak eta Audientzia Nazionalak zigor-arloko salak? Oraindik ez daukat erantzun argirik, inondik inora. Oraingoz ikusten dut, kolaborazioari²¹ dagokionez, dena delako preso inputatu edo lekuko gisa deklaratzera deitzen denean fiskalak edo epaileak kolaboratzeko borondatea ikusi dion ala ez, horren arabera jokaten dela; iritzi hutsaren arabera; nahikoa da anbiguotasuna sumatu izana. Edo aski da atxilotu ondoren komisaldegian edo epaitegian egindako aitopenearekin? Kolaborazio horrek iraunkorra izan behar du? Nola bereizten da ea ez duen salatzen ez dakielako ala nahi ez duelako? Zalantza gehiegi, zuzenbidearen aplikazioan segurtasun juridikoa bermatzeko.

Azkenean, bat-batean, artikulua beste konplexutasun bat sartzen du. Ustez, bi exijentzia horiek betetzen diren ala ez epaitzeko elementuak eman nahi ditu, alegia, egiaztatzeke bitartekoak iradoki nahi ditu, baina, egia esan, elementu berriak sartzen ditu, eta ez datoz

20 Ikus Ramón Sáez Valcárcelen lanak hemen: *Cuadernos Penales José María Lidón nº 8*, 2011, 83. or. eta *Justicia restaurativa, mediación penal y penitenciaria: un renovado impulso*, Reus, 2011, 183. or.

21 Daniel Porterok, *Revista de la FVT. Actualidad*, 44. zk., 2013ko iraileko alean, Dignidad y Justicia Elkartearen ustezko ikerketa bat argitaratu zuen, zein iturri erabili diren adierazi gabe, Langraizko Bidea osatzen duten presoetako batzuk argi ditzaketen kasuei buruz.

bat oso-osorik: hori frogatu ahal izango da —alegia, balegokeela beste modu batzuetara egiaztatzea ere— berariaz adieraziz delitu-egintzei uko egin diola eta indarkeria alde batera utzi duela, eta bere delituaren biktimei barkamena espresuki eskatuz, bai eta terrorismoarekin apurtu duela eta agintariekin kolaboratu duela frogatzen duten txosten teknikoen bidez ere.

Bat-batean, egin duten delitua dela-eta biktimei barkamena eskatu beharra sartzen du, bitartekoa eta helburuak alde batera utzi direla egiaztatzeko modu gisa, itxuraz. Baina ezin al litezke bitarteko eta helburu terroristak alde batera utzi, barkamena eskatu gabe? Nola gauzatu behar da barkamen-eske hori? Idatziz ala ahoz, publiko eginez ala ez? Barkamen-eskeak biktimgangana iritsi behar al du, ala aski da idatzi eta espetxeko talde teknikoari, epaitegiari, fiskaltzari, prentsari eta abar bidaltzea? Eta biktimak barkamen-eskea jaso nahi ez badu? Nor eta nola arduratuko da iristarazteaz?

Bestalde, jakina, horrelako berariazko adierazpen baten zintzotasuna beste elementu batzuekin berretsi beharko da. Espetxe-administrazioak, ETAko presoak oso zorrotz behatzen eta kontrolatzen baititu eta haien elkarrizketa guztiak –barrukoekin zein kanpoekin– kontrolatuta baititu, badaki eta erregistratu egiten du nor egiten duen planto, norekin jaten duen, norekin hitz egiten duen, zer esaten duen, lan egiten duen ala ez, kolektiboaren ildoei jarraitzen dien ala ez eta abar.

Gainera, nor egin behar edo ahal ditu txosten tekniko horiek desloturari eta agintariekiko kolaborazioari buruz? Zaintza-batzek ala polizia-kidegoek?

Are gehiago, nola kolabora dezake erakunde terroristaren arriskugarritasuna murrizten erakunde 90eko hamarkadaren hasieran utzi eta 15 edo 20 urte espetxean daramatzanak?

Zalantzarik gabe, terrorismoaren aurkako borrokari laguntzeko pentsatutako lege-xedapena da, bide polizial eta judizialek ETArekin amaierari laguntzekoa, ez ETArekin ondorengo errealitatea kudeatzeko pentsatutakoa. Gaur egun damura eta salaketara mugatzea gehiegi sinplifikatzea da, eta, ez hori bakarrik, baita zalantzan jartzeko moduko interpretazioa ere, parametro konstituzionaletatik abiatuta.

Ikuspegi konponarazlea zigorrak betetzean

Zigor- eta espetxe-legediak, ulertu ahal izan den bezala, zigorra hedatzen du, disuasioa areagotzeko –nahiz eta bere eraginkortasuna zalantzan jartzekoa den–, eta sustrai mendekatzailea eta segurtatzailea du –arriskugarritasuna kaltegabe bihurtzea edo neutralizatzea, denbora luzez espetxean edukita–; baina, zigor-kodeari egin zaizkion aldaketetan argi ikusten den bezala, zigor-zuzenbidearen funtzio sinbolikoa lehenetsi da.

Nire iritziz, zuzenbide penala funtzio sinbolikorantz eta segurtasunaren zuzenbide penal eta etsaiaren zuzenbide penal deitzen den horretarantz lerratzea oso estu lotuta dago biktima mendekatzailearen kontzeptu estereotipatu eta abstraktuarekin, hori baitu oinarritzat. Alabaina, biktimak ezagutzeko aukera eta pribilegioa izan dut, eta horren arabera esan dezaket estereotipo hori ez datorrela errealitatearekin bat, eta, izatekotan, legegileen proiektio bat baino ez dela, biktima jakin eta errealei begiratu gabe, entzun gabe, eta duten konplexutasunean adierazteko aukerarik eman gabe egina.

Horregatik, nire iritziz, justizia-administrazioan paradigma konponarazlea sartzea, batik batik zigorrak betearazteko fasean (zigor aurreko fasean ez baitirudi posible denik ez eta kasu gehienetan nahi denik ere), lagungarri izan daiteke biktimei, benetakoei eta zehatzei, protagonismoa emateko eta biktimgangentzat erreparazio-aukerak areagotzeko dituen esparru bat eratzeke –kalte-ordain ekonomikoek haratago, maila pertsonalean erreparatua sentitzen lagunduko dioten beste erreparazio modu batzuetarantz–, bai eta “biktimgangilea berreskuratzeko”, errehabilitatzeko, birgizarteratzeko edo bestela izenda daitekeen horretarako ere.

Nire esperientzia pertsonalean egiaztatu ahal izan dut biktimek eta biktimagileek, neurri handi batean, elkarrekiko estereotipoak dituztela, talde ideologikoei esleituta, “gu” edo “haiek” taldean etiketatuta, eta, hortaz, mugatu egiten da gizakiak berezko duen konplexutasuna. Pertsonari entzuteak, beregana gerturatzeko orduan ditugun aurreiritziak alde batera utzita, ulertzea garamatza, ez justifikatza, ezagutzera garamatza, (berr)adiskidetzera, topaketa pertsonalera eta bake pertsonalera.

Glenn Cree esperientzian parte hartu zuen bati duela gutxi entzun nion bezala, kontakizuna entzutean, ahoz kontatuta, lehen pertsonan, aurrez aurre, giro seguru eta irekian, desagertu egiten dira entzuten ari garen pertsonarekiko proiektatzen ditugun aurreiritziak, konnotazioak eta atribuzioak, eta horrela bakarrik entzuten zaio benetan pertsonari, eta horrela bakarrik ezagutzen, gure egiten, barneratzen eta ulertzen dugu lehen ere, kontzientzia eta empatia maila baxuegian, jakin bagenekiana.

Halaber, ustez ikasi dut, zuzen ala oker, terroristak eta ETAko kide izanik gogoeta intelektualari, haien planteamenduen analisi kritikoari eta berrazterketari ekin ziotenak, esparru pertsonalera gerturatuta, emozionalera, ahozko kontakizunera, lehen pertsonan, aurrez aurre, giro seguru eta irekian, horrela eta ez bestela, gai direla alferrik eragindako kalte eta injustiziaz jabetzeko, eta hori mugari benetan garrantzitsua eta ia ezinbestekoa da “berreskuratzea”, “errehabilitazioa”, birgizarteratzea eta erreparazioa lortzeko bidean.

Biktimek eta biktimagileek konponketarako esperientzietan duten inplikazio horretaz haratago, iruditzen zait ikuspegi konponarazleak asko eskain diezaiokeela euskal gizarteari, gizarte horretan bizi eta sufritu duten guztiei, etorkizunean ezinbestean elkarrekin bizi behar duten guztiei, murrutxo ideologikoak gainditzeko eta eraisteko akuilu gisa, hargatik norberaren ideologia- eta kontzientzia-askatasunari kalterik egin gabe. Ez badugu euskal gizartean hain bereizita eta pertsonalki eta benetan inkomunikatuta bizi diren komunitate ideologikoak eta esperientzialak apurtzearen aldeko apustua egiten, ez da posible izango gutxieneko kohesio soziala izango duen benetako bizikidetzaz.

Itxiera

Hitzaldiaren hasieran, galdera bat egin diet bildutakoei, hirutan zatituta: Zer uler dezakegu biktimagilea berreskuratzeaz? Zer birgizarteratzeaz? Zer nahi dute eta zer espero dute biktimek zigor-sistemaren aldetik? Asmoa zen erantzun labur batzuk lortzea, idatziz, ondoren kutxa batean sartzea, eta hitzaldia amaitzean irakurtzea, komentatu eta ondorioren batera iristeko, hitzaldiaren amaiera gisa.

Ezin izan da, sinatzen duenari soilik egotz dakizkiokeen denbora-kontuak direla-eta; nolana ere, eskerrak eman behar ditut idatziz parte hartzeagatik, bertaratuok egindako ohar, ekarpen eta galderengatik, asko ikasi baitut horiek entzuten.

Ez ditut erantzun idatziak hemen jasoko, baina ideia batzuk aterako ditut hortik. Honako hauek azpimarratuko nituzke: .- Zuzenbide Estatua errespetatzea. .- Presoek zigorra osorik betetzeko nahia. .- Erreparazioa. .- Justizia. .- Espetxetik ateratzean “errehabilitatuta” dauden ala ez, hor dagoen aldea. .- Errehabilitazioaren eta damuaren eta eragindako kalte bidegabeaz eta dakarren erantzukizunaz jabetzearen eta moralki erreparatzeko betebeharraren artean dagoen lotura. .- Erakunde juridikoen inguruko zalantzak, preskripzioaren ingurukoak, esaterako. .- Egia jakiteko eskakizuna. .- Berriz inolako indarkeriarik ez erabiltzeko konpromisoa. .- Errespetua eskatzea, gainera “ez dezatela barrerik egin”, omenaldiak. .- Gertutasun fisikoaren beldurra espetxetik atera ondoren, urruntze-eskaria. .- Gobernuak lan didaktikoa egin dezatela biktimekin eta biktimagileekin, pertsona guztiek izan dezaten egon diren sufrimendu guztien berri.

Asko ikasi dut mintegian parte hartu duten biktimekin egunean zehar izandako elkarrizketetan

ere. Bi kontu bakarrik aipatu nahi nituzke, gogoeta egiteko: presoak (batez ere berrerorleak) espetxetik ateratzeak herrietako bizikidetzan eragiten dituen zailtasunak, eta biktima askoren legezko informazio eta aholkularitza falta, batez ere 80ko hamarkadakoena.

Ondoriozta dezakegu sistema penalak biktimen itxaropenak gogobetetzen dituela? Nire iritziz, ezin dute ia besterik egin legegile penalak eta epaileek. Itxaropen edo eskakizun batzuk gehiegizkoak dira, bidegabeak, eta ezin dira bete. Indarrean dagoen terrorismoaren aurkako legea arrazoizko mugez haratago doa dagoeneko. Auzitegiek betetzen dute epaitzeko eta epaitutakoa betearazteko duten eginkizuna. Nolanahi ere, kezkarria da biktimen duten laguntza eta informazio falta. Esaterako, presoak espetxetik ateratzen direnean behin betiko aske geratu direlako, biktimen ez zaie horren berri ematen, eta, aldiz, presoak baimen bati esker ateratzen direnean, jakinarazi egiten zaie; biktima askok ez dakite zertan diren eragiten dieten sumarioak, ez zaie jakinarazi beraien biktimizazioaren erantzuleak epaitu dituztenean eta abar. Hemen, zalantzarik gabe, biktimen kexa horrekiko erantzukizunak nork bere egin behar dituzte Auzitegia Nazionala Fiskaltzak, biktimen behar bezalako informazioa emateko betebeharra baitu; Justizia Ministerioak, bere politiketan alderdi horiek jaso behar baitituzte; eta biktimen-elkarteek, biktimen laguntza eta babesa emateko diru-laguntzak jasotzen baitituzte. Biktimen premiak eta eskubideak betetzeko, zehatza eta benetakoa den horretan jarri behar da arreta, biktimen protagonismoa eman behar zaie, eta bakoitzaren premiak entzun behar dira. Erronkak, batez ere, informazioaren eta komunikazioaren esparruan daudela dirudi, biktimen adierazteko bideak sortu behar baitira, eta mekanismo konponarazleak eskaintzea ere bada beste erronka bat.

KALTE-ORDAINETIK GOGOBETETZERAKO BIDE LUZEA

Ignacio Pérez Macías

I- Sarrera

Azterketa honek, asmo xumea izanik ere, Espainian terrorismoaren biktimen erreparazio-sistemak zer bilakaera izan duen azaldu nahi du, eta, ahal den neurrian, 60/147 Ebazpenean ezarritako neurriak inplementatu diren aztertu (60/147 Ebazpena, Giza eskubideen nazioarteko arauen ageriko urraketen eta nazioarteko zuzenbide humanitarioaren urraketa larrien biktimek errekurtsoak jartzeko eta ordainak jasotzeko duten eskubideari buruzko oinarritzko printzipio eta jarraibideen gainekoa).

Oraintxe adieraziko dugu orrialde hauetan frogatzen saiatuko garen oinarritzko ideia zein den: terrorismoaren biktima izan direnei kaltea erreparatzeak denbora eta ibilbide luzea eta zaila izan du Espainian, eta oraindik ere ez da helmugara iritsi. Prestazio-sistema sendoa eraiki da (kalte-ordainak eman, asistentzia eskaini eta aitortpena egin), zeina jarraitu beharreko eredu ere bihurtu den, diseinatu diren hamaika ekintzengatik. Dena den, bada zer eginik oraindik ere: prestazioak finkatu, desberdintasunak eta konparaziozko bidegabekeriak desagerrarazi, eta biktimak gogobetetzeko beste neurri batzuk abian jarri, kolektibo hau ahalik eta gehien babesteko.

II- Ibilbide luzea

Esan ohi da –eta uste dut nahikoa arrazoiz– Espainiak duela terrorismoaren biktimei laguntzeko eta haiek babesteko munduko sistematik garatu eta osatuenetako bat. Sistema

hori osatzeko urteak behar izan dira, ahalegin handia, eta giza kostu tamalgarri bat ere bai: 1.412 hildako, 4.535 lesionatu, 60 bahitu, 4.038 kalte material¹. Horrek guztiak 757.012.141,19 euroko ondare-gastua ekarri dio Estatuari eta gizarteari; hau da, 6.007 kalte-ordain ordaindu ditu kalte pertsonalengatik (heriotzak, lesioak edo bahiketa), eta 4.038 kalte-ordain kalte materialengatik. 701 laguni eman zaio osasun-asistentzia eta asistentzia psikosozial osagarria jasotzeko laguntza, zeinak 1.206.271,61 euroko kostua izan duen, eta beste 7.737.230,58 euro ere eman dira ezohiko laguntzetan (806 pertsonari, orain arte)².

1979an jarri ohi da laguntza horien jatorria, orduan onetsi zelako 3/1979 Errege Lege Dekretua, urtarrilaren 26koa, Herritarren Segurtasuna Babestekoa³; lege horren 7. artikuluan aitortzen da terrorismo-gertakarietan jasandako kalteengatik kalte-ordaina jaso behar dela⁴. Zehatza litzateke datu hori, kontuan hartzen badugu Espainian demokrazia hasi zen garaiarekin bat datorrela. Hala balitz, zalantzarik gabe, demokrazia iritsi osteko biktimentzako lehenengo laguntza publikoen adierazpena litzateke hori.

Aurreko arauak aztertuta, zenbait datu aurkitu ditugu, eta merezi dute aipatzea, jakiteko nola laguntzen zitzairen terrorismoaren biktimei 1979aren aurretik.

Funtsean, atentatu terroristak izaten zituzten pertsonentzako laguntzek pentsio publikoak zituzten euskarri, funtzionarioak zirelako (zibilak edo militarrek), baita biktimari merezimendu patriotikoak aitortzea ere, kondekorazio bidez.

1964ko apirilaren 29ko 5/1964 Legeak arautzen ditu merezimendu polizialari ematen zaizkion kondekorazioak, eta Merezimendu Polizialaren Ordenaren⁵ erregelamendua ezarri zuen (indarrean dago oraindik araua); horrek sari-araubide bat ezarri zuen “patriotismoaren, leialtasunaren eta zerbitzurako entregarik gorenena izateko bertutea dutenentzat, eta, era berean, gobernuko poliziaren funtzionario guztien artean barne-asetasuna eta estimulua sustatzen dutenentzat”. Ondorio horretarako, kausa zehatzak ezarri ziren Merezimendu Polizialaren Urrezko eta Zilarrezko Dominak emateko, esaterako: “zerbitzu-egintzan hiltzea edo haren kausaz, betiere ohoreari kalterik eragin gabe izan bada, edo ez bada izan arduragabekeriak jokatzegatik, trebetasun-faltagatik edo istripu baten eraginez; edo mutilazioak edo zauri larriak izatea, eta deformazio edo ezintasun handia eta iraunkorra geratzea”. Xedapen horrek arautu zuen, batetik, Bereizgarri Gorridun Merezimendu Polizialaren Gurutzea ematea –pentsio bat da: zerbitzu egintzan edo haren kausaz zauritzeagatik ematen da, betiere ohoreari kalterik eragin gabe izan bada, edo ez bada izan arduragabekeriak jokatzegatik, trebetasun nahikoa ez izateagatik edo istripu bat izateagatik–, eta, bestetik, Bereizgarri Zuridun Merezimendu Polizialaren Gurutzea ematea –pentsiorik ez dakarren kondekorazioa: korporazioari prestigioa dakarkion edo zerbitzurako baliozkoa den patriotismo edo leialtasun handiko edozer egintza egitea–. Kondekorazio horiek, beti, izaera diskrezionala izan dute.

Pentsioen kasuan, 1966ko apirilaren 21eko 1120/1966 Dekretuarekin egiten dugu topo; horren bidez, Estatuko Administrazio Zibileko Funtzionarioen Eskubide Pasiboen legearen

1 Iturria: Espainiako Gobernuaren Barne Ministerioa. Terrorismoaren Biktimei Laguntzeko Zuzendaritza Nagusia. “29/2011 Legearen Erregelamendua”, power pointa, 671/2013 Errege Dekretua onetsi dela eta argitaratua.

2 Estatu Kontseilua: Espediente-zenbakia: 566/2013 Irizpena (Barne Ministerioa) Terrorismoaren Biktimak Aitortu eta Osorik Babesteko irailaren 22ko 29/2011 Legearen erregelamendua onesten duen Errege Dekretuaren proiektuari buruzkoa (2013ko uztailaren 4koa). Eransten du, arau hori indarrean sartu zenetik, hor aurreikusitako kopuruak kontuan hartuta eman direla kalte-ordain berriak; 25.953.985,96 euro gehiago eman dira orain arte. Kalkulatzen da, Legea atzeraeraginezko ondorioarekin aplikatuta, 77.222.937 euro gehiago ordaindu beharko liratekeela kalte-ordainetan, heriotzagatik, baliaezintasun handiagatik eta ezintasunengatik, gehi baliaezintasunik gabeko lesioengatik ordaindu beharko litzatekeena, zeina ez den erraza kalkulatzeko. Gehitzen du bahiketagatik eta kalte materialengatik ez dela berrikuspenik izango, bahiketengatik ematen diren kalte-ordainak ez direlako aldatzen eta kalte materialak ez direlako atzeraeraginez aplikatzekoak.

3 BOE, 1979ko otsailaren 1ekoa. 28. zenbakia.

4 Horixe dio 288/2013 Errege Dekretuaren hitzaurreak; horren bidez, terrorismoaren biktimentzako laguntza eta ordain-erregelamendua onesten da. BOE, 2003ko martxoaren 17koa. 65. zenbakia.

5 BOE, 1964ko maiatzaren 4koa. 107. zenbakia.

testu bateratua onesten da; testu horren berrogeita bigarren artikulua lehenengo paragrafoan xedatu zuen lege hau aplikatu ahal zaien funtzionarioek, zerbitzuan emandako denbora edozein dela ere, pentsio bat sortuko dutela haientzat edo haien familientzat, zerbitzu-egintzan edo haren ondorioz gauzaz bihurtzen edo hiltzen badira, izan istripuz edo karguak duen berariazko arriskuagatik, eta pentsio horren zenbatekoa izango dela hogeita bosgarren artikuluan ezarritako oinarri arautzailean datorrena⁶. Ondorio horretarako, atentatu terrorista batean hiltzea edo lesioak jasatea zerbitzu-egintzako hipotesi tipikotzat sailkatzen ziren.

Ildo beretik etorri zen 1211/1972 Dekretua, apirilaren 3koa, Militarren eta horien pareko Indar Armatuetak, Guardia Zibileko eta Polizia Armatuako profesionalen Eskubide Pasiboen Legearen testu bategina⁷; izan ere, hogeita hamalagarren artikuluko lehenengo paragrafoan xedatzen da lege horren barruan sartzen diren langileak, zerbitzuan emandako denbora edozein dela ere, pentsio bat sortuko dutela haientzat edo haien familientzat, zerbitzu-egintzan edo haren ondorioz gauzaz bihurtzen, hiltzen edo desagertzen badira, izan istripuz edo karguak duen berariazko arriskuagatik; salbuespena: Benemérito Cuerpo de Caballeros Mutilados de Guerra por la Patria izeneko gerra-mutilatuen kidegoan sartzea.

Bereziki nabarmendu zen, erregimen frankistaren gainbeheran jada, abuztuaren 26ko 10/1975 Lege Dekretua, terrorismoa prebenitzeari buruzkoa⁸, ezen larriagotzeak eta berariazko mota gehiago gehitzeaz gain, jurisdikzio militarra gailendu zuen arruntaren gainetik, eta, gainera, arauaren 21. artikuluan hauxe adierazi zuen espresuki: *“Estatuak lege-dekretu honek aipatzen dituen delitu-egintzak prebenitzen edo erreprimitzen jarduten edo laguntzen duten pertsonen izaten dituzten kalte-galerak ordainduko ditu batik bat”*.

Dena den, garai hartako gertaerarik nabarmenena –biktimentzako laguntzei dagokienez– gizarte zibilak sustatutako laguntzak izan ziren, harpidetza herrikoi bat egin baitzen, lehenengoz, 1975ean. Horren adibide izan zen ABC egunkariak terrorismoaren biktima ziren Ordena Publikoko Indarren familiarrentzat egin zuen harpidetza (alargun eta umezurtzentzat), bai eta Espainiako Bankuan zabalduko kontu korronteak ere, kontu korronte horietan jasotako ekarpenak senitarteko horientzat izan baitziren⁹. Aurreikusitako helmugara iritsi ostean soberan geratu zena kidego horiekin erlazionatutako ongintzako erakundeetara bideratu zen zuzenean. Batzorde batek hartu zuen bere gain entregak zehazteko arauak ezartzeko, eta kopuru horien banaketarekin erlazionatutako arazoak konpontzeko ardura.

Gobernu-aitorpenen sistemak aurrera jarraitu zuen; oraingo honetan, ohorezko dominak ematea onetsi zen; hor ditugu 19/1976 Legea, maiatzaren 29koa, Guardia Zibilaren merezimenduaren ordena¹⁰ sortzeari buruzkoa, eta geroxeago etorri zen 1977ko otsailaren 1eko Agindua, aurrekoaren erregelamendua onetsi zuena¹¹.

Gizarte zibilak sustatutako laguntzak izan ziren Herritarren Segurtasuna Babesteko 3/1979 Errege Lege Dekretuak aurkitu zuen aurrekari garrantzitsuena, hain zuzen ere, 7. artikuluan terrorismo-gertakariagatik jasandako kalteak ordaintzeko kalte-ordainak onartzen baititu. Arau hori erregelamenduz garatu zuen 484/1982 Errege Dekretuak (martxoaren 5koa), eta

6 BOE, 1966ko maiatzaren 6koa. 108. zenbakia. 25. artikuluan ezarri zen nola zenbatu: soldatak, hirurtekoak, aparteko ordainsariak batu, eta oinarri arautzaile gisa Estatuko aurrekontu orokorren kontura ordaindutako urtebeteko kopururik altuenak hartzen ziren.

7 BOE, 1972ko maiatzaren 18koa. 119. zenbakia. Zenbateko hau ezarri zen: testu horren 21. artikuluan ezarritako oinarri arautzailearen zenbateko osoa adina.

8 BOE, 1975eko abuztuaren 27koa, 205. zenbakia. Larriagotzeen artetik nabarmentzekoak subjektu pasiboa agintaria edo funtzionario publikoa diren eta legez kontrako elkartearen forma jakin batzuk ematen diren kasuetarako aurreikusitakoak. Berariazko motari dagokionez, kolaborazio-jokabideak arautu zituen; adibidez, bahituak edukitzeko lekuak egokitzea.

9 Ikus *Diario ABC*, 1975eko urriaren 12koa, igandea, 87. orrialdea; 1975eko urriaren 25ekoa, larunbata, 93. orrialdea; 1975eko azaroaren 4koa, asteartea, 3. orrialdea, eta Bartzelonako Gobernu Zibilaren oharra, *La Vanguardia Españolan* argitaratua, 1975eko urriaren 19an, igandean, 29. orrialdean.

10 BOE, 1976ko ekainaren 1ekoa. 131. zenbakia.

11 BOE, 1977ko otsailaren 12koa. 37. zenbakia.

Estatuko aurrekontuan sartu ziren biktimentzako laguntzak.

Pentsioen alorrean, 1981ean berrikuntza garrantzitsu bat izan zen terrorismoaren biktimei ezohiko pentsioak emateko urriaren 30eko 19/1981 Errege Lege Dekretua¹² onetsi zenean, prestazio hori atentatu terroristen biktima gertatzen ziren langile zibil eta militar erretiratuengana hedatu zuelako. Izan ere, langile horien erretiratu aurreko lana erabakigarria zen terrorismoaren helburu bihurtzeko, eta, hala ere, erretiratuta egoteagatik, ezin zuten ohiz kanpoko pentsiorik jaso. Une horretara arte, terrorismo-ekintzen biktima zirenentzako pentsioak Estatuko Klase Pasiboen Araubidean sartutako funtzionario zibilak edo militarrek zerbitzu-egintzan zeudela sortutako ezohiko pentsioen arloan ezarritakoarekin lotzen ziren beti, bereziki, ekintza haiek pairatzen zituzten funtzionario publikoek izaera hura zutelako. Arau horrekin, beraz, zabaldu egin ziren prestazio hori jaso zezaketen subjektuak.

Bestalde, 484/1982 Errege Dekretuak biktimei eman beharreko ordainak arautu zituen, eta mugatu egin zituen kasu hauetara: heriotza eta gorputz-lesioak izatea. Ohartu abian sartzan dela pentsiotik bestelakoa den laguntza ekonomiko bat: kalte-ordainen prestazioa. Zenbatekoa zehazteko, Gizarte Segurantzaren antzeko kasuetarako aurreikusitako arauetara jotzen zuen. Modu horretan, laguntzen zenbatekoak biktimek zuten hartzeko pertsonal arautzaileen mende geratu ziren, eta, horrenbestez, biktimaren errenta-mailarekin lotu ziren zuzenean. Hala, bi pertsona egoera berdinean egon zitezkeen (esaterako, heriotza edo lesio larria), baina ez jaso kalte-ordain bera, Gizarte Segurantzaren barruan bakoitzak zuen sistemaren aurreikusitako irizpideak aplikatzen zitzaizkielako. Hala ere, onartu behar da biktimei laguntzeko eta haiek babesteko lehenengo urrats garrantzitsua ari zela ematen: ordain bakarrak ematea estatuko aurrekontuen kontura, heriotza eta lesio fisikoen kasuan.

Geroago, Talde Armaturen eta Jarduera Terroristen Aurkako Neurriei buruzko abenduaren 26ko 9/1984 Lege Organikoak¹³, 24. artikuluan, eta haren erregelamenduak (urtarrilaren 24ko 336/1986 Errege Dekretuaren bidez onetsi zen¹⁴) oinarri objektibo bat sortu zuten laguntzen sistema antolatzeko: hortik aurrera kontuan hartuko ziren lanbide arteko gutxieneko soldataren moduluak kalte-ordainak emateko, lanerako ezintasun iragankorrekoa izan ezik. Horretaz gain, azken kopurua ehuneko hogeita hamar igoko zen kaltearen larritasunaren eta seme-alaba kopuruaren arabera, kasu bakoitzaren egoera partikularrak balioetsita.

Estatuko 1987rako Aurrekontu Orokorren abenduaren 23ko 21/1986 Legearen laugarren xedapen gehigarriak terrorismo-ekintzen ondorioz ezinduta gelditu edo hiltzen zirenen familiarrentzat ezohiko pentsioen araubide bat ezarri zuen¹⁵.

1986ko urte horretan bertan, urrats handi bat egin zen ordainak ematean alorrean, pertsonen eta ondasunen ezohiko arriskuei erantzun beharra ezarri zelako aseguru-kontratuen araubidean. 2022/1986 Errege Dekretuak, abuztuaren 29koak, pertsonen eta ondasunen gaineko ezohiko arriskuen erregelamendua onetsi zuenak, haxe ezarri zuen 1. artikuluan: "Aseguru-konpentsazioen Partzuergoak kalte-ordainak emango ditu, ezohiko arriskuen aseguruari dagokionez, (...), aseguraturik dauden pertsonen jasandako kalteak nahiz kalte material eta zuzeneko gauzak jasandakoak ordaintzeko, baldin eta kalteak Espainian jasan badira, hauen ondorioz: (...) b) Terrorismoaren ondoriozko egintzak, matxinadak edo herri-iskanbilak (...)". 4. artikuluan, berriz, honela definitu zuen terrorismoa zer den: "indarkeriazko ekintza oro, dagoen sistema politikoa ezegonkortzeko egina, edo izan den gizarte-eremuan beldurra eta segurtasunik eza sortzeko egina"¹⁶.

12 BOE, 2013ko abenduaren 15ekoa. 299. zenbakia.

13 BOE, 1985eko urtarrilaren 3koa. 3. zenbakia.

14 BOE, 1986ko otsailaren 19koa. 43. zenbakia.

15 BOE, 1986ko abenduaren 24koa. 307. zenbakia; laugarren xedapen gehigarria: "Pertsona bat terrorismo-ekintzen ondorioz lanerako edo zerbitzurako betirako ezinduta geratzen bada edo hiltzen bada, ezohiko pentsio bat sortuko du, dagokion aurreikuspen-sistemaren barruan, bai berak edo bai bere familiak jasotzeko, arauz ezarritako zenbatekoan eta baldintzetan".

16 BOE, 1986ko urriaren 1ekoa. 235. zenbakia. Geroago, 2004an, 7/2004 Legegintzako Errege-dekretua onetsi

21/1986 Legeak ezarritako ildoari jarraituz etorri zen 1988rako Estatuko Aurrekontu Orokorren abenduaren 23ko 33/1987 Legearen 64. artikulua bigarren paragrafoa¹⁷; orokortu egin zuen (pertsonek guztientzat) terrorismoagatik pentsioak ematea heriotza edo ezintasun kasuetan, eta aitortu, ez direla egongo hasieran adierazitako mugei eta Lege horretan ezarritako pentsioak berriz baloratzeari loturik; indartu egin zuen, hala, ezohiko izaera hori. Bestalde, 670/1987 Legegintzako Errege-dekretuak (1987ko apirilaren 30ekoa) Estatuko Klase Pasiboen Legearen testu batekina onetsi zuen¹⁸.

Kalte-ordainez ari garela, 33/1987 Legeak 64. artikulua lehenengo paragrafoan dagoeneko bazegoen ordain-sistemaren antzeko bat ezarri zuen, eta 1988ko urriaren 28ko 1311/1988 Errege Dekretuak¹⁹ garatu zuen.

Dena den, garai horretan, ezohiko pentsioen arloan egin ziren aurrerapen nabarmenenak. Gogoratu behar da orain, Estatuko Aurrekontu Orokorrei buruzko 21/1986 Legeak eta 33/1987 Legeak ezarri zutela ezohiko pentsio horiek emateko erregelamendu bidez ezarritako zenbatekoa eta baldintzak hartuko zirela kontuan eta zegokion aurreikuspen-sistemaren bidez egingo zela. Horregatik ezinbestekoa izan zen lege horiek garatzeko arau egokiak ematea, eta agindua praktikan jartzeko aukera eman zuten Gizarte Segurantzaren Sistemaren barruan. Ildo horretatik atera zuten 1576/1990 Errege Dekretua, abenduaren 7koa, Gizarte Segurantzaren sisteman terrorismo-ekintzengatik eratorritako ezohiko pentsioak ematea arautzen duena²⁰. Horren bidez ezarri zen zein diren Gizarte Segurantzaren Sistemaren sartu daitezkeen ezohiko pentsioetarako baldintzak eta zenbatekoak. Arau horrek klase pasiboen araubidean jasotako aurrekaria hartu zuen kontuan, baina Gizarte Segurantzaren Sistemak dituen ezaugarrietara egokitu zuen.

Laurogeita hamargarren hamarkada kalte-ordainen arloko bi aurrerakadarekin abiatu zen: lanerako ezintasun iragankorregatik ordaina ematea eta kalte materialengatik ordaina ematea. Hala, ezintasun iragankorretarako erabiltzen ari ziren irizpide objektiboa hedatu zuen 1990erako Estatuko Aurrekontu Orokorren ekainaren 29ko 4/1990 Legeak, hamaseigarren xedapen gehigarrian, eta honela balioetsi zuen: indarrean zegoen lanbide arteko gutxieneko soldataren bikoitza²¹. Eta abenduaren 30eko 31/1991 Legearen hemeretzigarren xedapen gehigarriak aldaketa garrantzitsu bat egin zion abenduaren 23ko 33/1987 Legearen 64. artikuluari, lehen aldiz terrorismoaren ondorioz gertatutako kalte materialengatik ordaina ematea arautu baitzuen, baina mugatu egin zuen kalte materialen eremua pertsona fisikoen ohiko etxebizitzaren egitura edo oinarriko elementuetan izandako kaltera²².

1992rako Estatuko Aurrekontu Orokorren 31/1991 Legearen hogeita zortzigarren xedapen gehigarriak oraindik ere gehiago zabaldu zituen ezohiko pentsioak jaso zitzaizkien hartzaileak; izan ere, terrorismo-ekintzengatik hiltzen ziren edo ezinduta geratzen diren herritar guztiei zabaldu ziren ezohiko pentsioa jasotzeko eskubidea, baldin eta gizarte babeseko edozein araubide publikotan ezohiko pentsioa jasotzeko eskubiderik ez bazuten; hala, kasu horietan kostu guztia Estatuko Gastuen Aurrekontuaren kontura ordainduko zen²³.

zen; horren bidez, Aseguru-konpentsazioen Partzuergoaren Legezko Estatutuaren testu batekina onetsi zen; 6. artikuluan hau xedatu zuen: "Partzuergoak, ezohiko arriskuen arloan, kalte-ordainak ordaindu beharko ditu, legezko estatutu honetan ezarritako eran, konpentsazio modura, Espainian gertatutako ezohiko gertakariengatik izaten diren galerengatik, baldin eta aseguruan ezarritako arriskuei eragiten badie. (...) Ondorio horretarako galeratzat hartuko dira pertsonak eta ondasunak jasaten dituzten zuzeneko kalteak, bai eta, arau ezarritako mugak kontuan hartuta, gertaera horiengatik izaten diren irabazi-galerak ere. Era berean, arau ezarritako eran, ezohiko gertakarietat joko dira: (...) b) Terrorismo, errebolta, albaramendu, matxinada eta herri-iskanbilien ondorioz indarkeriaz gertatzen direnak".

17 BOE, 1987ko abenduaren 24koa. 307. zenbakia.

18 BOE, 1987ko maiatzaren 27koa.

19 BOE, 1988ko urriaren 4koa.

20 BOE, 1990eko abenduaren 8koa. 294. zenbakia.

21 BOE, 1990eko ekainaren 30ekoa. 156. zenbakia.

22 BOE, 1991ko abenduaren 31koa. 313. zenbakia.

23 BOE, 1991ko abenduaren 31koa. 313. zenbakia. Hogeita zortzigarren xedapen gehigarria: "Terrorismo-

Arau berak beste berrikuntza bat sartu zuen atentatu terroristekin erlazionatutako kalte-ordainen alorrean: kalte-ordaina jasoko da ohiko etxebizitzaren egituran edo funtsezko elementuetan izandako kalte materialengatik²⁴.

Aurrekontu-arau hori, gehienez ere sei hilabetean, zabaldu egin behar zen, eskubide horren zenbaterainokoa, edukia eta baldintzak zehazteko. Hortik uztailaren 10eko 851/1992 Errege Dekretuaren garrantzia, horrek arautzen baititu egintza terroristengatik sortutako ezohiko pentsio batzuk²⁵. Arau horren hitzaurrean aitortzen da terrorismoak herritar guztiei eragiten diela bereizkuntzarik egin gabe, eta ez soilik funtzionario publikoei, eta, beraz, aholkatzen da era horretako pentsioak sortzeko eskubidea beste talde batzuetara hedatzea. Hala, 1987an, eta Estatuko Aurrekontu Orokorren Legearen bidez, ezohiko pentsioa sortzeko eskubidea, Gizarte Segurantzaren zer araubidetan egon den edozein dela ere, terrorismo-atentatu baten ondorioz ezinduta geratzen den edo hiltzen den edonorengana zabaldu zen.

Bestalde, ekainaren 19ko 673/1992 Errege Dekretuak handitu egin zuen heriotzagatik edo baliaezintasuna eragiten zuten lesioengatik jaso beharreko ordainaren kalkulua ateratzeko kontuan hartu beharreko hileroko kopurua, eta ordaina emateko prozedura arautu zuen sistematikoki²⁶. Arau hori lesio psikikoak eta medikuntza-tratamenduen gastuak onartzeagatik egin zen ezagun. Ordura arte, Gizarte Segurantzaren sisteman indarrean zeuden kalte-ordainen baremoak hartzen zituzten kontuan indarrean zeuden arauak, eta sistema horretan ez ziren jasotzen lesio psikologikoak. Hortaz, 1992ra arte lesio psikologikoez ez zuten onarpen juridiko zehatzik izan laguntzen sisteman; baina orduan ere nahiko adierazpen zehaztugabea egin zen.

Terrorismoaren biktimei eman beharreko laguntzak areagotzeko etengabeko prozesuan mugarria izan zen abenduaren 30eko 13/1996 Legea²⁷; izan ere, helburu bikoitza izan zuen: bat, laguntzak kuantitatiboki eta kualitatiboki hobetzea, eta, bi, Administrazioa pertsona horiengana hurbiltzea, eta haienganako laguntza osoa eta berezia bultzatzea. Lege horrek aurreikusi zuen lanbide arteko gutxieneko soldataren hamar hilekoren balioa ematea kalte pertsonalengatik ematen zen kalte-ordainei; bestetik, zabaldu egin zuen kalte materialen estaldura eta enpresa-establezimendutan izandako kalteak ere ordainduko ziren handik aurrera, kalteen ehuneko berrogeita hamar, alegia; ikasteko eta asistentzia psikologikorako laguntzak sortu zituen, eta diru-laguntzen araubide bat bideratu zuen kaltetu horiek artatzen jarduten zuten elkarteetara. Era berean, biktima babesteko irizpideak aintzat hartuko zituen laguntzak emateko sistema osatzen saiatu ziren, malguagoa eta administrazio-jardueran formalismo gutxiagokoa.

Geroago, Lege hori garatu zuen uztailaren 18ko 1211/1997ko Errege Dekretuak. Errege

ekintzengatik lesio iraunkorrak edo baliaezintasuna eragiten dutenak jasaten dituzten guztiek, edo ekintza horien ondorioz hiltzen diren guztiek, eskubidea izango dute beretzat edo beraren familiarentzat ezohiko pentsio bat izateko Estatuko Aurrekontuen kontura, betiere, edozein egoera tarteko, eskubide hori ez badu eta ekintza horiengatik ez badu Gizarte Segurantzaren edozein araubide publiko eta nahitaezkoen batean”.

24 Hemeretzigarren xedapen gehigarria: “Halaber, Estatuak ordaintzekoak izango dira pertsona fisikoen ohiko etxebizitzan talde armatuek edo elementu terroristek egiten dituzten delituzko jarduerengatik izandako kalte materialak. Agindu hau garatzeko egiten diren arauak ezarriko dute zenbateraino eta zer baldintza bete behar diren, betiere irizpide hauei jarraituz:

1.- Ordaina jasoko da pertsona fisikoen ohiko etxebizitzaren egituran edo funtsezko elementuetan izandako kalteengatik.

2.- Laguntza horien bidez etxea konpontzeak izan duen kostu osoa ordainduko da, eta beste kalte-ordainen bat jasoz gero, jasotzen den kopurua bezainbeste murriztuko da laguntza. Hala, ordezkatu egingo dituzte administrazio publikoek onartutako beste edozein laguntza edo aseguru-kontratuen ondorioz jasotakoak.

3.- Kalteak balioesteko ezinbestekoa izango da alor honetan eskumena duten zerbitzu teknikoaren peritxostena”.

25 BOE, 1992ko abuztuaren 1ekoa. 184. zenbakia.

26 673/1992 Errege Dekretua, ekainaren 19koa, Talde armatuen eta elementu terroristen biktimei egindako kalteengatik ordainetan ematekoak arautzen dituena. BOE, 1992ko ekainaren 30ekoa, 156. zenbakia.

27 13/1996 Legea, abenduaren 30ekoa, Neurri Fiskalei, Administrazioari eta Lan Arloko buruzkoa. BOE, 1996ko abenduaren 31koa. 315. zenbakia.

Dekretu horren bidez, terrorismo delituen biktima direnei laguntzeko eta ordaina emateko erregelamendua onetsi zen; hor arautu zen espezifikoki terrorismoaren ondorioak jasan dituzten biktimentzako eta haien familiakoentzako edo etxepekoentzako tratamendu psikologikoa (20. art.), atentatuak eragindako edo agerian jarritako nahasmendu psikopatologikoak agertzen diren unetik beretik, beste administrazio publiko edo erakunde pribatu batzuekin egindako hitzarmenen bidez, edo banakako tratamenduak emanez. Hiru mila euro bitarteko tratamenduak ordainduko ziren²⁸.

1997an bertan, 13/1997 Errege Lege Dekretua ere eman zen; hari jarraiki Loteria Nazionalaren zozketa finalista bat deitu zen, urtero astean behin egiten denetatik bat; zozketa horren bidez jasotako diru-sarreraren zati bat terrorismoaren biktima guztientzako izango zen, eta, lehentasunez, atentatua izan zen garaian araurik ez zegoelako kalte-ordainik edo inolako ordainik edo ondasunik jaso ez eta behar ekonomikoa zutenentzat. Gastu horiek Barne Ministerioak kudeatu zituen, Ekonomia eta Ogasuneko Ministerioaren laguntzarekin; zuzendaritza teknikoa eta aurrekontuei zegokiena ere ministerio horren ardurapean utzi zuen²⁹.

Bere aldetik, 73/1998 Errege Dekretuak 1997ko urriaren 18an izan zen zozketaren bidez emango ziren laguntzak esleitzeko irizpideak arautu zituen. Gobernua jabetzen zen arau berriak aterata antzeko kasuek ez zutelako tratamendu bera izan, une desberdinetan gertatu zirelako, arau berriekin ordain handiagoak eta ordaina jasotzeko egoera berri gehiago aurreikusi ziren eta. Era berean, komenigarria izan zen –denbora asko igaro zelako– biktimen egoera ekonomikoa eta pertsonala aztertzeko aukera zabaltzea, hala bazegokion, egoera hori hobetzeko, elkartasun-printzipioa betez. Errege Dekretu horrek laguntzen hiru kategoria aurreikusi zituen: bat, ordainik jaso ez zuten biktimei edo haien zuzeneko familiartekoei laguntzeko; bi, bere garaian ordainen bat jasoagatik ere une horretan egoera ekonomiko kaskarrean zeudenei laguntzeko, eta hiru, aldi berean gertatutako egoera bereziengatik aurreikusitako laguntzekin artatu ezin izan ziren biktimei laguntzeko³⁰.

Indarrean zegoen laguntza-sistema zabaldu egin zuen abenduaren 30eko 66/1997 Legearen 48. artikulua; izan ere, kalte materialengatik jaso zitekeen kalte-ordaina ohiko etxebizitzan oinarritutako ez ziren elementuetara eta ibilgailu pribatuetara zabaldu zuen, eta, era berean, atentatuen biktima zirenei aldi baterako ostaturako emateko kalte-ordainak ere aurreikusi zituen, eta biktimei ezohiko laguntzak ematea ere bai³¹.

50/1998 Legearen berrogeita bigarren xedapen gehigarriak aurreikuspen handi bat egin zuen hezkuntzarako eta tratamendu psikologikorako laguntzen arloan. Hain zuzen ere, arautu zuen terrorismoaren biktimei hezkuntzarako eta asistentzia psikologikorako laguntzak emango zitzaizkiela, edozein izanda ere biktima izateko kaltea eragin zuen delituzko jarduera egindako data, betiere agindu hau garatzeko arauak ezarritako eran³².

1999an beste une garrantzitsu bat izan zen terrorismoaren biktimei laguntzeko eta haiek babesteko sisteman. Terrorismoaren Biktimekiko Elkartasunari buruzko urriaren 8ko 32/1999 Legea onetsi zuten Gorte Nagusiek aho batez³³. Arau horrek kalte-ordainen ezohiko sistema bat eta kondekorazioetarako araubide berezi bat sortu zituen.

Ordainen hartzaileek (zaurituak eta hildakoen senitartekoak) kalte-ordainak eskatzeko akzio zibilak zituzten atentatu egileen kontra. Gehienetan, terrorismoagatik kondenatzen dituztenak kaudimengabeak izaten dira. Horregatik, ezohiko mekanismo bat ezarri zen

28 1211/1997ko Errege Dekretua, uztailaren 18koa terrorismo delituen biktima direnei laguntzeko eta ordaina emateko erregelamendua onesten duena. BOE, 1997ko uztailaren 31koa. 182. zenbakia.

29 BOE, 1997ko abuztuaren 16koa. 196. zenbakia.

30 BOE, 1998ko urtarrilaren 24koa. 21. zenbakia.

31 Aurreko arauaren antzekoa izan zen. 66/1997 Legea, abenduaren 30ekoa, Neurri Fiskalei, Administratiboei eta Lan Arlokoiei buruzkoa. BOE, 1997ko abenduaren 31koa. 313. zenbakia.

32 50/1998 Legea, abenduaren 30ekoa, Neurri Fiskalei, Administratiboei eta Lan Arlokoiei buruzkoa. BOE, 1998ko abenduaren 31koa. 313. zenbakia.

33 BOE, 1999ko urriaren 9koa. 242. zenbakia.

biktinek kalte-ordainak jasoko zituztela bermatzeko. Epai penal kondenatzailea zuten guztietan, epaileek ezarritako zenbatekoa jasoko zuten biktinek, edo, oso gutxi bazen, legebaremo baten ezarritako zenbatekoak, bestela. Baremo hori bera erabili zen ebazpen judizial kondenatzailek ez zegoenetan egindako kalte pertsonalengatik ordainak emateko. Estatuak ordaindu zituen kopuru horiek, betiere, aurretik akzio zibilak izango zirela adierazita.

ETA talde terroristaren su-eten batean onartu zen legea, eta pentsatu zen "itxiera-lege" bat izango zela, atentatu gehiago ez zela egingo eta biktima gehiago ez zela izango uste izan zelako. Su-etena bertan behera geratu zenean, ordea, hilketa eta atentatu uholdea izan zen, eta, horrenbestez, Terrorismoaren Biktinekiko Elkartasunari buruzko Legea (aurrerantzean, Elkartasun-legea) urtero luzatu behar izan zuten, atentatu berriei erantzuteko. Kalte-ordainak emateko mekanismoak bi unetan funtzionatzen zuen: bat, atentatua izan eta berehala; kalte-ordainaren aurrerapen bat jasotzen zen, legez zehaztutako kopuruaren arabera (legebaremoak). Eta bi, epai penal kondenatzailea ematen zenean; Estatuak epaileek ezarritako kopuruaren eta aurretik ordaindutakoaren arteko aldea ordaintzen zuen.

Kondekorazio-sistema bat ere ezarri zuen Elkartasun-legeak, Terrorismoaren Biktimei Aitorpen Zibila egiteko Errege Agindua sortu baitzuen; horren bidez, batetik, zaurituei eta bahituei enkomienda ematen zitzaien, eta, bestetik, Gurutze Handia atentatu terroristetan hildakoei³⁴.

Neurri Fiskalei, Administratiboei eta Lan Arlokoei buruzko beste lege batek, kasu honetan abenduaren 27ko 24/2001 Legeak, zabaldu egin zuen terrorismoaren biktimentzako asistentzia-eredua: % 50etik % 100era zabaldu zuen merkataritza- edo industria-establezimenduetan jasandako kalte materialak estaltzeko kopurua, 90.151,82 euroko muga ezarrita: alderdi politikoaren, sindikatuen eta gizarte-erakundearen lokaletan izandako kalteengatik ere kalte-ordaina jasotzea ezarri zuen; kalte horiek oso-osorik ordainduko ziren, eta, azkenik, ohikoak ez ziren etxebizitzetan izandako kalteengatik ordaina ematea ere aurreikusitako lehen aldiz; horietan izandako kalteen ehuneko berrogeita hamar ordainduko zen, aurretik adierazitako muga izanik³⁵.

53/2002 Legearen 49. artikulua, hura ere neurri fiskalei, administratiboei eta lan-arlokoei buruzkoa, sartu zituen lehen aldiz konturako aurrerakinak ematea premiazko beharra izanez gero. Espresuki hauxe arautu zuen: "Behar-beharrezko premia izanez gero, aurrerakinak eman daitezke, lege honetan aurreikusitako ezohiko laguntzen, mediku asistentzia gastuak ordaintzeko laguntzen, kaltetuak traslatazeko laguntzen eta behin behineko ostatua emateko laguntzen kontura; laguntza horien zenbatekoa ez da izango dagokien ebazpenaren ematea aurreikus daitekeenaren % 70 baino gehiago. Aurrerakin horiek justifikatu beharreko ordainketa gisa jaulkiko dira"³⁶.

Arau-etapa horren une gorena 288/2003 Errege Dekretua onestearekin iritsi zen; izan ere, arau horrek terrorismoaren biktimentzako ordain eta ohiko laguntzen arloko arau guztiak garatu, eta prestigioa eman zien. Errege Dekretu horren legezko erregulazioa lege hauetan oinarritzen da: 13/1996 Legea, 66/1997 Legea, 50/1998 Legea, 24/2001 Legea eta 53/2002 Legea. Prozedurari dagokionez, berariaz azpimarratu zuen biktimarentzat mesedegarria den tratua izateko printzipioa, arau hori aplikatzerakoan formalitateak arintzeko, eta bigarren mailako biktimizazioa esaten zaion hori saihesteko. Berriz arautu zituen espedienteak izapidetzeko epeak, prozeduren garapen praktikora gertura zitezen; neurri zehatzak ezarri zituen gorputzeko kalteak eta kalte materialak balioesteko sistemtarako, eta ebazpenak administratiboki berraztertze sistema ezarri zuen, Barne Ministerioan jarritako aukerako berraztertze errekurtsoaren bidez.

2004an Madrilan izan ziren atentatu terroristek (Atochan, Téllez kalean, Pozo del Tío

34 1974/1999 Errege Dekretua, abenduaren 23koa, Terrorismoaren Biktimei Aitorpen Zibila egiteko Errege Aginduaren Erregelamendua onartzen duena. BOE 307. zk., 1999ko abenduaren 24koa.

35 BOE, 2001eko abenduaren 31koa. 313. zenbakia.

36 BOE, 2002ko abenduaren 31koa. 313. zenbakia.

Raimundon eta Santa Eugengan), eta apirilaren 3an izan zirenek (Leganeseko Carmen Martín Gaitte kalean) nabarmen markatu zuten terrorismoaren biktimei laguntzeko eta horiek babesteko politika, batez ere, frogatu zutelako indarrean zegoen legeriak oraindik ere aurreikuspen falta eta gabeziak zituela. Bereziki, nabarmendu zuen erantzun egokia eman behar zitzaiela atentatu masiboei (192 hildako, 1.893 zauritu), nazionalitate askotako biktimak (16 hain justu) eta kalte material handiak eragiten zituztenei.

Antolaketaren ikuspegitik, biktimen arretari egitura berezitu bat ematea erabaki zen. Terrorismoaren Biktimez Arduratzeko Zuzendariorde Nagusiarekin batera (13/1996 Legeak sortu zuen) Terrorismoaren Biktimei Laguntzeko Goi komisarioaren irudia sortu zen –Estatu Idazkari mailarekin.³⁷ 2004ko abendutik 2006ko irailera bitarte funtzionatu zuen. Terrorismoaren Biktimei Laguntzeko Zuzendaritza Nagusiak ordeztu zuen goi komisario hori; Barne Ministerioaren mendekoa zen³⁸ eta bere barruan hartu zuen aurretik zegoen Laguntzen Zuzendariorde (prestazioen eta diru-laguntzen kudeaketa), eta Biktimei Laguntzeko Zuzendariorde berri bat sortu zuen, gehiago, kasu honetan, elkarteen mugimendua babesteko eta gizarte-, laguntza- eta familiako esku hartzeen programak inplementatzen laguntzeko.

Asistentzia-lana egin eta kalte-ordainak emateaz gain, administrazio-egitura horiek – biktima-elkarte eta -fundazioen laguntza ezin baliotsuagoarekin– arau-azterketak bultzatzen jarri zuten arreta; hala, terrorismoaren biktimei laguntzeko eta haiek babesteko indarrean zeuden arauak batzeko beste testu-zirriborro bat prestatzen hasi ziren, bai onesten ari ziren prestazio berriak barnean hartzeko, bai antzemandako akatsak ezabatzen saiatzeko, bai erronka berriak bere egiteko. Horrek guztiak “babes osoa emateko sistema” izenez ezagutzen den hori zuen oinarri.

Hauek izan ziren bi mila urteko lehenengo hamarkadako azken urteetan hartutako neurri esanguratsuenak:

- a) 8/2004 Errege Lege Dekretuaren aldaketa, bake eta segurtasuneko nazioarteko operazioetan parte hartzen dutenei emateko kalte-ordainei buruzkoa³⁹. Ezartzen du arauaren aplikazio-eremuan sartutako pertsonen 13/1996 Legean eta 32/1999 Legean (terrorismoaren biktimekiko elkartasunari buruzkoa) xedatutakoaren arabera jasoko dutela kalte-ordaina, atentatu terroristak bat izaten badute. Aldaketa horrek aukera eman zuen atzerrian izandako atentatu terroristetan hildako militarren familiakoei kalte-ordaina biktimen legediaren arabera emateko⁴⁰.
- b) Terrorismoaren Biktimekiko Elkartasunari buruzko Legearen mugagabeko luzapena, urteroko luzapenak behar zirelako –aldi baterako bakarrik eman baitzen–. Hala, 2009rako Estatuko Aurrekontu Orokorren abenduaren 23ko 2/2008 Legeak onartu zuen haren luzapen mugagabea, etorkizunean izan zitekeen edozein atentaturen estaldura bermatzeko⁴¹.
- c) Ezohiko pentsioak atentatu terroristetan hildakoen izatezko bikoteentzat. Ekainaren 23ko 6/2006 Errege Lege Dekretuaren babesean, ezohiko 18 pentsio eman ziren terrorismoagatik hildako biktimen izatezko bikoteentzat⁴².
- d) Atentatu terroristak jasateagatik pentsioak jasoko dituzten senitartekoen mendekotasun ekonomikoa kontuan hartzeko betekizuna malgutzeko aldaketa egin zen 370/2008 Errege Dekretuaren bidez; horrek aldatu zuen 5/1993 Errege dekretua, urtarrilaren 8koa, Klase pasiboan pentsioen errebalorizazioari eta osagarriei buruzkoa⁴³.

37 2317/2004 Errege Dekretua, abenduaren 17koa. BOE, 2004ko abenduaren 21ekoa. 306. zenbakia.

38 991/2006 Errege Dekretua, irailaren 8koa. BOE, 2006ko irailaren 12koa. 218. zenbakia.

39 BOE, 2004ko azaroaren 10ekoa. 271. zenbakia.

40 2008rako Estatuko Aurrekontu Orokorren abenduaren 26ko 51/2007 Legearen 57. xedapena; BOE, 2007ko abenduaren 27koa, 310. zenbakia.

41 BOE, 2008ko abenduaren 24koa. 309. zenbakia.

42 BOE, 2006ko ekainaren 24koa. 150. zenbakia.

43 379/2008 Errege Dekretua, martxoaren 7koa, 1993rako Klase pasiboan pentsioen errebalorizazioari eta

- e) Ohorezko maila-igoerak terrorismoagatik Estatuko Segurtasun Indar eta Kidegoetako hildakoentzat. Martxoaren 18ko 308/2005 Errege Dekretuaren bidez Polizia Nazionaleko kideentzako maila-igoerak arautu ziren⁴⁴ eta martxoaren 18ko 319/2005 Errege Dekretuaren bidez, atentatu terroristan hildako militarrenak⁴⁵.
- f) Doako laguntza juridikoa terrorismoaren biktimei, abokatua eta prokuradorea berehala izendatuta, atentatu terrorista bat izanez gero, uztailaren 18ko 16/2005 Legearen bidez; horrek Doako Laguntza Juridikoari buruzko 1/1996 Legea aldatu zuen, Europar Batasunean izaten diren mugaz gaindiko auzi zibil eta merkataritzakoen espezialitateak arautzeko⁴⁶.
- g) Terrorismoaren Biktimei Laguntzeko Bulegoa sortzea eta abian jartzea Auzitegi Nazionalean, 2005eko martxoaren 11n Ministroen Kontseiluak hartutako Erabakiaren bidez. Eta fiskal berezi bat izendatzea terrorismoaren biktimei laguntzeko Auzitegi Nazionaleko Fiskaltzan.

Estatu eta nazio mailako neurri horiekin batera, azken urteetan, autonomia erkidego askok beren xedapen propioak onartu zituzten biktimei laguntzeko eta haiek babesteko. Zehatz aztertzen hasi gabe, nabarmentzekoak dira:

- 1) Andaluzia: 10/2010 Legea, azaroaren 15ekoa, Andaluziako Autonomia Erkidegoko terrorismoaren biktimei laguntzeko eta haiek artatzeko neurriei buruzkoa.⁴⁷
- 2) Aragoi: 4/2008 Legea, ekainaren 17koa, Terrorismoaren biktimen aldeko neurriei buruzkoa⁴⁸, 10/2012 Legeak, abenduaren 27koak, aldatua⁴⁹.
- 3) Madrilgo Erkidegoa: 12/1996 Legea, abenduaren 19koa, Terrorismoaren biktimei laguntzak ematekoa⁵⁰, 7/1997 Legeak, otsailaren 7koak, aldatua⁵¹. 2/2007 Dekretua, urtarrilaren 10ekoa, Gobernu Kontseiluarena, Terrorismoaren biktimentzako laguntzen kopurua eguneratzen duena⁵².
- 4) Nafarroa: 9/2010 Foru Legea, apirilaren 28koa, Terrorismoaren biktimei laguntzekoa⁵³
- 5) Valentziako Erkidegoa: 1/2004 Legea, maiatzaren 24koa, Terrorismoaren Biktimei Laguntzekoa⁵⁴, abenduaren 26ko 10/2006 Legeak⁵⁵ eta apirilaren 14ko 3/2009 Legeak⁵⁶ azaroaren 4koa, Generalitateko Kontseiluarena, Terrorismoaren Biktimei Laguntzeko Legearen Erregelamendua onesten duena.⁵⁷

osagarriei buruzko 5/1993 Errege Dekretua, urtarrilaren 8koa, eta klase pasiboen arloko beste arau batzuk aldatzen dituena. BOE, 2008ko martxoaren 8koa. 59. zenbakia.

44 BOE, 2005eko martxoaren 22koa. 69. zenbakia.

45 BOE, 2005eko martxoaren 22koa. 69. zenbakia.

46 BOE, 2005eko uztailaren 19koa. 171. zenbakia; zortzigarren xedapen gehigarria: Doako laguntza juridikoa terrorismoaren biktimentzat: 1. Terrorismoaren biktima direla aitortutako pertsonen eskubidea dute doako defentsarako eta abokatuaren eta prokuradorearen doako ordezkaritza izateko biktima izate horrek zuzenean edo zeharka eragiten dituen administrazio-prozesu eta -prozedura guztietan, baldin eta egiaztatzen badute auzitan aritzeko nahikoa baliabiderik ez dutela, Lege honetan ezarritakoaren arabera. Kasu horietan abokatu-zuzendaritzak hartuko du bere gain biktimaren defentsa. Eskubide hori kausadunek ere izango dute, biktima hil bada. 2. Edonola ere, doako defentsa juridikoa eta espezializatua izango dutela bermatuko zaie berehala, hala eskatzen duten terrorismoaren biktimei. Hala ere, gerora doako laguntza juridikorako eskubidea onartzen ez zaienek ordaindu egin beharko dizkiete abokatuari eta prokuradoreari, hala badagokio, egindako lanagatik dagozkien zerbitzu-sariak. 3. Abokatuaren elkargoek behar dituzten neurriak hartuko dituzte ofiziozko abokatuak berehala izendatzeko, terrorismoaren biktimen asistentzia eta defentsa bermatuta gera dadin.

47 BOJA, 230. zenbakia, azaroaren 24koa; BOE, 296. zenbakia, abenduaren 6koa.

48 BOA, 94. zenbakia, uztailaren 3koa; BOE, 189. zenbakia, abuztuaren 6koa.

49 BOA, 253. zenbakia, abenduaren 31koa; BOE, 36. zenbakia, 2013ko otsailaren 11koa.

50 BOCM, 307. zenbakia, abenduaren 27koa. Akats-zuzenketa BOCMen 14. zenbakian, 1997ko urtarrilaren 17koan; BOE, 93. zenbakia. 1997ko apirilaren 18koa.

51 BOCM, 42. zenbakia, otsailaren 19koa; BOE, 207. zenbakia, abuztuaren 29koa.

52 BOCM, 9. zenbakia, urtarrilaren 11koa.

53 NAO, 57. zenbakia, maiatzaren 10ekoa; BOE, 132. zenbakia, maiatzaren 31koa.

54 DOGV, 4762. zenbakia, maiatzaren 27koa; BOE, 157. zenbakia, ekainaren 30ekoa.

55 DOGV, 5416. zenbakia, abenduaren 28koa; BOE, 20. zenbakia, 2007ko urtarrilaren 23koa.

56 DOGV, 5994. zenbakia, apirilaren 16koa; BOE, 110. zenbakia, maiatzaren 6koa.

57 DOGV, 5131. zenbakia, azaroaren 9koa

- 6) Extremadura: 6/2005 Legea, abenduaren 27koa, Terrorismoaren biktimei laguntzeko eta haiek artatzeko neurriei eta Bakerako Extremadurako Azterketa Zentroa sortzeari buruzkoa⁵⁸.
- 7) Euskal Autonomia Erkidegoa: 4/2008 Legea, ekainaren 19koa, Terrorismoaren Biktimei Aitorpena eta Erreparazioa egitekoa⁵⁹. 290/2010 Dekretua, azaroaren 9koa, terrorismoaren biktimei laguntza integrala emateko sistema garatzen duena⁶⁰.
- 8) Murtzia: 7/2009 Legea, azaroaren 2koa, Murtziako Eskualdeko Autonomia Erkidegoko terrorismoaren biktimei laguntzeko dena⁶¹, abenduaren 23ko 13/2009 Legeak aldatua⁶².

Eta hori, zalantzarik gabe, 29/2011 Legea onartuta itxi zen; urte asko egin ziren lege hori lantzen eta eztabaidatzen biktimen elkarteekin eta gizarte zibilarekin berarekin. Zirriborroa Gobernuak aurkeztu bazuen ere, Diputatuen Kongresuan ordezkari zuten alderdi politiko guztien lege-proposamen gisa izapidetu zen⁶³. Proposatutako testuak inkongru entziak, sakabanatzea, hutsuneak eta, zergatik ez, urteetan arrastaka zetozen zenbait desberdintasun ere –batere desiragarriak ez zirelako– ezabatu nahi zituen. Era berean, biktimak babesteko eta haiei laguntzeko indarrean zegoen politika ere sendotu nahi zuen juridikoki.

Orain arte ikusi dugunez, biktimen arloko xedapen guztiek –hain sakon eta garrantzi handikoak izaki– sistema oparo bat osatzen zuten, baina gogaikarria eta barreiatua izan zitekeen hartzaileentzat. Lege-proposamenak kodetzailea izan nahi zuen; izan ere, arau bakar batean sistematizatzen saiatu zen demokrazian kolektibo horren alde eraiki zen prestazio-sistema guztia, irizpen batasuna izanik eta koherentzia-ahalegin bat eginez.

Nabaritu zen, ordea, laguntza-arauek ez zituztela egoera jakin batzuk babesten. Esate baterako, ez zegoen xedapen berezirik atentatu terrorista bat izan eta berehala nola jardun behar zen arautzeko. 1968ko urtarrilaren 1a baino lehenagoko atentatuetako biktimei ez zitzaien ordainik eman. Atzerrian izandako atentatuetan biktima ziren espainiarrek kalte-ordaina jasotzeko aukera kasu hauetan soilik zuten: ekintzak Espainiako interesen kontra egiten baziren, normalean Espainian jarduten duten banda edo taldeek egiten bazituzten edo kaltetuak Espainiak atzerrian egiten zituen bake- eta segurtasun-kontingente edo -operazioetako kideak baziren. Atentatu baten ostean bete beharreko neurri eta jarduketa urgente batzuk jaso zituen lege-proposamenak, modu horretan biktimak eta haien familiakoak artatzen eta haiei laguntzen eraginkorrakoak izateko eta era koordinatuan erantzuteko. Denborazko aplikazio-eremua 1960ra atzeratu zen⁶⁴, eta atzerrian gertatutako atentatu terroristetan biktima izan eta ordainik jaso gabe zeuden espainiarrei ere zabaldu zizkien kalte-ordainak.

Inkongruentziak ere ikusten ziren. Esate baterako, atentatu terroristengatik izandako ondorioak larriagotzeagatik kalte-ordaina lege batek bakarrik ematen zuen (13/1999 Legeak, legeria orokorra) eta ez Elkartasun-legeak (32/1999 Legea, ohiz kanpoko legea). Legeria berriak aukera ematen du denboraren poderioz atentatu terroristen ondorioz fisikoki eta psikologikoki okerrera egindako kasuak balioesteko eta kalte-ordaina emateko.

Lege berriak gainditu beharreko gaien artean zeuden hiltzeagatik edo lesioak izateagatik Estatuak egiten zuen ordainketa solidarioan izaten ziren desberdintasunak eta bidegabekeriak.

58 DOE, 150. zenbakia, abenduaren 31koa; BOE, 40. zenbakia, 2006ko otsailaren 16koa.

59 EHAA, 124. zenbakia, uztailaren 1ekoa; BOE, 212. zenbakia, 2011ko irailaren 3koa.

60 EHAA, 239. zenbakia, abenduaren 15ekoa.

61 BORM, 264. zenbakia, 2009ko azaroaren 14koa. Akats-zuzenketa BORMeko 52. zenbakian, 2010eko martxoaren 4koan; BOE, 35. zenbakia, 2011ko otsailaren 10ekoa.

62 DORM, 300. zenbakia, abenduaren 30ekoa; BOE, 40. zenbakia, 2011ko otsailaren 16koa.

63 2010eko ekainaren 25ean, Kongresuko Sozialisten eta Popularren talde parlamentarioek, Convegència i Unió (katalanak), EAJ-PNV (euskaldunak), Esquerra Republicana-Izquierda Unida-Iniciativa per Catalunya Verd eta Mistoak talde parlamentarioek guztien artean adostu eta onartutako testu bat bidali zioten Kongresuko mahaiari.

64 Erreferentziatutako Donostiako Amarako geltokian hildako bat eragin zuen lehenengo atentatu terrorista hura hartu zen. Une horretara arte, gertaera hori ez zen aitortu, eta ez ziren kalteak ordaindu, terrorismoaren biktimei laguntzeko eta horiek babesteko indarrean zeuden legeen arabera.

Hala zen, bazeuden desberdintasunak kalte-ordainen zenbatekoetan, kalte-ordaina nola finkatzen zen kontuan hartuta: epai penal bidez edo lege-baremoz. Eta epai bidez egiten ziren ordainketen kasuan ere, bazeuden aldeak ebazpen judizial berrienetan eta aurreko beste urte batzuetan emandako epaietan ezarritako kopuruetan (adibidez, laurogeiko eta laurogeita hamarrek hamarkadetan emandakoak). Arazo hori konpontzeko, lege berriak kalte-ordainak emateko sistema bat sortu zuen, zentzuzkoagoa eta bidezkoagoa izan nahian. Hala, legezko gutxieneko batzuk ezarri ziren (l. eranskina). Kalte-ordaina jasotzeko eskubidea izan eta legezko gutxieneko hori jaso ez zuten biktimek edo senitartekoek Estatuari eska diezaiokete ordaindutakoaren eta ateratako kopuru berrien arteko aldearen ordainketa solidarioa egiteko. Era berean, Estatuaren solidaritateari gehieneko muga bat ezartzea proposatu zen. Horrekin, indartu egiten da berdintasun-printzipioa eta gutxitu, kalte-ordainen arloko desadostasun egoerak eta konparaziozko bidegabekeriak. Hori, ordea, ez da eragozpen izango jasandako kaltea epaileek libreki balioesteko, ez eta biktimek eta beren senitartekoek Estatuak bere gain hartu gabeko zenbatekoak bide juridikzionaletik lortzeko asmoari ekiteko.

Bestalde, indarrean zeuden arauetan jasotako egoera jakin batzuk indartu egin behar izan ziren juridikoki, esaterako, mehatxatuen egoera. Terrorismoaren biktimei ordainak eta laguntzak emateko legeetatik bakar batek ere ez zuen delitu-modalitate hori baztertzeko, baldin eta egoitza administratibo edo judizialean ekintza horiengatik ondorioak geratu zirela egiaztatzen bazen. Hartara, egoera bakoitzerako aurreikusitako kalte-ordainak eskura zitezkeen (baliaezintasunik gabeko lesioak edo ezintasun iraunkorrak). Ezohiko laguntzak ere bazeuden –bereziak, 288/2003 Errege Dekretuaren 43. artikulua (laguntzen eta ordainen erregelamendua)–; mehatxuak jaso eta ondasun edo jabetzetan erasoak jasaten zituzten pertsonen eragindako kalte ekonomikoak ordaintzeko ziren. Hala ere, lege berriarekin mehatxatuenganako babes indartu nahi izan zen, mehatxatuak espresuki aipatuta eta administrazio publikoek arreta berezia eskainiko zirela adierazita (5. artikulua); modu horretan, haien esanahi etikoa eta politikoa onartu zen. Aitorpenak eta kondekorazioak ere indartu ziren, Gurutze Handiak eta Enkomiendak ofizioz emateko aukera zabaldua, eta ekitaldiak, sinboloak, kale-izenak, monumentuak eta abar bultzatzeko konpromisoa ere hartu zen biktimek oroitzeko eta haien omenaldiak egiteko. Hala, haien egoera bereziki izango da ebaluagarria lanbideagatik, lanagatik edo bizitokiagatik egokitu ahal zaizkien kondekorazioak eta sariak emateko.

Esanenez, araudi guztiek babes osoa lortu nahi izan zuten, bi zentzutan ulertua: bat formala eta bestea edukizkoa. Formalki, arau berriak biltzen eta bateratzen ditu ordura arte Espainian terrorismoaren biktimek zeuden laguntza, babes, ohore edo prestazio guztiak. Era berean, azken urteetan biktimek ezarritako babes integralerako sistema finkatu zuen juridikoki. Berrikuntza gisa, gizarte-babeseko arau-gailu zabalak txertatu zen, biktimek eta haien senitartekoek dituzten oinarriko beharrei erantzuteko zenbait eremutan: psiko-sozialean eta osasun-arloan (haiek artatzen dituzten profesionalen prestakuntza berezitua emanda), lan-arloan (enplegu-plan bereziak), hezkuntza-arloan (bekak, tutoreak eta tasa-akademikoa salbuestea), prozesu penalean (haien duintasuna eta intimitatea babestuz, eta prozesu judizialei buruzko informazio gehiago emanez eta haietara lagunduz), eta etxebizitzan (etxebizitza eskuratzeko prozesua erraztuz, beste talde ahul batzuei bezala).

Lege-proposamena biktimek elkarte eta fundazioen eta legea proposatutako alderdi politikoen partaidetza handia izanda izapidetu zen; izan ere, biktimek elkarteek Barne Ministerioaren Batzordean hartu zuten parte. Zuzenketak aurkeztu zituzten jatorrizko testuari eta hobetzeko ohar asko egin zituzten. Eta, azkenik, gehiengo handiz onartu zuten Diputatuen Kongresuan: 340 aldeko boto, 9 diputatu ez ziren bozketan egon eta aurkako boto bat (UPyD alderdiko ordezkariarena, araua proposatu zutenetako bat izan arren), eta Senatuan, berriz, aho batez.

Terrorismoaren Biktimek Aitortu eta Osorik Babesteko 29/2011 Legea izenarekin argitaratu zen⁶⁵ (aurrerantzean 29/2011 Legea esango diogu). Legea iradoki zuten printzipioak, berriz:

65 BOE, 2011ko irailaren 23koa. 229. zenbakia.

oroimena, duintasuna, justizia eta egia. Oroimena, biktimei egin zaien aitorten soziala eta politikoa babesteko eta bizirik eustarazteko. Duintasuna, biktimengan Zuzenbide Estatuaren defentsa sinbolizatuz mehatxu terroristari aurre egiteko. Justizia, biktimen babesgabetasun-egoerak saihesteko. Egia, ekintza-terroristek eragiten duten giza eskubideen urraketa agerian jartzeko.

29/2011 Legeak xedatu zuen, legea indarrean jarri eta 6 hilabete igaro baino lehen, Justizia, Ekonomia eta Ogasun, Barne eta Lan eta Immigrazio Ministerioek elkarrekin egindako proposamenez, Gobernuak erregelamendu bidez garatu behar zuela bertan araututakoa. Baina, legea atera eta hilabete gutxira, Espainian gobernuak aldatu, eta horrek berekin ekarri zituen ohiko aldaketa eta berregituraketak. Estatuako Aurrekontu Orokorren ekainaren 29ko 2/2012 Legearen bidez (azken xedapenetatik hamazazpigarrena)⁶⁶, onartu berria zen testuaren zenbait artikulua zuzendu behar izan ziren, Parlamentuko eztabaidan oharkabean pasatu ziren nahigabeko desberdintasun-egoerak zuzentzeko. Eta, bereziki, areagotu egin zen krisi ekonomiko eta sozial zaila.

Lege hura garatzeko erregelamendua Ministroen Kontseiluak onetsi zuen 2013ko irailaren 6an, eta BOEn argitaratu zen irailaren 18an, 671/2013 Errege Dekretu izenez. Ia bi urte igaro dira lege berri bat (29/2011 Legea) eta indargabetutako arauak garatzeko erregelamenduak elkarrekin bizi izan direnetik (288/2003 Errege Dekretua, terrorismo-delituen biktimei direnei laguntzak eta kalte-ordainak emateko erregelamendua; 1912/1999 Errege Dekretua, Elkartasun-legea gauzatzeko erregelamendua, eta 1974/1999 Errege Dekretua, Terrorismoaren Biktimei Aitorpen Zibila egiteko Errege Aginduaren Erregelamendua). Horrenbestez, erregelamendua onestea terrorismoaren biktimen arloko arau-sistemari forma egokia ematea izan da, koherentzia eta segurtasuna ekarri baitu.

Erregelamendu berriak, 29/2011 Legean araututakoa garatzen duenez, prestazio ekonomiko handiak eskatzeko eta eskuratzeko aukera ematen du, kalte pertsonal eta materialengatik (igo egiten dira zenbait prestazio ekonomiko: laguntza psikologikoa, kalte materialak ordaintzea, hezkuntzarako laguntzak eta abar). Legearen I. eranskinean jasotako kopurua baino kalte-ordain txikiagoak jaso zituzten biktimek edo haien senitartekoen alde ordaintzeko eska dezakete, Erregelamendua indarrean sartu eta urtebeteko epean. 1960ko urtarrilaren 1etik aurrera izandako egintza guztiak hartzen ditu. Xedapen hori, berriro diogu, Espainia egoera ekonomiko, finantzario eta sozial zaila igarotzen ari den garaian onetsi da, non doikuntzak, murrizketak eta austeritaterako joera nabarmena ezarri diren. Dударik gabe, ahalegin hori Estatuak eta gizarteak terrorismoaren biktimei egiten dieten aitorten bat da.

Zoritzarrez, Erregelamendu berriaren testuko zenbait zatik ilundu egiten dute egindako ahalegin handia. Arau horrek ez dio jarraitzen 29/2011 Legearen egitura logikoari; gogoratu adostuta zegoela biktimekin, eta gehiengoaren onarpena jaso zuela. Esate baterako, atentatu terroristaren osteko berehalako jarduerak –horiek osatzen dute 29/2011 Legearen abiapuntua– bi artikulua oso laburretara mugatu dira, eta legezko testua errepikatu baino ez dute egiten, beste ekarpenik egin gabe. Aitzitik, prestazio ekonomikoekin hasten da. Prestazio ekonomikoak, ordea, biktimek, behin baino gehiagotan, lehentasunen artean bigarren mailakotzat jo izan dituzte.

Formalki, indargabetutako legeriak sortutako terminoak eta hitzak erabiltzen dira (esaterako “onuradunak”), eta biktimek haien duintasuna erasotzen dutela uste dutelako onartzen ez dituzten beste batzuk ere bai (esaterako “kaltetu” hitza erabiltzea biktimei erabili beharrean). Erregelamenduak ez zituen garatu “atentatu terroristaren osteko berehalako jarduerak”. Biktimek etengabe erreklamatu dituzten jarduerak horiek, ordea, gauzatu ziren 29/2011 Legean –bereziki, 2004ko martxoaren 11ko atentatuaren ondoren–, eta agindu, gainera, urtebeteko epean jarduerak-protokoloak egiteko funtsezko irizpideak argitaratuko zirela. Baina gaur

66 2/2012 Lege Organikoa, apirilaren 27koa, Aurrekontu Egonkortasunari eta Finantza Iraunkortasunari buruzkoa. BOE, 2012ko apirilaren 30ekoa. 103. zenbakia.

egunera arte ez da bete lege-agindu hori. Erregelamendua Legearen bi artikuluren erdia errepikatzen mugatu da (laguntza psikologikoa eta osasun arlokoa), eta ez du ezer berririk ekarri. Ez ditu arautu informazioaren alorreko jarduerak, ez eta atentatua atzerrian izanez gero jaso beharreko kontsulatuko laguntza ere, eta ez du zehazten, ez garatzen, 29/2011 Legearen arauketa orokorra.

Zenbait prestazio eta eskubideri dagokienez ere, ez da benetako arau-garapenik egin. Azalpen huts bat egiten da, eta neurriak, berriz, horiek bailirateke, benetan, Erregelamendutik interesgarrien eta berrien, etorkizuneko arauen esku uzten dira. Adibidea: laguntza psikopedagogikoa edo etxebizitzaren arloko laguntzak⁶⁷. Beste prestazio batzuk, berriz, Erregelamenduak arautu ere ez ditu egiten, eta zenbait egoera benetan garatu gabe geratzen dira. Adibidea: atentatu terroristetan onik irtendako eta hildakoen bigarren mailara arteko odolkidetasuneko senitartekoentzako ohorezko aitortpenak⁶⁸.

Biktimen defentsa eta ohorea bermatzeko ekintzen garapenik ere ez dago. Alderdi hori, terrorismoa deslegitimatzeke, bizikidetzaren demokratikorako eta biktimen duintasunerako hain garrantzitsua izanda ere, zuzenketarik gabe geratu da. Horrenbestez, 29/2011 Legean iragarritako ekintza eta neurri asko, horretan geratu dira, iragarpenean, ia sinbolikoan, gainera.

Badaude eskubide eta prestazio batzuk 29/2011 Legean aipatu ere egin ez direnak. Adibidez: - Terrorismoaren biktimatzen jotzea, ohorezko, errespetuzko eta duintasuneko ondorioetarako eta balio horien defentsa publikoa egiteko, hildakoaren ezkontidea edo antzeko afektibitate erlazio bidez biktimarekin erlazionatutako pertsona, gurasoak, seme-alabak, aitona-amonak eta anai-arrebak (29/2011 Legearen 4.5. artikulua). - Ohorezko ondorioetarako eta kondekorazioak emateko hildakoen bigarren mailara arteko odolkidetasuneko senitartekoak eta atentatu terroristetan onik ateratako pertsonak hartuko dira (29/2011 Legearen 4.6. artikulua). - Informazio orokorrari buruzko jarduerak, atentatu terroristen bat izan eta berehalako jardueren barruan (29/2011 Legearen 8. artikulua). - Laguntzei, kalte-ordainei eta gainerako prestazioei buruzko berariazko informazioa (29/2011 Legearen 11. artikulua). - Laguntza kontsularra eta diplomatikoa (29/2011 Legearen 13. artikulua). - Administrazioaren ohiko eta ez-ohiko funtzionamenduagatik sortzen diren Estatuaren ondare-erantzukizuneko ekintzak bateragarri diren eta zenbat diren (29/2011 Legearen 15. artikulua). - Terrorismoaren biktimen buruzko informazioaren tratamenduan kaltetutako eskubideak (29/2011 Legearen zazpigarren kapitulua). - Biktimak babestea prozesu judizialetan (29/2011 Legearen bosgarren titulua). - Erakundeek biktimak daudela aitortzea (29/2011 Legearen 58. artikulua). - Askatasuna, demokrazia eta bakearen defentsarako hezkuntza (29/2011 Legearen 59. artikulua). - Biktimen ohorea eta duintasuna defendatzea (29/2011 Legearen 61. artikulua). - Diruz laguntzeko jardura (29/2011 Legearen 65. artikulua).

29/2011 Legeari eta haren erregelamenduari buruz hurrengo epigrafeetan ere arituko garela jakinagatik ere, merezi du bilakaera honen guztiaren laburpena egitea. Laburtzeko, esan dezakegu funtsezko hiru une, gutxienez, izan direla:

- Bilakaera honen hasierako aldia nabarmentzen da, batez ere, laguntza hasiberri batzuk ematen hasi zirelako; merezimendu patriotikoei eta funtzionario izatearen aitortpenari

⁶⁷ Esate baterako, 34. artikuluan laguntza psikopedagogikoa arautzen da: "Barne Ministerioak, autonomia erkidegoen laguntzarekin, eta hezkuntza-laguntza berezia behar duten ikasleei arreta ematea arautzen duen arautegiaren esparruan, *behar diren neurriak garatuko ditu* haur, lehen eta derrigorrezko bigarren hezkuntzako ikasleek, erregelamendu hau aplikatzeko eremuaren barruan sartutako jardueren ondorioz, ikasteko arazoak edo gizarte-egokitzapenekoak badituzte, laguntza psikopedagogikoa jaso dezaten, lehentasunez eta doan" (kurtsiba geurea da).

⁶⁸ Hain zuzen, "onik ateratakoen" egoera zehaztugabea da Erregelamendu honetan, batez ere, kondekorazioen prozeduretan "onik ateratakoen adierazpena" egin daitekeela aipatzen delako, baina adierazpen horretatik ondorio juridikorik aterata gabe. Ezin da jakin, beraz, zertarako balioko duen adierazpen horrek, ondorio juridikorik aitortzen ez bazaio.

lotuak zeuden laguntza horiek, eta, beste zenbait kasutan, berriz, herritarren elkartasunak elikatzen zituen.

- Bigarren aldiaren ezaugarri nabarmenena izan zen kaltea ordaintzeko prestazioak garatzen hasi zirela pixkanaka, arau konplexuen bidez, legeria zibila, laborala, administrazioa eta penala nahastuz. Mekanismo solidarioak erabiltzen ere hasi ziren, desberdintasun-egoerak eta konparaziozko bidegabekeriak agerian geratu zirelako.
- Hirugarren aldiak, berriz, biktimei izena eman zien eta haien eskubideak garatu zituen; babes osoa emateko eta aitorpen handiak egiteko (sozialak, erakundekoak, sinbolikoa eta abar) politika inplementatu zen; horretaz gain, elkarte- eta fundazio-mugimendu handia izan zen, eta geroz eta indar gehiago hartu zuten.

III- Espainian terrorismoaren biktimei egindako erreparazioaren edukia. Lorpenak eta erronkak

Espainian terrorismoaren biktimei egindako erreparazioaren edukia zein den jakiteko, erabiliko ditugu giza eskubideen nazioarteko arauen ageriko urraketen eta nazioarteko zuzenbide humanitarioaren urraketa larrien biktimek errekurtsioak jartzeko eta ordainak jasotzeko duten eskubideari buruzko oinarritzko printzipio eta jarraibideak. Nazio Batuen Batzar Nagusiaren 2006ko martxoaren 21eko 60/147 Ebazpenenak onetsi zituen⁶⁹.

Ebazpen horrek hau xedatzen du VI. atalean: “gizalegez tratatu behar dira biktimak, haien duintasuna eta giza eskubideak errespetatuta, eta beharrezko neurri egokiak hartu beharko dira biktimon eta senitartekoen segurtasuna, ongizate fisiko eta psikologikoa eta intimitatea bermatzeko. Estatuak arduratu behar du bere barne-zuzenbideak, ahal den neurrian, begirune eta arreta berezia eskaintzeaz indarkeriaren edo traumen biktimei, justizia egin eta erreparazioa emateko prozedura juridiko eta administratiboen areagoko traumarik eragin ez dezaten”.

Izandako kalteen erreparazioari dagokionez, IX. atalean hau xedatzen du: “Erreparazioa egokia, eraginkorra eta azkarra izango bada, justizia bilatu beharko du, eta erremedioa eman beharko die giza eskubideei buruzko nazioarteko arauen ageriko urraketei edo nazioarteko zuzenbide humanitarioaren urraketa larriei. Jasandako urraketen eta kaltearen larritasunaren neurrikoak behar dute erreparazioek (...). Estatuak ahaleginak egingo dituzte biktimei erreparazioa eta beste laguntza batzuk emateko barne-programak prestatzen, jasandako kalteen erantzuleak bere betebeharrak konplitzeko modurik edo asmorik ez duenerako (...), eta kasu bakoitzaren inguruabarrak aintzat hartuta, giza eskubideei buruzko nazioarteko arauen ageriko urraketen eta nazioarteko zuzenbide humanitarioaren urraketa larrien biktimek erreparazio osoa eta eraginkorra jaso beharko lukete, hauen bidez:

- a) leheneratzeko neurriak
- b) kalte-ordainak emateko neurriak
- c) errehabilitatzeko neurriak
- d) gogobetetzeko neurriak
- e) “ez errepikatzeko” bermeak

Eta gure azalpenean oinarritzko eskema hori erabiliko dugun arren, ez dator beti bat legegileak Terrorismoaren Biktimak Aitortu eta Osorik Babesteko 29/2011 Legean erabili duenarekin; eta are gutxiago 671/2013 Errege Dekretuan, hura garatzeko erregelamenduan

69 60/147 Ebazpena, Nazio Batuen Batzar Nagusiarena, 2006ko martxoaren 21ekoa, «Oinarritzko printzipio eta jarraibideak, giza eskubideei buruzko nazioarteko arauen ageriko urraketen eta nazioarteko zuzenbide humanitarioaren urraketa larrien biktimek errekurtsioak jartzeko eta ordainak jasotzeko duten eskubideari buruzkoak». Nazio Batuek, A/RES/60/147.

erabilitakoarekin. 29/2011 Legeak 2.1. artikuluan aitortzen du egia dela “ekintza terroristek eragiten duten giza eskubideen urraketa agerian” jartzeko funtsezko balioetako bat. Aurretik, Zioen Adierazpenean azaltzen du legeak bere egiten duela nahiko berria den ideia bat, eta legeko artikuluko guztietan duela eragina, gainera, eta da terrorismoaren biktimak, hain zuzen ere, giza eskubideen urraketan biktima direla. Tesi horrek indartu egiten du, zalantzarik gabe, biktimak arauetan duen estatusa, haren eskubideak gizarte ireki eta demokratikoetako eskubide konstituzional eta unibertsalekin uztartzen baititu, eta Estatuak zer betebeharr juridiko lotesle dituen adierazten baitu hurrenez hurren, terrorismoa jasan dutenei ordain egokia emango zaiela bermatzeko.

Baina edukia artikulatu denean, ez dira egituratu leheneratzeko neurriak, kalte-ordainak ematekoak, gogobetetzekoak eta abar multzokatuta, Nazio Batuen 60/147 Ebazpenean eta orain gutxiko biktimak babesteko beste zenbait legetan jasotzen den bezala (esaterako, Kolonbiako Biktimei eta Lurrak Itzultzeari buruzko Legea)⁷⁰. Beste adierazpen-eskema baten alde egin zen: zazpi titulu (xedapen orokorrak, atentatu terroristaren baten osteko berehalako jarduerak biktimak babesteko, egintza terroristetatik eratorritako eskubideak eta prestazioak, gizarte-babeseko araudia, prozesu judizialean biktimak babestea, aitortpenak eta kondekorazioak, terrorismoaren biktimekiko erakunde-babesa eta laguntza). Hirugarren titulua –zenbait kapitulu ditu– kalteak ordaintzeari buruz ari da (kalte pertsonalak eta materialak); laugarren titulua, berriz, –hori ere zenbait kapitulutan dago egituratuta– gai hauek jasotzen ditu: osasun-laguntza, lan-eskubideak, etxebizitzaren arloko jarduerak, hezkuntzako laguntzak, atzeritarren eskubide espezifikoak eta terrorismoaren biktimei buruzko informazioaren tratamendua.

60/147 Ebazpenaren eskema jarraitzen ez badu ere, ezerk ez digu galarazten Espainian terrorismoaren biktimen babesari buruzko edukia aztertzea, haren gomendioei jarraituz. Ikusgai jartzeko, Nazio Batuen erakundeak zer erabaki duen adieraziko dugu lehendabizi, eta, jarraian, Espainian terrorismoaren biktimak babesteko legerian nola irudikatzen den, adieraziz –ahal denean– zer lorpen eta erronka dituen. Ez dugu gai zabal hau agortu nahi, eta arau horren ildo orokorrenak eta interesgarrienak azpimarratzen saiatuko gara.

IV- Leheneratzeko neurriak

60/147 Ebazpenari jarraituz, leheneratzeak –ahal den guztietan– giza eskubideei buruzko nazioarteko arauen ageriko urraketa edo nazioarteko zuzenbide humanitarioaren urraketa larria izan aurreko egoerara itzuli behar du biktima. Leheneratzeak hartzen du, zer egokitzen den: askatasuna berreskuratzea; giza eskubideez, nortasunaz, familia-bizitzaz eta herritartasunaz gozatzea; bizilekura itzultzea; enplegura bueltatzea, eta ondasunak itzultzea.

Heriotza eragin duen atentatu terroristaren kasuan, logikoki, ezin da erasotako ondasun juridikoa (bizia) leheneratzeko neurririk hartu. Kasu horretarako, kasurik larriena eta muturrekoena izanik, batez ere, kalte-ordainak emateko neurriak (kalte-ordainak zuzeneko senitartekoei) eta gogobetetzeko neurriak artikulatzen dira. Ondorioz, leheneratzeko neurriak, batez ere, atentatu terroristetan lesionatzen dituztenentzat eta bahitzen dituztenentzat

⁷⁰ Kolonbiako barne-gatazka armatuaren biktimei arretoa, laguntza eta erreparazio osoa egiteko neurriak eta beste xedapen batzuk ematen dituen 2011ko 1448 Legea –*Biktimei eta lurrak itzultzeari buruzko Legea*– izenez ezagutua; 2011ko ekainaren 10eko Aldizkari Ofiziala, 48.096. zenbakia, Kolonbiako Errepublikako Kongresuarena– aldarrikatzea eta indarrean sartzeari aurrerapen nabarmena izan da Kolonbia eta nazioarteko komunitaterako, hainbeste zigortu dituzten, hainbestearainoko beharra duten eta hain zaugarriak diren taldeak babesteko; hain zuzen ere, indarkeriaren biktimak babesteko. Arau-gorputz trinkoa da, gaur egunera bitarte bi Erregelamendu Dekreturen bidez garatua (4800 Dekretua, 2011koa, Justizia eta Zuzenbide Ministerioarena “*zeinaren bidez 2011ko 1448 Legea arautzen den, eta beste xedapen batzuk ematen diren*”, eta 4829 Dekretua, 2011koa, Nekazaritza eta Landa Garapeneko Ministerioarena “*zeinaren bidez 2011ko 1448 Legearen IV. Tituluaren III. Kapituluaren arautzen den, lurrak itzultzeari buruzkoa*”). Arau handi horrek lortu nahi du barne-gatazka armatuaren ondorioak pairatu dituzten guztiak ordain ekonomiko eta morala jasotzea, bai eta kendu zizkieten bizi-proiektuak berreskura ditzaten lortzea ere.

diseinatu dira, bai eta mehatxuak jasaten dituztenentzat, mehatxatuak diren familiarrentzat eta ondarea mehatxatzen dietenentzat ere.

Bahiketen biktima direnentzat kalte-ordainak emateko sistema bat aurreikusi da, behin askatasuna eskuratzen dutenerako; kalte-ordainen sistema horrek ditu, batetik, kopuru finko bat bahiketa izateagatik (12.000 €, 29/2011 Legearen 22 bis art. eta Erregelamenduko 14.a) gehi askatasunik gabe pasatako egunen araberako kopuru jakin bat. Kopuruak kalkulatu dira: bider hiru eginez bahituta igarotako egunak eta ondorio askotarako errenta-adierazle publikoa (IPREM/egun), ezintasun iraunkor partzialerako ezarritako muga kontuan hartuz (75.000 €)⁷¹. Horretaz gain, ordaina jaso dezake bahiketa-egintzak eragin ahal izan dizkion kalte pertsonalengatik, hau da, baliaezintasunik gabeko lesio iraunkorrenengatik, edo, bestela, baliaezintasuna eragiten dutenengatik (partziala, osoa, absolutua eta baliaezintasun handia).

Gaur egungo legeriak gairitu du legez kontrako atxilotzeengatik egindako delituaren biktimekiko izan zen bidegabeko egoera, ez baitziren laguntzen araudian sartzen⁷². Ez legeak ez haren erregelamenduak ez dute diskriminazio hori egiten; baina zalantza handia dago jakiteko zer-nolako kalte-ordaina emango dieten askatasunik gabe edukitzeagatik eta atxikita egon diren egunengatik. Badirudi legez kontra atxilotutakoei ezin zaiela aldi baterako ezintasunari dagokion kalte ordaina eman, aldi baterako ezintasunaren lege-definizioa ez baitator bat pertsona horiek bizi izan duten benetako egoerarekin⁷³, eta, gainera, garapen-araua hauei aplikatuko zaielako: “aitortutako prestazioetarako eskubidea izango dute, araudi honen aplikazio-eremuan kontuan hartutako ekintzen ondorioz, bahitu dituzten pertsonen, *baldin eta askatasuna berreskuratzeko baldintzaren bat jarri badiete*,(...)”.⁷⁴

Bahitutakoen senitartekoak izango dira, hildakoen edo lesionatutako beste familia-gune guztiak bezala, atentatu terrorista bat izan eta berehalako jardueren hartzaile. Jarduera horien artetik nabarmentzekoak dira berehalako eta doako laguntza psikologikoa eta psikiatrikoa jasotzea, mediku irizpideak kontuan hartuta haien arreta-beharrei erantzuteko behar duten denboran, betiere, ahalik eta lasterren eta ondoen osatzea helburu izanda (29/2011 Legearen 9. artikulua); laguntzei, kalte-ordainei eta gainerako prestazioei buruzko berriazko informazioa ematea (29/2011 Legearen 11. artikulua) edo laguntza kontsularra edo diplomatikoa, bahiketa terrorista atzerrian izan bada (29/2011 Legearen 13. artikulua). Berehalako prestazio horiek 29/2011 Legearen testuan daude onartuta; baina nahi ez genuen zerbait gertatu da: 671/2013 Erregelamenduan ez direla zehaztu eta garatu, eta edukia bi artikulutara soilik mugatu dela (Erregelamenduaren 30. eta 31. artikulua).

29/2011 Legeak aitorten garbia egin zien **mehatxatuei**. Hala, 2.2. artikuluko h) idatzi-zatian helburutzat jo zuen, besteak beste, “talde terroristen edo inguruko taldeen mehatxuak eta derrigortzeak jasaten dituztenak aitortzea eta haiei laguntzea”. 5. artikuluan (Mehatxatuak) arautzen du: “etengabeko eta zuzeneko mehatxuak edo derrigortzeak jasaten dituztela egiaztatzen dutenei –3 bis artikulua xedatutako eran⁷⁵–, baldin eta erakunde

71 29/2011 Legearen I. eranskineko III. taula: IPREM/egun x 3, gehienez ere, eranskin honetan ezintasun iraunkor partzialerako ezarritakoa. Adibidez, 2013ko IPREM/egun kopuru honetan ezarri zen: 17,75 € eguneko. Demagun, pertsona bat bahituta egon dela martxoaren 1etik 30era; formula hau aplikatuta, kobratuko du: 30 egun x 17,75 € x (3) = 1.597,50 €. Baina, gaitubaldian egondako egunak asko badira, 75.000 € ordainduko litzateke bahituta egondako egunengatik, hori baita I. taulan ezintasun iraunkor partzialerako ezarritako muga.

72 1912/1999 Errege Dekretuak, Terrorismoaren Biktimekiko Elkartasunari buruzko 32/1999 Legea gauzatzeko erregelamenduak, 25.2. artikuluan xedatu zuen: “ez da kalte-ordainik jasoko erakunde terroristetako edo talde armatuetako kideek egindako legez kontrako atxilotzeengatik.

73 Aldi baterako ezintasuna 671/2013 Errege Dekretuaren 10.1 f). artikuluan xedatzen da. Joko da biktima aldi baterako ezintasun egoeran dagoela “osasun-laguntza jasotzen ari eta laneko edo ohiko jarduerak egiteko ezinduta dagoen bitartean”.

74 Letra etzana gurea da bahiketa eta legez kontrako atxiloteta bereizteko, hain zuzen ere.

75 Gehitzeko aldaketa bat izan da, 2012ko Aurrekontuen Legeak egina (2/2012 Legea, ekainaren 29koa, BOE ekainaren 30ekoa). 3 bis artikulua ezarri zituen legean aurreikusitako laguntzak eta prestazioak onartzeko zer baldintza bete behar ziren: lege honetan araututako laguntzak eta prestazioak jasoko dituzte bi egoera hauetakoren batean dauden pertsonen: a) Epai irmoa betez, lege honetan aurreikusitako gertaerengatik eta kalteengatik erantzukizun zibil gisa kalte-ordaina jasotzeko eskubidea aitortu zaienez, eta b) Epai irmorik

terroristek eragiten badizkie, arreta berezia eskainiko diete administrazio publikoek, haien eskumenen esparruan". 671/2013 Erregelamenduak, berriz, arautzen du talde horrek eskubidea duela arreta psikologikoaren kostua finantza diezaioten, baldin eta medikuak agindua bada, muga hauxe jarrita: 3.600 euro tratamendu indibidualizatu bakoitzeko (Erregelamenduaren 33. artikulua); eskubidea duela herriz aldatzeko, etxebizitza uzteko, eskolatzeko-gastuak ordaindurik izateko eta egoera horrekin erlazionatutako beste ezohiko laguntza batzuk jasotzeko (Erregelamenduaren 42. artikulua); lan-jarduna murrizteko, soldata ere proportzionalki gutxituz, edo lan-denbora berrantolatzeke, ordutegia egokituta, ordutegi malgua aplikatuta edo lan-denbora berrantolatzeke enpresan erabil daitezkeen beste modu batzuk aplikatuta⁷⁶, bai eta mugikortasun geografikorako ere, enpresak beste edozein zentrotan hutsik duen lanbide-talde bereko edo maila baliokideko beste lanpostu bat betetzeko lehentasunezko eskubidea izanda⁷⁷ (Erregelamenduaren 44. artikulua), eta administrazio publikoetako funtzionario edo lan-kontratupeko langile direnek, berriz, eskubidea izango dute lana murrizteko, haien lan-denbora berrantolatzeke eta mugikortasun geografikorako⁷⁸ (Erregelamenduaren 45. artikulua).

Lesionatuek, hau da, jarduera terroristaren ondorioz kalte psikiko eta fisikoak izan dituztenek, kontratazioetan hobari-neurrien onuradun izateko eskubidea izango dute⁷⁹, eta laneratzeko eta enpleguari eusteko zailtasun bereziak dituztenek lan-munduan txertatzeko neurrien onuradun izatekoa ere bai⁸⁰ (Erregelamenduaren 46. artikulua).

Hala eta guztiz ere, onartu behar da terrorismoaren biktimei laguntzeko geure legerian gehiago landu behar dela biktimak beren enpleguetara itzultzea errazten eta bultzatzen duten mekanismo eta tresnak bilatzea. Hurrengo atalean (kalte-ordaina emateko neurriak), aukera izango dugu egiaztatzeke babes-sistemak kalte-ordainen gailu indartsu bat eta ondo finkatutako ezohiko pentsioen araudi bat duela aurreikusita. Sistema hori, kalteak konpontzekoa (kalte-ordaina) eta desoreka ekonomikoak zuzentzekoa (pentsioa), osoagoa eta eraginkorragoa izango litzateke, kalte-ordaina eman eta konpentsatzeaz gain, gai balitz lortzeko eta sustatzeko lesionatuak beren lanpostuetara itzultzea, horrela, gizarteari etengabe ekarpena egiten jarraitzeko aukera izango baitute. Sistemak, nola eginda dagoen ikusita, lanpostuetara itzultzea baino aldizkako prestazioak nahiago izatea eragiten duten portaerak eta jarrerak sor ditzake –ezohiko pentsioak nahiago izatea, alegia–. Egoera psikofisikoa itzulezina bada, zalantzarik gabe, pentsio-sistema egokia da. Baina neurri suspengarri gehiago hartu beharko lirateke lanera itzul daitezkeen errazteko, batez ere lan-adinean dauden eta gizarteari ekarpenak egiten jarraitzeko aukera duten lesionatu gazteentzat. Biktimak irabazten du maila pertsonalean, eta gizarteak berak ere bai, maila orokorrean. Talde horri laguntzeko etorkizuneko legeriak bere gain hartu behar duen erronketako bat dugu hori, dudarik gabe.

V- Kalte-ordainak emateko neurriak

60/147 Ebazpenari jarraituz, kalte-ordainak modu egokian eta urraketen larritasunarekiko eta kasu bakoitzaren egoerekiko era proportzionalean eman behar dira, giza eskubideei buruzko nazioarteko arauen ageriko urraketen eta nazioarteko zuzenbide humanitarioaren urraketa larrien ondorio diren kalte ekonomiko ebaluagarri guztiengatik, hala nola kalte

ezean, delituak epaitzeko beharrezko epai judizialak egin edo prozesu penalak hasi dituztenek. Kasu horietan, Estatuko Administrazio Orokorraren eskumeneko organoaren aurrean, zuzenbidean onargarria den edozein frogabidez egiaztatuko dira biktima edo eskubideduna dela, jasandako kalteak zer-nolakoak izan diren, ekintza eta gertaera eragileak nolakoak izan diren eta legez eskatutako gainerako betekizunak betetzen direla.

76 Langileen Estatutuaren Legearen Testu Bategineko 55.4. artikulua xedatutakoa betez –martxoaren 24ko 1/1995 Legegintzako Errege-dekretuak onetsi zuen testu bategina.

77 Langileen Estatutuaren Legearen testu bategineko 40.3 bis artikuluan adierazitako moduan.

78 29/2011 Legearen 35. artikuluan eta berariazko legerian aurreikusitakoa betez.

79 Hazkundera eta enplegua hobetzeko 2006ko abenduaren 29ko 43/2006 Legearen aurreikusiak.

80 Enpleguari buruzko 56/2003 Legearen –abenduaren 26koan– aurreikusitakoarekin bat eginez.

hauek ordaintzeko: a) kalte fisiko edo mentala; b) aukerak galtzea, bereziki enplegu- eta hezkuntza-aukerak eta gizarte-prestazioak; c) kalte materialak eta diru-sarrerak galtzea, lortu gabeko irabaziak barne; d) kalte moralak; e) asistentzia juridikoko edo adituen gastuak, medikamentuak eta mediku-zerbitzuen, zerbitzu psikologikoen eta sozialen gastuak.

Terrorismoaren biktimei emandako laguntzak egin duen ibilbide luzea azaldu dugunean egiaztatu dugu, Espainian, kalte-ordainak emateko neurriak izan direla garrantzitsuenak eta garatu direla gehien, talde hori babesterakoan. Gaur egun kalte-ordainen sistema indartsu bat dago; hori ukaezina da, eta, gainera, ia bakarra munduan. Sistema hori saiatu da arintzen –ahal izan duen neurrian– terrorismoak maila pertsonalean eta familia-ekonomian eragiten dituen ondorio negatiboak, ez dira-eta batere gustagarriak.

Kalte **fisiko eta mentalak** ordaintzeko, ohiko sistema (laguntzen araubide orokorra) eta ezohikoa (elkartasuneko araubide berezia) nahasten dituen mekanismo bat erabiltzen da gaur egun. Kontuan hartu gabe egileak nor izan diren argitzen den, egileak atzematen diren, epaitzen diren eta zigortzen diren, biktimei kalte-ordaina ematen zaie jasandako kalteengatik. Kalte-ordainak mailakatuta ematen dira, eta bi une bereizten dira: lehenengoa, atentatuak eragindako lesioak balioetsi ostean (bai fisikoak bai psikikoak), eta, bigarrena, atentatuaren erantzule izan diren egileei eta konplizeei zigor zibila ezartzen zaienean. Elkartasunari buruzko 32/1999 Legeak ezarritako kalte-ordainen ia mekanismo bera inportatu da, biktimek erantzukizun zibileko ekintzak Estatuaren esku utzi behar baitituzte aurretiaz. Egiaztatzen diren kalteak sailkatuko dira “baliaezintasunik gabeko lesio iraunkortzat”⁸¹ edo “baliaezintasuna eragiten duen lesio iraunkortzat” (modalitate hauetan: partziala, osoa, absolutua eta baliaezintasun handia)⁸². Aldi baterako ezintasunengatik ere ematen dira kalte-ordainak; horretarako kontuan hartzen da, azaldu denez, biktimek zenbat egunez jasotzen duten osasun-laguntza eta zenbat denbora dauden ezinduta lan- edo ohiko jarduerak egiteko⁸³. Igo egin dira ordaindu beharreko kantitateak –aurreko legerian ezarritakoan aldean–, eta bateratu egiten dira lege-testu berean kalte-ordainak emateko bi sistemak; hala, biktimek legeri bakarraren arabera jasoko dituzte, orain, kalte-ordainak; hartara, ezabatu egin da hamarkada batean baino gehiagoan indarrean egon den araudi-bikoiztasuna. (laurogeiko hamarkadaren amaieratik 2011ra bitarte).

Legeria berriaren berrikuntza garrantzitsu bat da kalte-ordaina emateko bigarren unean ezartzen den muga kuantitatiboa, hau da, ebazpen judizial bidez, terrorismoaren delituengatik zigor-kondenatuen erantzukizun zibilaren adierazpena egiten denean. 29/2011 Legearekin, Estatuak jarraituko du terrorismo delituak egiteagatik epai irmoan erantzukizun zibil gisa ezarritako kasuan kasuko kalte-ordainak ordaintzen, ezohiko izaeraz. Kalte-ordain horiek kalte fisiko edo psikikoetara zabalduko dira bakar-bakarrak, eta ezingo dira muga kuantitatibo jakin batzuetatik haragokoak izan⁸⁴. Epailak ezarritako kantitateei Estatuak (kalte-ordainaren lehen unean) aurreratutakoak kendu beharko zaizkie, eta, horrenbestez, aldea ordainduko da. Formula horren bidez ezabatzen saiatu dira Auzitegi Nazionalako epailak ustezko kalte berbererako ezarritako kalte-ordainetan zeuden aldeengatik sortzen diren desberdintasunak eta konparaziozko bidegabekeriak. Egoera horrengatik –bereziki, azken urteetan ezarritako

81 Baliaezintasunik gabeko lesio iraunkorrenatik jasoko diren kalte-ordainak 2004ko urriaren 29ko 8/2004 Legegintzako Errege-dekretuan xedatutakoaren arabera ezarriko dira (Ibilgailu Motordunen Zirkulazioko Erantzukizun Zibilari eta Aseguruari buruzko Legearen Testu Bategina onesten du), laneko istripuek edo langaitasuneko eragindako lesio, mutilazio eta baliaezintasunik eragiten ez duten behin betiko deformazioengatik ematen diren kalte-ordainen zenbatekoei buruzko gizarte-segurantzaren legeria aplikatuz ateratako baremoaren arabera.

82 29/2011 Legearen I. eranskinen I. taulan ezarritakoaren arabera, kalte-ordain hauek emango dira: baliaezintasun handiagatik (500.000 €); ezintasun iraunkor absolutuagatik (180.000 €); ezintasun iraunkor osoagatik (100.000 €); ezintasun iraunkor partzialagatik (75.000 €).

83 Bahiketengatik kalte-ordainak emateko erabiltzen den formularen antzekoa erabilia emango dira kalte-ordain hauek ere: IPREM/egun x 2, gehienez ere 18 hilerokori dagokiona. 29/2011 Legearen I. eranskinen II. taula.

84 Heriotza: 500.000 €; baliaezintasun handia: 750.000 €; ezintasun iraunkor absolutua: 300.000 €; ezintasun iraunkor osoa: 200.000 €; ezintasun iraunkor partziala: 125.000 €; baliaezintasunik gabeko lesioak: 100.000 €; bahiketa: 125.000 €. (29/2011 Legearen 20. artikulua).

kalte-ordainen zenbateko handiengatik– haserrea sortzen hasia zen biktimen artean, bereziki, epaia laurogeiko hamarkadan eta laurogeita hamarreko hasieran emandako biktimen artean.

Ezarritako muga kuantitatiboaz haratago, epai judizialak Estatutik jasotako kopurua baino gehiagoko kalte-ordaina jasotzeko eskubidea onartu dietenek akzio zibilerako eskubidea izango dute, kalteak eragindako delituzko ekintza egin dutenei aldea erreklamatzeko (29/2011 Legearen 21. artikulua).

Legegileak berdintasun-printzipioa indartzeko eta kalte-ordainak emateko bidezko mekanismo bat eta mekanismo berdin bat ezartzeko ahaleginak egin dituen arren, bigarren momentu bati eusteko erabakiak, zeina estuki lotuta dagoen ekintza terroristen erantzule direnaren kontrako zigor-ekintzarekin, haserrea sortzen jarraitzen du terrorismoaren biktimen elkarten artean; izan ere, diskriminatzaile eta desorekatutzat jotzen dituzte legebaremoen arabera emandako kalte-ordainak, ebazpen judizial irmoen kasuan jasotakoan aldean⁸⁵. Agian, biktimen eskari horren konponbidea litzateke kalte-ordainen bigarren unea kentzea (aurreratutako kalte-ordainen eta epaietan ezarritakoan arteko aldea ordaintzea) eta ordainketa bakarra egitea, eta ordainketa hori zigor-epaien mende ez egotea. Zenbateko bateratuak ezarri beharko lirateke, jakina, zeinak kostu handia ekarriko lukeen, eta ikusita gaur egun Espainiak bizi duen krisi ekonomiko eta soziala, ez dirudi erraz eta azkar hartzeko moduko erabakia izango denik.

Kalte fisiko eta psikikoen arloko kalte-ordainak emateko neurrien arloan, beste bi ohar egin behar dira: bat, ondorioak larriagotzeari loturikoa, eta, bestea, atzerrian izandako atentatu terroristek eragindako kalteengatik eman beharreko kalte-ordainei buruzkoa.

Denborarekin okerrera egiten duten ondorio eta ezintasunen kasuetarako, berraztertze mekanismo bat aurreikusitako da, lesioen larritasuna areagotu delako ordaindutakoa baino kantitate handiagoa badagokie (29/2011 Legearen 28.1. artikulua, eta Erregelamenduaren hirugarren ataleko 49.1.a).

Atzerrian izandako atentatu terroristek eragindako kalteengatik eman beharreko kalte-ordainei dagokienez, berriz, 29/2011 Legeak arauketa berri bat sartu badu ere, tamalez, polemika sortu du. Alde batetik, atentatua atzerrian gertatu eta Espainiako nazionalitatea duten biktimak badaude, eta atentatua normalean Espainian jarduten duten taldeek egin badute, edo Espainiako Estatuaren edo interesen kontrako atentatua izan bada, biktimei laguntzeko eta haiek babesteko legerian aurreikusitako kalte-ordain guztiak jasoko dira. Kopuru bera jasoko dute Espainiak atzerrian dituen kontigenteetako kide izan eta bake- eta segurtasun-operazioetan parte hartzen dutenek, baldin eta atentatu terroristaren bat jasan badute (29/2011 Legearen 6. artikulua). Egoera konplikatu egiten da, ordea, eta zenbaitentzat diskriminatzaile ere bihurtzen da, atzerrian izandako atentatu terrorista bi egoera horietakoren batean sartzen ez bada (Espainian jarduten duten taldeek egitea atentatua eta Espainiako interesen kontrakoa izatea, edo bake- eta segurtasun-operazioen bateko kideen kontrakoa izatea). Kasu horietarako (turistak, enpresaburuak, ikasleak, negozio-bidaia eta abar), ezohiko laguntza bat dago aurreikusita, hain zuzen ere diru-laguntza bat soilik jasotzea, biktima atentatua izan den lekuan bizi den edo ez kontuan hartuta⁸⁶.

Biktimen artean sortzen diren desberdintasunez gain, atzerrian izaten diren atentatu

85 Besteak beste, Covitek (EAeko terrorismoaren biktimen elkarteak) eskatu dio Barne Ministerioari berehala aldatzeko Terrorismoaren Biktimak Aitortu eta Osorik Babesteko 29/2011 Legea, biktimak "modu onartezinean diskriminatzen" dituelako. Gaitzetsi du arauak gaur egunera arte terrorismoaren biktimen artean egon ahal izan den desberdintasun handiera sortzen duela, 29/2011 Legeak konparaziozko bidegabekeria bat ezartzen duelako biktimagileentzat epai kondenatzailerik ez dagoen biktimekiko. Ikus <http://www.europapress.es/nacional/noticia-covite-solicita-modificacion-ley-victimas-discriminar-forma-intolerable-damnificados-20130924124103.html#AqZ1b1HFu6k1ASSV>.

86 Espainiarrak bere ohiko bizitokia ekintza terrorista izaten den herrialdean badu, 29/2011 Legearen I. eranskineko I., II. eta III. tauletan ezarritako kopuruen % 50 jasoko du. Espainiarrak bere ohiko bizitokia ekintza terrorista izan den herrialdean ez badu, 29/2011 Legearen I. eranskineko I., II. eta III. tauletan ezarritako kopuruen % 40 jasoko du.

terroristek eragiten dituzten kalteei buruzko arauketa horrek nolabaiteko ziurgabetasuna eta kexaren bat ere eragin du gardentasun faltagatik. Erregelamendua ez zen ausartu definitzera eta zehaztera noiz jo behar den atentatu bat atzerrian izandako Espainiako interesen kontratatzat edo zer den normalean Espainian jarduten duen talde terroristak bat. Kasu bakoitza Defentsa, Kanpo Arazoetako edo Barne Ministerioei eskatutako “txostenen” bidez ebatziko da. Eta administrazio-prozeduretan sartuta dauden aldeek soilik eskuratu ahal izango dituzte txosten horiek. Gizarteak, beraz, ez du modurik jakiteko noiz den horrelako bat. Dudazko konponbide horrek berdintasun eta segurtasun juridikoko printzipioei eragin diezaieke, eta, horrenbestez, zalantzarik gabe, etorkizuneko arautegi batean berriz formulatu beharko litzatekeen lege-arau horietako bat da hau.

Aukerak galtzeagatik kalte-ordainak ez dira berariaz araututa ageri izenburu horrekin, terrorismoaren biktimei kalte-ordainak emateko legerian. Lege-katalogoan ez dago azalpen horrengatik kantitate bat ordaintzea aurreikusten duen kalte-ordainen prestaziorik. Epailleek balioetsi dute gai hori kalte-ordainak ezartzeko garaian, zigor-epai batzuetan⁸⁷.

Dena den, nabarmentzekoa da terrorismoaren biktimek –aurretik aztertu dugunez– ezohiko pentsioak jaso ditzaketela egintza terroristek eragindako ezintasun iraunkorrengatik (ezintasun iraunkor oso, absolutu eta baliaezintasun handiagatik). Aldizkako prestazioen sistema hau salbuetsita dago zergak ordaintzetik, eta oinarri arautzailea bikoiztuta dute; lortu nahi dute, besteak beste, galdutako gaitasun psiko-fisikoak konpentsatzea; izan ere gelditu zaizkien ondorioak iraunkorrak dira, eta ez die uzten beren ohiko lan-zereginak betetzen edo horien ondorioz ez dira gai beste edozein lan- edo ekoizpen-jarduera egiteko.

Kalte materialengatik emango diren kalte-ordainek, berriz, hauek estaliko dituzte: pertsona fisikoen etxebizitzetan izandako kalteak; merkataritza- eta industria-establezimenduetan edo enpresaren ekoizpen-elementuetan izandakoak; alderdi politikoen, sindikatuen edo gizarte-erakundeen egoitzetan izandakoak, eta ibilgailuetan izandakoak. Indarrean dagoen legeriak mekanismo mailakatu bat du aurreikusita kalte horiek ordaintzeko: lehendabizi, aseguru-sistemek jardungo dute (esate baterako, Aseguruen Konpentsazio Partzuergoak); bigarrenez, eskumena duten administrazio publikoek bereziki aurreikusitako kalte-ordainen mekanismoen txanda izango da (esate baterako, EAEn, Terrorismoaren Biktimei Aitorpena eta Erreparazioa egiteko ekainaren 19ko 4/2008 Legeak ezartzen ditu Euskal Autonomia Erkidegoaren barruan izandako terrorismo-ekintzen ondorioz ondasun higiezinetan edo higigarrietan izandako kalte materialak ordaintzeko laguntzak), eta hirugarrenez, terrorismoaren biktimei laguntzeko eta ordainak emateko Estatuaren oinarritzko legeria sartuko litzateke (29/2011 Legea eta laguntza horien “izaera subsidiarioa” aldarrikatzen duen Erregelamendua).

Kalte moralak baztertu egin zituen espresuki 1912/1999 Errege Dekretuak, hain zuzen ere, Terrorismoaren Biktimekiko Elkartasunari buruzko Legea garatzeko Erregelamenduak, 2.2. artikuluan. Araudi berriak (29/2011 Legeak eta Erregelamenduak) ez du bazterketa hori errepikatu. Egia da, halaber, aurreko araudiak nahiz gaur egungoak arreta berezia eskaintzen diola hiltzeagatik eman beharreko kalte-ordainari, kalte-ordaina ematen baitie hildakoen familiakoei⁸⁸. Zenbateko horiek atentatu terroristak batean hildako pertsonak sortzen baditu

87 Esate baterako, lesio larriak jasan zituen biktima bati zer kalte-ordain eman ezartzerakoan kontuan hartu zen haren kirol profesionaleko karrera eten egin zela, besteak beste. Ikus http://www.diariosvasco.com/prensa/20061205/politica/condenados-anos-etarras-atentaron_20061205.html

88 4. artikuluan 2. paragrafoan xedatutakoarekin bat eginez, hauek dira eskubide horren titularrak, lehentasun-ordenaren arabera: a) Hildakoaren ezkontidea, legez bereizita ez badaude, edo antzeko afektibotasun-harremana izanik, hil aurretik, gutxienez, bi urtean harekin bizi izan den pertsona; hala ere, elkarrekin seme-alabarik izan badute, nahikoa izango da elkarbizitza; eta hildakoaren seme-alabak. b) Aurrekorik ez badago, hartzaile izango dira segidako ordena honetan, zeina baztertzaila izango den, hildakoaren gurasoak, bilobak, anai-arrebak eta aitona-amonak. c) Aurrekorik ez badago, hildakoarekin bizi zen pertsonaren seme-alabak, eta hildakoak familia-harrera iraunkorrean dituen adingabeak, baldin eta haren mendeko badira ekonomikoki. a) idatzi-zatian aurreikusitakoa batera gertatzen bada, diru-laguntza erdibanatu egingo da: erdi bat ezkontide edo bizikidearentzako izango da, eta beste erdia, seme-alabentzat, zeina zati berdinetan banatuko den seme-alaben artean. Bi pertsonak edo gehiagok ahaidetasun bera badute, zenbateko osoa zati berdinetan banatuko zaie.

ere, familiakoei ematen zaizkie *berez*, pairatutako minagatik. Ez da sortutako min fisikoagatik (heriotza) hildakoari ematen zaion kalte-ordain bat. Baizik eta senitarteko jakin batzuei ematen zaion kalte-ordain bat (lehentasun-ordena baztertzaila baten arabera), pertsona horren heriotzak eragin duen sufrimenduagatik. Familiar horietako zenbait testamenturik gabeko jaraunspenerako eskubidea luketenekin identifikatuagatik ere, emandako kalte-ordaina ezin da nahastu jaraunspen-bidean egokitu ahal diren beste kantitate edo eskubide batzuekin.

Laguntza juridikoaren edo adituenaren gastuei dagokienez, 29/2011 Legeak 48. artikuluan xedatu zuen Doako Laguntza Juridikoan ezarritako eran auzitan aritzeko nahikoa baliabiderik ez dutela egiaztatzen duten terrorismoaren biktimek eskubidea dutela doako defentsarako eta abokatuaren eta prokuradorearen doako ordezkari izateko, biktima izate horrek zuzenean edo zeharka eragiten dituen administrazio-prozesu eta -prozedura guztietan. Edonola ere, doako laguntza juridikoa izango dutela bermatuko zaie berehala, hala eskatzen duten terrorismoaren biktimei. Hala ere, gerora doako laguntza juridikorako eskubidea onartzen ez zaienek ordaindu egin beharko diete abokatuari eta prokuradoreari, hala badagokio, egindako lanagatik dagozkien zerbitzu-sariak.

Hala ere, 2013. urtean hobekuntza nabarmen bat izan zen terrorismoaren biktimentzat; izan ere Tasa Judizialen Lege polemikoak⁸⁹, 4.2. artikuluan, hau ezarri zuen salbuespenen artean: “ikuspegi subjektibotik, salbuetsita daude kasu guztietan tasa hau ordaintzetik: a) Doako laguntza juridikorako eskubidea aitortu zaienak, horretarako baldintzak betetzen dituztela egiaztatzen badute, eskubide hori arautzen duen arautegiaren arabera”. Horretaz gain, Justizia Administrazioaren eremuan tasen araubidea eta doako laguntza juridikoaren sistema aldatzen dituen 3/2013 Errege Lege Dekretuak doako laguntza juridikoari buruzko 1/1996 Legearen⁹⁰ 2. artikulua aldatu zuen, eta g hizkia sartu zion, xedatzeko terrorismoaren biktimek eskubide hori izango dutela, auzitan aritzeko baliabiderik duten edo ez kontuan hartu gabe. Berehalakoa izango da eskubide hori, biktima izatearekin erlazionatutako, hortik eratorritako edo horren ondorio diren prozesuetan. Eskubide hori kausadunek ere izango dute, biktima hil bada.

Doako justiziarako aukera izateko, biktimatzat hartuko da salaketa edo kereila bat jartzen denean, edo atal honetan azaldutako delituren bategatik zigor-prozedura bati hasiera ematen zaionean, eta biktima izango da zigor-prozedura indarrean dagoen bitartean, edo, bukatu ondoren, kondena-epaia eman bada. Doako justizia izateko aukera galdu egingo da absoluzio-epai irmoa ematen bada edo zigor-prozedura irmoki artxibatzen bada, baina ez du une horretara bitarte doan izandako prestazioen kostua ordaindu beharrik izango.

Erregulazio honetatik hau ondoriozta badaiteke ere, hau da, eskubide hori terrorismoaren biktima guztiek eta prozedura guztietan dutela (penalak, administrazioarekiko auziak, laboralak: “*biktima izatearekin erlazionatutako, hortik eratorritako edo horren ondorio diren prozesuak*”), epaitegi eta auzitegi-tako eguneroko jardunak egiaztatuko du legegilearen aurreikuspena eraginkorra izan den; izan ere, lege-testuan arautu dena kontuan hartuz, biktimatzat hartuko da salaketa jarrita, eta egoera horrek bere horretan jarraituko du zigor-prozedurak dirauen bitartean, edo kondena-epaia eman arte. Zoritzarrez, Espainian, terrorismoaren biktima askok ez du izan delitu horien egile edo konplizeen kontrako zigor-prozesurik ere, era askotako arrazoiak tarteko: aspaldiko gertaerak izatea eta salaketarik jarri den ere ez agertzea; argitu gabeko atentatuak izatea eta egileak ezezagunak izatea eta jarduerak artxibatzea; preskribatzea; administratiboki soilik onartutako egintzak izatea, eta abar. Kasu horietan, administrazio bidean onartzen zaie biktima-izaera, kalte-ordainak emateko, ohorezko kondekorazioak emateko edo ezohiko pentsioak emateko ebazpenen bidez. Bidegabeko desberdintasunak edo diskriminazioak saihesteko, zigor-salaketarik

89 10/2012 Legea, azaroaren 20koa, zeinaren bidez hainbat tasa erregulatzen diren Justizia Administrazioaren eta Toxikologia eta Auzitegi Zientzia Institutu Nazionalaren eremuan. BOE, 2012ko azaroaren 21ekoa. 280. zenbakia.

90 BOE, 2013ko otsailaren 23koa. 47. zenbakia.

badagoen, prozedurarik irekita badagoen edo kondena-epairik badagoen ez dakiten biktima horientzat nahikoa behar luke izaera hori egiaztatzen dion agiriak –ebazpen bidez onartzen da–, doako justizia izateko eta tasak ordaintzetik salbuesteko eskubidea izateko.

Medikamentu eta mediku-zerbitzuen gastuei dagokienez, berriz, 29/2011 Legearen 32. artikulua xedatzen du biktimek mediku-tratamenduak, protesiak eta ebakuntza kirurgikoak finantzatzeko berariazko laguntzak jaso ditzaketela, une batean horrelako baten beharra dutela egiaztatzen badute, eta atentatu terroristarekin erlazionaturik badago, eta aseguru-sistema publiko edo pribatu batek edo kalte-ordainen erregimen publikoak edo terrorismoaren biktimei laguntzak ematekoak estali ez baditu. Bestalde, 671/2013 Errege Dekretuak, 29/2011 Legearen Erregelamendua onesten duenak, hauxe xedatu zuen 11. artikuluan (atentatu terroristetan jasandako lesioak kalifikatzen ditu): “txosten, froga edo miaketa osagarrien kostua Estatuko gastuen aurrekontuko dagokion saileko kredituekin ordainduko da, eta Barne Ministerioak dagozkion diru-sarrerak egingo dizkio Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Orokorrari”.

Zerbitzu **psikologikoen eragindako gastuak ordaintzeko** –hurrengo epigrafean helduko diogu berriz gai honi– 3.600 euro emango dira banan-banako tratamendu bakoitzeko. Hiruhileko amaituko ordainduko zaio tratamendu horretan aritutako profesionalari, dagokion ordain-sarien jatorrizko ordainagiriak aurkeztu ondoren. Kopuru horiek ordainduko dira baldin eta biktimek, mehatxatuek, horien senitartekoen edo bizikideek aparteko profesional baten zerbitzuak erabiltzen badituzte; izan ere, Erregelamenduak xedatzen du aldaera hori erabiliko dela laguntza psikologiko espezializatua jasotzeko administrazio publikoen artean edo horretan espezializatutako pribaturen batekin hitzarmenik ez dagoen kasuetan. Alderdi horri dagokionez, esan behar da aparteko profesionalen bidezko banan-banakako tratamenduak nagusitu direla, beste edozer aukeraren aurretik.

Hileta-gastuak ordaintzea espresuki gehitzen da biktimei buruzko Erregelamenduan, hain zuzen ere, 29/2011 Legean xedatutakoa garatzeko (12. artikulua), zeinak adierazi baitzuen Estatuko Administrazio Orokorrek ordainduko dituela atentatu terroristen ondorioz hiltzen direnen garraio-, ehorzketa- eta lurperatze- edo errausketa-gastuak. Aseguru-poliza batek estaltzen ez dituen gastuak ordaintzeko (edo gizarte-laguntzako beste edozein sistemak bere gain hartzen ez dituenak)⁹¹ 6000 euro ordainduko dira, gehienez ere, ordainagiriak eta bestelako agiriak aurkezten badira (Erregelamenduaren 8. artikulua).

Laguntza publikoen bidez **tasa akademikoak** ere ordain daitezke, legegileak salbuespena egiteko gonbita egiten baitu. Izan ere, 29/2011 Legeak 38. artikuluan ezartzen du “eskumena duten administrazio publikoen eta, hala badagokio, hezkuntza-agintaritzek beharrezko neurriak hartuko dituzte, hezkuntza-maila guztietan, terrorismoaren biktimak eta jarduera terroristaren eraginez kalte fisikoak edo psikikoak jasan dituzten biktimen seme-alabak ikasketa-zentro ofizialetan era guztietako tasa akademikoak ordaintzetik salbuespena geratuko direla bermatzeko”. Baina badirudi Erregelamendu berriak salbuespen horren arauketa murrizgarri bat egin duela, eta hezkuntza-prestazio horren atzerapen gisa interpreta daitekeela, biktimen alde ondo finkatuta zegoen arren. Zehazki, ikusi da tasa akademikoen salbuespena izango duten hartzaileak mugatu egiten direla. 29/2011 Legean salbuespena zaurituei aplikatuko

91 Estatu Kontseiluaren 2013ko uztailaren 4ko Erregelamendu-proiektuari buruzko Irizpenean, kontsultarako goi-organoak bere iritzia eman zuen arauketa horri buruz, eta adierazi zuen “aseguru-poliza batek gastu bat estal dezakeela baina zati batean bakarrik, aseguraturako kopurua aseguratzailerak ezbehar bakoitzeko ordaindu beharreko kalte-ordainaren gehiengoa izaten baita” (Aseguru-kontratuaren urriaren 8ko 50/1980 Legearen 27. artikulua). Egoera horietan ez litzateke estalita egongo gastu horien parte bat, eta horixe ordainduko luke Administrazioak. (...) kontuan hartzekoa da gastu horiek bere gain har ditzaketela beste era bateko erakunde publiko edo pribatuak, aseguru-kontraturik egon gabe. Adibide gisa, gorpuk nola lekualdatu, lurralde nazionaletik kanpo egindako operazioetan hildako Indar Armatuak, Guardia Zibileko eta Polizia Nazionaleko kideen gorpuzkiak berreskuratzeko, identifikatzeko, lekualdatzeko eta ehorzteko Protokoloan zehazten da, zeina 2004ko abenduaren 30eko 2394/2004 Errege Dekretuaren bidez onetsi zen. Ikus Estatu Kontseiluaren 566/2013 Irizpena Terrorismoaren Biktimak Aitortu eta Osorik Babesteko irailaren 22ko 29/2011 Legearen erregelamendua onesten duen Errege Dekretuaren proiektuari buruzkoa (2013ko uztailaren 4koa).

zaiela arautzen da, baina Erregelamenduan, berriz, zaurituak mugatu egiten dira eta “kalte iraunkorrak jasan dituzten zauritu” izan behar dute. Muga horri eusten bazaio, egoera bitxi bat izango dugu: eskubide bat galtzea, askotan erabili dena eta biktimen artean oso zabaldua dagoena; izan ere, atentatu terroristak baten ondorioz ezintasun iraunkorrak dituztela egiaztatzen dutenak bakarrik geratuko dira tasa horiek ordaintzetik salbuetsita.

Oro har, eta **zenbait gastu-kasu aplikatzen bazaie**, terrorismoaren biktimek eskubidea dute **ezohiko laguntzak eskatzeko edo ofizioz eskuratzeko**, behar pertsonalak edo familia osoarenak arintzeko edo erregelamendu honetan aurreikusitako laguntzen edo kalte-ordainen araubideak behar bezala estali ez dituenak arintzeko. Kalte pertsonalen kasuan, laguntzak gizarte-, osasun-, hezkuntza-beharrak edo behar psikologikoak estaltzeko izan daitezke; Barne Ministerioaren eskumeneko organoek balioespena egin behar dute aurrez, dena den. Kalte materialen kasuan, berriz, etxebizitza egokitzeko edo aldatzeko gastuak ordaintzeko izan daitezke laguntzak, atentatu terroristak eragindako ondorioengatik beharrezkoa dela ikusten bada, bai eta ekintza terroristaren ondorioz izan daitezkeen beste behar pertsonal edo familiak batzuk ordaintzeko ere. Azaldu dugunez, mehatxatuta daudela egiaztatzen duten pertsonak herriz aldatzeko gastuak, etxebizitza uzteko gastuak, eskolatzeko-gastuak eta egoera horrekin zerikusia izan dezaketen beste gastu batzuk ordaintzeko laguntzak jaso ditzakete.

VI- Errehabilitatzeko neurriak

60/147 Ebazpenaren arabera, errehabilitatzeko neurrietan sartu behar dira mediku-arreta, arreta psikologikoa, zerbitzu juridikoak eta gizarte-zerbitzuak.

Mediku-arreta bi une jakinetan ematen da: bat urgentea izaten da (berehalako neurria), eta bestea asistentzia geroratu (sendatzeko eta osatzeko neurria). Berehalakoaz 29/2011 Legeak hau xedatzen du: **“urgentziako osasun-laguntza** Osasun Sistema Nazionala osatzen duten organo eta erakundeek emango dute, horien funtzionamendu-arauetan ezarritako eran. Osasun-agintariek eta osasun-establezimenduetako zuzendariek prozedura bereziak hartuko dituzte biktimen senitartekoak lokalizatzeko eta haien egoerari buruzko informazioa emateko. Barne Ministerioak izango du ahalmena agintari horietatik eta osasun-zentroetatik terrorismoaren biktimei eta haien senitartekoei laguntzeko zerbitzuak ondo emateko beharrezko informazioa eskuratzeko” (10. artikuluko 1. eta 2. hitz-tarteak). Egia esan, arauketa horrek ez du garrantzizko berrikuntzarik ekarri larrialdiko beste edozein egoeratan eman beharko litzatekeen laguntzaren aldean (izan hondamendi naturala, istripu bat, beste indarkeriazko delituren bat eta abar). Gainera, tautologiko samarra ere bada “biktimen senitartekoak lokalizatu eta haien egoerari buruzko informazioa eman” hori arautzea, ospitaleetako eta asistentzia-unitateetako osasun-arloko langileen oinarrizko jardueretako bat baita, eta ez soilik, gainera, biktimenganakoa, baizik eta, oro har, paziente guztienganakoa.

Legegileak bigarren xedapen gehigarrian ezarritako aurreikuspena da berrikuntza nabariena, Azterketa Batzorde bat sortzea arautzen baitu Osasun Sistema Nazionalaren Lurralde arteko Batzordearen barruan. Hain zuzen ere, Batzorde horren barruan sortuko da, 29/2011 Legea indarrean sartu eta urtebetean, terrorismoaren biktimen tratamendua aztertzeko batzordea, lege horretan kontuan hartutako osasun-neurrien plangintzari teknikoki laguntzeko eta plangintza hori bideratzeko, osasun-protokoloa aplikatzeko beharrezkoa dena eta osasun-sektoreak alor honetan arreta espezializatua emateko beharrezkoak direla jotako beste edozer neurri balioesteko eta proposatzeko. Autonomia erkidegoetako ordezkariak osatuko dute Osasun Sistema Nazionalaren Lurralde arteko Batzordearen barruko Terrorismoaren Biktimen Tratamendurako Batzordea. Batzorde horrek urtero txosten bat egingo du, eta Lurralde arteko Batzordearen osoko bilkuran aztertuko da. Gaur egun oraindik ez da sortu Azterketa Batzorde hori, eta, horrenbestez, bi urteko atzerapena du legegileak aurreikusitako epearekiko.

Gerora ematen den osasun-laguntza: “mediku-tratamenduak, protesiak eta ebakuntza

kirurgikoak finantzatzeko berariazko laguntzak, une horretan horrelako baten beharra dagoela egiaztatzen bada, eta atentatu terroristekin erlazonaturik badago, eta aseguru-sistema publiko edo pribatu batek edo egintza terroristen biktimei kalte-ordainak edo laguntzak emateko araubide publikoak estali ez baditu (...). Kalte-ordaina emango zaie, halaber, mediku-tratamenduen gastuak ordaintzeko, pertsona horiek izan dezaketen beste edozein aurreikuspen-sistemak estali ez duen zenbatekoan. Laguntza horiek ez dira bateragarri izango osasun-sistema publikoak azalpen berberetarako ezarritakoekin, eta ez dute kalte-ordainik jasoko prestazioa sistema horrek estaltzen badu (29/2011 Legearen 32. artikulua)”.

Laguntza psikologikoa –mediku-laguntzarekin gertatzen den bezala– bi unetan ematen da: berehala, eta atentatu terroristek eragindako ondorioen tratamendu espezializatu gisa, geroago. Urgentziaz ematen den laguntzari buruz hitz egin dugu jada (bahitutako senitartekoei ematen zaien arretari buruz aritu garenean); ezaugarri ditu berehala ematea eta doakoa izatea. Zerbitzu hori emateko, Estatuko Administrazio Orokorrek egoki irizitako hitzarmenak egingo ditu beste administrazio publiko batzuekin edo erakunde pribatuekin berehalako sistema bat, sistema koordinatu eta behar bezala antolatutako bat egituratzeko, banakoaren mailan, atentatu terrorista baten ondorioak arintzeko gai izan dadin (29/2011 Legearen 9. artikulua). Hitzarmen horiek ere oraindik egiteke daude, Erregelamenduaren 30. artikulua ez baitu ezer zehaztu horri buruz, eta esan daiteke, ez duela deus ere esan nahi gaiari buruz, urgentziazko arreta psikologikoa emateko balizko hitzarmen horiek aipatu ere ez dituelako egiten.

Aldiz, atentatu terroristekin erlazonatutako ondorioen geroko tratamendu psikologikoa badu erregelamendu garapena, nahiz eta nahikoa ez izan. Aitortu behar da biktimei eta horien senitartekoei era horretako tratamenduak finantzatzeko ematen zaien laguntza publikoa nabarmen igo dela (3.600 eurora arte). Baina igoera nabarmen horrek distira galtzen du betekizun formalak egiaztatu beharko direlako, eta prestazioa onartzea/ukatzea eztabaidagarria izaten delako. Indarrean dagoen Erregelamenduak eskubide hori nola diseinatu duen ikusita, oinarrizko planteamendua da “beharrezko hitzarmenak egitea Estatuko Administrazio Orokorren eta beste administrazio publiko edo erakunde pribatu batzuen artean laguntza-zerbitzu hori emateko”. Hitzarmen horiek –gaur egunera arte– ez ditu bultzatu sekula Espainian terrorismoaren biktimei laguntzeko eskumena duen administrazioak. Horrelakorik ezean, beharrezko diren banakako tratamenduen kostuak Estatuko Administrazio Orokorrek finantza ditzakeela aurreikusten du legegileak. Baina laguntza ekonomiko horiek eskuratzeko Barne Ministerioaren Biktimei Laguntzeko Zuzendaritza Nagusiak zer esaten duen hartuko da aintzat. Hala, administrazio-organoren horrek erabakiko du “*aurreikuspeneko sistema publikoak edo pribatuak emandako tratamendu psikologikoa ekintza terroristek eragindako traumara ez dela egokitzen*” langile tekniko espezializatuekin kontatu gabe, hain eragiketa delikatu eta kualifikatu horretan. Biktima bat balioesteko, eta tratamendu psikologiko jakin bat komeni zaion edo egokia den zehatzeko, Psikologia Klinikoko espezialitateko edo Psikologo Orokor Sanitarioa titulu ofizialak eduki behar dira (titulu horiek oraindik onetsi gabe daude). Horrenbestez, Zuzendaritza Nagusiak egingo du biktimen egoera psikologikoaren balioespena, arautu gabeko irizpideak izanda eta dagokion titulazio akademikorik izan gabe, eta, are larriagoa dena, erabakiko du jasotzen ari diren tratamendua egokia den. Arauketa horrek –arauan idatzita nola ageri den kontuan hartuta– bidegabekeria-kasuak eragin ditzake hartutako erabakietan, batez ere, elementu edo betekizun arauturik ez dagoelako administrazio-organoren horren iritzia araberako gaitasuna kontrolatzeko.

Zerbitzu juridikoei dagokienez, 29/2011 Legeak 51. artikulua bidez Auzitegi Nazionalaren Terrorismoaren Biktimei Informazioa emateko eta Laguntzeko Bulegoa sortu zuen; zereginen artean ditu: terrorismoaren biktimei eragiten dieten prozeduren egoerari buruzko informazioa ematea; terrorismoaren biktimei berauen zigor-prozesuekin eta administrazioarekiko auziekin erlazonatutako guztiaren gaineko aholkua ematea; epaiketetara joateko laguntza pertsonala eskaintzea kaltetuek kausa duten egintza terroristekin erlazonatutako epaiketetan; biktimen segurtasuna eta intimitatea babestea parte hartzen duten prozesu judizialean, legez kontrako esku-sartzeetatik edo larderia- eta errepresalia-egintzetatik eta era guztietako irain-

eta laidotze-egintzetatik babesteko; biktimari informazioa emateko bideak ezartzea espetxe-zigorra betetzearekin zerikusia duen guztiari buruz, bereziki zigorrak osorik betetzen diren arte, zigortuei onurak ematen edo espetxetik ateratzen diren kasuetan”.

Justizia Ministerioak, gaur egun, programa informatiko bat ezarri du Terrorismoaren Biktimen Bulegoan, zeinak “biktimei aurrez aurreko laguntza emateko ohiko metodoa eta bulego elektroniko baten berezko abantailak batera izateko” aukera ematen duen. Hala, terrorismoaren biktimek telematikoki izan dezakete beren prozedura judizialen egoerari buruzko informazioa. Terrorismoaren Biktimei Laguntzeko Bulego Elektronikoa izena eman zaio aplikazio horri, eta eskuragarri dago Justizia Ministerioaren web-orrialdean. Internetera konektatuta dagoen edozein ordenagailutatik sar daiteke bulego elektroniko horretara. Erabiltzaile-gako bat eta pasahitza eskatu behar dira; horiek pertsonalki entregatuko zaizkio interesdunari, kaltetua dela egiaztatu ondoren.

Gizarte-zerbitzuei dagokienez, azpimarratzekoa da diru-laguntza publikoen bidez finantzatzen dela “Terrorismoaren biktimei eta haien senitartekoei laguntzeko proiektua, haien banakako edo taldekako behar material, sanitario, psikologiko, sozial, laboral edo legalei laguntzeko, bereziki ohiko laguntza motekin edo Barne Ministerioak emandako laguntzarekin artatu ezin diren egoeratan izaten direnak, edo erakundeen jarduera-proiektuen bidez eraginkorrago arta daitezkeenak”. Proiektu horiek biktimen elkarte edo fundazioek gara ditzakete, eta zenbait administrazio publikok laguntzen dituzte diruz; nabarmentzekoak, Barne Ministerioak ematen dituen diru-laguntzak⁹². Proiektu horiek gauzatzeko gizarte-langileak, adituak, psikologoak eta abar kontrata daitezke, zenbait programa garatzeko, hala nola biktimak lagun hartutako programak, biktimei gizarte-laguntza ematekoak, gizarte terrorismoaren fenomenoari buruz sentsibilizatzekoak eta biktimak oroitzekoak. Barne Ministerioan bertan gizarte-laneko talde bat ari da lanean biktimei babes osoa eskaintzeko diren gizarte-programak garatzen⁹³.

VII- Gogobetetzeko neurriak

60/147 Ebazpenaren arabera, *gogobetetzeko neurriek*, beharrezkoa eta egokia denean, neurri hauek guztiak edo parte bat hartu behar dituzte: a) Ez dela urraketa gehiagorik egingo lortzeko neurri eraginkorrak; b) Gertaerak egiaztatzea, eta egia publikoki eta osorik ezagutaraztea, baldin eta ezagutarazte horrek ez badu kalte gehiagorik sortzen, edo biktimen, haien senitartekoen, lekukoaren edo biktimari laguntzen edo urraketa gehiago izan ez dadin parte hartu duten pertsonen segurtasuna eta interesak mehatxatzen ez baditu; c) Desagertuak, bahitutako haurren nortasuna eta hildakoen gorpuak bilatzea, eta horiek berreskuratzen, identifikatzen eta biktimaren nahi esplizitu edo ustezkoaren arabera, edo haren familia edo komunitatearen jarduera kulturalen arabera berriz ehorzten laguntzea; d) Adierazpen ofizial bat edo erabaki judizial bat ematea biktimen eta haiekin estuki lotutakoaren duintasuna, izen-ona eta eskubideak lehengoratzeko; e) Barkamen publiko bat, gertatutakoa aitortu eta erantzukizunak onartzen dituen; f) Zigor judizialak edo administrazioak aplikatzea urraketen erantzuleei; g) Biktimenzako gorazarre- eta omenaldi-ekitaldiak egitea; h) Egindako urraketen azalpen zehatza sartzea giza eskubideei buruzko nazioarteko arauen eta nazioarteko zuzenbide humanitarioaren irakaskuntzan eta maila guztietako material didaktikotan.

Orain arte esaten aritu gara kalte-ordainak emateko neurrien eremuan izan dela Espainian

92 Ikus INT/2026/2012 Agindua, irailaren 21ekoa, terrorismoaren biktimei laguntzeko helburua duten diru-irabazi asmorik gabeko elkarte, fundazio eta erakundeei zuzendutako laguntzak emateko deialdiaren oinarri arautzaileak ezartzen dituena. BOE, 2012ko irailaren 26koa. 232. zenbakia.

93 Ikus 400/2012 Errege Dekretua, otsailaren 17koa, Barne Ministerioaren oinarriko egitura organikoa garatzen duena (BOE. 2012ko otsailaren 18koa, 42. zenbakia); Terrorismoaren biktimei laguntzeko zuzendari nagusiaren egitekoak, 12.2. artikulua c) idatzi-zatia: “Estatuko Administrazio Orokorren eta gainerako administrazio publikoen organo eskudunekin lankidetzan aritzea terrorismoaren biktimei laguntza eta babesa emateko, eta biktimei babes osoa emango zaiela bermatzeko. Epaitegi eta fiskaltzetan dauden terrorismoaren delituen biktimei laguntzeko bulego guztietara zabalduko da lankidetzara hori”.

terrorismoaren biktimei laguntzeko eta haiek babesteko sistemaren barruan lorpen handiena; baina iritsi da unea aitortzeko gogobetetze-neurrien eremuan zeregin handia dugula oraindik, hausnarketa lasaiagoa eskatzen duela, eta neurriak eta arauak inplementatu behar direla, hain delikatuak eta mingarria den erreparazioaren eremuan indarrean dagoen gailua indartzeko, osatzeko eta zabaltzeko. Behar horrek –eta neurri batean baita gabezia horrek ere– justifikatzen du, beste arrazoi batzuk tarteko, azterketa honetarako hautatu dugun izenburua. Ibilbide luzea ari gara egiten, non lorpen handiak izan diren eta terrorismoaren biktimentzat prestazio ekonomiko garrantzitsuak finkatu diren. Baina bidea egiten jarraitu beharrean gaude, erreparazio ekonomiko hutsa gaitu eta gogobetetze-neurri eraginkorrak lortzera iristeko.

Sintesi-arrazoi zorrotz batengatik bakarrik, ezin ditugu Nazio Batuen Ebazpenean proposatutako neurri guztiak aipatu. Hortaz, horietako batzuk nabarmenduko ditugu, hain zuzen ere, Espainiako legegileak gauzatu dituenak, eta adieraziko dugu, egoki denean, zer lorpen izan dituzten eta zer neurritan izan daitezkeen eraginkor edo hobetu daitezkeen.

Gertaerak **egiaztatzeari eta egia publikoki eta osorik jakiteari** buruz esan behar da egia legearen beraren xedapenak bermatzen eta oinarritzen diren balioetako bat dela adieraztera mugatu dela 29/2011 Legea, baina ez du eskubide hori garatzen duten neurri zehatzen zerrendarik inplementatu. Hain justu, 2. artikuluan aipatzen du egia balio eta helburuen artean: “Lege honek oroimenaren, duintasunaren, justiziaren eta egiaren balioak ditu oinarri. Oroimena, biktimei egin zaien aitorten soziala eta politikoa babesteko, eta hari bizirik eustarazteko. Duintasuna, biktimengan Zuzenbide Estatu demokratikoaren defentsa sinbolizatuz mehatxu terroristari aurre egiteko. Justizia, biktimei kalte-ordaina emateko, babesgabetasun-egoerak saihesteko eta terroristak kondenatzeko. Egia, ekintza-terroristek eragiten duten giza eskubideen urraketa agerian jartzeko. Artikulu horretan bertan zehatzen dira helburuak, eta agertzen da gai horiei buruzko erreferentzia orokor bat a) idatzi-zatian: “terrorismoaren biktimen duintasuna eta oroimena aitortzea eta bultzatzea, eta haiei benetako erreparazioa egitea eta justizia bermatzea”.

Baina aitorten hori neurri edo xedapen zehatzen bidez hezurramitzen ez bada, asko jota, modu orokorrean eta nahiko abstraktuan formulatutako printzipio-adierazpen huts bat baino ez da izango. Gure iritziz, inplementazio bat edo garapen-arau batzuk behar dira, gertaerak egiaztatzeko eta egia publikoki eta osorik jakiteko gaiari zerbait gehitzeko. Legeak adierazten badu bere helburuetako bat dela babes osoa ematea, eta, gainera, bere artikulua asko hainbat babes-maila (soziala, ekonomikoa, hezkuntzako eta abar) arautzera bideratzen baditu, beste hainbeste egin behar luke egia jakiteko eskubidearekin. Ez da nahikoa balio gisa bakarrik aipatzea, artikulatu ere egin behar da arau zehatzetan.

Nazio Batuek aipatzen duten gogobetetzeko neurria “egia publikoki eta osorik ezagutarazteaz”ari da. Egiazki, gure ordenamendu juridikoan artikulazio indartsu baten beharrean dagoen gomendio baten aurrean gaude. Gaur egun, terrorismoaren biktimek zigor-epailetan zehatzen diren gertaeren bidez jakiten dute zer gertatu den. Hala, egile eta konplizeen jazarpenak eta kondenak aurrera egiten duen prozedura penaletan izan dezakete gertatutakoaren kontaketa zehatz samar bat, betiere instrukzioaren eta ahozko epailetaren emaitza frogagarria izan den kontuan hartuta. Dena den, aukera hori ez dute biktime guztiek izaten; ikusi dugunez, era askotako gertakizun prozesal, historiko edo politikoengatik askok zigor-prozedura bat ere ez dute zabalik, ez eta behin betiko epai bat izateko itxaropenik ere. Biktimen talde horrek, gehienez ere, administrazioko ebazpen bat izango du prestazioak jaso ahal izateko (kalte-ordainenak, konpentsatzaileak, kondekorazioenak); hartara, ematen den prestazioaren kausa sortzaile gisa erabiltzen dute gertatutakoa (kasurik gehienetan oso labur idatzia); baina administrazio-egintza hori ez da tresna egokia gertatutakoaren gaineko egia jakiteko, batez ere, ez delako helburu horretarako aurreikusi.

Horrenbestez, biktimen talde horrentzat (zigor-epairik gabekoentzat) eskubide horretara heltzea are urrunagoa eta zailagoa bihurtzen da. Horrek ez du esan nahi egiaren eskubidearekiko egoera hobean daudenik kondena-epai bat dutenak ebazpen judizial bat dutelako. Izan ere, gure ordenamenduan diseinatuta dagoenaren arabera, prozesu penalaren

helburua ez da zer gertatu den argitzea, errudunak zigortzea baizik. Eta, hortaz, prozesu penalean frogatutzat jotzen denak bakarrik ere ez du gogobetetzen eskubide honen edukia.

Bestetik, gure herrialdean dauden terrorismoaren biktimei buruzko titulartasun publikoko fitxategiek administrazio-helburua baino ez dute, eta fitxategi horietara sartzeko ahalmena babestutako datuen titularrek baino ez dute, datuen babesari buruzko legeria organikoak araututakoa betetzeko. Hala, “Asister”⁹⁴ fitxategiaren helburua da kudeatzea “terrorismoak kaltetutako pertsonen buruzko informazioa, Barne Ministerioaren eskumeneko laguntzen eta kalte-ordainen espedienteak izapidetzeko, terrorismoaren biktimei laguntzak emateko legeriaren babesean”. Eta “Ayudasis”⁹⁵ izeneko fitxategiak, berriz, “terrorismo-egintzek kaltetutako pertsonen buruzko informazioa” kudeatzea du helburu, “talde horri laguntza osoa eman ahal izateko, hasiera unean berean eta geroko jarraipen-aldian ere bai”. Bi fitxategi horiek kudeaketa-lanak egiteko baino ez dira. Balio handiko informazio-iturri dira, baina ez dute balio gertaerak egiaztatzeke, eta, are gutxiago, egia publikoki ezagutarazteko. Eta hortik zenbaitetan ikertzaile, zientzialari, kazetari askok eta abar izan dituzten zailtasunak, azterlanak egin nahi izan dituztenean edo fitxategi horietan zegoen informazioa eskuratu nahi izan dutenean.

Justizia Ministerioak «Terrorismoaren Biktimei Laguntzeko Bulego Elektronikoa» sortuta egindako ahalegina ere ez da nahikoa egia jakiteko eskubidea garatzeko. Datu-base horrek prozedura judizialen egoerei buruzko informazio telematikoa ematen du; erabiltzaile-kode bat eta pasahitz bat behar dira horretarako, zeinak pertsonalki entregatzen zaizkion interesdunari kaltetua dela egiaztatu ondoren. Antza denez, prozedura penalik ez dutenek edo administrazio-aitorpena bakarrik dutenek bulego horretara sartzeko sarbide formal bat baino ez dute, eta, beraz, aukera zehatzik ez informazioa eskuratzeko. Kasurik onenean, informazio hori – Bulego hori nola sortu den ikusita– izapidetze prozesalaren egoerari buruzkoa izaten da, ez egia jakiteko eskubideak bere barruan hartzen duen hedadura guztiari buruzkoa.

Azkenik, aipatu behar da 29/2011 Legeak, 57. artikuluan hau xedatu zuela: “Gobernuak eratuko du Terrorismoaren Biktimentzako Estatuko Memoriaren Zentroa; helburu hauek izango ditu: terrorismoaren biktimek irudikatutako balio demokratikoak eta etikoak gordetzea eta zabaltzea, biktimen oroimen kolektiboa eraikitzea eta biztanle guztiek kontzientzia hartzea askatasunaren eta giza-eskubideen defentsan eta terrorismoaren aurka. Terrorismoaren Biktimentzako Estatuko Memoriaren Zentroak Euskal Autonomia Erkidegoan izango du egoitza.” Estatuko Memoriaren Zentro horrek bere gain har zitzakeen, hala egokituz gero, alor hauetako zeregin garrantzitsu asko: egia jakiteko eskubidearen alorrekoak, gertaerak benetan egiaztatzeke tresnak sortzekoak, eta gertatutakoa publikoki ezagutaraztekoak. Zoritxarrez, legearen garapen-erregelamenduak ez zuen horri buruzko ezer arautu. Badirudi zentro horren garapena eta inplementazioa beste arau batera atzeratu dela, zeinak, dudarik gabe, egia jakiteko eskubidea sustatu beharko duen. Batik bat nabarmendu nahi dugu terrorismoaren biktimen oroimen kolektiboa eraikitzeke, bereziki, oroimen hori banaka eraiki dadin egin behar dela lan, atentatuak eta gertaerak argitu eta zehaztuta, oraindik ere ikertu eta egiaztatu gabe baitaude.

Desagertutako pertsonak bilatzeari dagokionez, ez 29/2011 Legeak ez hura garatzen duen Erregelamenduak horri buruzko arau zehatzik ematen ez badute ere, badaukagu erreferentzia zehatz bat Terrorismoaren Biktimei Aitorpena eta Erreparazioa egiteko ekainaren 19ko 4/2008 Legean. Zehazki, 7. artikuluan (Egia) hau xedatzen da: “Euskal Autonomia Erkidegoko botere

94 Terrorismoaren biktimei buruz dagoen fitxategi zaharrena eta garrantzitsuena da. 1998ko uztailaren 17ko Aginduaren bidez sortu zen (BOEren 180.zenbakia, 1998ko uztailaren 29koa), eta 2004ko uztailaren 29ko INT/2662/2004 Aginduak aldatu zuen, (BOEren 189. zenbakia, 2004ko abuztuaren 6koa). Gaur egun, 2011ko maiatzaren 4ko INT/1202/2011 Aginduan dago arautua (BOEren 114. zenbakia, 2011ko maiatzaren 13koa).

95 Terrorismoaren biktimei laguntza osoa emateko beste datu-base garrantzitsu bat da. 2004ko uztailaren 29ko INT/2662/2004 Agindua da haren aurrekari arauemailea (BOEren 189. zenbakia, 2004ko abuztuaren 6koa); 2004ko aginduak sortu zuen «Afectados por el terrorismo» izeneko datu-basea. Gaur egun, 2011ko maiatzaren 4ko INT/1202/2011 Aginduan dago arautua datu base hori (BOEren 114. zenbakia, 2011ko maiatzaren 13koa).

publikoek ekintza terroristetatik eratorzen diren giza eskubideen urraketek buruzko egia eta biktimizazioaren benetako arrazoiak ezagutu daitezzen lagunduko dute, bai eta egia hori jendaurrean aitortu dadin ere, biktimek eta haien familiakoek horretarako duten eskubidea betetzeko”. Horretarako, neurriak hartuko dituzte: (...) b) idatzi-zatia: “Biktimek eta haien familiakoek beren eskubideen defentsarako eta ikerketa historikorako datu edo informazio garrantzitsua dagoen artxibategi ofizialetara jotzeko duten eskubidea bermatzeko eta/edo sustatzeko”, eta c) idatzi-zatia: “Biktimak identifikatzeko, haien nortasuna edo egonlekua ezezagunak direnean, edo heriotza izan bada, lurperatuta dauden tokia ezagutzeko”.

Biktimen **duintasuna, izen ona eta eskubideak berrezartzeko** neurriak buruz, berriz, 29/2011 Legeak 61. artikuluan adierazi zuen Estatuak hartuko duela bere gain biktimen duintasuna eta ohorea defendatzeko zeregina. Hori lortzeko hiru neurri mota ezarri dira: prebentzio-neurriak, debeku-neurriak eta aitorten-neurriak.

Prebentzio-neurrien artean, Estatuak biktimen edo haien senitartekoen izena galtzea, gutxiespena edo umilazioa eragin dezaketen eta jendaurrean egiten den ekintzarik egiten ez uzteko betebeharra du, ez eta terrorismoa goraitzen duenik eta terroristak omentzeko edo haiei publikoki bereizgarriak emateko ekintzarik ere (61.3. artikulua).

Debeku-neurrien artean, berriz, debekatuta dago terrorismoa, terroristak edo erakunde terroristak oroitzeko, goraitzeko edo goresteko monumentu, ezkutu, bereizgarri, plaka eta era guztietako objektu edo aipamenak publikoki egitea edo erakustea (29/2011 Legearen 61.1. artikulua).

Aitorten-neurrien artean, botere publikoei eskatzen zaie neurri aktiboak bultzatzeko terrorismoaren biktimak oroituko direla eta haiei aitortzea egingo zaiela berma dadin, betiere biktimak alaitu gehien errespetatuz eta duinduz, ekitaldi, sinbolo, monumentu edo antzeko elementuen bidez (29/2011 Legearen 56. artikulua). Terrorismoaren biktima izateak ebaluagarria izan behar du, haien lanbide, lan edo bizitokiagatik egokitu ahal zaizkien kondekorazioak eta sariak emateko (29/2011 Legearen 55. artikulua). Era berean, biktimei eragiten dien ekitaldi instituzional guztietan zainduko da terrorismoaren biktimen protokolozko agerpena eta haien aitorten soziala nabarmen dadin (29/2011 Legearen 58. art.).

Legezko aurreikuspen horiek egonagatik ere, Erregelamenduak ez du jaso neurri horiek garatzeko araurik; horrenbestez, 29/2011 Legean egindako aipamen hutsera mugatu dira. Hori izan da terrorismoaren biktimen talde esanguratsuenek salatu izan duten utzikierarik garrantzitsuenaren⁹⁶.

Neurri honi buruz komeni da aipatzea baita ere «duintasuna» nola arautzen duen Terrorismoaren Biktimei Aitortzea eta Erreparazioa egiteko ekainaren 19ko 4/2008 Legearen 4. artikulua:

“Euskal Autonomia Erkidegoko botere publikoek biktimak haien eskubideak errespetatuta tratatu ditzaten zainduko dute. Horretarako:

a) Neurri egokiak hartuko dituzte, beren eskumenen barruan, justizia egitera eta kaltea

⁹⁶ “Erregelamenduak alderdi garrantzitsu asko garatu gabe utzi ditu, hala nola zer jarduerak egin atentatu terroristak bat izan eta berehala. Biktimen duintasuna babesteko eta defendatzeko ekintzarik ere ez du garatu. Eta murriztu egiten ditu talde horrentzat finkatuta zeuden prestazio asko, eta 29/2011 Legean finkatutako eskubide garrantzitsu asko ez ditu garatu. Ikus *Víctimas del terrorismo unidas contra la Ley de Víctimas del Terrorismo y su Reglamento*. Terrorismoaren biktimen 14 taldek izenpetutako komunikatua: Terrorismoaren Biktimen Elkarteak (AVT); Terrorismoaren Biktima diren Estatuako Segurtasun Kidego eta Indarren Elkarteak (ACFSEVT); Ertzain eta Terrorismo Biktimen Senideen Elkarteak (ASERFAVITE); Terrorismoaren Biktimei Laguntzeko Plataforma elkarteak (APAVT); Talde Terroristen Biktimen Kataluniako Elkarteak (ACVOT); Terrorismoaren Biktimen Andaluziako Elkarteak (AAVT); Terrorismoaren Biktimen Extremadurako Elkarteak (AEVT); Terrorismoaren Biktimak laguntzeko eta Giza Eskubideen Aldeko Elkarteak (AAVT eta PDH); Terrorismoaren Biktimen Errioxako Elkarteak (ARVT); Terrorismoaren Biktimen Murtziako Elkarteak (AMUVITE); Terrorismoaren Biktimen Galiziako Elkarteak (AGAVITE); Terrorismoaren Biktimen Valentziako Erkidegoko Elkarteak (AVTCV); Terrorismoaren Biktimen Kanarietako Elkarteak (ACAVITE); M-11ko Biktimen Elkarteak. <http://www.avt.org/comunicados-y-noticias/victimas-del-terrorismo-unidas-contra-la-ley-de-victimas-del-terrorismo-y-su-reglamento/1014>.

erreparatzera bideratutako prozedura judizial eta administratiboek beste prozesu traumatiko batzuk eragin ez ditzaten.

- b) Neurri egokiak hartuko dituzte biktimen eta haien familiakoen segurtasuna, ongizate fisiko eta psikologikoa eta intimitatea bermatzeko, eta, bereziki, jendaurreko zenbait ekitaldi prebenitzeko eta ekiditeko, hala nola, biktimen eta haien familiakoen mespretxua, umilazioa edo izena galtzea dakarten ekitaldiak, terrorismoa gosten dutenak edo terroristei omenaldia egiteko edo jendaurreko sariak emateko antolatzen direnak, eta zehazki aurka egingo diete ezaugarri horiek dituzten pintaketei eta kartelei, eta, hala dagokionean, arau-hauste penala ekar dezaketen ekitaldiak ikertuko dituzte, betiere Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioak, eskubide horren defentsarako, herri-akzioa baliatzeko aukera zabalik utzita.
- c) Hedabideetan biktimen eta haien familiakoen intimitatea eta irudia babes dadin sustatuko dute, haien irudiak modu desegokian eta gehiegikeriaz erabil ez daitezela.
- d) Biktimen eta haien familiakoen eskubideen eta duintasunaren defentsa sustatzeko, informazioaren profesionalak sentsibilizatzeko eta prestatzeko kanpainak bultzatuko dituzte.
- e) Prestakuntza-sistema espezifikoak bultzatuko dituzte biktimei arreta emateko ardura duten pertsonentzat, bereziki Euskal Autonomia Erkidegoko Poliziako kideentzat, Justizia Administrazioentzat, gizarte-zerbitzuetako eta terrorismoaren biktimei arreta eta laguntza ematen dieten kolektiboentzat⁹⁷.

Biktimak oroitzeko eta omentzeko neurriak dira Espainiako ordenamendu juridikoan gehien garatu diren gogobetzeko neurriak. Azterlan honen lehenengo zatian egiaztatu dugu kondekorazioen araubide berezi bat dagoela talde horrentzat. Hain zuzen ere, Terrorismoaren Biktimekiko Elkartasunari buruzko 32/1999 Legeak Terrorismoaren Biktimei Aitorpen Zibila egiteko Errege Agindua sortu zuen, eta horrek ohorezko bi bereizgarri ezarri zituen: Gurutze Handia, hildakoentzat eta Enkomienda, zauritu eta bahituentzat. 2/2012 Legeak, ekainaren 29koak, Barne Ministerioaren esku utzi zuen eskumen hori (Terrorismoaren Biktimak Aitortu eta Osorik Babesteko 29/2011 Legearen 53. eta 54. artikulua aldatzen dira).

Bestalde, 29/2011 Legeak, aitortpenen eta kondekorazioen arloan, irizpide zabal baten alde egin zuen, zabaldu egin baitzuen hildakoen bigarren mailara arteko odolkidetasuneko senitartekoengana eta atentatu terroristetan kalterik gabe ateratako pertsonengana. Baina ohorezko bereizgarriak arautu zituenean, aurretik zeudenetara mugatu zituen, eta, beraz, inkongruentzia bat gertatu zen talde horri kondekorazioak emateko zegoen borondatearen eta lege-testuan agertutakoaren artean. Erregelamenduaren proiektuan gai hori konpontzen saiatu ziren, beste kondekorazio bat sortuta, «intsignia», hain zuzen ere, baina bertan behera geratu zen Estatu Kontseiluak kontrako txostena egin zuelako⁹⁷. Lerro hauek idazten ari garela Gobernuak iragarri du, komunikabideetan iragarri ere, 29/2011 Legea aldatzeko asmoa duela, mehatxatuentzat, onik ateratakoentzat, eta hildakoen senideentzat beste kondekorazio bat sortzeko⁹⁸.

⁹⁷ "Legeak Errege Aginduaren graduak bitan ezarri ditu: Gurutze Handia eta Enkomienda, eta bat edo bestea eskuratzeko zer meritua egin behar diren (52.2. artikulua). Ezin da Erregelamenduz gradu dualtasun hori aldatu, ez eta Errege Aginduan jasotako kideak ere (...). Legeak Errege Aginduko bi graduak ezartzen baditu –horixe egiten du 29/2011 Legearen 52.2. artikulua, eta horixe egin zuen bere garaian Terrorismoaren Biktimekiko Elkartasunari buruzko urriaren 8ko 32/1999 Legearen 4.3. artikulua ere– Erregelamendua ezin dio kontra egin, eta beste gradu bat sortu. Egiazki, kondekorazioak ez daude lege-erreserba material baten mende, baina kasu honetan bai lege-erreserba formal baten mende, graduak lege-mailako arau baten bidez ezarri zirelako. (...) Ondorioz, 70.1. artikulutik kendu egin behar da Terrorismoaren Biktimei Aitorpen Zibila egiteko Errege Aginduan jasotako intsignia. Ohar hori, legezkoa denez, funtsezko izaeraz formulatu da. Ikus Estatu Kontseiluaren 566/2013 Irizpena Terrorismoaren Biktimak Aitortu eta Osorik Babesteko irailaren 22ko 29/2011 Legearen erregelamendua onesten duen Errege Dekretuaren proiektuari buruzkoa (2013ko uztailaren 4koa).

⁹⁸ Terrorismoaren Biktimak Aitortu eta Osorik Babesteko Legearen 52. artikulua aldatzea da kontua, horrek babesten baititu kondekorazioak, eta «ohorezko beste ekintza» bat sartzea, Intsignia mailako kondekorazio bat ematea, zeina mehatxatuei, atentatuetatik onik ateratakoek, hildakoen ezkontide edo bikoteei, gurasoei,

Komenigarria litzateke, halaber, arauketa berriak Erregelamendua aldarrikatu zenean Enkomiendak emateari buruz sortu zen beste egoera ez desiragarri bat ere zuzentzea. Praktika, ordea, izan da, kondekorazioez ari garela, Elkartasun-legea eman zenetik gaur egunera bitarte, zauritu guztiak onartzea, lesio-maila edo haien ondorioen nolakotasuna kontuan hartu gabe. Indarrean dagoen Erregelamenduzko arauketa murriztailea da, mugatu egiten baitu “kalte fisiko edo psikiko iraunkorrak jasan dituztenetara”; atzerapauso bat dela esan nahi du, legegileak zuzentzen ez badu.

Atentatu batzuetako biktimei kondekorazio jakin batzuk emateak eragiten dituen bidegabekeria- eta desberdintasun-egoerak gainditzea ere komeniko litzateke, ez baititu aitorten horiek kondekorazioa jaso dutenen antzeko egoeretan dauden gainerakoengana zabaltzen (esate baterako, 2004ko martxoaren 11n Madrilen izandako atentatueta hildakoei, eta biktimen elkarteei Laneko Merezimenduaren Urrezko Domina emateak sortu zuen horrelako egoera bat⁹⁹).

Alor honetan, 29/2011 Legeak, 60. artikulua bidez, «Terrorismoaren biktimak oroitzeko eta haiei omenaldia egiteko eguna» sortu zuen. Ekainaren 27a hautatu zen urtero terrorismoaren biktimak oroitzeko eta haiei omenaldia egiteko eguntzat. Martxoaren 11n, berriz, Terrorismoaren Biktimen Europako Eguna ospatzen da urtero. Egun horietan, erakunde publikoek terrorismoaren biktimak aitortzeko ekitaldiak bultzatzen dituzte biktimen oroimenari eusteko eta haien mezu etikoa aldarrikatzeko.

Gogobetetzeko beste neurri bat da **izandako urraketak giza eskubideen arauen irakaskuntzan eta maila guztietako material didaktikotan sartzea**. Bi lege-aurreikuspen garrantzitsu nabarmendu behar dira: bat 29/2011 Legearen barruan eta bestea biktimei aitortpena egiteko eta haiek babesteko EAEko Legean.

29/2011 Legeak askatasuna, demokrazia eta bakearen defentsarako hezkuntza-gaiei eskaini zien 59. artikulua. Ezarri zuen, bizikidetzako printzipio demokratikoen barruan, giza eskubideen errespetua eta askatasunaren defentsa bermatzeko, hezkuntza-administrazioek askatasun, demokrazia eta bakerako hezkuntza-plan eta -proiektuak bultzatuko dituztela, eta saiatuko direla terrorismoaren biktimen zuzeneko lekukotasunak ematen.

Artikulu hori Erregelamendu bidez garatzen saiatu ziren; baina Estatu Kontseiluak iritzi hau eman zuen proposatutako adierazpenari buruz:¹⁰⁰ “nabarmen gainditzen du Barne Ministerioak nahitaezko hezkuntzako curriculum edukietan gai bat edo beste bat sartuko dela «bermatzeko» duen eskumena (...). Bestalde, kontuan hartu behar da terrorismoaren biktimak era askotakoak direla eta ez dutela zertan ez adierazi ez partekatu «Espainian terrorismoak izan duen historiaren» kontakizun bakar bat; gainera, proiektuak horixe jotzen du «egiazkotzat». Hartara, terrorismoaren biktimen oroimenak curriculum-edukiekin erlazioa izan badezake ere, haien bakeak eta haien duintasunak hortik apartekoak direla dirudite”. Estatu Kontseiluak ohartarazten du, halaber, hezkuntza-sektoretik apartekoak diren zenbait arauk badutela joera lehen hezkuntzako edo bigarren hezkuntzako curriculumean edukiak inposatzeko arauak emateko, arautzen dena eta etorkizuneko belaunaldietan izan dezakeen eragina nabarmentzeko. Baina “aproposena da hezkuntzako curriculumak hezkuntza-arauen bidez ezartzea, eta ez bestelako legeri baten bidez, oso garrantzitsua izanagatik ere”¹⁰¹.

seme-alabei, aitona-amonei edo anai-arrebei eta bigarren mailara arteko odolkidetasuneko ahaideei emango zaien.

99 301/2005 Errege Dekretua, martxoaren 11koa, Laneko Merezimenduaren Urrezko Domina ematen diena ondoren aipatzen diren erakundeei (biktimen elkarte eta fundazioak). BOE 2005eko martxoaren 12koa, 61. zenbakia.

100 *Terrorismoaren Biktimak Aitortu eta Osorik Babesteko irailaren 22ko 29/2011 Legearen erregelamendua onesten duen Errege Dekretuaren proiektua*. 76. artikulua: Barne Ministerioak eta Hezkuntza, Kultura eta Kiroletako Ministerioak bermatuko dute, nahitaezko hezkuntzaren curriculum-edukian, askatasuna, demokrazia eta bakea defendatzeko hezkuntza-edukiak sartuko direla, terrorismoaren biktimen oroimena, bakea eta duintasuna babesteko, Espainian biktimen ikuspegitik terrorismoak izan duen historiaren benetako kontakizuna transmitituko dela bermatzeko.

101 Ikus Estatu Kontseilua. 566/2013 Irizpena. Terrorismoaren Biktimak Aitortu eta Osorik Babesteko irailaren 22ko

Bestalde, EAEko legearen 9. artikulua (Bakea, askatasuna eta elkarbizitza) hau xedatzen du: “botere publikoek hezkuntza-sistemaren maila guztietan bakearen eta giza eskubideen aldeko heziketa eta balio demokratikoen sustapena bultzatuko dute” (b idatzi-zatia).

VIII- Ez errepikatzeko bermeak

60/147 Ebazpenaren arabera, ez errepikatzeko bermeek neurri hauek guztiak edo parte bat, dagokionaren arabera, bete behar dituzte, eta prebentzioan ere lagundu behar dute: a) Agintaritza zibilek indar armatuak eta segurtasun indarrak modu eraginkorren kontrolatzea; b) Prozedura zibil eta militar guztiak prozesu-, zuzentasun- eta inpartzialtasun-bermei buruzko nazioarteko arauetara egokitzen direla bermatzea; c) Botere judizialaren inpartzialtasuna indartzea; d) Zuzenbidearen, osasunaren, osasun asistentziaren, informazioaren eta horiekin lotutako beste sektore batzuetako profesionalak eta giza eskubideen defendatzaileak babestea; e) Gizarte sektore guztiak hezte, lehentasunez eta etengabe, giza eskubideen eta nazioarteko zuzenbide humanitarioaren alorrean, eta legea betearazteko ardura duten funtzionarioak nahiz indar armatu eta segurtasun indarretakoak alor horretan gaitzea; f) Funtzionario publikoek portaera kodeak eta arau etikoak, bereziki nazioarteko arauak, gorde ditzaten sustatzea, baita segurtasun indarrek, espetxeetako langileek, komunikabideek, medikuntza zerbitzuetako langileek, psikologoek, gizarte-erakundeak eta indar armatutakoak, eta merkataritza-enpresetako langileek ere; g) Gizarte-gatazka prebenitzeko, zaintzeko eta konpontzeko mekanismoak bultzatzea; h) Giza eskubidei buruzko nazioarteko arauen ageriko urraketa edo nazioarteko zuzenbide humanitarioaren urraketa larriak gerta daitezkeen laguntzen duten edo ahalbidetzen duten legeak berrikustea eta aldatzea.

Jakina, ezin ditugu hemen aztertu Nazio Batuen Ebazpenean sartutako ez errepikatzeko berme guztiak. Gogobetetzeko neurrietan gertatu den bezala, bereziki nabarmentzekoak diren zenbaitetan baino ez dugu jarriko arreta. Beste zenbait –nahiz eta garrantzi bera izan (esate baterako, prozedura guztiak bat datozela ekitateari eta inpartzialtasunari buruzko nazioarteko arauarekin, edo botere judizialaren independentzia indartzea)– ezin ditugu hemen garatu, Espainiako ordenamendu juridikoari errebaso zabal bat egitea eskatuko ligukeelako, eta, jakina, azterketa honen asmoak gaindituko lituzkeelako. Horrenbestez, batzuk baino ez ditugu ikusiko.

Ez errepikatzeko bermeen artean daude **gizarte sektore guztiak giza eskubideetan hezte, eta funtzionarioak gai horretan trebatzea**. Gogobetetzeko neurrien artean ikusi ditugu giza eskubideen irakaskuntzarekin erlazionaturakoak. Komeni da aipatzea, beste behin, EAEko legearen 4. artikulua, euskal botere publikoek alor honetan sustatuko dituzten bi neurri zehatz jaso baititu: lehenengoa, d) idatzi-zatia: “Biktimen eta haien familiakoen eskubideen eta duintasunaren defentsa sustatzeko, informazioaren profesionalak sentsibilizatzeko eta prestatzeko kanpainak bultzatuko dituzte”, eta, bigarrena, e) idatzi-zatia: “Prestakuntza-sistema espezifikoak bultzatuko dituzte biktimei arreta emateko ardura duten pertsonentzat, bereziki Euskal Autonomia Erkidegoko Poliziako kideentzat, Justizia Administrazioentzat, gizarte-zerbitzuetako eta terrorismoaren biktimei arreta eta laguntza ematen dieten kolektiboentzat”.

29/2011 Legeak ere ezarri zituen gaitze edo trebatzearen alorreko aurreikuspen bereziak, esaterako, 32. artikulua 2. paragrafoan jasotako hau: “*osasun-arloko profesionalak* sentsibilizatzeko eta prestatzeko programak garatuko dira diagnostikoa, asistentzia koordinatua eta terrorismoaren biktimen errehabilitazioa hobetzeko eta bultzatzeko”, eta 47.2. artikuluan jasotako beste hau: “Eskumena duten administrazio publikoek *informazioaren arloko profesionalak* sentsibilizatzeko eta etengabe prestatzeko kanpainak susta ditzakete”.

Portaera **kodeak eta arau etikoak** behatzeari buruz, komeni da aipatzea 29/2011 Legeak zer arauketa egiten duen terrorismoaren biktimei buruzko informazioari eta komunikabideei

aplikagarri zaizkien printzipioez. Terrorismoari eta horren biktimei buruzko informazioaren tratamendua eremurik astunenetako bat da, aspaldi samarretik, babes-neurriak hartzeko. Gai honek, ordea, ez du konponbide errazik, funtsezko zenbait eskubidek talka egin dezaketelako elkarrekin: ohorerako, intimitaterako eta biktimen eta haien familien irudirako eskubideek (Espainiako Konstituzioaren 18. artikulua) komunikatzeko askatasunerako edo edonolako komunikabideren bitartez egiazko informazioa jasotzeko eskubideekin (Espainiako Konstituzioaren 20. artikulua d) idatzi-zatia) edo pentsamenduak, ideiak, iritziak, ahoz, idatziz edo erreproduzitzeko beste edozein bitartekoren bidez adierazteko eskubidearekin (Espainiako Konstituzioaren 20. artikulua a) idatzi-zatia). Funtsezko arauak agindu horretan araututako askatasunek beren muga, bereziki, ohorerako, intimitaterako eta norberaren irudirako eskubideetan dutela ezartzen badu ere, ez da batere gai baketsua izaten ari, eta, are gutxiago, terrorismoaren alorrean. Atentatuetako irudien erabilerak, nahiz informazio grafikoaren erabilerak bai eta komunikabideek erabili izan duten hiztegiak berak ere eztabaida bat baino gehiago sortu izan dute¹⁰².

29/2011 Legeak 46. artikuluan xedatzen du komunikabideek terrorismoaren biktimen irudia

102 Ikus M-11ko Biktimen Elkartearen Batzorde Kudeatzailearen ordezkari zenaren hitzaldia M-11ko Ikerketa Batzordearen aurrean, Diputatuen Kongresuan, 2004ko abenduaren 15ean: "EZ esaten diogu, halaber, komunikabideek basakeriaren irudiak erabili dituzten moduari. Irudiak informazio-tresna dira, ez dago dudarik, eta iritzi publikoari dei egiteko, hura sentibilizatzeko ahalmena dute, une labur batzuetan testu batean nekez konta daitekeena azaltzeko ahalmena. Baina hau ez da kasua, eta zuek badakizue. Aspaldi bukatu zen martxoaren 11ko irudiak informazio-iturri gisa erabili beharra, jada ez da albiste. Emanaldiak ez dira informazio-beharra-gatik egiten, baizik eta guztia, baita estualdia, beldurra eta giza eromenak berarekin dakarren negar lazgarria ere, ikuskizun bihurtzen duen gizarte-eskariengatik. Egunkari eta prentsa-agentzietako zuzendari jaunak, albistegietako zuzendari jaunak: zilegi bekigu zuen sentibilitatea zalantzan jartzea. Alde batetik, guregana jotzen duzue behin eta berriz gure kalbarioaren berri emateko; zuek zarete " martxoaren hamaika" gehiago ezin dela beste inon gehiagotan gertatu munduari gogorarazteko ardura duzuenak, baina gutaz ahazten zarete merkatuak hots egiten dizuenen. Saldu egin diozue zuen kazetari-kontzientzia audientzien legeari.

Eta nahikoa argi geratu ez bada ere, berritoki adierazi nahi dugu informazio-eskubidearen aurretik dagoela ez dauden intimitatea babesteko eskubidea. Gure oinazearen arrazoia etengabe pizten duten irudiak erakusten ari direnak gaitzetsi egingo ditugu beti. Irudiak erakusten diren bakoitzean atzerapauso bat ematen dugu oinazearekin bizitzeko egin dugun lanean. Irudiak agertzen diren bakoitzean gure oinazea berpiztuko duten bat, bi, hiru astetan murgiltzen gara; nola hil ahal izan ziren irudikatzea da berriz, sufritu zuten edo ez pentsatzea, euren buruei gu haien laguntzeko non ote geunden galdetzeko nahiko denbora bizi izan ote ziren pentsatzea; bi edo hiru aste, irudi horiek haien aurpegiekin parekatzen. Itzuli egiten dira nahasmenaren bizipenak, beldurra, ezintasuna, larritasuna, zaurgarritasuna, ospitaleetarako joan-etorriak... kaosa. Zorionsu gogoratzen ditugu, halaxe izan genituen eta halaxe maite izan genituen, baina zuek, ikuskizunaren izenean, izua egozten tematu zarete, maite izan genituen haien azken oroitzapen gisa edo berriz jaio ginen egunaren oroitzapen tragiko gisa gure gogoan grabatuta geratzea nahi ez dugun irudi haiek behin eta berriro ikusarazten eta gogorarazten tematu zarete. Bizitakoa kontatzeko zoria izan genuenok erruaren zama nozitzen dugu gu izateagatik, eta ez haiek, gaur egun gertatutakoa erretinatik ezabatu ezin dugunak. Edozein egunkari edo programa zipriztintzen duten irudien etengabeko jarioak gairatze-bidearen hasierara itzultzen gaitu behin eta berriz, baina badirudi hori zuei, kazetarioi, ez zaizuela askorik axola. Guk, gure ahalmen moraletik, adierazten, erregutzen, eskatzen, exijitzen dizuegu ikuskizun gisa saltzeari uzteko. (...)

Irudiak ematerakoan izan den zehaztasun moral faltak ez du nonahiko M-11 argitzen laguntzen, ilundu baizik, eta horrek biktimoari ez ezik gizarte osoari ere nahasten dizkio erraiak. Irudiak ikusarazita, beldurak harrapatzen gaitu eta guztiz babesgabe bizi garela sentiarazi, eta horrek, jaun-andreok, oraindik ere sentikorrako bihurtzen gaitu era guztietako manipulazioetarako. Ez esan argi eta behar bezala zehaztuta ez dagoenik. Zalantza izpirik gera ez dadin, berriz errepikatuko dugu: ekintza kolektibo batean hil zituzten haiek, baina ohorerako eta norberaren irudirako eskubidea haiek biziraun ditugunok ordeztzen dugu norberaren banakotasunean. Komunikabideek etika profesionalerik jardun dezaten eskatzen dugu, eta biktimen oroimena desohoratzen den guztietan hor izango gara haienganako iraina kitatzeko. Irudien bereizkuntzarik gabeko erabilerak susmatu ezinezko mailak gairatzen ditu. RENFEren nasetan zeuden zaintza-kameretako irudiak eman dira edo komunikabide idatzietan erabili. Leherketak izan eta berehala konfiskatu zituen irudi horiek poliziak, eta Auzitegi Nazionalaren esku utzita zeuden. Nola filtratu eta iritsi ziren prentsara? Nork baimendu zuen hori? Nork saldu zituen, hala izan bazen? Nolatan eman ziren sumario-sekretupean zeuden irudiak? Eskatzen dugu ikerketa bat egiteko lehenbailehen, Auzitegi Nazionalaren zaintzapean zeuden atentatuetako irudien filtrazioari eta ustezko salmentari buruzko erantzukizunak garbitzeko.

babestu eta zainduko dutela, eta saihestu egingo dituztela irudiaren erabilera desegoki eta neurritz kanpoko guztiak. Era berean, terrorismoaren biktimei buruzko informazioa zabaldu nahi bada, giza eskubideak eta biktimen eta haien familien askatasuna eta duintasuna errespetatuz zabaldu beharko da. Zehazki, arreta berezia jarri beharko da informazioaren tratamendu grafikoan.

Komunikabideei dagokienez, 29/2011 Legeak 47. artikuluan xedatu zuen administrazio publikoek autoerregulazioko akordioak sustatuko dituztela, zeinek prebentziozko kontrol-mekanismoak eta eztabaidak estrajudizialki konpontzeko mekanismoak izango dituzten, publizitateari buruzko legeria betetzen laguntzeko.

Gai handi hori ere ez zuen Erregelamenduak garatu. Baliteke jokoan funtsezko eskubideak dituen gai bat izateagatik beste arau espezifiko edo akordio zehatz batzuk behar izatea (zehazki, komunikabide eta komunikazio-enpresekin egin beharrekoak), eta, horregatik, erregelamenduek eskaintzen dituzten arau-aukerak gainditu izana. Hala eta guztiz ere, ez dakigu 29/2011 Legea aldarrikatu zenetik –gai horiek arautzeko proiekturik edo proposamenik badagoen.

Ez errepikatzen beste bermeetako bat da **gizarte-gatazkak prebenitzeko, behatzeko eta konpontzeko mekanismoak sustatzea**. Aurretik azaldutako gogobetetze-neurrietako zenbait biktimen funtsezko eskubideen urraketak eragin ditzaketen egoerak prebenitzeko eta behatzeko mekanismotzat ere jo daitezke. Horietako bat da, esaterako, debekaturik egotea terrorismoa, terroristak edo erakunde terroristak oroitzeko, goraiatzeko edo goresteko monumentu, ezkutu, bereizgarri, plaka eta era guztietako objektu edo aipamenak publikoki egitea edo erakustea. Edo saihestea biktimen edo haien senitartekoen izena galtzea, gutxiespena edo umilazioa eragin dezaketen eta jendaurrean egiten diren ekintzak, terrorismoa goraiatzen dutenak eta terroristak omentzeko edo haiei publikoki bereizgarriak ematekoak. 29/2011 Legeak ahalmena ematen die administrazio publikoei, haien eskumenen barruan, debeku horiek betetzeko behar dituzten neurriak hartzeko, eta gaitu egiten ditu autonomia erkidegoetako gobernu-ordezkariek toki-erakundeek obligazio hori betetzen duten egiaztatzen, eskumena duten justizia-epaitegietan ofizioz erreklamatu dadin.

Komeni da, garrantzitsua delako eta hedadura handia duelako, Terrorismoaren Biktimei Aitorpena eta Erreparazioa egiteko EAEko Legearen 9. artikulua aipatzea; bakea, askatasuna eta elkarbizitza eskainia da:

9. artikulua. Bakea, askatasuna eta elkarbizitza.

1. Herritarrengan, pertsona talde batengan edo partikularrengan izu-egoera sortzeko asmoz indar ez-legitimo baten erabilera edo mehatxua ezin justifikatuzkoa da edozein egoeratan, edozein izanda ere justifikatu nahi izateko erabil daitezkeen gogoeta politikoak, filosofikoak, ideologikoak, arrazakoak, etnikoak, erlijiosoak edo bestelakoak.
2. Euskal botere publikoek, beren eskumenen eremuan, Zuzenbide Estatu demokratikoan aurreikusitako neurriak hartuko dituzte eta guztiak bideratuko dituzte pertsonen eta taldeen askatasuna, segurtasuna eta berdintasuna eraginkorrak eta benetakoak izan daitezen sustatzeko eta hori eragozten dituzten oztopoak kentzeko.
3. Horretarako, euskal botere publikoek:
 - a) Pertsonak bakean eta askatasunean eta biolentziarik, beldurrik, zapalketarik edo larderiarik gabe bizitzeko eskubidea begiratu dute, gai politikoei buruzko edo bestelako ezadostasunak soil-soilik bitarteko demokratikoak erabilita konpontzen dituztelarik, albo batera utzita indar ez-legitimo baten erabilera edo mehatxua.
 - b) Hezkuntza-sistemaren maila guztietan bakearen eta giza eskubideen aldeko heziketa eta balio demokratikoen sustapena bultzatuko dute.

- c) Gizarte-hedabideek oro har balio demokratikoekin, giza eskubideekin, bakearekin eta askatasunarekin konpromisoa izan dezaten sustatuko dute, eta bermatuko dute horien aurkako adierazpenak ez direla zabalduko euskal Autonomia Erkidegoko hedabide publikoetan, edo bestela gizarte aske eta demokratiko baten balioekin konprometituta dagoen editorialen ikuspuntutik jasoko direla.
 - d) Terrorismoaren deslegitimazio etiko, sozial etapolitikorako neurri aktiboak abiaraziko dituzte, Zuzenbide Estatu demokratikoaren zilegitasuna gizartean sustatuz eta, gure askatasunen eta bakezko elkarbizitzaren berme gisa, elkarbizitza integratzaileko arauetan antolatuz.
4. Balio demokratikoak eta giza eskubideak sustatzeko egoki irizitako ekimenetan, terrorismoaren biktimen lekukotza eta partaidetza kontuan hartuko dira.

IX- Ondorioa

Hemen bukatzen da terrorismoaren biktimak aitortu eta osorik babesteko Espainiako legeetan barrena egindako ibilbide azkar hau, bai eta erreparazioaren arloan Nazio Batuen 60/147 Ebazpenak adierazitako neurriei egindako errepaso ere.

Hasieran esan dugunez, ibilbide luze hau ez da amaierara iritsi. Ertz, dimentsio eta neurri asko dago oraindik garatzeko talde horren alde. 29/2011 Legeak 63. artikuluan –eta Erregelamenduak 66.ean– aurreikusten dute txostenak eta azterketak egingo direla, biktimei laguntzeko jarduera-proposamenak egiteko. Txosten horien bidez nabarmenduko da lege-erreformarik egin behar den, babes-neurriak aplikatuta talde hori guztiz babestuta geratzen dela berma dadin. Txosten horiek Parlamentura bidaliko dira urtero, urteko azken hiruhilekoan. Legezko tresna hori ezin da gutxietsi, eta tresna apropos bihurtzen da beharrezkoak diren lege-aldaketak bultzatzeko. Biktimekiko dugun konpromisoaren eta elkartasunaren parte da kalte-ordainak emateko soilik diren neurrietatik gogobetetzeko maila handiagoetara ahalik eta ondoen igarotzen saiatzea.

Hala idatzi zuen Primo Levik: “ konprenitzea ezinezkoa bada, jakitea ezinbestekoa da”. Espero dut, pixka bat bada ere, orrialde hauek ibilbide luze honi buruz, ibilbide horretan izandako gorabeherei buruz eta helburuei buruz gehixeago jakiteko balioko zutela.

TERRORISMOAREN BIKTIMEN JARDUNBIDE PSIKOLOGIKOA: TRAUMATIK TRAUMA GAINDITZERA

Enrique Echeburúa

1. Sarrera

Terrorismoaren biktima bat da ustezko eragingarri politikoek sortutako jokaera bortitz baten ondorioz ondoez emozional bat sufritzen ari den gizaki bat (ondoez emozional hori, ere berean, pertsona bat galtzeak, kalte fisiko edo psikologiko konponezin batek, mehatxuek edo bere ondasunak erasotzeak eragin dio). Beste era batzuetako biktimen aldean (istripuetako, hondamendi naturaletako, mediku-akatsek eragindako biktimak eta abar), beste pertsona batek nahita egindako kalte batez ari gara. Nahita egite horrek larriagotu egiten du biktimak jasandako kalte psikologikoa, eta haren bizi-kalitatea mugatzen du (Rojas Marcos, 2002).

Funtsean, terrorismoaren hiru biktima mota daude:

- a) Beren borroeroek erantzukizun profesionalarengatik hautatu dituzten biktimak (poliziak, militarrek, epaileak, politikari ez nazionalistak eta abar).
- b) Beren borroeroek erantzukizun moral eta politikoengatik hautatu dituzten biktimak (intelektualak, kazetariak, irakasleak eta abar).
- c) Beren borroeroek nahierara hautatu dituzten biktimak, izua edonorengana irits daitekeela adierazteko.

Atentatu terrorista bat urmael batera bota den harriarekin konpara daiteke. Uhinak sortzen ditu, zeinak biktimei ez ezik haiengandik gertu daudenei ere eragiten dien. Hedatze-uhinak

zirkulu zentrokidetan jarduten du. Biktima zuzenak daude lehenengo zirkuluan; euren bitzta mehatxatuta dutela, lesio fisiko edo psikiko larri baten ondorioak jasanda eta kaltea nahita egin dietela uste dutela geratzen dira. Bigarrenean, berriz, familiarrak daude; maite dituzten pertsonak galtzeari edo haien oinazeari egin behar diote aurre, eta egoera berrira egokitu behar dute. Eta hirugarren zirkulu bat ere badela esaten da; lankideek, bizilagunek edo, oro har, komunitateko kideek osatzen dute; izan ere, izuak jota gera daitezke eta babesik gabe sentitu, etorkizuneko gertaeren aurrean (Echeburúa, 2007).

Lehen mailako biktimizazioak indarkeriazko egintzan du sorburua, beraz, eta, horrekin batera *bigarren mailako* biktimizazioa ere izan daiteke, biktimaren eta sistema juridiko-penal, babes instituzional edo sozial akastun baten artean gerora izan daitekeen erlazioari loturik (kalte-ordain, laguntza psikologiko, seme-alabentzako laguntza psiko-hezkuntzakoak, biktimenganako afruntuak eta abar) . Hau da, tratu txar instituzionalak biktimaren kalte psikologikoa larriagotu dezake, edo ondorio psikopatologikoak kroniko bihurtarazi.

Biktimek biktima izateari uzteko asmoa eduki behar dute. Biktima baten osagai *objektiboa* (jasandako kaltea edo izandako galera), bistakoa denez, betiko da, baina osagai *subjektiboa* (hau da, erreakzio emozional negatiboa) desagertu egin daiteke eta desagertu egin behar da tratamendu psikologiko egoki baten laguntzarekin (beharrezkoa bada), familiaren laguntzarekin eta gizartearen babesarekin. Alde horretatik, biktimen bigarren mailako biktimizazioa saihestea da gaur egun gizarteak duen erantzukizuna, bai eta, neurri egokien bidez, biktimen osagai subjektiboa desagertzen laguntzea ere. Biktimek, berriz, obligazioa dute biktima izatea eta biktimismoa ez nahasteko, ezen biktima izateak eragiten dien degradazio moralaz aparte, zaildu egiten baitie psikologikoki osatzea, eta galarazi ohiko bizimodura pixkanaka itzultzea, eta horrela ezin dute beren bizimodua berreraiki eta bizi-proiektu aberasgarrietan inplikatu (Baca eta Cabanas, 2003).

2. Atentatu terrorista baten biktimek izaten dituzten ondorio psikologikoak

Ekintza terroristek izua eta babesgabetasuna sortzen dute biktimarengan, arriskuan jartzen dute haren segurtasun fisikoa edo psikologikoa, bere segurtasun-sentimendua eteten dutelako, eta halako egoera emozionalean uzten dute, ezen ezinezko gerta baitakioke bere ohiko baliabide psikologikoekin errealitateari aurre egitea.

Berehalako erreakzioez haratago –egonezin emozionala, isolamendua, jateko gogoia galtzea, insomnia eta abar–, zeinak aste gutxitara desagertzen diren, biktimek antsietate-eta depresio-sintomak izan ditzakete, bai eta autoestimu galera, eta gainerako pertsonetikoa eta bere etorkizuneko bizimodua bideratzeko baliabide propioekiko halako mesfidantza bat ere. Izaten diren erru-sentimenduak sortzen dira biktimak gertatutakoa, nahiz eta horrela ez izan, berak egindako akatsei leporatzen dielako, jokabide egokiak izan ez dituelako (adibidez, beste biktima batzuei behar beste ez laguntzea) bai eta hainbeste ezbeharren artetik bizirik atera delako ere (*bizirik atera denaren errua*). Nor bere burua errudun jotzeak kalte handia egin diezaioke pazienteen autoestimuari, eta zaildu egin dezake gerora emozionalki berregokitzea (Echeburúa, 2004).

Epe ertain eta luzera, berriz, kasu guztietan ez bada ere, jokaeraren nahasmendu batzuk sor daitezke, hala nola suminkortasuna, jarrera biktimistak, pasibotasuna eta abar, baita barnerakoitasuna eta sorgortze afektiborako joera ere, eta horrek, jakina, familia-harremanak okertu ditzake. Suminkortasuna eguneroko ezustekoek (seme-alabekin arazoak, agintarizetatik babes nahikorik ez jasotzea, gizartearen onarpenik ez izatea eta abar) sortzen duten frustrazioa jasateko gaitasun gutxi izateagatik sortzen da. Erreakzio oldarkorrak eragin ditzake, normalean, senitartekoei zuzendutakoak (horiek baitira gertuen daudenak eta jasateko gaitasun handiagoa dute) edo beren buruei, bestela (suizidio-asmoa, alkohol gehiegi edatea edo jokaera arriskutsuak ere izatea) (Baca eta Cabanas, 2003).

Zeharkako biktimgan ere ebaluatu behar dira egintza terrorista baten ondorio emozionalak; atentatuak zuzenean ukitu ez baditu ere haren ondorioak jasaten dituzten biktimez ari gara. Esate baterako, ekintza terrorista batean aita hil eta bat-batean beste bizimodu batera egokitu behar duten bikotearen edo seme-alaben kasuaz ari gara da.

Kalte psikologikoaz ari garenean, alde batetik, indarkeriazko delitu batek eragindako *lesio psikiko* akutuez ari gara –kasu batzuetan, gutxitu egiten dira denboraren poderioz, gizartearen laguntzari esker edo tratamendu psikologiko egoki bati esker– eta, bestetik, *ondorio emozional*ez; horiek, berriz, modu kronikoan irauten dute pertsona batzuegan, nozitutako gertaeraren ondorioz, eta oztopatu egiten dute haien eguneroko bizimodua (Esbec, 2000) (1. taula).

Indarkeriazko delituen biktimek jasaten duten kalte psikikoa

(Esbec, 2000, aldatua)

- Sentimendu negatiboak: umiliazioa, lotsa, kulpa edo amorrua.
- Antsietatea.
- Traumaz etengabe kezkatuta egotea, eta gertaera behin eta berriz bizitzeko joera izatea.
- Depresioa.
- Etengabe norbere buruarenganako konfiantza galtzea, bizi dituen babesgabetasun- eta etsipen-sentimenduen ondorioz.
- Autoestimua gutxitzea.
- Lehen atsegin zituen jardueretarako interesa eta kontzentrazioa galtzea.
- Balio-sisteman aldaketak egitea, bereziki besteenganako konfiantzan eta mundu justu bat badela sinestean.
- Etsaitasuna, oldarkortasuna, alkohol eta droga gehiegi kontsumitzea.
- Harremanak aldatzea (mendekotasun emozionala, isolamendua).
- Zaurgarritasuna areagotzea, mundu arriskutsu batean bizitzeko beldurra izanik, eta norbere bizitzaren gaineko kontrola galtzea.
- Bizi-estiloan goitik beherako aldaketa egitea, eta ohiko lekuetara joateko beldurra izatea; etxebizitzaz aldatzeko premia larria izatea.
- Loaren erritmoa eta edukia aldatzea.
- Sexu-disfuntzioa.

Eragindako kaltea handiagoa izan ohi da bigarren mailako biktimizazio bat baldin badago (sistema judizialak behar bezala ez jokatzea, edo instituzioen edo gizartearen babes falta izatea), eta indarkeriazko gertaeraren ondorioak asko baldin badira, esaterako, ondorio fisikoak utzi dituen atentatu bat izan eta pertsona batek bere aurreko lana edo zaletasunak utzi behar izan baditu, edo bahiketa bat izan eta biktimaren familiak erreskate handi bat ordaindu behar izan badu (Echeburúa, Corral eta Amor, 2002).

Objektiboki, biktima bat beti izango da biktima. Baina osagai subjektiboari dagokionez (ondoez emozionala) –horixe da psikologikoki adierazgarriena– biktimek ahalik eta lasterren utzi behar diote biktima izateari, depresiboak edo kardiopatak depresibo edo kardiopata izateari utzi behar dion bezala. Kaltegarria da biktima izate hori betikotzea, dolua luzatzen duelako, eta galarazten haren bizitzako beste kapitulu bati hasiera ematea.

Alde horretatik, zenbait sentimendu irrazional gainditu behar dituzte biktimek, hala nola etsaiak sortzea edo biktima gisa betikotzea. Pertsona bati biktima gisa enkistatzeak eragozpen handia dakarkio; ahuldu egiten du eta iragan mingarri horretan geldiarazten du, eta beldurraren, ezinikusiaren eta kontu-garbitzeen mende mantentzen du. Azken finean, kontua da biktima, berriz ere, *bizitzen hastea eta ez soilik bizirautea* etsitzea (cfr. Baca eta Cabanas, 2003).

3. Noiz behar da tratamendu psikologikoa?

gertakari dramatikoek gainditu egiten dute maiz pertsona batek izan dezakeen erantzuteko gaitasuna, eta eguneroko egoerei aurre egin ezinik geratzen da. Ohiko emozio negatiboen agerpenak, hala nola gorrotoak, erresuminak edo mendeku-egarriak, oraindik ere gehiago nahasi dezakete panorama. Horren guztiaren ondorioz, pertsona, egoera berrira egokitu ezinik, babesgabe senti daiteke, etorkizunerako itxaropena gal dezake eta paralizatuta gera daiteke ekimen berriei ekiteko, eta, azken finean, bere bizimodua behar bezala gobernatzeko (Navarrete, 1998).

Baina badaude atentatu bat izan eta tratamendu psikologikorik edo farmakologikorik behar izaten ez duten pertsonak. Trauma gainditzeko laguntzen dute, askotan, aurretik pertsonak duen oreka psikologikoak, denbora pasatzeak, eguneroko bizitzaren eskakizunei jarri zaien arretak eta familiaren eta gizartearen babesak. Modu horretan, pertsona horiek, nahiz eta gorabehera emozionalak eta oroitzapen mingarriak izan, gai dira lan egiteko, beste batzuekin erlazionatzeko, eguneroko bizitzaz gozatzeko eta proiektu berrietan sartzeko.

Aldiz, beste zenbait harrapatuta geratzen dira bizitako gertaera horretan, ez dituzte loarekin eta jateko gogoarekin erlazionatutako konstante biologikoak berreskuratzen, oinazetuta bizi dira etengabeko sufrimenduan, beren emozioak eta pentsamenduak kontrolatzeko zailtasunak izaten dituzte, isolatu egiten dira gizartetik eta eguneroko bizimoduaren eskakizunei aurre egiteko ez dira gai sentitzen, eta askotan jokabide kaltegarriak izaten dituzte (gehiegi edan, behar dena baino gehiago edo gutxiago jan, automedikatu eta abar). Pertsona horiek behar izaten dute, hain zuzen ere, laguntza psikologikoa, baita, zenbait kasutan, farmakologikoa ere, traumak gainezka egin diela sentitzen dutelako (Echeburúa eta Corral, 2005).

Laguntza hori behar izaten duten pertsonen artean nabarmentzekoak dira: aurrekari psikopatologikoak dituztenak, atentatu terrorista baten ondorio larriak jasan dituztenak, bakarrik sentitzen direnak, beren kargura seme-alaba txikiak dituztenak, baldintza ekonomiko eskasean geratzen direnak edo egoera irregular edo ezegonkor batean dauden immigranteak (Echeburúa, Corral eta Amor, 2005).

4. Tratamenduaren faseak

a) Berehalako krisi-egoeran esku hartzea.

Gertaera traumatikoaren osteko egunetan biktimek esku-hartze psikologiko goiztiarra jaso dezakete; biktimen arretarako bulegoek eskaini ohi dute. Alderdi hauei jarri behar zaie arreta: a) balioetsi behar dira zer kalte psikologiko jasan duen, trauma zer aldagaik ahalbidetzen duten (aurrez bultzatzen duten faktorerik baden, trauma sorraraz dezaketenik eta trauma iraunaraz dezaketenik), estresari aurre egiteko zer maila duen eta hura gainditzeko estrategiak badituen; b) krisi-egoeran hartu behar da esku, berehala ager daitezkeen sintomei aurre egin ahal izateko, eta higiene-neurri psikologikoak ezarri behar dira, jatorduak eta loa erregulatuta, eguneroko bizimoduko ohiturak berreskuratuta eta lagunekin eta senitartekoekin izandako sentimenduak elkarri adierazita; c) trauma osteko estresaren asaldura-sintomak kroniko bihurtzeko arrisku handiagoa duen biktimak programa terapeutiko espezializatuagoetara bideratu behar dira, hala nola osasun mentaleko zentroek eskaintzen dituzten programetara.

Horrela, kasu askotan, prebenitu egin daiteke asaldura psikologikoak agertzea edo kroniko bihurtzea (Robles eta Medina, 2003).

b) Geroko tratamendu psikologikoa.

Berehalako laguntzaren ostean, gertaera traumatiko baten biktima denak laguntza terapeutikoa bilatu beharko du, bakarrik, erreakzio psikologiko asaldatzailerek 4-6 aste baino gehiago irauten badute, eguneroko funtzionamenduan (familia, lana edo eskola) interferentzia negatibo larri bat badu edo norberaren pentsamenduek, sentimenduek edo portaerek pertsona gainditzen badute (Pérez, García eta Sainz, 2002).

Terapia komeni zaiola adierazten duen beste azterna bat da biktimak traumari buruz beste inorekin hitz egin nahi ez izatea, eta gizarte-babesik ez izatea, bai biktima bera isolatu delako (gertaera traumatikoari buruz hitz egiteak eragiten dion sufrimendua saihesteko, gainerako pertsonak bere arazoekin ez gogaitzeko, biktimaren gogo-aldarteak lur jota dagoelako eta abar), bai bere inguruko pertsonak saihestu egiten dutelako. Kasu horietan, emozionalki (harreman intimoak) eta sozialki (gizarte-babeseko sarea) isolatzeko arriskua du.

Baina, baliteke terapia behar duten askok laguntza profesionala bilatu nahi ez izatea. Nolabait esatearren, tratamendu bat behar izateak kaltetuari nolabaiteko *ahulezia* pertsonala duela onartzea suposatzen diolako. Normaltasunean bizitzetik gertaera traumatiko baten biktima izatera dagoen bat-bateko aldaketak zaildu egin diezaioke biktima bati, paradoxikoki, laguntza terapeutikoa bilatzea, neurri batean, norberak egoera zail batzuk gainditzeko gaitasunik ez duela onartzea esan nahi duelako (Baca eta Cabanas, 2003).

5. Nolakoa behar du izan tratamenduak?

Zenbait ezaugarri bete behar ditu terrorismoaren biktimen eremuko tratamendu psikologikoak (Echeburúa, Corral eta Amor, 2004, 2005):

a) Berehalakoa izan behar du.

Tratamendua ahalik eta lasterren jarri behar da abian terapia-beharra dutenentzat. Tratamendu goiztiar batek galarazi egiten du sintomak kroniko bihurtzea, eta bidea zabaltzen dio biktimari eguneroko bizimodura itzultzeko.

b) Denboran jarraipena izan behar du, eta pertsona berberarekin egin behar da.

Tratamendu egituratu bat terapeuta berberak egin behar du, eta periodikotasun jakin bat eduki behar du, esaterako, astean bisita-erregimen jakin bat. Bete ez da terapia luze bat beharko, baina bai etengabea. Era berean, pazienteak enpatia emozionala sentitu behar du terapeutarekin, eta horrek eskatzen du segidako harreman bat izatea.

Tratamendu konbinatu bat bada (psikologikoa eta farmakologikoa) koordinatu egin behar dira *profesionalak* (Sánchez, 2000).

c) Denbora-muga bat jarri behar zaio.

Tratamenduek hasiera bat eta bukaera bat eduki behar dute, helburu terapeutiko batzuk kontuan hartuta, eta ebidentzian oinarritutako psikologia klinikotik eratorritako teknika terapeutiko batzuk aplikatu behar dira (Labrador, Echeburúa eta Becoña, 2000).

Beharrezkoa den malgutasuna kontuan hartuta, eta pertsona guztiak berdinak ez direla aintzat hartuta, tratamendu batek 3-6 hilabete irauten du, edo urtebete ere bai. Denbora hori baino gehiago irautea, kasu berezietan izan ezik, kaltegarria izan daiteke pazientearentzat, biktima gisa betikotzeko joera izaten delako eta terapeutarekiko mendekotasun emozionala sortzeko arriskua izaten delako (ondorio iatrogenikoak), eta hori helburu terapeutikoen kontrakoa da.

6. Biktima suspertzea errazten duten jokabideak eta eragozten duten emozioak

badaude zenbait emozio gertaera bat berrizetik oroitzera igarotzea errazten dutenak, eta beste batzuk, ordea, bide hori eragozten dutenak. Hala, adibidez, erasotzailea barkatzea biktimaren eskuzabaltasun-egintza bat da, eta zorra borondatez kitatzen dela esan nahi du. Barkatzea ez da ahaztea, eta, are gutxiago, bestearen jokabidea edo jarrera onartzea. Oinazetik askatzea da, batez ere. Barkamena aitortzea errazagoa da ofentsatzaileak damu dela agertzen badu, eta sortutako kaltearengatik benetan barkamena eskatzen badu. Barkatzea da jakinaren gainean egonik zauria ixten laguntzea, eta ez gezurretan ixtea, eta gero orbain horrekin bizitzen ikastea. Ezerk ezin du iragana aldatu, baina bai barkamenak etorkizuna aldatu. Amorrurik gabeko oroimenak, mendeku-grinarik gabekoak, argia ematen dio etorkizunari (Beristáin, 2004; Kalayjian eta Paloutzian, 2009).

Esperientzia berrietan eta proiektu itxaropentsuetan inplikatzeko (hau da, oraina eta geroa diseinatzen) oroitzapen mingarriak ahazten laguntzen du, esperientzia berriek zaharrak ahultzen dituztelako. Ez da *ahazte pasibo edo amnesiko bat*, baizik eta *ahazte aktibo bat*, zorra ahazten duena baina ez gertatutakoa, eta mendekua harrotu ordez egoera hura lurperatzen duena, gertatu zela espresuki aitortuta. Horregatik, gauza bat da oroitzeko, eta beste bat, oso bestelakoa, samintasunaren erresuminean bizitzea. Ahanzturari esker –eta ahaztu dela ahazteari esker– posible da norberaren nortasunaren aurkako mehatxu eta eraso asko aintzat ez hartzea (Villa, 2004).

Aitzitik, zenbait emozio biktimak suspertzeko prozesua zailtzen dute. Gizakiaren bihotzak badu mendekurako joera natural bat, irainduta eta umiliatuta sentitzen bada, eta oroimenean oinarritua dago (jasandako eraso edo afruntua oroitzean, hain zuzen). Biktima orok, biktima izate hutsagatik, mendeku-grina izaten du, eta ezin du hori sentitzea saihestu. Biktima bati ez zaio galarazi behar mendeku-grina adieraztea. Mendeku-sentimenduak hain dira psikologikoki beharrezkoak nola sozialki onartezinak. Mendekua zibilizaziotik kanpo utzita dago, baina ez biktimen bihotzetik baztertuta.

Azken finean, gorrotoa edo mendekua egokitze-mekanismo negatiboak dira; batez ere, hasierako erreakzioaren ondorio ez badira, eta denboran irauten badute. Suge baten hozkadak ez du hiltzen, barruan uzten duen pozoiak (gorrotoa), ordea, bai. Gorrotoa sentitzen oso garaiz ikasten da, eta transmititu egin daiteke baita belaunaldiz belaunaldi ere. Are gehiago, gorrotoak eta mendekuak osatzen duten zirkulu gaiztoak odol-mendekua eragin dezakete, zeina belaunaldiz belaunaldi transmiti daitekeen, ijito edo landa herrietako familietan gertatu izan den bezala.

Mendeku-grinari uko egitea ezin saihestuzko gizarte-obligazio bat da gizarte zibilizatu batean, baina gizarteak mendeku-grina psikologikoki beharrezkoa dela ukatzea beste eraso bat da. Ez dago biktimarik mendeku zuzenaren behar psikologikoaren eta justiziara etsitzeko gizarte-aginduaren arteko gatazkagatik guztiz saminduta gelditzen ez denik (Mullet, 2012; Worthington, 2005).

7. Barkamenak biktimengan duen funtzio psikologikoa

barkamena eta hortik etor daitekeen adiskidetzeko talde-bizitzako eta, oro har, gizarte-bizitzako funtsezko osagaiak dira. Ezin dugu aldatu bizitzan gertatu zaiguna, baina bai gertakari horiekiko dugun ikuspegia eta jarrera, gertakarien esanahia era positiboagoan berrinterpretatzeko.

Baina gertatu zaigunaren errua besteei egozten badiegu eta gure sufrimenduaren erantzule egiten baditugu, erresuminaren atzaparretan erortzeko arriskua dugu. Gorrotoa

eta erresumina, berez, giza ekintzarako motore dira, baina ondorio suntsizailea dute, ezen galarazi egiten baitiote biktimari proiektu positiboetan inplikatzeko. Erasotzailearenganako gorroto enkistatuak (ezinikusiak) arreta ahitzen du, iraganera lotzen gaitu, zauria ixtea galarazten du, eta, azkenik, bizitzeko poztasuna eragozten du. Gorrotoa sentimendu negatibo bat da, eta sentitzen duenari bakarrik egiten dio min, norberaren kontra egiten du eta errua eta automatespretxua ere sorraraz ditzake. Ezinikusi hori ordea, ez da ofentsatzaileengana iritsi ere egiten. Gorrotoa da gorrotatutako pertsonarekin ezin dela ezer egin samintasunez onartzea. Mespretxuak mina arintzen du sarritan, baina ez du kontsolatzen. Erresuminean geratzeak bizitzarekiko atsekabea sortzen du, bizitza pertsonala pobretzen du, eta, zenbaitetan, aurretik dauden depresio- eta antsietate-sintomak areagotzen ditu.

Aldiz, barkamenak ondorio psikologiko positiboak izan ditzake: nahigabetuta ez bizitzea, iraganeko kateak haustea, osasuna hobetzea (esate baterako, hobeto lo egitea, lasaiago egotea, botika gutxiago hartzea), nor bere buruarekin adiskidetzea eta barne-bakea berreskuratzea. Hein batean, barkatzea ez da inori mesede egitea, norberari egitea baizik. Askatzearen sinonimo da barkatzea. Barkatzen duen pertsonak bestearekiko duen erresumina gutxitzen zaiola sentitzen du. Hala, ofentsatzailearekiko dituen portaerak ez dira hain negatiboak izango, eta jarrerak ere ez hain hotzak eta oldarkorrak. Barkamenik gabe ez dago ez orainik ez etorkizunik, iraina kitatzea eskatzen duen iragana soilik, zeinak erresumina eta barruan gordetako amorrua sortzen dituen. Horrela, ezinikusia alde batera uzteak laguntzen du jasanezina izan daitekeen zamatik libratzen. Amorrurik gabeko oroimenak, mendeku irrikarik gabekoak, ireki ez, itxi egiten ditu zauriak.

Gainera, barkamena bi norako dituen bide bat da: norbait barkatzen dugun guztietan geure burua ere barkatzen dugu. Besteekin tolerante bagara, errazago onartuko ditugu geure hutsegiteak ere.

Maila filogenetikokan, gizakiak barkatzeko duen joera ezaugarri genetiko bat da, zeina hautespen naturalaren eboluzio-indarrak errazten duen; izan ere, iraganarekin adiskidetzeko, beren onera etortzeko eta irauteko aukera ematen die gure espezieko kideei (Enright eta Fitzgibbons, 2000).

8. Konklusioak

Gizarteak biktimen beharrei jarri behar die arreta: egiari, justiziarri eta erreparazioari. Ez dago gerorik iraganik gabe, ez eta etorkizuneko baliozko proiekturik biktimekin gertatutakoaren oroimen historikorik gabe. Ahazteak ez du adiskidetzea esan nahi, ez eta oroimenak, halabeharrez, mendekua ere. Bizikidetzat ez da iraganarekiko amnesia, baizik eta iraganaren irakurketa kritikoa egitea. *Oroimenaren eginbeharra* dugu. Aristotelesek *Etika Nikomakorentzat* liburuan esaten zuenez, oroimenaren eginbeharra da injustizia bat jasan duen pertsonari oroitzen bitartez justizia egitea. Biktimek erreparazio moral bat jaso behar dute, eta bidezko kalte-ordain ekonomiko bat lortu. Baina garrantzitsuena da pertsona laido tuaren duintasuna eta oroimena berrezartzea.

Pertsonak ez dira haien oroitzen eskuetan dauden txotxongiloak, eta emozionalki oroitzen modulatzen ikasi behar dute. Bizipen dramatiko jasanezinek tiranizatu egin dezakete pertsona bat, baina eramateko moduko oroitzen mingarri ere bihur daitezke bizipen horiek, haren biografiaren parte direla, eta oraingo eta etorkizuneko eguneroko bizimodua negatiboki oztopatu gabe. Hau da, *iragan traumatiko* bat *iragan biografiko* bihurtzea da kontua, biktimek denboraren tunelean harrapatuta gera ez daitezela (Echeburúa, 2004).

Barkatzea izan daiteke gizakiak iragana aldatzeko duen aukera bakarra, dagoeneko aldaezina den gertaera bat eraldatzeko. Barkamenaren indarrak gertatutakoaren atzeraezintasuna hausten laguntzen du, eta hondakinekin eraikin berri bat jasotzen (Beristáin, 2004; Echeburúa, 2004).

Hala ere, laidoak delitu baten izaera estaltzen duenean, Zuzenbide Estatuak mendekua lapurtzen dio ofendituari eta sistema judizialak hartzen du bere gain (kastigua eta zigorra).

Estatuak era zentzuzkoagoan eta objektiboagoan ezartzen eta gauzatzen du zigorra zuzenean delitua jasan dutenek egingo luketena baino. Horrek ez du esan nahi mendeku-sentimenduak ezabatzen direnik. Mendeku-grinari uko egitea ezin saihestuzko gizarte-obligazio bat da, baina gizarteak mendeku-grina psikologikoki beharrezkoa dela ukatzea beste eraso bat da. Ez dago biktimarik mendeku zuzenaren behar psikologikoaren eta justiziara etsitzeko gizarte-agindua arteko gatazkagatik guztiz saminduta gelditzen ez denik.

Azken finean, trauma bat gaindituko da pertsona gai bada, nahiz eta minduta egon, gertaera traumatikoa iraganeko zerbait bezala bere historia pertsonalaren barruan integratzeko, emozio negatibo gehiegi izan gabe (hala nola gorrotoa, amorrua edo ezintasuna), gai bada egunerokotasunean normaltasunez bizitzeko eta trauma gainditzeko estrategia positiboak erabiltzen baditu (Trujillo, 2002).

Laburtuz, trauma gainditzeak segida berezi bat jarraitzen du. Hain zuzen ere, lehenengo urratsa da zerbait galdu dela onartzea. Oinazea eta pena partekatzea da dolua gainditzeko egin behar den bigarren urratsa. Hirugarrena, berriz, familia-sistema berrantolatzea, egoera berria onartuta. Eta laugarren urratsa, harreman eta helburu berriak izatea norberaren bizitzan; ez da beti erraza izaten, hildakoarenganako izaten den leialtasun-sentimenduagatik eta beste zerbait galtzeko izaten den beldurragatik. Zenbaitetan, etsipenak, erlijio-kontsolamenduak, eta beste pertsona kuttun batzuen (senitartekoak, lagunak eta abar) babes emozionalak suspertze-prozesua bizkortzen laguntzen dute (Echeburúa eta Corral, 2008).

Ez da biktimen egitekoa, biktima gisa, ez legegintza-politikan, ez politika kriminalean ez espetxe-politikan parte hartzea. Baina biktimek gertatu zenaren oroimen-testigantza emateko betebeharrak morala dute, berriz ere gerta ez dadin. Horregatik, aurrera egin behar dugu iraganeko zauriak senda daitezzen, justizia gehiagoren, egia gehiagoren eta erreparazio gehiagoren bidez. Ezin dugu biktimen oroimena zikindu; izan ere, haiek eman behar dute terrorismoaren deslegitimazio sozialaren, moralaren eta politikoaren fede, eta aktan jaso behar dute inoren hilketaren justifikaziorik ez dela izan, ez dagoela eta ez dela izango. Terroristen birgizarteratzea beti izan behar da banakoa eta ez kolektiboa, aktiboa eta ez pasiboa edo inposatua, eta erasotzaileak berak egindako kaltea onartzea izan behar du ezinbesteko osagai. Birgizarteratzeko helburuak zenbait betebeharrak ere baditu. Justiziak ezartzen ditu, eta espetxetik irtendakoan, esaterako, biktimari kalte-ordaina ematea eta, hala badagokio, harengandik urrun mantentzea izan daitezke.

Erreferentzia bibliografikoak

Baca, E. eta Cabanas, M.L. (Arg.) (2003). *Las víctimas de la violencia. Estudios psicopatológicos*. Madrid. Triacastela.

Beristáin, A. (2004). Las víctimas y el perdón...: hacia la superación del trauma. In E. Echeburúa, *Superar un trauma. Tratamiento de las víctimas de sucesos violentos* (191-199 or.). Madrid. Pirámide.

Echeburúa, E. (2004). *Superar un trauma. Tratamiento de las víctimas de delitos violentos*. Madrid. Pirámide.

Echeburúa, E. eta Corral, P. (2005). Tratamiento psicológico del trastorno de estrés postraumático en una víctima de terrorismo. In J.P. Espada, J. Olivares eta F.X. Méndez (Arg.). *Terapia psicológica: casos prácticos* (159-178 or.). Madrid. Pirámide.

Echeburúa, E., Corral, P.J. eta Amor, P.J. (2002). Evaluación del daño psicológico en las víctimas de delitos violentos. *Psicothema*, 14 (gehig.), 139-146.

- Echeburúa, E., Corral, P.J. eta Amor, P.J. (2004). Nuevos enfoques terapéuticos del trastorno de estrés postraumático en las víctimas de terrorismo. *Clínica y Salud, 15*, 273-292.
- Echeburúa, E., Corral, P.J. eta Amor, P.J. (2005). Terrorismo y trastorno de estrés postraumático: psicopatología y tratamiento. In A. Blanco, R. del Águila eta J.M. Sabucedo (Arg.). *Madrid 11-M. Un análisis del mal y sus consecuencias (257-279 or.)*. Madrid. Trotta.
- Echeburúa, E. (2007). Víctimas del terrorismo: del trauma a la superación. In C. Cuesta eta R. Alonso (Arg.). *Las víctimas del terrorismo en el discurso político (197-212 or.)*. Madrid. Dílex.
- Echeburúa, E. eta Corral, P. (2008). Superación del duelo en víctimas de delitos violentos. In L. Nomen (Arg.). *Tratando el proceso de duelo y de morir (239-254 or.)*. Madrid. Pirámide.
- Enright, R.D. eta Fitzgibbons, R.P. (2000). *Helping clients forgive: An empirical guide for resolving anger and restoring hope*. Washington. APA.
- Esbec, E. (2000). Evaluación psicológica de la víctima. In E. Esbec eta G. Gómez-Jarabo. *Psicología forense y tratamiento jurídico-legal de la discapacidad*. Madrid. Edisófer.
- Kalayjian, A. eta Paloutzian, R.F. (2009). *Forgiveness and reconciliation: Psychological pathways for conflict transformation and peace building*. New York. Springer.
- Mullet, E. (2012). Perdón y terapia. In F.J. Labrador eta M. Crespo (Arg.), *Psicología clínica basada en la evidencia (137-152 or.)*. Madrid. Pirámide.
- Navarrete, M. (1998). Trastorno de estrés postraumático en las víctimas de terrorismo en España. *Revista Española de Psiquiatría Forense, Psicología Forense y Criminología, 5*, 29-34.
- Pérez, K., García, L. eta Sainz, A. (2002). *Guía de atención psicológica a las víctimas del terrorismo. Manual de autoayuda psicológica*. Bilbao. Giza-duintasunaren Defentsarako Elkarte.
- Robles, J.I. eta Medina, J.L. (2003). *Intervención psicológica en las catástrofes*. Madrid. Síntesis.
- Rojas Marcos, L. (2002). *Más allá del 11 de septiembre. La superación del trauma*. Madrid. Espasa Calpe.
- Sánchez, A. (2000). Tratamientos psiquiátricos de las víctimas del terrorismo. *Archivos de Psiquiatría, 63*, 297-309.
- Trujillo, M. (2002). *Psicología para después de una crisis*. Madrid. Aguilar.
- Villa, I. (2004). *Saber que se puede. Recuerdos y reflexiones de una víctima de terrorismo*. Barcelona. Martínez Roca.
- Worthington, E.L. (Arg.) (2005). *Handbook of forgiveness*. Nueva York. Routledge.

